

PAULO IZTUETA ARMENDARIZ

ORIXE SAI OGILEA



© Paulo Iztueta Armendariz
© Utriusque Vasconiae
Lehen argitaraldia: Donostia, 2003ko martxoa
ISBN: 84-932654-5-4
Lege-gordailua:
Diseinua eta maketazioa: P.I.A.

UTRIUSQUE VASCONIAE - Ategorrieta Hiribidea, 3-3.
20013 Donostia. Tel.: 943-270433

Banatzaila: BITARTE - 31195 Berriozar (Nafarroa)
Tel.: 948-302239

PAULO IZTUETA ARMENDARIZ

ORIXE SAIOGILEA

Utriusque Vasconiae

AURKIBIDEA

SARRERA	9
LEHEN ZATIA; EUSKAL FILOLOGIAREN INGURUAN	13
I. GOGOETA SOZIOLINGUISTIKOAK	15
Lehentasunak euskalgintzan	17
Kultura landurako zein euskara-mota?	25
Purismoa	25
Erdarakada estilistikoa	26
Atzerriko hizkuntzalariak eta apologistak	28
II. EUSKARAREN GAITASUNA DELA ETA, UNAMUNORI ERANTZUTEN ..	31
III. EUSKARAREN ZAIN FILOSOFIKOA	45
Euskal aditzaz	46
Metafisikaz	54
IV. EUSKAL GRAMATIKAZ ZERBAIT	59
Atzizki-sistema	60
Hitz-elkarketa	63
”Haren/bere”arazoa	68
V. EUSKAL FONETIKA	75
Musika eta azentua	82
Metodo esperimentalaren sorrera euskal fonetikan	89
Euskal azentuaren sistematizazioa	97
VI. EUSKARAREN BATASUNA	109

BIGARREN ZATIA: ETNOGRAFIAREN ETA SOZIOLOGIAREN ARTEAN	123
VII. EUSKAL FOLKLOREA	125
Dantzak	126
Musika	132
Kirolak	133
Herri-festak eta usadioak	136
Sanjoanak	136
Sanmigelak	137
Euskal bizimodua	138
VIII. BASERRITARREN EGOERA PENOSOA	145
HIRUGARREN ZATIA: ESTETIKA ETA LITERATURAREN GAINEAN	151
IX. LITERATURA EPIKOAREN LEHENTASUNA	153
X. EUSKAL METRIKAREN GAINEAN	157
Silaba-kopuru berekoak	169
Silaba-kopuru desberdinekoak	171
Zortzikoak	173
XI. PENTSAMENDU FILOSOFIKOA	177
Ikuspegi eklektikoa	177
Azterbide eskolastikoa	183
XII ESTETIKA KLASIKOAREN OINARRIAK	187
Ederra mugatzen	188
Artearen helburua	189
Errepaso historikoa	189
Artearen autonomia auzitan	192
XIII ARTEAREN AURPEGIAK	199
Edertasun korporala	202
Edertasun morala	204
Ederra eta ona	206
Ederra eta maitasuna	208
Moralak eta hezkuntza	209
Edertasun intelektuala	212
Edertasun absolutua	216
XIV. ARGIALDIA: EDERGINTZAREN PROZESUA	219
Buru-lana	219

Barne-mina	220
Erdi-beharra	221
XV. ORIXE NIRE BEGIAN	225
Kantuz gozatzeko prosista eta poeta	225
Klasizista eta kontserbadorea	227
LAUGARREN ZATIA: MISTIKAREN BARANOAN	229
XVI. JAINKOAREKIN HIZKETAN	231
Sarrerako argibideak	231
Otoitz-eskolak	236
Hurbilketa historikoa	237
Jainkoaganako bi bide: ageri dena eta ez dena	239
Kristo batasun-bide bakarra	240
San Inazioaren espiritualitatea: Karmeldar eskolaren sintesia	241
Tokia gertatzea	242
Oroimenaren ekina	244
Adimenaren ekina	245
Berrizkoa, gain-begiratu eta zentzuak ekartzea	245
Nahimenaren ekina	246
Sentikortasuna	246
Ukitua eta belarria espiritu-zentzuetan	247
San Inazio Loiolakoaren ispiritualitate-iturriez ohar batzuk	250
Azken iritzia	251
AIPU-ITURRIAK	253

SARRERA

Zertara natorren berriro Orixerengana? Batzuentzat zaharrak ber-
rritzera, seguru asko; beste batzuentzat –gazteentzat, batez ere–, gure
klasiko baten pentsamendu-leihoak zabaltzera.

Orixez, egia esan, dezente idatzi da, baina ez dakigu idatzitakoak
aski indarrrik izan duen irakurleak beregana ditzan. Batzuek, ez hain
gazteek, berrikitan aurkitu dute Orixeko poeta bere handitasun guztian.
Poztekoa dena, noski.

Zilegi ote da Orixeko saiogileaz mintzatzea? Bere garaiko euskal
intelektualak zein mailatakoak ziren ikusita –orokorrean diot hau–,
bere oinarri akademikoak pedagogia jesuitikoan zituen Orixek merezi
ote du euskal pentsalarien komunitatean aintzat hartua izatea?

Ni baiezkotan nago. Gaur egun, bere idazlan gehienek edukia eza-
guna zaigun neurrian, esan dezakegula uste dut, literato huts-hutsa ez
ezik, saiogile bizi eta prestua ere izan zela, hartaz eta honetaz jarduten,
agian, luarik argi eta jantzienetako bat, bere garaian. Modernotasu-
nari sistemaz uko egin zion autore klasikoa izateak ez luke aski arrazoi
izan behar haren jakite-maila besterik gabe deskalifikatua izan dadin.

Liburu honetan, haren ekarria gaika sailkatuta ematen saiatu na-
tzaizu. Bukaeraraino irakurtzeko pazientzia baduzu, ohartuko zara
Orixeko idazlea, literato petoia izateaz gain, pentsalari ausarta ere izan zela,
inoren morroi izan gabe bereari eusten mutila.

Landutako gaien artean, euskal linguistikarena da, zalantzarik ga-
be, zabalena. Guztira, handi eta txiki, 186 titulu ditu. Bada zerbait.
Horien artean bi saio ere baditu: *El acento vasco* (1963), Martin Oiar-
tzabalekin batera argitaratua, eta *Composición gramatical griego-vasca*
(1971). Baliteke kritikak gehien astindu duen saila ere horixe izatea.

Kritikari berea emanez, ez da zalantzarik, hala ere, Orixek asko zekiela euskarari buruz eta oso barrutik ezagutzen zuela.

Orixe ez zen, noski, euskal etnografian aditua bere garaiko ofizio-koak izan zitezkeen moduan, baina, gai batzuetan –dantzari buruzkoan, adibidez–, ezagutza sakonak zituen. Nekazal gizarteko herri-ohiturak –haurtzaro eta gaztaroan bizi izan zituenak, batez ere–, inori ez bezala zitzaizkion ezagunak. *Euskaldunak* poema ez zen hutsetik egina izan, aurre-jakintza aberats baten argitan baizik.

Literaturaz ideia oso finkoak eta eginak zituen autorea dugu Orixe. Inoren gustukoak ala ez, desagokiak ala ez, Orixek ez dio sekula uko egingo bere gustu estetikoari. Hain da kontsekuentea bere irizpide estetikoekin, ezen beti eredu jakin batzuen arabera antolatuko baititu bere literatur piezak.

Haren sorkuntzaz iritzirik eman aurretik, jakin behar da sorkuntzaren prozesua zein eskemaren argitan gogo ematen zuen, bestela ez baititugu zuzen ulertuko darabiltzan literatur baliabideak. Bestalde, Orixeren eskutik goazela, gerraurrean indarrean zeuden korronte desberdinen ikuspegi orokorra emateko moduan gaudela uste dut, haren protagonismoak beste aktoreak jokoan jartzen baititu.

Orixeren literatur pentsamendua bere osotasunean ezagutzeko, 1924-1935eko epealdia ezinbesteko erreferentzia dugu, orduan sistematizatu baitzituen estetikari buruzko bere ideia nagusiak. Batera hartu behar dira *Euzkadi* egunkariko artikuluko solteak eta *Euzko-Gogoa*-n argitaratutako lan sistematikoagoak. Azken hauek Jokin Zaitegik Guatemalan argitaratu bazizkion ere 1950eko lehen urteetan, gerraurrean jadanik landu eta idatzita zeuzkan gehienak. Zaitegiri 1934ko uztailaren 7ko gutunean jakinarazten dionez, ordurako landuak zeuzkan estetikari buruzko atal-pare bat edo beste. «On eta eder» izeneko lehen artikulua, hain zuzen, *El Día*-koekin hala hitz emana zegoelako, egunkari horretara bidali zuen, baina ez hor, baizik *Yakintza*-n argitaratu zioten handik hamaika hilabetera. Horrelako zapokeriarik gertatu izan ez balitz, seguru asko gerraurrean argitaratuko zen Orixeren *Eстетика* saioa. Estetika diogu, gure aldetik ezer asmatu gabe, egileak berak izenburu hori ezarri baitzion hasieran bertan.

Azterketaren bidea markatuko duen beste zerbait ere esan behar da. Hemen gehienbat eztabaidatzen dena, haren literaturari buruzko ikuspegia da. Baina nola berak espezifikoki literaturari dagokiona estetikaren eremuan kokatzen duen eta berori, aldi berean, pentsamendu filosofiko-teologikoan, azken zimentarri honetatik abiatzea dagokit.

Orixe izan, gizon erlijiosoa zen, errotik sinestuna. Beste gai profano guztien gainetik, teologia zeukan jakinkizun nagusitzat. Ondu zituena saio mardulenak ere mistikari buruzkoak ditu, hala nola, *Quito'n arrebarekin* eta *Jainkoaren billa* euskaraz eta *El Trato con Dios* gaztelaniaz. Orixe poetari indarririk gehien ez ote datorkio bere bizipen erlijiosotik?

Lerro hauek Orixeren pentsamendua bere osotasunean hobeto ezagutzeko baliagarri gertatzen badira, konplitutzat eman dezaket neure egitekoa.

Paulo Iztueta Armendariz

LEHEN ZATIA
EUSKAL FILOLOGIAREN INGURUAN

LEHEN ATALA

GOGOETA SOZIOLINGUISTIKOAK

Atal honetatik hasten natzaizu, euskararen hil-bizikoa baitizu bere gogoeten eskuetatik ezin kendu duen harri bitxia, preziorik ez duena.

Orixe euskara zaindu eta lantzerá daraman arrazoi nagusia, hain zuzen ere, beronek bizi duen egoera larria da. Euzko Pizkundearen aurreko garaian bezala, orain ere euskaltzale gartsuenen artean pesimismo-giroa nagusitzen ari dela dio Orixe “La vida de nuestro idioma” artikuluan: “A pesar de todo, notamos que nos invade nueva ola de pesimismo, tan abrumadora como la inmediatamente anterior al renacimiento. Los más entusiastas y esperanzados de entonces se expresan ya con la tristeza amarga de quien ve la irremediable pérdida de lo mejor que le quedaba”.

Profezia asko dira eginak, euskarari urte gutxiren bizia emanez. Gure hizkuntza oso ondo ezagutzen zuen atzerritar batek –Orixe ez dakar horren izenik–, Gipuzkoa herriz herri zeharkatu zuen 1922an eta, euskara kanpo-eraginén kariáz nolako asimilazio-prozesua jasaten ari zen ikusita, hamar urteko bizi-esperantza eman zion. Non desagertuko euskara, eta errotuena zegoen Gipuzkoan. Orixe berak, *Erizkizundi Hirukoitza*-ko inkesta-lanetan ari zela, Bizkaia osoa alderik alde pasatu zigun eta honek, Arratia bailararekin salbuespena eginez, hogeí urteko bizialdiaren kalkulua egin zuen. Atzerritar bisitari hark Gipuzkoari baino hamar urte gehiago bota zizkion Orixe Bizkaiari. Dezente lehenago ere, mutikotan Uitziko eskolan zebilela, entzuna zuen maisu ez batere euskaltzale baten ahotik euskara hogeí urte baino lehen desagertuko zela.

Nolanahi ere, denborak erakutsi bezala, euskararen heriotza hur-bila iragartzen zuten profeziak oro hutsalak gertatu dira. Honek, or-

dea, ez du esan nahi euskarak egoera larria bizi ez duenik, zeren, kanpotik datorkion eraso asimilazionistaren ondorioz, gero eta jende gutxiago mintzatzen baita euskaraz. Horregatik, arriskugarri da gerora nondik joko duen auresatea: “La vida artificial, sostenida por agentes externos, está muy cerca de la muerte. Nuestro enfermo sigue viviendo, y tan aventurado es predecir su restablecimiento como su ruina”.

Euskararen etorkizunaz kezkatuta egoteko arrazoiak badauden arren, ez da etsi behar haren alde jokatzeko, askok uste zutenaren kontra, oraindik ere bizirik baitirau. Zergatik dirauen? Orixek, arrazoi esplikagarrien bila joanda, erantzuna euskaldunak tradizioari dion atxikimenduan idoro uste du. Hurrengo urtean egindako “Las clases vascas de la Diputación” artikuluan, ordea, zerbait mirakulutsu iruditzen zaio euskararen iraupena: “Muchas veces lo hemos meditado, y desde muchos puntos de vista hemos mirado, pero cada vez nos parece menos explicable, más milagroso”.

Herri batek bere hizkuntza galdu eta beste bat hartzen duenean, haren izateko era aldatu egiten dela esan izan da. Baieztapen honi bere balioa batera kendu gabe, ez du uste hori erabat zehatza denik zentzu heretsian hitz eginda. Hizkuntzaz aldatzean, berea galdu duen herriak aztura moralaz aldatzen du, zeren hizkuntza, zehazki hitz eginda, ez baita aztura bat besterik. Eta aztura morala, jakina denez, egintza-errepikapenen bidez lortzen da: txarrerako erraz eta onerako, nekez. Hizkuntzaz aldatzea aski zaila da, aztura moralaz aldatzea suposatzen baitu. Horregatik esaten zuen Orixek, euskara bizi bada, tradizioan irmoki errotua dagoelako bizi dela, ohiturak aldatzen asko kostatzen delako. Izan ere, hizkuntza ez da galtzen kolpean, besterik gabe, une historiko batean hitz egiteari utzi zaiolako; aitzitik, galtzen da pixkanaka-pixkanaka, denboran zehar, baztertuz etorri delako: “El hábito de ella (lengua) se va perdiendo, no ya si no se la ejercita, sino también cuando se la ejercita menos”.

Orixek, euskararen gizarte-egoera zein den azaltzeko orduan, ez du egiten gaur egun soziolinguistikaren sailean lantzen den ikerketa-modukorik ezer. Aurreratzen ditu, hala ere, oraindik orain baliagarri diren oinarrizko elementu batzuk. Jakin badaki gizartearen hizkuntzen arteko gatazka dagoela eta hizkuntza bat baino gehiago mintzatzen den komunitate batean, elebitasunaren oreka nagusitzen den hizkuntzak apurtzen duela. Hizkuntza erasotzaile hori da, asimilazio-prozesuaren bidez, egoera diglosikoa sortzen duena eta lekuko hizkuntzaren mailaz mailako heriotza dakarrena: “Esos grados los va determinando en una lengua invadida, la lengua invasora. Mientras las dos van en un

mismo plano, no hay cuidado de que ninguna pierda. Pero una vez llegado el límite en ese plano de igualdad, la invadida empeora de condición, aun dado que se la hablara materialmente por mitades. De ahí en adelante, el plano en que va ella es muy inclinado, y no basta un esfuerzo ordinario para nivelarlo”. Aitzolek “La lucha de idiomas en Euzkadi y en Europa” artikuluan dakartzan “bilingüismo superpuesto” eta “bilingüismo diglósico” kontzeptuen edukia argi asko deskribatua dator aipu horretan, noiz eta, hamar urte lehenago.

Egoera diglosiko honetan, ama-hizkuntza etxeko gauzetarako erabiltzen da eta gizarte-bizitzarako, berriz, hizkuntza ofiziala, eskolan ikasitakoa. Egoera diglosiko hau bizi duen euskalduna izendatzeko, “semilingüe” hitza darabil; Aitzolek geroago “monoglotismo erdérico castellano” deituko dio.

Diglosi egoera honetan aurrerago eginda, jabetzen da barne-sentimendurik muinena ukitzen duen fenomenoaren ematen dela, zeina baita estatu-mailan ezarria den hizkuntza ofizialak herri menperatuaren hizkuntza nazionalarekiko mesprezua erakusten duela. Honela, Frantziako Parlamentuan, diputatu batek “patois” deitzen dio Alsazian hitz egiten den alemanari eta Orixeri, “El sentimiento del idioma” artikuluan aditzera ematen duenez, guztiz txundigarri egiten zaio gaitzizen hori: “El que hiere, motejándolo, hace obra de desunión entre los diversos pueblos que se rigen por las leyes de un Estado”. Horregatik, txundigarri ez ezik, iraingarri ere egiten zaio, zeren norberaren hizkuntzarekiko sentimendua norberak oso barruan daraman zerbait baita, arras delikatua, aberri, tribu edo arrazaren sentimenduari datzekion sentimendua bera baino lehenagokoa. Norberaren hizkuntza errespetatzeari dagokionez, elebidunak jarreraz zabalagoak agertzen dira elebakarrak baino. Elebidunek besteen hizkuntzekiko erakusten duten portaera adeitsu hau, Orixek “El sentimiento del idioma” artikuluan dakarrenez, hezkuntzari zor diote: “Somos más transigentes con la lengua ajena, porque nos han hecho advertir muchas veces,hiriéndonos en lo vivo, que para cada uno su lengua es la natural; para mí, la mía, y para él, la suya”.

Lehentasunak euskalgintzan

Baina euskara dagoen egoeran egonda, zer egin behar da, beste albo-hizkuntzen pare, bere estatus normalizatua lor dezan?

Beste ezer baino lehenago, oker-pausorik ez emateko, zer den garrantzitsua eta zer premiazkoa jakin behar da, zeren bi gauza garrantzitsuren artean bata bestea baino premiazkoagoa izan baitaiteke. Orixeek, “Lo importante y lo urgente” artikuluan, bi mailok kontuan hartu beharrekoak ikusten ditu euskararen normalizazio-bidean, bakoitza bere zeregin bereziarekin.

Premiazkoaren mailan, lehen egitekoa euskarari eustea da eta, horretarako, herri-propaganda egitea. Helburu horretara zuzenduta daude hain emaitza positiboak eman dituzten Euskara-Egunak eta herri-jaiak. Herri-lana deitzen dion egiteko honetan ezartzen du berak lehentasuna “Erriari begire” artikuluan: “Geroz lenbailengo lana erri-lana da; euskera da. Ondorengoai utzi nai diegu ilburuko edo testamentua. Ondorengo oriek euskera galtzen ba dute ¿nola artuko dute ezpaitiegu besteren izkuntza utzi nai? Jabegairik gabe gelditzekoak gara”. Eta hizkuntz testamentu honen hartzaileak, batik bat, haurrak izaki, hauen gan txertatu behar da zaletasuna. Guri dagokigu haienezako pizgarriak bilatzea, euskaraz egin dezaten. Bestalde, euskarak duen oztoporik handiena beraren errentagarritasunik eza dela uste baitu Orixeek, dirurik ez dakarrela, alegia, aterabidetzat euskaraz mintzo denari dirua ematea proposatzen du: “¿Zer du euskerak oztoporik eta zoztorrik makurrena? –‘Euskera ¿zertako da? Euskerak ez dakar dirurik’– Emaiozun bada dirua euskeraz mintzo denari: eztugu beste alderdirik. ¿Dirurik eztugula? ¿Alako ta olako Lagungoak urtero ta illero eragiltzen dutena aurtxoan saritako balego! Badire Euskalerrian, batez ere goitik, illero millaka laurlekoak txautzen dituztenak. Errekara ixurtzen den diru ori eman bekio euskeraz ikasi duen aurrari ta agindu bekio ikasiko due-nari, ta euskera biztuko da”. Dagoen diruaz ondo baliatzea eskatzen du. Eta artikuluko bukaeran, bi proposamen zehatz egiten ditu: jende xehearentzako irakurgai errazak egitea herri-euskaraz eta haur euskaldunen eguna edo horrelako zerbait sortzea. Inoiz esan izan da, Iparraldeko idazleen euskara populista zela bide, 1950eko hamarkada inguruan sortu zen eztabaidan, Orixeek ez zuela aintzakotzat hartzen haien herri-prosa sotila. Baina arazo honek ez dauka zerikusirik hemen ari garen puntu honekin, zeren gauza segurua baita berak ez zituela ahaztu ez haurren eta ez herri xehearen erabilera, ezago euskararen alde egindako herri-ekintzak oro. Alderantziz, testuotan ikusi bezala, herri-mailako euskararen erabilerrari ematen dio, hain zuzen, lehentasuna. Euskara maila honetan lekutzea da premiazkoena. Bego hau garbi.

Idazleek zein euskara-mota landu beharko luketen? Hau besterik da, segidan ikusiko duguna.

Garrantzizkoaren mailan, garrantzizkoena euskara kultur hizkuntza bihurtzea da. Lehen esan dugu: premiazkoena euskarari eustea da, baina ez premiazko bakarra. Eta euskara normalizatu eta modernizatzeke, kultur tresna bilakatu beste erremediorik ez dagoela aldarrikatzean, gezurra badirudi ere, garai hartan asmo arras iraultzaileak kale-ratzen zituen, euskaltzale gehienak herri-euskara egitera buru-belarri irauliak baitzeuden nola aldizkarietan hala liburuetan. Unamunoren erronka ez zen entzun zaharra Bilboko Arriaga antzokian. Orixek gai honi Durangon 1922an emandako hitzaldietan eman zion aurpegi eta harrezkero beste inor gutxik hartu zuen seriotan egiteko hori. Horregatik dio orain, bost urte geroago, euskara aurrera ateratzeko, ez bakarrik herri-ekintza, kultur ekintza ere behar-beharrezkoa dela. Biok, intentsitate berberekin ez bada ere, batera bideratu behar dira: “Está fuera de duda que el principio de la tendencia popular y el de la extensión de nuestra lengua al plano de la cultura son dos principios igualmente importantes. Es asimismo indiscutible la necesidad de practicarlos simultáneamente, y no, sin embargo, con la misma intensidad. Los populares extremistas, que decían o decíamos que lo único importante era la propaganda popular, hemos caído ya en la cuenta de que ella sola no nos basta ni como medida provisional. Hemos llegado a confesar, que si bien el euskera no morirá por los que le siguen hablando, no vivirá tampoco por ellos con la vida pujante que es conveniente a toda lengua”. Baieztapen beretsua dakar geroxeago beste esaldi honetan ere: “Acaso confundamos lo importante con lo urgente. Lo más urgente, no lo único que urge, es ya en opinión de todos la conservación del idioma en el pueblo. Que si de él se va, todo esfuerzo cultural es vano. Pero también es precisa, en menor escala gradualmente, la acción cultural, que cuanto más antigua más ordenadamente se infiltra”. Ez maila berean, ez intentsitate berean, baina beharrezkoa da kultura. Klasikoa bada, hobe.

Euskara kultur bide bihurtzeko zeregin honetan, “Su cultivo literario y científico” artikuluan dakarrenez, berriro beste bi mailok bereizten ditu: literatur eremua eta zientziarena. Eta hemen ere lehentasuna literaturari aitortzen dio: “Esto aparte de que la cultura científica no reside en ‘millones’ ni millares de individuos de la nación más civilizada. La cultura lingüística más importante es la literaria, porque es la que entra más en el pueblo, no ya como literatura popular en el sen-

tido más restringido de la palabra, sino en el más amplio de ella, hasta tocar los límites de cierta literatura puramente erudita, que no es la más alta ni la más universal. Con esto queremos decir que, hoy por hoy, la importancia que debemos dar al cultivo de nuestro idioma en el ramo de las ciencias no es más que secundaria”. Esan ere esaten du zergatik den bigarren mailako zeregina hizkuntza tekniko-zientifikoa-ren lanketa. Bi arrazoi bederen aipatzen ditu: lehenengoa da hizkuntzak oro, terminologia zientifikoari dagokionez, antzekoak direla eta euskarak ez lukeela zailtasun handirik izango hizkuntza mota horretara moldatzeko; bigarrena da, azken batean, hizkuntza zientifikoa gutxiengo bati dagokiona dela. Hitzez hitz esanda: “Gañera, goi-jakintza ori, lagun gutxiren burutan egotea aski da, ta ezta berez askotara zabaltzen. Goi-jakintza orretatik zer asko ezta ixurtzen errira, eta ixuriko dentxoia lurrean geldiaraztekotan, lurra geldi ta tinko egon bear du, ez ondatzear”. Beste nonbait arazo honetara itzuliko naizen promesarekin, pasadizoan haxe esan nahi nioke 1927ko Orixerri belarri ondora: bere arrazoi horiek kontsideragarriak bezain eztabaidagarriak iruditzen zaizkidala. Berrito itzuliko nauzu puntu honetara.

Lehen lana, premiakoena, herriak –herri xeheak, alegia–, euskaraz mintzatzea dela esan da. Bego. Eta herri horren gutxiengoa osatzen duen zientzialarien komunitate horrek, zer? Horrek ez al du landu behar berari dagokion hizkuntza espezifikoa? Arazo hau ere orduantxe harrotu zuen, 1927an hain zuzen, *Euzkadi* egunkariko euskal atalean. Hor Txadon-Zaya idazleak, Bilboko egunkari horren jokabidea nabarmenduz, euskal jakintsuak salatzen zituen beren artean erdaraz egiten zutelako. Orixek, Txadon-Zayaren enbidoa hartu eta, hamar gehiagorekin erantzuten dio. Baina goazen poliki haren arrazoiketari mailaz maila segituz.

Lehenik, printzipioen mailan, erabat ados dator Txadon-Zayaren iritziarekin, fermuki esatean, naiz eta egunkari horretan egunero euskaraz egiteko oztopo batzuk egon eta hizkuntza teknikoa gutxiengo batentzat izan, lehen orrialdeko irakurgai nagusia bederen euskaraz idatzi beharko litzatekeela: “Geroz ‘euskerai dugunero’ beintzat, euskeraz idatzi bear ginuke lenbiziko orrialdeko irakurgai buruena. Astean bein bederik, edo ‘euskerai dugun aldiero’ eska dezagun aurrera Egunari onen zerrendarik garaiena”. Berak bere luma eskaintzen du lan honetarako: “Ni gai nago, ikasi ditudan gaietaz mordollogo badere mintzatzeko”. Bigarrenik, goi-kultura lantzeko orduan, bere eguneroko bizitzan euskaraz mintzatzeko ez den baina bere diziplinako

gaiak euskaraz idazten dituen euskal jakintsuak gehiago egiten du euskaraz zientifikoaren alde, euskaraz mintzatu bai baina erdaraz idazten duenak baino. Biak batera egiten dituen, hura da jarraibide, noski. Baina, arrazoi bategatik edo besteagatik, eremu zientifikoan euskara mintzatua nahiz idatzizkoa, biak bereizgabeki, erabil ezin ditzakeenaren kasuan, idatzizko erabilera garrantzintsuagoa da ahozkoa baino euskararen sustapenerako. Puntu honi buruz oso iritzi egina dauka Orixek: “Lo primero que hay que pedir a los hombres de ciencia es que exploren ese terreno con el idioma escrito. Esto sí que hay derecho a exigirselo, antes que la conversación desembarazada. El médico, el abogado, el científico vasco que no procure por escrito amoldar a sus conocimientos el euskera, no cumple con su lengua. Se le podrá dispensar una conversación no sostenida; pero no un esfuerzo de pluma que haya dejado de hacer. Ya dijimos en otra ocasión que más hace el vasco que dejando circunstancialmente de hablar su lengua la da extensión en sus escritos, que el que hablándola toda su vida no la ha añadido ni un adarme de cultura”. Hirugarrenik, erabilera zientifikoan testu idatzia lehenesteko ematen duen arrazoia da, elkarrizketa batean, euskal jakintsua ez dela bere gaiak euskaraz adierazteko gauza. Idazteko gauza ez bada, ezago mintzatzeko. Horregatik esango du aurreko iturri berean: “Lo primero que hay que pedir a los hombres de la ciencia es que exploren ese terreno con el idioma escrito”.

Niri, goiko testu horiek irakurtzean, aita Olabideren irudia jaio zait instantean eta pentsatu dut hain hurbilekoa zuen aita jesuita hura eta beronen antzekoak zeuzkala gogoan bere iritzi trinko hori plaza-ratzean. Zerbait gehiago ere esango nuke, ausartegi izatea ez bada bederen: Orixeren baieztapen horretan bere jokabide pertsonala ere nolabait islaturik aurkitzen dela. Lekuko batek baino gehiagok esana da, lagunarteko solasaldietan eta, euskaraz baldar samar moldatzen zela eta erdarara lerratzeko joera handia zuela. Arestian aipatutako pasarteak aztertu ondoren, pentsatzen dut badagoela halako logika moduko bat haren ikusmoldearen eta haren jokabidearen artean. Antza, ez zion Orixek horrelako garrantzi berezirik ematen eguneroko bizimoduan euskara erabiltzeari. Zenbaitek zorrozki salatu izan du haren jokabide hau. Txillardegirena duzu 1972ko urriaren 1eko *Zeruko Argia*-n argitaraturako aipu luze hau, argigarria delako bere osotasunean transkribatzen dudana: “Operatu berria zan Orixek Donostian, Ategorrietako klinika batean; eta ikustamen bat egitera joan gintzaizkion nere emaztea eta biok. Sartu gera, agurtu dugu eta... noski, guk euskeraz. Orixek

behin eta berriz erderaz erantzun! Ezin sinistuzkoa! Lotsaturik eta amorraturik (adin-diferentzia, klinika-giroa eta eriaeren maisutasuna gogoan hartu besterik ez ditu irakurleak) halako batez, eta odola zira-kidala, hau esan nion: ‘Adi zazu, Orixe: euskeraz ere badakigu’. Orixe ez zuen nere ziria ulertu ere egin; eta ez zuen ezer funtsezkorik erantzun. Eta ikustaldia bukatu arte emazteak eta nik biok euskeraz, eta Orixe ekin eta ekin erdera hutsez! Gela hartatik zer umoretan eta iriztitan irten ginan azaldu beharrik ez dago, nik uste. Oso gertaera xumea izanagatik ere, susmo berberak idaroki zizkidan Leitzeko pasadizu txiki batek. 1957ko abendua zan, eta Leitzera bilduak ginan euskaltzaleok: euskaltzain egiten zuten Orixe egun hartan. Honen euskal hitzaldia hasi da. Aretoa gainezka, eta zarata han eta hemen. Atzekaldetik ezin entzun, itxuraz. ‘¿Qué? ¿No se oye ahí atrás?’, Orixe goratik galde... Entzule guziok, esan beharrik ez, euskaldunak, euskaltzaleak (gure artean ipartar euskaldun talde bat, Labeguérie-rekin etorria, esate baterako); eta Orixe Euskaltzaindira sarrerakoan, Leitzen, ez Tudelan. Holakorik? Txundituta ni, zurtuta; eta ni bezela beste anitz, denak agian. Geroztik Euskaltzaindiko bileretara etorri ohi zan (ez denetara). Asko eta askotan, biltzar aurrean eta ondoan, Orixe barra-barra entzun izan dut erderaz; eta euskeraz oso bakanka”.

Herri-euskara eta zientifikoa, biak batera, landu behar direla esanda, ez dago dena konponduta. Izan ere, “Mentalidad arcaica” artikuluan dakarrenez, funtsezkoena erabakitzeke geratzen da, euskara adierazpen zientifikorako gai den ala ez jakitea, alegia: “Se ha hablado con insistencia de la mentalidad arcaica de nuestra gramática, según dicen, que es incapaz para las grandes concepciones, inadaptable al pensamiento moderno”. Unamunok eta beste batzuek –baina, batez ere, hark–, askotan planteatutako galdera hura bera dakarkigu orain berriro “Mentalidad arcaica” artikuluan. Orduan, arestian esan bezala, Orixe baiezkoarekin erantzun zion Durangoko hitzaldian bilbotarraren ezezkoari. Oraingoan, funtsean orduko arrazoiketa berbera erabiliz, areago zehazten ditu puntu batzuk.

Hasteko, semantikara jaitsiz, kultura unibertsaleko hizkuntzaz mintzatzean, kontzeptu horren atzean hiru esanahi bederen ezkututzen direla esaten digu. Hirurak, noski, faltsuak. Bere azalpenean frantsesari buruz esaten diren ondorengo axioma hauek ezeztatzen ditu:

Lehena: Frantses landua, frantses herritarrari kontrajartzen zaion aldetik gogo emanda, Frantziari bakarrik dagokion hizkuntza dela. Gezurra, erantzungo du Orixe “Idioma de cultura universal” artikuluan,

zeren, maila horretan, espainiera, italiara eta portugezaren jatorria latina denez gero, horiek frantsesa bezain kultuak baitira.

Bigarrena: Frantses haurrak kultur hizkuntza hitz egiten duela edo, modu konparatiboan esanda, euskaldunaren herri-hizketa baino goragokoa egiten duela. Honek ere ez du inolako funtsik, zeren biek etxean jaso dituzten ideien zirkulua berbera baita, bientzat orobatsu zirkulu murrizta dena: “El niño francés, lo mismo que el vasco, tiene que aprender un diccionario de voces cultas completamente ajenas de las que él sabe”.

Hirugarrena: Frantses haurrak euskaldunak baino erraztasun gehiago duela frantses landuaren hiztegia ikasteko. Honetan ere haur frantsesak abantaila handirik ez du, euskaldunak bezalaxe hark ere hizkuntza zientifikoa ikasi beharko baitu.

Ondorioa? Hauxe: hizkuntza zientifikoari dagokionez, haur euskaldunak, berez, ez duela beste hizkuntzetako haur batek baino zailtasun gehiago. Aitzitik, uste du euskaldunak besteak baino gaituago daudela hizkuntzak ikasteko. Eskolako esperientzian oinarrituta dio hau: “La facilidad que tiene el vasco para lenguas –así hemos visto reconocer a profesores no vascos– es mayor que la de los niños de otras regiones, y que la de los niños vascos que ignoran el euskera”.

Beraz, kultura modernoan landu duten hizkuntza horiek –latinetik eratorriko horiek, alegia–, jakintzarako euskara baino gaituagoak direla baieztatzeak ez du funts zientifikorik. Esana gehiago da frogatua baino.

Bigarrenik, kultura modernoari dagokionez, une honetan latinetik eratorritako hizkuntzak euskara baino hornituagoak dauden arren, azken honek, harrigarri badirudi ere, haiek baino gaitasun gehiago du jakintzarako. Eta halaxe du –eta hemen dator harriduraren esplikazioa–, besteen aldean gramatika aberatsa duelako: “Fuera de esto, la piedra de toque para conocer la aptitud de una lengua es su gramática, sus recursos de expresión. Las relaciones y matices que la primera y más general de todas las ciencias, la lengua de un pueblo, es capaz de representar. Sobre esta base proceden los científicos de todos los pueblos, y nada esencial añaden ellos al genio del idioma, pues lo respetan escrupulosamente. El mayor o menor número de palabras simples y otros recursos accidentales que la necesidad de los tiempos emplee, no atañe en nada al sistema de expresión. Y en las palabras compuestas, la misma gramática es la que, según genio popular, da la pauta para formarlas”.

Hizkuntza tekniko-zientifikoaren eremua gehienbat terminologia espezifikoa oinarritzen da eta alderdi lexikalak hizkuntza baten muina baino gehiago ukitzen du azala. Horregatik, itzulezinezko esaldi batzuk salbu, antzekoak dira hizkuntzak oro maila honetan: “La mentalidad de todo pueblo, hablando en abstracto, resulta muy semejante, estudiadas sus respectivas gramáticas. Las ideas más generales, los moldes más comunes, aquellos que después sirven de base a las grandes concepciones del artista, del sabio, no se diferencian tanto. Hay, claro está, modalidades en cualquiera lengua intraducibles a otra”.

Kultura modernorako gaitasuna, bada, hizkuntzaren beraren barne-egituran oinarritzen da, gramatikan alegia, eta hor euskarak izan-gaitasun aberatsak erakusten ditu. Horregatik, debalde esana da euskarak pentsamolde arkaikoa duela eta, ondorioz, kultura modernoa adierazteko gaitasuna falta zaiola.

Hirugarrenik, euskarari gertatzen zaiona da, jakineko arrazoi historikoengatik, ezin ustiatu izan dituela bere barne-ahalmen horiek. Puntu hau ozenki aitortzen du Orixek. Euskaraz ez ditugu landu jakintzaren alor desberdinak eta, zentzu honetan, egia da euskal pentsalari modernorik ez dugula: “En nuestro idioma hasta la fecha la mentalidad de un autor no se diferencia gran cosa de la de otro por la falta de cultivo de los diversos ramos del saber”. Hala ere, euskara lur birjina eta emankorra denez gero, ezin da esan emango ez dituenik. Orixe bera itxaropentsu agertzen da. Unamunori egindako parioan, esana zeukan mugimendua ibiliz frogatzen dela. Eta Orixek, hain zuzen, kultura landuaren ekarpenean ikusten du bere egitekoa.

Laugarrenik, kultura modernoaren alorrean oraingoz esku hutsik baldin bagaude ere, horretara iristeko oztopoak ez ditu gaindiezinezkoak atzematzen. Hizkuntza tekniko-zientifikoari dagokionez, lehen esan bezala, hizkuntza landuek terminologia komuna erabiltzen dute eta hizkuntza modernoek greziera zaharretik hartzen dituzte, batez ere, beren aurkikuntzak izendatzeko hitzak. Euskara kultur zereginetara moldatzeko ahalegin honetan, kanpoko hizkuntzetan bi zaizkio eredugarri: greziera zaharra eta alemana. Zergatik? “Dos lenguas cultas de Europa” artikuluan esango digunez, bi hizkuntza horiek direlako, beste hizkuntzetara joan gabe, kultur bide izateko beharrezkoa zaien guztia beren baitan aurkitzen duten bakarrak. Euskarak hortik abiatu behar luke. Hain garrantzi handia ematen dion literaturari buruz, ordea, bidea askoz eginago dago eta horko idazlan nagusi gehienak euskarara aldatzeko modukoak iruditzen zaizkio. Dena den, itzulga-

rriagoak iruditzen zaizkio autore klasikoek idazlan unibertsalak, adibidez *Iliada*, kultura ilun eta zikineko idazlan modernoak baino. Bistan da –ideia hau gerorako aurreratuta uzten dut–, Orixerentzat idazlan modernoek ez dute lortzen klasikoek gorentasuna. Eusko Pizkundearen gailurrean euskal literaturaren gainean sortutako kritikek eta eztabaidek hor izango dute beren jatorria.

Kultura landurako zein euskara-mota?

Euskarak bere kulturgintzaren alorra urratzen hastera doan une honetan, zein hizkuntz ereduren argitan jokatu behar du euskal idazleak? Galdera honen gibelean, jakina, neologismoaren gorabehera dago tartean. Hemen ere, aurreko arazoetan bezala, Orixe pausoka joango da bidea markatuz.

Euskaltzaleek egin behar duten lehen lana, egitea da, kasu honetan idaztea, eta ez denbora inoren lana kritikatzeko erretzea baino: “Egin, lagunak, egin; ez itzegin”. Eta asko idatzi, idazleentzat, batez ere, elkarrena irakurri, luma zorrozten ikas dezaten. Orixerentzat lehen lana idazlearen trebakuntza lortzea da. Honek ez du esan nahi herriarentzat idatzi behar ez denik; ezta idatzi behar den guztia harentzat egin behar denik ere. Idazleak idazlearentzat ere idatzi behar du, kulturgintzan luma landuz joan dadin, hain zuzen. Horregatik iristen da ondorio honetara: “Sin dejar de atender al pueblo, debemos escribir para nosotros, como labor preparatoria”. Umiltasun osoz, euskarazko kultura oraindik hasibidean dagoela aitortzeko ez da lotsa. Egin behar dena da idazle espezializatua horretarako prestatu. Non? Idazleen eskolan. Maisua, izan, idazlearen komunitatea bera da. Horra! Dena den, ideia zuzena izanik ere, ez da gauzatzen inolako plangintza zehatzik eremu honetan.

Orduko euskal literaturan, bi akats nagusi hauek nabarmentzen ditu: puritanismoa eta erdarakada estilistikoa. Banaka harilduko ditut, esaten duena ez baita lastoa.

Purismoa

Neologismoei buruzko Orixeren iritzia, garai honetako arazo eztabaidatsu horretara behin eta berriz hurbildu baitzen, ez da esaldi baten bidez adieraz daitekeen horietakoa. “La frase vizcaína” artikuluan (1925), orduko euskal liburu gehienetan kausitu uste duen gar-

bizalekeria kritikatzten du, berak “purismo exagerado” deitzen diona, aukera horri jokabide arriskugarria deritzolako. Fenomeno hau erdarakada lexikalen kontrako erreakzioagatik sortzen da eta, maileguck euskal harrobiko hitz jatorrak ordezkatzten dituzten heinean, horrela gertatzea ulergarri ere badela esan beharko da. Hala ere, Orixe ez da puristen eskolakoa. Ez dakit horregatik bakarrik, baina bai seguru horregatik ere, aranisten haserreak irabazten ditu. Oro har, neologismoen gainean, jarrera irekia agertzen du, seguru baitago luzaro gabe erdira joko duela puristen muturreko jarrerak. Handik bi urtera, “Su cultivo literario y científico” artikuluan (1927), ilunpean zeuden autore zaharren eta herriaren iturri aberatsak ezagutzen joan ahala, alferrikako neologismoak baztertu eta egoki sortutakoak, berriz, indarbizitu egingo direlakoan dago. Horrela pentsatzeko bide *Kempis* liburuaren itzulpenak ematen dio, berak ezagutzen dituenetan horrexek betetzen baitu gehien. Neologismo asko erabili gabe, autore klasikoetan eta Azkueren hiztegian oinarrituta, naturaltasunez eta hitz-ugaritasunez itzultzen jakin izan duelako goraiatzten du horrenbeste. Eskuinetik erdirako bidean, halaber, ahalegin aipagarria suposatzen du, Frantziako Belaustegi apaizaren *Izar Argi* liburuak. Orixe, “Otro libro y otro esfuerzo” artikuluan ultraezkertiar puristen jarrera gogor salatzen duen bitartean, alaitasunez ospatzen du eskuindar neologisten eboluzioa. Neologismo oro sistemaz arbuaiatu behar horretan, funtsean, alderdikeria politikoa kausitzen du.

Baina, azken finean, Orixe proposatzen duen erdibide hori zertan zehazten da? Honetan: neologismorik ez dela sortu behar beharrik gabe, ezta herabe izan ere sortu beharra izanez gero. Hitz berriak sortzea idazleari dagokio; Euskaltzaindiari, onestea ala gaitzestea. Hitzak zuzen ala desegoki sortuak diren, denborak erabakiko du, erabiliak zein diren eta zein ez egiaztatu eta gero: “Docenas y docenas de palabras se podrán formar, esperando que el tiempo las confirme y no las deseche. Por el contrario, algunas de formación dudosamente correcta y, acaso, viciosa, irán corriendo por su mucho uso actual, pese a la Academia”. Ezin uka Orixe profetak esan bezala gertatu dela.

Erderakada estilistikoa

Hau erdarakada lexikala bera baino kezkarriagoa duzu. Akats hau gehien Txomin Agirrerri nabarmentzen zaio. Honen *Garoa* nobela euskal literaturako idazlan maisua da, baina hor darabilen estilo-kali-

tatea ez da hain jatorra. Atsegina da, naturala, nahi baduzu, baina indarrrik gabea. Bizkaitar esaldiari datxekion ezaugarria falta zaio, hots: “la rapidez y fuerza de nuestra lógica”. Ideiak, itzulinguruka ibili gabe, zuzen, azkar, labur eta bizi azaltzen ez daki. Pentsamendu-prozesuaren ordena kronologikoari segitzen dion estilo-mota hori da proposatzen duena eta ez gurea bezalako estilo akademiko, biribildu, handiputz eta betegarria: “La frase vizcaína o vasca es la que quisieramos ver cultivada con cariño. Si Camoens, o fray Luis, leyeran y entendieran los escritos vascos de hoy, verían con admiración que aquellos marinos, aquellos estudiantes, eran más vascos hablando lengua extraña que nuestros escritores escribiendo la propia”.

Euskal esaldi jatorrak baditu bere arauak, gramatika-psikologia gorenaren adierazle direnak. Bizkaitar esaldiak, untzea nola oholean, hala uzten ditu josirik hitzak ideian. Neskame baten ahoan jartzen duen adibide honen bidez esplikatzen du “frase vizcaína” edo “frase del chimbo” deituaren berezitasuna: “¡Ene! piso pa ver vienen”. Akuratze-ko zegoen etxebizitza bat ikustera hainbeste jende zetorrela ikustean, esaldi hori atera omen zitzaion neskameari eta hor, Orixek eskaintzen duen interpretazioaren arabera, ordena kronologiko honetan deskribatzen da psikologikoki haren kezka edo ideien prozesua: hasteko, etxebizitza, gero ikustea eta, azkenik, jendea etortzea. Hemen agertzen dena ez da pentsamenduaren ordena logikoa, psikologikoa baizik. Esaldia horregatik da hain indartsua, hain bizia.

Euskaldunak, erdal gramatikan eskolatua izan denez, esaldia ordena logiko zurrunaren arabera osatzen ikasi du: subjektua, aditza eta osagarria. Euskal gramatikan, aldiz, hiperbatona da ohikoena, berezkoena. Hala dio “La frase del chimbo” artikuluan: “Esta hermosa cualidad existe en grado superior, y queda intacta en el vascuence. El menos atormentado de nuestros escritores de hoy no puede ser tan antinatural que destruya esos grupos compactos de palabras, que pertenecen a nuestro idioma”. Sintaxi-batasuna ohartuki hausten da eta, honela, ordena logikoari darion artifizialtasunari ihes egiten zaio. Joka-bide honek euskal literaturan ere badu tradizioarik. Anibarro eta Mendiburuk, adibidez, badituzte bizkaitar estiloan egindako esaldiak, aintzakotzat hartzekoak direnak. Orixek nahiago du esaldi laburra eta trinkoa, puztua eta hutsa baino.

Joxe Azurmendik, *Santa Cruz Apaiza* liburua aztertzerakoan bere *Zer dugu Orixeren alde* saioan, Orixeren estiloa ezaugarritzen duten elementuen artean, hauek azpimarratzen dizkigu: esaldi-moten ugari-

tasuna, esaldi laburra edo esaldi zatikatua, eta aditzaren lehenetasuna esaldian. Orixek horregatik da estilista paregabea: “Atzekoz aurrera eta goitik behera eta behetik gora eta luxe eta borobil eta nolana munta ditzake Orixek bere fraseak, naturaltasun guztiarekin beti, eta, sarri esaten denaren kontra, ongitxo erakutsi digu euskararen flesibilitatea horretarako. Monotonia ez da euskararena, idazleena baizik. Orixeren prosak duen freskura eta bizitasuna, ez dut uste haren ez aurreko eta ez atzeko inork atera duenik”. Orixeren prosa gehien edertzen duena, estiloa delakoan nago, eta, Orixek *Santa Cruz Apaiza* liburuarekin egin duen bezala, balegoke oraindik zer azterturik haren beste liburuetan ere. Nik aski dut haren euskal estiloari buruzko ikuspegia azaltzearekin. Orain ulertzen da zergatik landu zuen hainbeste eta hain ondo estiloa. Sustrai teorikoak ondo mamituak zeuzkalako, hain zuzen.

Atzerriko hizkuntzalariak eta apologistak

Hizkuntzalaritzan, garai batean aita Larramendi bezala, euskararen apologista bihurtzen da atzerriko zenbait linguistaren kritikari erantzunez. Hemen ere, neologismoen arazoan bezala, kontserbadorismoaren erdigune egokira jotzeko ordua dela pentsatzen du: ez gehiegizko gorespena, ezta neurritz kanpoko gutxiespena ere. Oro har, Euskal Herrikoak ez diren hizkuntzolariengan euskarari bere originaltasuna kentzeko joera nagusitzen dela, dio. Zentzu honetan, ez ditu onartzen Vinson zendu berriari egin zaizkion ohoreak, hauek gehiegizkoak iruditzen baitzaizkio euskarari egindako iraineekin konparatuta. Dena den, atzerrian asko dira euskaltzaleak, eta horietako asko, Schuchardt eta Uhlenbecken antzera, adituak dituzu, gainera, “Demoledores y conservadores” artikuluan aitortzen duen bezala. Alderantziz gertatzen da Espainian, zeren hemengo hizkuntzalarientzat, “Diatriba y apología” artikuluan salatzen duenez, euskarak oraindik euskalki bat izanez segitzen baitu. Espainiako Akademiakoa den José Alemanyentzat, adibidez, euskara “es una lengua como otras muchas, y más imperfecta que otras muchas”. Zenbait ikuspuntutan gainditua dagoen Larramendi bakean utzi eta, euskararen gaitasun gramatikalaz beste iturri gaurkotuagoetan, etxeoetan nahiz kanpokoetan, areago dokumentatzen konbidatzen du aipaturiko autorea. J. Alemany baino zorrotzago kritikatzten duena, Julio Cejador y Frauca da, Madrilgo Unibertsitatean Latina eta Literaturako irakaslea dena, honi bost artikulua eskaintzen

baitizkio. Zergatik ote? Pixka bat jesuita izana delako, beste pixka bat Urkijok intsentsu gehiegitxo botatzen diola uste duelako, eta, batez ere, autoreak berak, “Dr. Hannsen de Hamburgo” izenordepean ezkutatuz, prentsan erantzuten diolako. Orixek haren *Ibérica. I.- Alfabeto e Incripciones Ibéricas* liburua du kritikagai. Cejadorrek idazlan horretan iberismoa defendatzen du, esanez euskara izan zela Espainiako hizkuntza unibertsala eta hizkuntza honetatik zetozela beste guztiak. Tesi honen defentsarako, besteak beste, Alcoyren plomuan deszifratu uste duen iberiar alfabetoa dakar. Cejadorrek, Azkueren hiztegian oinarrituta, alfabeto horretan euskara irakurtzen du. Orixek posibletzat jotzen du, aspaldi-aspaldian, euskara inskripzio horien berbera izatea, baina ez probabletzat. Horretarako, “Traducciones del plomo de Alcoy” artikuluan dioenez, frogak behar dira, Cejadorrek ez dauzkanak. Horregatik, aragoar autoreak Erro, Poza, Baltasar Etxabe, Joanes Etxeberri, Larramendi, Perotxegi, Julian Txurruka, Astarloa, eta abarren tesiak modernotasunez janzten ditu, bai, baina ez da iristen bere hipotesia frogen bidez egiaztatzeraz: “Lo que Cejador aduce se puede decir que no es sino más número material de datos, casi siempre pésimamente aducidos. Sobre la mala cualidad de retrasado, tiene el agravante de estar de espaldas a lo que la ciencia ha dicho después de aquellos paradisiacos tiempos”. Hauxe da, iberismoa dela eta, “Deudas de los vascos” artikuluan ateratzen duen ondorioa.

Esanak gaude, Urkijok euskeralogian metodo zientifikoak erabiltezareen aldeko hitzaldia egin zuenean Oñatiko Batzarrean (1918), desoreka antzeko zerbait nabari zela etxeko euskaltzaleen eta kanpoko hizkuntzalarien artean. Guztiz normala, hauek hizkuntzalari profesionalak baitziren, eta haiek ez. Alderantzizkoa ere egia zen: haiek euskara ondo menderatzen zuten, baina hauek ez hainbeste. Orixek, kontserbadorismoaren biderdira etortzeko deia egin eta gero, gehiegiakeriak gaitzesten ditu. Kanpoko hizkuntzalarien artean, kontuz!, ez da oro urre. Penintsulakoetan, berriz, ez urre eta ez kobre. Ondorioz, Espainiako Akademiari seriotasuna eskatzen dio euskarari buruzko ikerlanetan: “La Academia Española ha comenzado a dar cabida en las páginas de su *Boletín* a trabajos acerca del euzkera. Que sean serios, bien meditados y documentados, y sin esa no disimulada saña que puede provocar, como en tiempos de Larramendi, apologías huera y estériles”.

Larramendik hasitako apologia Orixek bukatzen du, abisu honekin: arren, ez gehiago euskararen kontrako eraso gaitzo eta antzurik.

BIGARREN ATALA

EUSKARAREN GAITASUNA DELA ETA, UNAMUNORI ERANTZUTEN

“Durante el curso de la peroración fue repetidas veces interrumpido el orador por bravos y aplausos, y al llegar a algunos párrafos referentes al vascuence, se escucharon en las localidades altas voces y silbidos, promovándose con este motivo un tumulto que interrumpió el discurso durante diez minutos. El orador, sin inmutarse, aguardó a que se serenaran los ánimos, prosiguiendo después en el uso de la palabra y alcanzando al final una entusiasta y unánime ovación que se prolongó largo rato” (*El Noticiero Bilbaino*, 27-08-1901).

Hitzaldia bukatu eta gero, bai Antzokiko pasabideetan bai kalean, jendeak eztabaida bizian segitu zuen. Unamuroren lagun batzuk diru-biltzen hasi ziren hitzaldia argitaratzeko eta hizlaria bankete batez omentzeko. Bilbotik harago, Madrilgo prentsak ere pozez gainezka go-raipatu zuen gertakari hori eta Valladolidetik bertako Antzoki Nagusian hitzaldia emateko eskea heldu zitzaion. Hitzaldi hura zaratatsua izan zela ezin ukatuko da. Zaratatsua Bilbon bertan, Antzokian eta kanpoan; zaratatsua, halaber, Espainian.

Unamunok zer esan ote zuen, bada, inguruan eta urrunago horrelako sua pitz zedin?

Orixek, “Eusko olerkitzaz” izenburuarekin Durangon 1921eko irailan emandako lehen hitzaldian, hasi eta berehalaxe, bigarren para-

grafoan, bilbotarra aipatzen du, baina izendatu gabe: “Nonbaiteko euskaldun berrilari batek, egundañoko, ergelkerii edo eztakit-zerkerii esan emen-du. ¿Zer gero? Oraingo asmaketarako ez dela gai gure izkuntza, oso zarra dela zarregii, aspaldikoa dela. ¿Zein ote dugu gizon yakintsu ori? Etorri akitt: zarra duk euskera, ala duk, aspaldikoa duk; bañon ez duk zartu, ez zimeldu, ez igartu, ez amaundu. Gaur erakutsiko diat egiñaleen, gure izkuntza leuna dela, eze dagola, sasi-yakintsu orrek uste baño geiagorako gai dittekela”. Unamuno “jakintsuari” deika ari zaio inoiz esanak eztabaidatzera etor dadin hitzaldi-aretorra. Orixek gertu dago haren tesiak gezurtatzeko, ez hitzekin –hauek haizeak eramaten baititu orbela baino aiseago–, egiteekin baizik. Antistenes mugimendua bazela frogatzeko Zenonen aurrean ibiltzen hasi zen bezala, Orixek euskal metrikari buruzko hitzaldia euskaraz emanaz, frogatu nahi du hizkuntza zahar hori gauza dela gai teknikoak azaltzeko eta, ondorioz, kultur bide izateko: “Igidura ibilliz erakusten emen-da, ta norbaitek ibiltzen ote dakiin yakiteko, un ibiltzen ikustee da obee-na. Ibilli gaittezen bada ta yakiñen dute dakigun ez dakigun. Esanetik egiñera bittarte luzee emen-dago, esatee erraz da, egittee ez aiiñ erraz; emen alaere esatee ta egittee bat bera dire. Egittee nekezagokoa da, ta gaur euskeraz egitteek ere nekee badu, argatik bear bezaiñ ongi egiñen ezpanu, apukoa banuke”.

Baina zer esan zuen Unamunok euskarari buruz Orixek hain haserre eta, aldi berean, hain oldartsuki eraso ziezaion?

Unamunok jadanik ordurako gauza asko zituen esanak euskararen gainean. Ez denak, noski, gezurrak, baina bai mingarriak euskaltzale ororentzat, ez gutxiago ordukoentzat. Euskal arrazaren eta euskararen inguruan baditu, gutxienik, hogeiren bat idazlan eginak, 1884-1933ko epealdian, hor barruan sartuz artikulua, hitzaldiak eta saioak. Lan horietako gehienak gaztarokoak dira, 1900. urtea baino lehen burutuak. Seinalagarrienak jarriko dizkizut, ordena kronologiaren arabera: *Crítica del problema sobre el origen y prehistoria de la raza vasca* (1884) izeneko tesi doktora, “Del elemento alienígena en el idioma vasco” (1886), “Más sobre el vascuence” (1886), “Discurso en los Juegos Florales en Bilbao” (1901), “El bizkaitarrismo y el vascuence” (1901), “La cuestión del vascuence” (1902), eta gehiago, guztiak bere *Obras Completas*-en (VI, 1958) bilduta datozenak. Euskararen kontra zipriztinak han eta hemen zabaltzen baditu ere, bere tesiak ondoen formulaturik datozeneko lana, “La cuestión del vascuence” izeneko da.

Unamunoren tesi nagusia, euskara hiltzera kondenatuta dagoela da, erremediorik gabe kondenatuta, gainera. Hala aldarrikatu zuen, lehen aldiz eta ez ausardia txikiarekin, Bilboko Lore-Jokoetan 1901eko abuztuaren 26an, “Arriaga” antzoki berrian: “El vascuence se extingue sin que haya fuerza humana que pueda impedir su extinción; muere por ley de vida. No nos apesadumbre que desaparezca su cuerpo, pues es para que mejor sobreviva su alma”. Ateraldi honek erruz mündu zituen euskaltzaleen belarriak eta egoera aski iskanbilatsuan, batzuk txistuka eta besteak txaloka, hitzaldia hamar bat minutuz etenda geratu zen. Ez da harritzekoa jendea hainbeste asaldatzea, baldin kontuan hartzen bada hitzaldi hori noiz eta non emana izan zen. Bilbon eta nazionalismoaren hazia indartzen hasia zenean, hain zuzen. Sabino Aranak prentsa bidez agertu zuen bere protesta, zorrotz bezain hotz, eskandaluaren zergatia hizlari arrotzuaren izaera suminduari atxikiz.

Hurrengo urtean (1902), gertakari hark euskal munduan sortu zuen oihartzun handiak eraginda, Bilboko hitzaldian agertutako bere ikuspegia arrazoitzen saiatuko da. Euskaltzale gehienak euskararen heriotzaz konbentzituta daudela uste du, baita Kanpion eta Azkue ere. Zergatik eta nola euskararen inguruan halako hil-kanpai hotsa? Euskarak bizirik segitzeko ahalmenik ez duelako. Eta euskara hilko da, hainbat euskaltzalek besterik uste badu ere, ez arazo soziopolitikoek eta zapalkuntza ofizialak hartara behartzen dutelako, baizik eta hizkuntzari berari kultur tresna izateko barne-gaitasuna falta zaiolako. Hala dio “La cuestión del vascuence” lanean: “La diferencia de parecer estriba en realidad en que, aunque convencidos los más de mis paisanos de que el vascuence se pierde, creen que esta pérdida se debe a causas extrínsecas, a la presión oficial, al abandono de los que hablan, al desarrollo del comercio, y yo estoy convencido de que la principal causa es de origen intrínseco y se basa en la ineptitud del euskera para convertirse en lengua de cultura”. Geroxeago, ondorioa zehaztuz, euskara Euskal Herrian europar kultura modernoa hedatzeko oztopo larri bat dela baieztatuko du: “Es en mí antigua la convicción de que el vascuence, interesante idioma de estudio, carece de condiciones intrínsecas para servir de medio de expresión a un pueblo que entre de lleno en la vida espiritual moderna, y que constituye un gran obstáculo para la difusión de la cultura europea en mi país”.

Eta Unamunoren sententzia, profezia hutsa baino gehiago, badi-rudi begi-bistan dagoen datu baten egiaztatze hutsa dela. Euskarak atzera egin du, arinka egin ere, bai hedaduraren bai intentsitatearen

aldetik begiratura: “El vascuence se pierde muy de prisa, y se pierde de dos maneras: en extensión y en intensidad. Se pierde en extensión, en cuanto se habla ya castellano en pueblos que no hace aún veinte años se hablaba en vascuence, y esta pérdida va acrecentándose de día en día. Y se pierde en intensidad, en cuanto el vascuence que hoy se habla está cada día más mezclado de vocablos de origen castellano por una parte, y por otra se simplifica y pierde cada día más carácter”.

Euskara hedaturaz eta intentsitatez murriztuz baldin badoa –eta baieztapen kategoriko bezain zentzugabeko honetan oinarritzen da Unamunoren argudioa–, behe-mailako hizkuntza zaharkitua izaki, eboluzionatzeko gauza ez delako doa horrela maldan behera: “Hay otro criterio, y es el de la evolución. Siguen los idiomas un proceso a partir de sus matrices, y, a menos de negar el progreso, no puede negarse que serán más perfectos los que más lejos hayan llegado en tal proceso. Estoy convencido de que sólo preocupaciones clasicistas pueden impedir el que se declare por todos la superioridad de los modernos idiomas neo-latinos respecto al latín, como del inglés respecto al anglo-sajón o del alemán respecto al godo. Y adoptando este criterio objetivo hay que reconocer que, como explicaré más adelante, el vascuence es un lenguaje de tipo inferior, y que todas aquellas perfecciones que en él ven sus panegiristas son las perfecciones de que han ido desprendiéndose en su proceso los idiomas de los pueblos cultos”. Panegirista horiek, geroxeago izenez aipatuko dituen, Larramendi eta beronen jarraitzaile Astarloa dituzu, batez ere, hauek izan baitziren, euskara beste hizkuntzen gainetik ezarriz, haren bikaintasunaren mitoa sortu zutenak. Horregatik deitzen die horrela.

Unamunok, ordea, aipaturiko autore horien baitan euskarari ukatzen diena berak gaztelaniari aitortzen dio, printzipio onartuztat ematen baitu hizkuntza batzuk, pentsamendu eta kultura igoagoaren araber, besteak baino bikainagoak direla: “Es, pues, muy racional suponer que el lenguaje de un pueblo que sea superior en pensamiento y cultura a otro, sea, por lo mismo, superior al lenguaje de este pueblo”. Eta hizkuntza bikain hori, kasu honetan, gaztelania da.

Filologia modernoan baino gehiago eskolastika garbi-garbian finkatutako euskal panegiristen mitoa desagitek, hiru arrazoi aurrera-tzen ditu Unamunok

Lehena euskal lexikoari dagokiona da, ezin baita esan euskara, maila horretan zehazki, aberatsa denik. Eta hemen bi iturri-mota bereizten ditu: bata erabili ohi diren hitz orokorrek osatzen dutena da eta

bestea euskal harrobitik eratorpen bidez sor daitezkeen hitzek aberas- ten dutena, berak, hurrenez hurren, “caudal efectivo” eta “fondo po- tencial” deitzen dienak. Lehen iturriari dagokionez, euskara ez da gaz- telania baino hornituago. Bigarrenari dagokionez, nahiz eta euskarak eratorpenerako erraztasunak eskaintzen dituen, hitz asko eta asko as- matu beharko lituzke, adibidez, Cervantes, Calderón, Leongo Frai Luis, Santa Teresa edo Joan Gurutzeko baten lanak itzuli ahal izateko. Asmatzen hasiz gero, edozein gauza asma daiteke, ongi ala gaizki, Larramendi batek bere *Diccionario trilingüe* izenekoan egin zuen beza- la. Baina jokabide hau onartezina da, hizkuntza hori ulertezina eta artifiziala gertatzen delako. Zentzu honetan, Donostiako Udalbatzak, Lore-Jokoen bidez, euskara tekniko-zientifikoa lantzeko helburuare- kin antolatutako sariketa-sistemak ez hanka eta ez buru du. Irrigarri da. Gainera, beti ere Unamunoren ustez, euskal lexikoan erdarazko hitzek duten sarrera arras nabarmena da. Egia da, bai, euskarak bere harrobikoa duela bere hiztegi-ko iturrian gehiena. Baina puntu hone- taz, bi ertz dira baztertu beharrekoak: alde batetik, Sayceren iritzia, honek euskal lexikoko hitzen erdiak kanpoko iturritik etorriak direla uste baitu; eta bestetik, Cénac Moncautena, honentzat ez baitira berrogeitik gora pasatzen erdarazko hitzak.

Unamunok, “Del elemento alienígena en el idioma vasco” lanean (1886), euskal hiztegi-ko elementu arrotza uste baino gehiago barnera- tua dagoela frogatu nahirik, gaiak sei sailetan banandu eta ondorio hauek ateratzen ditu: bat, euskarak ez duela terminologiarik ideia erli- jiosoak, zentzuez gairikoa eta psikologikoa adierazteko, eta ditue- nak latinetik hartuak dituela; bi, euskarak gaitasunik aski ez duela abs- trakzio-maila handia eskatzen duten ideia orokorrak adierazteko eta hutsune hori latinetik hitzak hartuz betetzen duela; hiru, etxe-gauzak izendatzeko erabiltzen diren hainbat hitzek beste hizkuntzetan –lati- nean, erromantzeetan, gaztelanian, italieran eta– dutela beren jatorria; lau, industria eta nekazaritzaren sailean erabiltzen diren hitzak, orobat, maileguz hartutakoak direla; bost, faunari eta florari buruzko hizte- gian ere badela mailegatutako hainbat hitz, latinetik nahiz frantses za- harretik jasotakoak. Elementu hauen artean garrantzitsuena, abstrak- ziorako gaitasunik ezari dagokiona da, hain zuzen, honek neurtzen baitu, azken batean, herri baten kultur maila.

Unamunoren ustez, bada, latin-jatorriko hitzek euskal hiztegi-ko betetzen duten lekua, nahiz txikiena izan, benetan garrantzitsua da; garrantzitsua, batik bat, beroriek direlako ideiarik garaienak eta kon-

plexuenak adierazten dituztenak, hala nola: *inpernu, zeru, fede, eleiza, gurutze, bertute, errazoy, borondate, zentzun, izpiritu, arima*. Eta hone-lako hitzak kultur kontzeptuen adierazpide izateari erabat bidezko de-ritzo, zeren eta Euskal Herrian zibilizazioa eta kultura latinaren bidez sartu baitziren. Ondorioa? Hauxe: euskara pobrea dela hitz generiko-ak adierazteko. Eta hala da, hain zuzen, bere kulturarik ez duelako: “El pueblo vasco no tiene cultura indígena propia; su religión, su arte, su ciencia, sus industrias, todo es recibido de los pueblos que le rodean”. Unamunok hau esatean, Bilboko hitzaldian “Del elemento alienígena en el idioma vasco” aipatuan idatzia errepikatu besterik ez du egiten.

Bigarren arrazoiak historikoa izan nahi du, esaten baitu Larra-mendik, Zabalak eta beste batzuek XVIII. mendean jasotako adizkera asko desagertu egin direla ohiko erabileratik. Ez badira erabiltzen, sozialki hilda dauden seinalea. Halaxe gertatzen da aditz trinkoaren kasuan, zeren XVI. mendean hirurogei aditz inguru baitziren era sin-taktikoan jokaten zirenak. Gaur egun asko murriztu da kopuru hori. Baina Unamunoren objektzioa beste hegi honetatik dator: alegia, euskal gramatika –eta honen barruan sartzen dira euskal aditz-jokoak eta flexioak–, hizkuntza modernoena baino konplexuago eta zailagoa dela. Eta hizkuntzaren berezitasun hau, euskal panegiristek uste zutenaren kontra, aberastasun baino gehiago oztopo da kultura landuaren adie-razpenerako. Hizkuntza modernoek, oro har, beren barne-arauak sin-plifikatzera jotzen dute.

Hirugarrena ekonomi legeari, hots, printzipio utilitaristari dago-kiona da, zeinaren arabera, gure kasu honetan, askozaz lan gutxiago es-katzen baitu gaztelania ikasteak euskara ikasteak baino.

Arrazoi horiengatik, euskara salbatzen zintzurra hautsi arren, hil egingo da, halabeharrez hil ere. Hura ez bide du heriotzatik ezerk ate-rako, ez euskal nazio independente batek eta ez haren sustapenerako antolatzen diren ezein lehiaketa-sistemak.

Patuak euskarari horrelako fin gaiztoa opa badio, zer egin behar da bizi den bitartean? Unamunori hiru profezia bururatzen zaizkio:

Bat. Poliki-poliki, hiltzen utzi edota, zehatzago esanda, ez deus egin hura suspertzen: “Y la razón nos pide que no malgastemos en la baldía labor de resistir a lo incoercible fuerzas que para otros fines nos hacen falta. Nos es preciso resignarnos por lo menos al progreso”. Berak ere, nahiz eta euskaraz lantxo batzuk egiten segitu, jadanik 1886az geroztik euskararen alde lanik ez egiteko erabakia hartua zeu-kan: “No me empeño en propagarlo, porque tengo otras cosas que

hacer y porque considero esta propaganda infructuosa e inútil”. Normal, hala pentsatuta.

Bi. Ehorzketak zientzi ohorez egin behar zaizkio, hizkuntza hilen laborategian linguisten aztergai izan dadin: “Lo único que queda, ya lo dije en Bilbao, es embalsamarle en ciencia; recojer con filial piedad sus restos antes de que se sumen en el olvido; levantarle un monumento funerario”.

Hiru. Euskara zientzi ohorez ehortzi eta gero, euskal kultura bera baino aberatsagoa den beste kultura batean –kosmopolitago eta unibertsalago batean, alegia–, urtuko da kultura espainolaren bidez. “La crisis actual del patriotismo español” saioan datorren pasarte da hau, benetan adierazgarria dena: “Lo que en aquel mi discurso sublevó a mis paisanos fué el proclamar lo que todos ellos saben y reconocen: que el vascuence se muere sin remedio. Se muere y se debe morir, porque su muerte y la adopción por mi pueblo de un idioma de cultura es el único medio para llevar a la cultura común nuestro espíritu y perpetuarse en ella. Necesitamos hablar castellano y sobre todo, para imponer nuestro sentimiento a los demás pueblos de lengua castellana primero, y través de ellos, a la vida toda histórica de la Humanidad”. Euskal kulturak, honela, parte hartuko du gizateriaren kultura unibertsalean, Elkano, Legazpi eta Inazio Loiolakoak egin zutenaren antzera.

Ez dut Unamunoren tesi honi beste kontratesi batekin erantzuteko asmorik, bere garaian beste batzuek –hauen arten Orixek- erantzun ziotelako eta geroztik hainbatek jardun honi berari ekin izan diotelako, batzuek bilbotarraren defentsan, beste batzuek kontraerasoan. Salbatore Mitxelenak, adibidez, oso euskalduna ikusten du haren izateko modua *Unamuno ta abendats* saioan (1958). Martin Ugaldek zorrotzago hartzen du *Unamuno y el vascuence* lanean (1979). Unamunok esandako guztia ez da arbuigarri, nahiz eta gehiena, funtsean bederen, hala izan. Gaur egun Antropologian inork ez ditu egingo kultura garaien eta apalen arteko bereizkuntzarik, Linguistikan ez duzu irakurriko hizkuntza bat bestea baino garaiagoa denik. Nik, Unamunoren jarrera horretan, gehiago ikusten dut asmo politikoz hornitutako eraso estrategikoa –hori bai arrazoitua–, euskarari buruzko azterketa-lan hotz eta desinteresatua baino. Zentralismoa oso ongi baliatu zen haren gaitasun teknikoaz eta euskalduntasunaz euskaltzaleen eta nazionalisten oinarrizko tesiak auzitan jartzeko. Linguista eta idazle, Unamuno norbait zen eta zeukan autoritate morala aski zen bazterretan hautsa harrotzeko. Joyce irlandarra Britainia Handian bezala, Unamuno ere

zentralismoak erabili zuen kultura eta hizkuntza zapalduak asimilatze-ko helburuarekin. Ortega y Gassetek ere, ez dakigu honi nork erakutsita eta zein autoritate-motaren izenean, bilbotarraren papagaioa dirudi. “Los hermanos Zubiaurre” artikuluan dator pitxi hau: “El misterioso pueblo vascongado posee un idioma elemental que apenas sirve para nombrar las cosas materiales, y es por completo inepto para expresar la fluencia fugitiva de la vida interior”. Hauek guztiak, neurri handiagoan ala txikiagoan, garaian garaiko estatu-aparatuaren zerbitzura funtzionatzen duten intelektual organiko klasikoaren tipologian sartzekoak direla iruditzen zait. Hor zozorik ez da, ezjakinik ere ez.

Modu batera nahiz bestera formulatuta, baina azken xedetzat euskarari bere hizkuntz balio intrintsekoa ukatzea edo zalantzan jartzea izan duten kritikak euskal literaturaren historian zehar askotan errepi-katu izan dira. Gehienetan lelo bera da entzuten dena, baina musika desberdinarekin. XVI. mendean, euskaraz ezin zitekeela izkiria esaten zen garaian, Bernart Etxeparek frogatu zuen baietz, posible zela, eta, hain zuzen ere, horregatixe plazaratu zuen *Linguae Vasconum Primitiae* liburua. Geroago, euskal gramatika izatea ezinezkoa zela pentsatzen zen garaian, XVIII. mendean, Larramendik ezina errealitate bihurtuko du, *El imposible vencido. Arte de la lengua bascongada argitaratuz*. Unamunok euskara kultura modernorako ez dela gai aldarrikatzen duen unean, Orixe zutitzen da eta, ez hitzak salduz eginak erakutsiz baizik, horretarako ere gauza dela frogatzeari ekiten dio. Eta bizitza guztian, astoa baino tematuago, horretan segituko du. Aurrerantzean ikusiko ditugun obrak mintzo.

Etxepare, Larramendi eta Orixe. Hiru une historiko eta euskararen defentsan hiru lekuko. Azken aro hau, datu seinalagarri bat jarri beharrez, 1918ko Oñatiko Batzarrak inauguratzen du, orduan hasten baitira, garaiko zientzi eskabideak kontuan hartuta, euskararen hegi linguistikoa nahiz soziolinguistikoa aztertzen. Ildo horretatik zihozzen Urkijo, Azkue, Olabide, Eleizalde, Kanpion eta beste batzuen ikerlanak. Euskarologoen aupada honetan, ordea, fenomeno bitxia gertatzen da, lehen ere aipatua, eta da euskara ikertzen diharduten hizkuntzalari profesionalak, ia guztiak, atzeritarrak direla eta etxeko onenak, gehienez ere, gramatikoak ditugula. Azken hauetatik ez gutxi, berri, euskaldun berriak dira, kasurako, Urkijo, Kanpion eta Olabide. Egoera honek bere horretantxe segituko du, gutxi-gorabehera, 1960ko hamarkadatik aurrera euskal filologiaren eskola sortu eta bideratuko den arte. Puntu hau gogoan hartu behar da orduko garaia aztertzeke orduan.

Beranduxeago, Orixe ere 1918ko gurdi horretan sartuko da, baina diferentzia nabarmen honekin, hots: Orixeren helburua ez dela euskal linguistika egitera edo, zuzenago esateko, gramatika lantzerak bakarrik mugatzen, baita euskara bera kultur tresnatzat hartu eta leuntzera ere. Orixe ez da soilki hizkuntzalari, funtsean idazle baizik. Eta bidean zehar egiaztatuz joango garenez, idazle bide-urratzaile maila askotan.

Orixe behin baino gehiagotan ahalegindu zen Unamunok zientzi hotsez barreatutako tesi eta profezia horiek ezeztatzen: zeharka Durangoko hitzaldian eta zuzenean “Unamuno, el amargado” artikuluan (1931). Horregatik, Unamunoren ikuspuntua jaso eta gero, ordu da jakin dezagun zein den Orixeren erantzuna.

Axular zaharrarekin batera, euskara hizkuntza landua ez izatearen errua guk, euskaldunok, daukagula esanez hasten da Durangoko hitzaldi aipatuan: “Euskara ez dago atzean, euskaldunok bai geron izkuntzan”. Euskara atzeratua baldin bada, bada, ez da Unamunok aipatutako arrazoi intrintseko harengatik, behar bezala lantzen jakin ez dugulako baizik. Orixek esaten ez diguna da euskarak zergatik ez duen ezagutu beste hizkuntza modernoek garapena. Faktore soziopolitikoak ahazten ditu.

Hizkuntza baten gaitasun-neurria ez datza hitz-kopuru ugariago ala urriagoan, gramatikaren aberastasunean baizik. Puntu honetan, Unamunok Larramendiri kentzen zion arrazoia, beroni berritultzen dio: “Izen-mordoxka geiago, guttiago izan arren, ez da izkera ugariago, ez urriago ta bakanago. Izkera, izbidea, erdeldunek Grezitik artuta *Gramática* esaten dutena, ori da bakoitzarena, ori da gogoan artu bearrrago dena. Orren bidez bai izkera usuago ta bakanago, ederrago, ittu-siago”. Hitz-kopurua, berenetik sortuz nahiz besterenetik hartuz, ugari tu daiteke; baina horregatik ez da gramatika ezertan aldatzen.

Eta euskarak, gramatikaren aldetik begiratuta, ez dio zor ezein hizkuntzari. Biziki aberatsa da atzizkietan eta hitz-elkarketetan: “Guziok oartuko ziñeteen, auzoko erdera oriik eta euskera kideku balin baddittuzuee, askozaz ugariago dela guree. Izen batetik beste asko ateratzeko zeñek atze-izki edo *sufijo* geiago? Euskerak bai erderak alako bi ere. ¿Ta zeñek, izen batzuuk besteei erauntsi-bide geiago? Izen-yoskera edo *composición*’an ez dut oraindiño euskeraren aldera littekenik eza-gutu, ezta greziera ere”.

Lexikoari dagokionez, beste hizkuntzetatik beretuak ditu hainbat hitz: “Guk ere besterenetik artu bear dittugula. Itzen bat edo beste bali-tteke, baño ez aiek bezainbat”. Orixek izenburutzat “Mintzaira bakarra,

giza-enda bakarra” daraman geroagoko hitzaldi batean (1948) zehazten duenez, euskarak % 25 hitz besterik ez luke bererik: “Eman deza-gun –zenbaitek nai luketen bezala– eunetik ogei ta bost euskal-itx iator besterik ez dirala”. Baina maileguen fenomeno hau beste hizkuntzetera ere berdin-berdin zabaltzen da. Alemanak apenas duen beretik euskarak baino gehiago. Unamunok darabilen hizkuntzak ere, lehen bezala orain, latina eta grezierara jotzen du: “Erdera beretako aski dela. Bai zera. Arritzekoa, gizonak, izkuntza txukun ederr ori, atealdetik ugarii, ta barrendik bakana, utsarte askoduna da: izen berri oro asmatzekoan, Erromara edo Grezira eske doaie”. Greziera bera, hainbeste mendetan zehar hain landua egon arren, besteen harrobitik ekarritako hitz berriz hornitua dugu. Beraz, mailegu linguistikoaren alorrean, ez da hizkuntzarik maila handiagoan ala txikiagoan beste hizkuntzaren baten edo batzuen zordun ez denik. Euskara ez da, ezago gatzelania.

Arazoa ez datza kanpoko hitzak hartzean ala ez hartzean, egoki ala gaizki hartzean baizik. Eta hau esatean esan nahi du hitz mailegatuen txertaketa nola egin jakin behar dela. Neologismoak direla eta, okerbidetik egon ez dadin, irizpidea herriak markatuko du, hizkuntzaren sena ondoenik berak gordetzen duelako: “Gure erriik iritzi ona du, usmo (sic) bizi du, ez du onartuko zernai berrikeri. Alaxe, berrizaleek ere bearturik dire erriirekin yoaten, arengandik ez aldegitzen. Berrizale onak errii berekin eramanen dute, ta aiek erriik, eramanen dituu”. Herriarekin batera joan behar dela esatean, ordea, bi maila bereizi behar dira: jakintzarena eta artearena. Lehenengoan, herritik nahitaez aldendu beharra dago, hark ez baitu jakintzarik asko ulertzen; bigarrengoan, eder-gauzetan, alegia, ahal den gutxien aldendu behar da. Bestalde, jakintza lantzerakoan darabiltzagun hitz gehienak arrotzak direnez gero, berorietaz ongi baliatzeko greziera eta latina ikasi beharra dago. Gehiago oraindik: idazle batek, baldin zehatz, argi eta egoki idatzi nahi badu, hamar-hamabi mila hitz ondo mamitu behar ditu, nondik datozen eta zeinen ahaide eta elkarkide diren aztertuz. Honek hamabost urteko aurre-lana eskatuko dio.

Unamunok besterik uste badu ere, euskarak badu beste hizkuntzek duten adinako gaitasun hitz generikoak eta abstraktuak adierazteko. Ideia hau formulatu, geroago formulatzen du, 1931n egindako “Unamuno, el amargado” artikuluan, pasarte honetan: “Su afirmación respecto de las palabras genéricas y abstractas, sólo puede hacerse ante un Ateneo de jabalíes, o ignorando lo que se dice. Unamuno debiera saber, bien sabido, que ninguna lengua ha creado palabras genéricas y

abstractas, sino que esa abstracción y generalización les ha sobrevenido con el tiempo. Y el tiempo no se puede crear. ¿O es que Unamuno puede imprimir historia a ninguna palabra en los principios de su uso? Por lo demás, palabras abstractas, en el sentido en que las tienen las demás lenguas, las tiene el vasco”.

Euskarari, terminologia zientifikora moldatzeko gaitasuna, jarraiko iturri hauetatik datorkio: atzizkietatik, hitz-elkarketetatik, izenondoetatik, hauetan biziki aberatsa delako, eta “erne-indarretik” (konzeptu honen bidez Orixek García Diegoren “vitalidad germinativa” itzultzen du) edo kanpotik hartutako hitzak ugaritzeko daukan erraztasunagatik. Bakoitzari dagokiona areago zehaztuko dut.

Euskarak beste edozein hizkuntzak baino ugariagoak, zehatzagoak eta bereziagoak ditu atzizkiak. Ugaritasunean, Durangon esan bezala, euskara bada erdarak halako bi. Eta hauek abstrakziorako berebiziko aukera eskaintzen dute. Metafisikaren sailean erabiltzen diren ekintza, pasioa, denbora, espazioa, kalitatea eta beste hainbat nozio adierazteko, ez du gaztelaniaren inbidiarik.

Atzizkietan oparoa bada, areago da hitz-elkarketaren baliabideak irekitzen dion ahalbidea. Zergatik? Bi erro edo hitz elkartzek erlazioaren kategoría, kategoría errotik metafisikoa eta jeneralizatzailea dena, sortzen duelako. Honetan bai latina eta bai beronetatik eratorritako hizkuntzak izugarri txiroak dira. Adibidez, “bei” eta “esne” hitzak konbinazio desberdinetan elkartzuz gero, esanahi desberdineko kontzeptuak ateratzen ditugu: *beiesne = leche de vaca, esnabei = vaca de leche*. Eta honela, hitz-erroak aldatuz, milaka hitz osa daitezke, “Mintzera bakarra, giza-enda bakarra” artikuluan dakarrenez: “Erro elkartuetatik sortu-itzak guk ez ditugu iztegia sartzen, alperrik bailitzake. Onela esan diteke, aita Olabide’ren Kempis’ek Cervantes’en Quijote’k baiño itz geiago ditula, letra-mordo bixiko edo diferenteak itza osatzen ba dute. Ikusazue Itun Berriko edozein zati, naiz españolez, naiz frantsesez, eta euskeraz, ixpixo (apustu) gurean askoz itz geiago, aldatuago dirala zatian berean”. Bego hor Orixeren parioa erantzun nahi dionarentzat.

Euskarak, adierazpen abstrakturako duen gaitasunaz aparte, izenondoetan du beste berezitasun aski nabaria. Izenondoak dira hizkera arintasunez eta xalotasunez janzten dutenak. Eta honetan, Orixeren aburuz, grekoa bera baino aberatsagoa da: “Onetan ez dute ezagutzen askok greziera bezalakorik, Homeroren izkuntza bezalakorik. Oraingo izkera berriitan ez duzu beñepein olakorik. ¿Eta euskeran? Bear ba da

Grezieran baiño ere geiago. Iliadan edo Odisean daudenak euskeraldu dittezke nekerikabe, ta euskera diruditte”. Eta esanetik izanera pasatuz, zapla!, Homerorenetik zati batzuk irakurtzen dizkie itzulita Duran-goko entzulei.

Beste hizkuntzetan antzu geratzen diren hitzak, maileguz euskara pasatzean, hemen emankor bilakatzen dira, aipaturiko “erne-indarraren” ondorioz. Hitz arrotzak gurean taiu berria hartzen du, “Mintzaira bakarra, giza-enda bakarra” artikulutik jasoa da pasarte hau: “Besteren arrobotik artu ditugun arriak ere, aien etxeko orman, iarke- ra, luzeka, zabalka, aldeka, egika, milla modutara agertzen dirala. Etxe osoa ez ezen, arri bakoitza ezartzean ere, ikus gure gurezko taiua”.

Euskarak, gramatika aldetik dauzkan baliabide hain aberatsak edukita, mintzaira zientifikorako beste hizkuntza modernoak bezain hornitua dago. Hornitua, noski, berez. Eta abantaila bat du, gainera, bere alde: hots, terminologia tekniko-zientifikoaren erabileran, hizkuntza gehienek terminoa bera sortua izan deneko hizkuntzatik maileguz hartzen dutela, eta hartu bere hartan. Euskarak, orobat, bide hori irekita dauka. Baina, aukera komun horretatik at, badu termino komun estandarizatu hori euskal harrobiko hitzen bidez adierazteko bigarren aukera hau ere. Euskarak, “Unamuno, el amargado”n aldarrikatzen duen bezala, alemanaren eredua segitu ezinik ez du: “Lo ha de ver, si vive algunos años, Unamuno. Pongamos por ejemplo el alemán. Muchas palabras científicas que por traducción, por calco, por analogía crea muy bien ésta, ninguna las puede crear y crea la vasca, pero no ninguna de las latinas. Por experiencia podemos decir que cuando no nos ocurre traducir un término científico en vasco con raíces indígenas, lo mismo próximamente andan en alemán. Y eso después de la gran cultura indígena científica alemana”.

Etxeko harrobia eta maileguak: hara hor bi iturri, biak erabilgarriak. Garbizaleak, oro har, lehen aukera ertzerraino eramaten saiatuko dira. Honela, adibidez, Bingen Ametzagak esan zezakeen Shakespeareren *Hamlet* obra itzultzen erabilitako lexikotik % 80 euskal harrobiko delako. Orixek, bere belaunaldiko gehienek bezala, bere lan filosofiko-teologikoetan, batez ere, etxeko harrobia ustiatzeari ekin zion eta aukera honek, geroago azalduko dudanez, gerraondoko euskal literaturan jarrera kontrajarriak sorraraziko ditu.

Bukatzeko, Unamunorekin hizketan, bi ondorio ateratzen ditu. Lehena da, nahiz eta Aitzolek hala aitortu, Unamuno ez dela filologoa hitzaren zentzu hertsian, zeren gauza desberdina baita filologo izatea

eta poliglota izatea, desberdina den bezala hizkuntza artistikoki eza- gutzea eta zientifikoki ezagutzea. Unamunok greziera filologo gehienak baino gehiago daki artearen aldetik begiratuta, ez horrela zientziarene- tik epaituta. Laburki esanda, bilbotarrari autoritate morala ukatzen dio hizkuntz gaietan. Hori ukatuz gero, haren funtsezko tesia balio gabetua geratzen da intelektualen komunitatean. Bigarrena da Unamunoren profezia negatiboari beste profezia batekin erantzuten diola, profezia arras positibo eta optimistarekin: alegia, euskarak etorkizunean grezie- raren eta alemanaren maila har dezakeela, baina ez hizkuntza latinoek. Hauek ezingo dute, gramatika apala daukatelako, hain zuzen.

Behin honetara heldu eta gero, galde dezake norbaitek ea Una- munok, euskalduna izanda, zergatik erdeinatu zuen horrela euskara. Zerk horretaratu ote zuen? Orixeren ustez, bi arrazoi leudeke oina- rrian: bata lehiaketa bat baino gehiagotan partaide galtzailea izateak dakarren sumindura izango litzateke; bestea, berriz, zentzu praktiko gutxikoa izatea genuke, haren izaera desorekatuari atxikitzen zaiona: “Es carruaje sin freno, avión sin gobernalle, que se balancea o cabecea y aun se estrella estrepitosamente, recibiendo características lesiones espirituales que se llaman *unamunadas*”.

Izanik zen bezala izaeraz hain harro eta oldartsua, oso posible da euskararen inguruan izandako porrotak bere eragina izatea, ez agian erabakigarria, baina bai guztiz garrantzitsua. Izan ere, Unamunoren euskararekiko erasokortasuna esplikatzeke orduan, arestian aipatuta- koez gain eta ondoan, nolabait laburbilduz, jarraiko hauek aurreratu izan dira: euskara amaren tititik edoski ez izana, izaera harro eta kon- traesankorra eta, azkenik, bere sorterrian jasandako porrotaren senti- pena. Nik uste dut azken hau izan daitekeela arrazoirik sendoena, baina ez bakarria, azkenean azalduko ditudan argudioengatik. Unamu- no hain argia izanda eta hala zela bera ondo jakinaren gainean egon- da, bere etxean bertan ukatzen zitzaiona kanpoan aurkitzeari gehiegiz- koa zeritzon, burua besterik gabe makur zezan. Eta zuzenean euskara- ri dagokionez, datu-pare bat bederen kontuan hartu beharrekoak dira. Ezagunena, seguru asko, Bizkaiko Diputazioak euskararen katedrara- ko 1888an egindako deialdikoan gertatutakoa izango da. Deialdi hor- rretara sei lehiakide aurkeztu ziren, zehazki hauek: Luis Iza maisua, Pedro Alberdi, Eustakio Madina apaiza, Migel Unamuno, Sabino Arana eta R. M. Azkue. Hautatzaileen artean, bi joera nabarmendu ziren: Uria eta Landecho jaunek Unamuno zuten hautagai begikoa eta Larrazabal eta Acillona jaunek, aldiz, R. M. Azkue. Eztabaida bizi

baten ondoren, botazioetara jo eta, R. M. Azkuek irabazi zuen: honek hamaika boto, Unamunok hiru, eta abstentzio bat. Bigarren porrota, agian, ez da hain ezaguna. Ez dakigu noiz baina, Bilboko Institutuan Filosofiako katedraduna izateko Madrilen egindako oposizioetan ere galdu egin zuen Guiard lehiakidearen aurrean. Guiard eta Azkuez aparte, Mazas delako batek ere irabazi ziola ere badio Orixek. Noiz, non eta zein sailetan, ez dakigu.

Egia da Unamunoren euskarari buruzko epeltasuna, zientzi itxuraz jantzia, aspaldikoa dela, doktoretzako tesia eta *Revista de Vizcaya*-n egindako artikulua 1884 eta 1886koak baitira. Horregatik, ezin da esan porrota horien ondorioz hartu zuela bere jarrera negatibo hori. Gertakari horiek bere barne-giro katramilatsua pozoitu ziotela, hori bai, hori baieztatu ezinik ez dagoela uste dut.

HIRUGARREN ATALA

EUSKARAREN ZAIN FILOSOFIKOA

Unamuno eta Vinsonek uste zutenaren kontra, Orixek oso mutil kausitzen zuen euskara gogoeta abstraktuen bidezidor bihurrietan zehar nekerik gabe ibiltzeko. Gaitasun hori, askotan esan digunez, bere gramatikaren aberastasunetik dator. Tesi honetan oinarrituta, euskararen muinari etekin filosofikorik aterako zion itxaropen osoz, ausartu zen ikazkinen hizkuntzaz saiakera estetiko eta metafisikoak egitera. Hemen, beraz, gramatika eta filosofia urtzera gatoz pentsamendu-ontzi berean.

Gramatikaren edukia aztertzei abiatuta, Orixek aurkitzen du paralelismorik haren eta filosofiaren artean. Segidan doazkizu nabariek. Orixek erbestean sakonduko du euskarak filosofiarako duen zaina. Atal hau, beraz, aurrekoaren osagai garrantzitsua da, Unamuno eta honen eskolakoei hizkuntzaren barrutik arrazoituz erantzutera datorrena.

Ontologia –izakiaz eta beronen kategoriez diharduen zientzia hau, alegia–, kontzeptu abstraktu eta orokorren zientzia den bezala, gramatika kontzeptu horiek adierazteko moduz diharduen zientzia da. Honek esan nahi du ontologia eta gramatika lerro paraleloan, ia berean, doazen bi zientzia direla, pentsamenduz mintzatu ahal izateko beroriek adierazi egin behar baitira. Beraz, lotura hertsia dute. Orixek paralelismo hau ezartzen du kategoria gramatikalen eta kategoria ontologikoen artean: substantiboari substantzia dagokio, akzidenteari adjektiboa, moduari adberbioa. Substantziaren kategorian sartzen dira substantiboa, izenordea eta aditz substantiboa; akzidentearnean,

aldiz, besteok: aditz posesiboak edo adjektiboak, izen adjektiboa, partizipioa, adberbioa eta artikulua.

Substantzia bere baitan kontsistentzia duen izakia den bezala, substantiboa bere esanahi-kontsistentzia duen hitza da, hala nola: *mahai*, *luma*. Honi substantibo konkretua deitzen zaio. Era berean, akzidenteak berenez kontsistentziarik ez duenez gero, bere baitan kontsistentzia duen izaki bati atxikitzen zaion bezala, adjektiboak ez du berenez esanahirik bere baitan esanahia duen substantiboaren ondoan ez bada, hala nola: *zuri*, *beltz*. Honi substantibo abstraktua deitzen zaio. Koalitatea, berdin bizioa, subjektu konkretuetan bakarrik ematen da. Lehengo adibidea hartuz, zurtasunik ez da gauza kolortuan ez bada. Baina guk adimenez ematen diogu existentzia. Beraz, substantibo konkretuak edo izenak errealitate fisikoa eskatzen duen bezala, abstraktuak edo adjektiboak, gogozkoa.

Deklinabide-kasuetara etortzen bagara, nominatiboak eta akusatiboak substantzia adierazten dute; gainerakoek, akzidenteak. Horregatik dira haiek bikainak edo “nobleak”. Nominatiboari “izan-kasua” deitzen zaio; akusatiboari, “ukan-kasua”. Izendapen hau *izan* eta *ukan* aditz laguntzaileei dagokien zatiketa orokorrean oinarrituz egiten da. Akzidenteen mailan, genitiboak zerbait edukitzea, hots, “habencia” adierazten du, zerbait fisikoa (koalitatea, abilezia) nahiz morala (kantitatea, aztura); datiboak, erlazio aktibo eta pasiboa, hots, “habencia relativa”; ablatiboak, denbora eta espazioa, hots, “habituda” edo noiz-nongoan izateko modua; honi, orokorra bada, “locus” deituko zaio eta partikularra bada, berriz, “situs”.

Kidetasun horiek bide ematen diote Orixeri, gramatika landuz doan heinean, metafisikan ere gogoeta solteak egiteko. Horretarako aitzakia egokiak gertatzen zaizkio Heidegger, Sartre, Zubiri edo Bergsonen irakurketa laburrak. Alabaina, gramatikaz lan sistematizatu egitera iristen den bezala, ontologiaz ez du saiakera sistematikorik lantzen, ez bederen estetikaz gauzatu zuenaren antzekorik. Juzguetan sartu gabe, egindako lanak orotara hartuta, Orixe gehiago da gramatikari filosofo baino.

Euskal aditzaz

Euskal gramatika berriaz lehen artikulua 1929an idatzi zuen, Migel Intxaurrendoren *Método práctico del euskera* liburua kritikatu

zuenean. Kritika bat baino gehiago lanaren aurkezpena egitera mugatzen dela esan beharko da, egileak noren iturriak erabili dituen azalduz: Kanpionen gramatika, Arrigarai eta Arruzarena, Azkueren morfologia eta hiztegia, Olabideren aditza, Eleizalderen konjugazio sintetikoa, aita Lertxundiren gramatika eta Isaak Lopez Mendizabalen elkarrizketarako liburu-gida. Orixeren iritzia da sortu egin behar dela, sortzen duenak irabaziko baitu auzia arazo eztabaidatueta. “Nuestra gramática vasca” artikuluan ez da aspertzen ideia honen inguruan mailuka: “Pasaremos por pesados de puro repetirlo; pero lo que importa, hoy por hoy, es producir, mucho producir. Por sí solos se impondrán los que más y mejor escriban, y los que más y mejor investiguen”.

Bestalde, hurrengo atalean ikusiko dugunez, gramatika-arazoak *Euzkadi* egunkarian, “Temas vascos” sailean, arakatu bazituen ere, euskal gramatikari buruzko planteamendu teorikoa *Euzko-Enda* (1939) eta *Euzko-Gogoa* (1950) aldizkarietan eskaintzen du. Orixe eta Martin Oartzabalen arteko lankidetzaz, *Euzko-Gogoa*-n, 1952an hasten da eta 1956an bukatzen; baina batera hasitako lana, *El lenguaje vasco* liburuan sistematizatuta datorrena, 1963an argitaratuko da. Bi esku ibili diren lan batean zer norena den jakitea zaila baita, nik hemen, batez ere, Orixeren *Euzko-Enda* eta *Euzko-Gogoa*-ko artikulua aztertuko ditut. Guatemalako lehen urtean, Orixe idazlea gramatikari ere bihurtzen da, 1950ean “Ondar-mondar” saila irekitzen baitu, aldizkarian bertan agertzen diren hutsak eta beteak biltzeko asmoz. Gramatika-kontuan, han Amerikan, Orixe ez du irakaslerik ezagutzen: “Gure itza ez da Ebangelioa. Errez utsegin dezakegu batez ere asiberri ontan, irakaslerik ez baitugu, eta batzuek besteengandik ikasten ari baikera. Libururik ere ez dugu atzerri ontan; beraz, len ikasiaz balia bearko. Gure alde naiz aier daudenak etorri ditezke guregana lasapide osoz, eta zerbait zuzendu nai ba digute poz pozik emango diegu leku sail ontan. Asi gaitean bada E.G. aztertuz”. Hau esanda, artikulua desberdinetan bere iritziak agertzen ditu euskal lexikoaz eta aditzez.

Euskal gramatika lantzeko orduan, lehenik, gaztelania eta frantzesaren sustrai latinaurrekoa aztertu behar da. Orain arteko euskal gramatikak bururatzera egin izan den akatsik handiena, hain zuzen, frantsesek eta espainolek egindako gramatikak abiapuntutzat hartzea izan da. Lehen lana, ordea, hizkuntza horien egiazko izaera sakontasunez eta zuzenean ikertzea izan beharko zukeen. Orixeren tesia da gramatikari frantses eta espainolek ez dutela idatzi egiazko beren grama-

tikarik. Hizkuntza hauek, nahiz eta erromanikoak deitzen zaien, azpi-azpian latinak inbaditu aurreko lurralde horietan mintzatzen ziren hizkuntzak islatzen dituzte. Ukitu hori, batik bat, aditzean nabaritzen da. Horregatik, lehen egitekoa frantses eta gaztelaniazko gramatika on bat egitea da, kontuan hartuz hizkuntza horiek barruan daramaten latinaurreko hondo sakona eta segidan, ñabardura horiek jaso ondoren, euskal gramatika egiten hasi. Orixeren ustea da euskarak ukipenik izan zuela latinaurreko auzo-hizkuntzekin eta, ondorioz, nahiz eta hizkuntza horiek desberdinak izan morfologiaren aldetik –aditz-egiturari dagokionez, batez ere–, euskararekin zerikusirik baduketela semantikaren aldetik. Hau suposatuz gero, “El genio de un pueblo. Su manifestación más genial. La lengua” artikuluan aldarrikatutako tesia berrestera dator Orixek: “... no se puede escribir bien hoy una gramática francesa ni española sin tener en cuenta la lengua vasca, que se da la mano con aquellas lenguas anteriores de franceses y españoles cuyo genio no ha podido absorber la que las invadió”.

Orixek, irizpide horretatik abiatuz, bi helburu ezarri zizkion bere *El lenguaje vasco* liburuari: “confirmar lo bien hallado y reformar lo deformado”. Lehen zatian ondo dagoena berresten du eta, zentzu honetan, Eleizalde eta Azkueren morfologi zatiak jasotzen ditu, ohar osagarriak gehituz. Bigarren zatian, desitxuratua dagoena berritzen du eta, zentzu honetan, aditz sintetikoa bost denboratara ekartzeari deritzo berritasunik handien.

Euskal gramatikaren barruan, ikertu ere, aditza ikertu baitzuen gehienik, alderdi horixe zehaztuko dut zertxobait. “Hacia una gramática nuestra” artikuluetan gramatika-kategoria desberdinak aztertzen baditu ere, batez ere, aditza aztertzen du eta, zehazkiago, gaztelania eta frantsesezko *haber/avoir* aditz laguntzailea. Zergatik? Hitz-bikote hori filosofi kategorian akzidenteari dagokion oinarritzko kontzeptu bat delako eta, hala izaki, ez grekoek ez latinoek beren aditz-jokoetan erabili ez zutelako. Hitz horri esker sailkatu ahal izan dira aditzak substantiboetan eta posesiboetan, aditz aktibo eta pasiboen ohiko sailkapena alde batera utzita. Euskararen kasuan, gainera, are garrantzitsua da aditza, zeren, esaldi baten barruan ideiarik gehien biltzen dituen zatia izateaz gain, haren erreferentzian baitoaz subjektua, objektu zuzena eta zeharkakoa, espazioa eta denbora, baieztapena eta modua. Euskal aditzaren gainean lantzen dituen punturik nagusienak aipatzera goaz segidan.

Izan, egon, ukan

El lenguaje vasco liburuan, euskal aditza iragankor eta iragangaitzetan edota aktibo eta pasiboetan sailkatu ordez, *izan* eta *ukan* aditzen arabera, “verbos de sujeto sin *-k* final eta verbos de sujeto de *-k* final” bereizten ditu. Ustez, zatiketa honek nahasbide gutxiago du. Beste artikulatu batzuetan, berriz, *izan*, *egon* eta *ukan* bereizten ditu. Gaztelania eta frantsesa arakaturaz heltzen da bereizketa honetara.

Izan, ukan

Izan/ukan bereizketari dagokionez, bai gaztelaniak eta bai frantsesak, nahitaez, *haber/avoir* eta *ser/être* aditz laguntzaileak eskatzen dituzte denbora konposatuetan jokatu ahal izateko. Zehatzago esanda: gaztelaniari dagokionez, denbora bakunetan ere ezin da jokatu *ser* aditza *haber* aditzarekin ez bada: *he* sido, *habré* sido, (lehen *ser he* = *seré*), etab. Frantsesari dagokionez, ordea, ageri da modismorik badela baldin gaztelaniarekin konparatzen bada, zeren gaztelaniak, adibidez, *yo he venido*, *yo he entrado* egiten duen lekuan, frantsesak *je suis venu*, *je suis entré* egiten baitu. Euskarak ere berdin: *etorri naiz*, *sartu naiz*. Badirudi *izan* aditza, denbora konposatuetan, bere *izan* aditz laguntzaileaz baliatuz jokatu izan zela. Euskaraz honela diogu: *izan naiz* = *soy sido*, *izan nintzen* = *yo era sido*. Galiera zaharrean, bazitekeen *je suis été* esatea oraingo *j'ai été*-ren lekuan, *j'étais été*, oraingo *j'avais été*-ren lekuan. Hemendik bi ondorio ateratzen ditu Orixek: “primera, que quizá hubo antes independencia conjungativa en cada uno de estos dos verbos; segunda, que la idea de *haber* estaba tan entrañada en estas lenguas que bien se la puede aceptar como la categoría principal de accidente: de haber, habencia, tenencia o posesión”. Lehen hipotesiaren alde, euskaran oinarritzen da, esanez gaztelaniazko *ser* eta *haber* aditz laguntzaileak adierazteko subjektu desberdina erabiltzen dela, *izan* substantiboa aditz iragangaitzekin, bukaerako *-k*-rik gabe, eta *ukan* posesiboa iragankorrekin, *-k*-rekin. Beraz, aditz substantibo eta posesiboen arteko zatiketa berezkoagoa da oraingo aktibo eta pasiboaren artekoa baino. Grekoak eta latinak, ordea, ez zuten *ukan* aditz laguntzailerik eta honek Eskolastikari nahasketak ekarri zizkion. Orixeren ustez, baldin Aristotelesek gure euskal aditza izan balu, askozaz ere era ulergarriagoan azalduko zituen bere kategoriak. Erromantzeek, halaber, ez dute aditz-joko aktibo eta pasiborik. Euskarak, bada, baditu

bere abantailak hizkuntza horien aldean eta, *ukan* aditzaren bidez, akzidenteei dagozkien funtsezko kategoriak oro egoki adierazten ditu, hots, latinezko *habere*-tik eratorritakoak eta lehen aipatutako guztiak: *habentia* = edukitzea, *habitus* = aztura eta *habitudo* = izateko era.

Julio Urkijoren omenaldirako RIEV aldizkarian argitaraturako “Ser, estar, haber” artikuluan (1946), Lacombe*k izan/ukan* aditz laguntzaileen bilakaeraz azaldutako iritzi-pare bat kritikatzan du. Haren lehen baieztapena da, hain zuzen, hasiera-hasieran hizkuntza bakarra izan zela euskara, baina, denboran zehar euskalki askotan barreiatu zenez geroztik, elkarrena aditzeko zailtasunak eratorri izan direla hortik. Orixeri gehiegizkoa iruditzen zaio baieztapen hori, zeren Zuberoan bertan dozenaka esaldi kausitzen baitira Bizkaian ere ulertzen direnak. Gainera, xehetasun batzuk salbu, zubererak eta bizkaierak sintaxia bera dute. Etxahun poeta, ez bakarrik Bizkaian, Nafarroa Beherean ere ez dute ulertzen; baina, haren esaldi osoak eta koplak oso ondo ulertzen dira Euskal Herri osoan, Bizkaian barne. Orixek, bere azken laburpenean, bi puntuok azpimarratzen ditu: batetik, nafarrera, lapurtera eta gipuzkeran hizkuntz batasunik aski ematen dela mintzaira beraren euskalkiez mintzatu ahal izateko eta, bestetik, bizkaierak nahiz zubererak sintaxi-batasun osoa bederen badutela.

Haren bigarren baieztapena da, *ukan*-ek Hegoaldeko euskalkietan gaztelaniaren eragina nozitu duela. Orixeren ustez, aldiz, Hegoaldeko bost euskalkietan ez da erabili izan azkenaldi honetan *ukan* aditza. Nafarroa Beherean izan ezik, beste guztietan *izan* esaten da *ukan*-en orde. Honek esan nahi du *ukan* izan dela *izan*-en eragina jasan duena, eta ez alderantziz. Ez da, bada, egia *izan* aditza batzuetan *haber* zentzuan erabiltzen dela eta beste batzuetan, berriz, *ser* zentzuan. Gaztelaniaz eta frantsesez nahasten dira batzuetan laguntzailearekin jokatzean, baina euskaraz ez, honek, besteek bezala, nahasketa hori ezinezkoa egiten duten bi subjektu desberdin baitaizka. Ezin da esan, adibidez: *nik naiz* edo *ni dut*. Bestalde, gaztelaniaz nahiz frantsesez, *ser/l'être* aditza ezin da jakatu *haber/l'avoir* gabe geroaldi bakunean eta baldintzazkoan; euskaraz, aldiz, *izanen naiz* diogu. Beraz, *izan* eta *ukan*-en arteko zatiketa askozaz ere barruagoko eta zehatzagoa da euskaraz erromantzeetan baino. Zaharragoa ere bai, bi subjektu desberdin horien arteko zatiketa hala baita. Ezin da esan, bada, *izan*-en *ukan*-ekiko eragina frantsesetik etorria dela, ez baitu ondoriorik utzi Iparraldeko euskalkietan; orobat, ezta *ukan*-ek Hegoaldekoetan ere. Aitzitik, *egon*-ek jasan du frantsesezko *être*-ren eraginik, hain handia, ezen erabat desagerrarazi baitu Iparraldetik.

Egon, ukan

Gaztelaniazko *estar* aditza, Orixeren ustez, oso garrantzitsua izan zen hizkuntza iberikoan, ez horrela zeltikoan. Frantsesek eta beste zenbait atzerritarrek, *izan/ser* eta *egon/estar* aditzak nahastuz, “vos estóis español, yo estoy abogado” bezalako esaldiak egiten dituzte. Gaztelaniak, batetik, euskarak bezala, irautearen esanahi orokorra ematen dio *estar* aditzari; baina, bestetik, aditz aktiboen laguntzaile gisa jokatzeko da lehenaldi eta geroaldian. Euskarak, ordea, ez du onartzen aldi berean geldirik eta ekinean egotearen paradoxa hori.

Euskaldunok beregain dirauena adierazteko *egon* erabiltzen baitugu, aditz honen bidez substantziari dagozkion oinarritzko kategoria guztiak egoki adieraz ditzakegu, hala nola: *dagoena* = lo que está; *dagokeen* = la substancia; *dagokidana* = pertenencia o relación posesiva; *nagokio* = relaciones de pura hábito, tiempo y espacio; *egoera* = actitud, situación; *egoitza* = permanencia.

Lacombek uste zuenaren kontra, *egon* aditza ez da modernoa, hots, gaztelaniatik *egon*-en *izan*-ekiko eraginez sartua; eragina justu alderantzizkoa da, *izan*-en *egon*-ekikoa, alegia. Ulertzekoa da *egon*-ek *izan*-en eragina nozitu izana, biek subjektu berbera baitute. Grezieraz bezala, euskaraz ere bi laguntzaile daude, hots, *egon* eta *ukan*, eta hauek ez dira greziera klasikoa baino modernoagoak. Beraz, *egon*-en erabile-
ra zaharragoa eta orokorragoa izan da, baita Iparraldeko euskalkietan ere.

Denborak

Oinarritzko bi denbora dauzkagu euskaraz: a) orainaldia, eta hemendik ateratzen da ahalezko orainaldia (*dezaket*), eta b) lehenaldia, eta hemendik eratortzen dira ahalezko geroaldia (*nezake*) eta ahalezko lehenaldi urruna (*nezakeen*). Beraz, guztira, bost denbora daude: oraina, lehena, geroa, ahalezkoa eta ez-ahalezkoa:

<i>naiz</i>	<i>dut</i>
<i>naizake</i>	<i>duket</i>
<i>nintzan</i>	<i>nun</i>
<i>nintzake</i>	<i>nuke</i>
<i>nintzaken</i>	<i>nuken.</i>

Lehenengo biak aztertuz gero, *naiz/dut* eta *nintzan/nun*, alegia, besteak aztertuak daudeke. Patxi Goenagak bere “Orixeren gramatika lanez” artikuluan azpimarratzen duenez, aditz-joko horiek hobeto sailkatuak geratuko lirateke bosteko zutabeen ordez seikoak jarriko balira, ez baita argi ikusten *-ke*-dunak hiru izanik zergatik *-ke*-gabeak bi bakarrik diren: “Hor, *nintz-* eta *-lu-* falta direla ematen du (*balu* eta antzekoetan erabiltzen ditugunak”.

Bestalde, aditz-joko bakunetan, geroaldiaren banaketa hirukoi-tzak oso egoki adierazten du filosofiako *futurum absolutum*-a = daitekeena, *conditionatum*-a = litekeena eta *contingens*-a = zitekeena. Orixe harro sentitzen da ikazkinen hizkuntza tomista eta molinisten buruzorrotasunak oro ederki adierazteko gai delako.

Moduak

Konjugazio-moduak era oso arbitrarioan onartuak daudela esan behar da, baldin modu indikatiboaz modu erreala eta subjuntiboaz modu irrealia ulertzen bada. Zentzu hertsian hitz eginda, ez da ematen lehenaldia beste denbora errealik. Orainaldia, hein batean irrealia den arren, errealtzat ematen da; halaber, geroaldi efektiboa. Baina ez du onartzen indikatibotzat hartzea ondoko moduok: pluskuanperfektua, bere formari dagokionez; geroaldi burutua gaiari eta itxurari dagokienez; ezta orainaldi eta lehenaldi bakunak ere. Orixe hiru modu bereizten ditu: hautapenezkoa, ustezkoa (konjekturala) eta ahalezkoa. Baina azken modu hau, euskaraz, beste bietatik desberdina da, zeren *ahallpoder* laguntzailea baita ahaltasuna adierazten duena. Horregatik, *-ke* horrek alferrik errepikatzen du aditz laguntzaileak berak adierazten duena. Hala dio “El sistema del verbo vasco en el siglo XVI” artikuluan, René Lafonen aditzari buruzko lana kritikatzeko ari dela: “Se duplica y aun triplica el potencial en *ezan*: ‘ahal ditzaket’... El mismo hecho se produce en el verbo *ekidin*”. Hurrengo orrialdean, akats bera atzeman uste du *ukan*-en erabileran: “Los autores emplean ‘ukhanen duke’ pag. 95), ‘ukhanen dukete’ (pag. 120). Debieran decir *ukhan duke*, *ukhan dukete*. Sustituyámosle por *ezan*. Es absurdo decir *ukhanen dezake*, *ukhanen dezakete*; pero no *ukhan dezake*, *ukhan dezakete*. No hace falta ese redoble de futuros *-en* y *-ke*”.

Orixeren ikuspegi honek badu zer zuzendurik. Ahaltasuna aditz laguntzailearen bidez adierazten dela baieztatzea, adibidez, askotxo

esatea dela deritzo Patxi Goenagari. Areago oraindik: *ukan*-en kasuan, berriz, aditz laguntzaileen aspektu-alderdia ahazten duela leporatzen dio, *edun*-ek eta *ezan*-ek eskakizun desberdinak baitituzte. Horregatik, oker esana dago “ukanen dezake”, baina ondo “ukanen du”.

Ser *aditz laguntzailearen erroa: iza*

Orainaldiko aditz-jokoan bost forma hauek ematen dira: *naz*, *nez*, *niz*, *naiz* eta *nuzu*. Hauetatik jatorrena zein den? Lehengo euskaldunen hasierako euskararen tankera zer-nolakoa izan ote zitekeen asmatu behar izanez gero, Orixeren aburuz, *niz* izango litzateke, *izan*-en erroa *iza* dela pentsatzen baitu. Patxi Goenagak, Koldo Mitxeleneri jarraiki, zuzendu egiten du Orixeren uste hori, ez baitirudi *niz* forma *naiz* baino zaharragoa denik.

Edin, iten, egin, ekidin

Aditz laguntzaile hauetan nahasketa handia ematen delakoan dago. Lafoni ohartarazten dionez, Leizarragaren denboratik datorrena da, gainera: “Leizarraga los confunde a menudo. No pueden referirse a un mismo grupo radical *ekin* y *ekidin* por la sencilla razón de que el uno es verbo de la primera clase y el otro de la segunda. Además *edin* no posee conjugación relativa y el *ekidin* no la tiene absoluta”. Lafitteri, orobat, kritika bera zuzentzen dio: “*Edin* eta *ekidin* nahasten ditu. *Edin* bethi eni da; *ekidin* ni. *Ekidin* au gaizki iokatzen dugu egun. N. 158. ‘Jauna, urrikal zakizkigu’. Lehengo zaharrek *zakidigu*, guk *zakigu*. Entzun ere dut ‘zaizkigu, zakizkigu’. Zertako auniztu ta birauniztu”.

Galdetu behar dena da ea zertan oinarritzen den Orixe hori esateko. Zailtasuna aditz horien erroa zertzean datza, zalantzarik gabe. Subjuntiboan, pluraleko formak osatzerakoan, paradigmak aldaketa jasaten du: *nadin*, baina *gaitezen*. Orixeren ustez, hor bi erro daude: *edin* singularrean eta *iten* pluralean. Azkuarentzat, ordea, ez bi erro desberdin, baizik bi denbora desberdin leudeke hor, *-te* geroaldiko marka izanik: a) “normales de presente” (il *nadinean*, il *dadinetik*), eta b) “normales antiguas de futuro” (il *naitenean*, il *daitenetik*) deitzen dienak. Lafontzat ere *-te*-k nahiz *-ke*-k balio bera dute. Orixe, bada, nahastua zebilen *-te* hori aditz erroari zegokiona zela pentsatzean. Hala uste du bederen Patxi Goenagak.

Haber aditz laguntzailearen izena: un

Gaztelaniazko *haber* modu askotara esana izan da euskaraz: *ukan*, *ekun*, *edun*, *eduki*, *un*. Aditz hauen erroa *u* dela agerian dago. Baina kontua da, bost aditz-izen horietan zein aukeratu behar den. Zalan-tzarik gabe, *ukan* da erroa garbienik ageri duena: *da-uka-t*, *da-uka-zu*. Iritzi horretakoa zen Azkue. Joseba Intxausti ere hari atxiki zitzaion bere *Euskal Aditza* egiterakoan. Orixeren ustez, ordea, izen hori ezin da hartu, *ukan* horrek “tener por ahora” esan nahi duelako. Nik zer-bait izan dezaket neurea, adibidez dirua, nahiz eta une honetan eskuar-tean ez eduki. Desberdina da berez eduki ala orain. *Ekun* izenaren erroa *-eku* da, Bizkaian hitz umeldua: *d-eku-t*, *d-eku-zu*. Honek ere ez gaitu elkartzen euskaldunok. *Eduki*, arestian esan bezala, *ukan*-ekin elkar-tzen da. *Edun* jotzen zuen Julio Urkijok oinarrizkotzat, *eduki*-rekin ba-tera; konjugazioan, ordea, *eduki ukan*-ekin doa eta ez *edun*-ekin. Az-kenik, *un* izena geratzen da, aita Olabideri erregularrena eta jokatzeko errazena iruditu zitzaiona. Orixe aterabide horrekin geratzen da arazo hau jorratzen duen “Ukan, Ekun, Edun (Eduki), Un” artikuluan: “Au dugu garbienik. Onen yokaeran ez da agertzen *a’rik*, ez beste tarte-korik. Erroa *u*”. Beraz, *haber/avoir* esateko, *un* aukeratzen du Orixe: *d-u-t*, *d-u-zu*; *nen-un*, *zen-un*; *d-u-ke-t*, *d-u-ke-zu*, eta abar.

Ikazkinen hizkuntza filosofi kategoriak adierazteko gai dela esan digu Orixe. Ikus dezagun, segidan, euskal gramatikatik nola jauzi egi-ten duen metafisikara. Orain erantzuten dio, praxiaren bidez erantzun ere, gogoeta abstraktuetarako euskararen ez-gaitasuna aldarrikatu zuen Unamunoren desafio hari.

Metafisikaz

Euskal gramatikak duen gauzarik preziatueneko bat –horrexega-tik da hain egokia filosofiarako–, zehaztasuna da. Dohain hori du, batez ere, gureak. Hala dakar, “El genio de un pueblo. Su manifesta-ción más general. La Lengua” artikuluan: “La precisión es una de las más altas cualidades de nuestra Gramática. Gramática digo y no léxi-co, que es donde más de ordinario se busca esta virtud. La precisión en los conceptos generales es un don admirable de nuestra metafísica popular”. Zehaztasunaren adibideak *izan*, *izate*, *egon* eta *gertatu* beza-lako hitzetan atzematen ditu, batik bat. Horien inguruan ibiliko gara.

Metafisikarako lehen hurbilketa, *izan* aditzaren infinitiboa gunetzat hartuz egiten du. Euskarak, izakiari buruzko zientzia adierazteko, *izan* aditzaren infinitiboko orainaldiaren bidez, bitan sailkatzen ditu izakiak: predikamentaletan, hots, errealitate objektiboan direnetan eta transzendentaletan, hots, soilki adimenean direnetan. Hori frogatzeko, Iparraldekoek eta Hegoaldekoak *être/esse* infinitiboari ematen dioten itzulpen desberdinean oinarritzen da. Hangoek, *izate* itzultzean, haren izaera transzendentala adierazten dute; hemengoek aldiz, *izan* itzultzean, predikamentala. Mintzatzean bi era horiek erabiltzen dira, eta oso ondo erabiltzen ere, bi munduak, erreala eta ideala, argi eta garbi bereizten baitituzte: *izan*-ek lehenengoa eta *izate*-ak bigarrena. Euskarak hain ondo bereizten dituen bi maila horiek nahastea latinaren eraginez gertatzen da eta arazo horrixe helduko dio, hain zuzen, ares-tian aipatutako artikulu horretan. Orduan hasitako burutazioekin segituko du handik hamar urtera ere, *Euzko-Gogoa*-n beste bi artikulu mardul, “Izaten a gertatzea” eta “Izan, egon, gertatu” deituak, argitaratuko dituelarik. Bere gogoetak bukatzean, zerbait berri eta zerbait handi aurkitu bide duelakoan, pozik sentitzen da. Eskolastikak oker eraikitako existentziaren kontzeptua behar den bezala argitua eta zuzendua geratzen da euskarak duen zehaztasunari esker.

Orixek argitu nahi duen arazoa –aspalditik datorrena, hain zuzen–, da ea existentzia eta esentzia fisikoa bereizten diren ez errealitate objektiboan? Hark honi zerbait eranstean ote dio? Gakoa, azken batean, San Tomas Aquinokoaren gai honi buruzko testuen interpretazioan datza. Zehazkiago esanda, haren *esse* kontzeptuak *zer* adierazten duen jakin nahi da. Suarezen ustez, existentzia eta esentzia gauza bera dira, zeren hark honi gertatzea (“realización” edota “ultima actualitas”) besterik ez baitio eranstean. Cayetanok eta beste tomistek ordea, existentziak esentziari aktualtasuna ematen diola eta, biok bereizi egiten dituzte. Esentziari azken zehaztapena, hots, aktualizazioa falta baitzaio, huts hori betetzera dator existentzia. Orixek, hain zuzen, suaristen eta tomisten eztabaida hori jasotzen du testu honetan, esanez San Tomas Aquinokoak *esse* eta *essentia* ongi bereizi zituela eta *esse* hori *existentia* besterik ez dela. Tomistek, bada, gaizki asmatu dute existentzia hori, “Gogoetak metafisikaz” sortan datorrenaren arabera: “S. Tomas’ek beti *esse* eta *essentia* erabili oi ditu baigauza ta zergauza ongi bereiziz. *Esse* izen bezala darabilenean, obe luke *tó esse* esan. Tomistek oker asmatu dute nere ustez existentzia, ta itz onekin naspilla gogorra sortu. S. Tomas’en *esse* ‘habere existentiam’ da, ez gáñera ‘habere

essentiam” . San Tomasek, bada, sorkarien izaera metafisikoa adierazteko, *esse* eta *essentia* erabiltzen ditu, hots, bai-gauza eta zer-gauza. Badenetz galderari *esse*-k erantzuten dio, hots, bai-gauzak; zer den galderari, berriz, *essentia*-k, hots, zer-gauzak. Horregatik, tomistak oker dabilta horrela pentsatzean, zeren gauzak izanean bere existentzia eta guzti baitira, izan. Badena, hala esango du Suarez jesuitarekin batera, ezin da gogo eman beraren gertatzetik at: “Gizona, naiz sorgiña, naiz beste edozer buruz asma, gertaerari buruz asmatu bear da; izanean dan edozer, bere gertaera ta guzi ikusten baitugu. Gure buruaren goieneko ganbaran asma al dezakegu, bai gizona, bai sorgiña, bai edozer, gertaerara bidea etenda? Esan bai, bañan egin ez”.

Nondik datorren nahaspila? Hara: Aristotelesen teoriari jarraiki, sorkari konposatua edo izaki materiala materialak eta formak osatzen dute eta hiru elementu dira horri izatea ematen diotenak: materia lehena, forma substantziala eta kausa arazlea edo, Orixeren hizkuntzan esateko, “iza-gaia, iza-era eta izarazle edo gertarazlea”. Gertatzen dena da sorkari hauetan izan eta gertatu gauza berbera direla, baina ez Jainkoa baita, Honek, gertatu gabe, betidanik baitu izana. Horregatik, tomistek, sorkari konposatuen existitze-egintza hori adierazteko, San Tomasen *esse*-ren ordez *existentia* erabiltzen hasi ziren eta, honela, hiruko horri beste laugarren elementu bat gaineratu zioten. Harrezkero, hiru esanahi hauek hartu izan ditu existentzia hitzak: gauza gertatzean edo *in fieri*; b) gertatutakoan *edo in facto esse*; c) izanduna esaten den horretan edo *in esse physico*. Eskolastikoez, hain zuzen, existentzia lehen zentzuan gogo ematen dute eta ez bigarrean. Haientzat existentzia da esentzia fisikoari gertatzea ematen diona, hots, kausa fisikoa; euskaldunentzat, aldiz, gauza burutu edo gertatu baten baieztapen hutsa besterik ez da, hots, ondorio logikoa. Beraz, Orixeren ustez, “in facto esse” zentzuan gogo eman behar da izaki konposatua, ez “in fieri” zentzuan. Eta baieztapen hori, euskaraz, aditzari *ba-* aurrizkia jarritz ederki adierazten da. Arrazoi honen indarrez hartzen du Orixek ontzat San Tomasen *esse* eta desegokitza tomisten *existentia*.

Zertan huts egiten duten eskolastikoez? “An sit res”etik “quid sit res”era edo, Orixeren euskaran esateko, bai-gauzatik zer-gauzara jauzi egitean. Ondorio hau ateratzen du “Izan, egon, gertatu” artikuluan: “Eskolastikoez *an* ortatik *quid* ortara oker egiten dute salto, baigauza uts utsa dana zergauza biurtzen baitute... Gauza bat, oraindik izanean ez ba’da (*si non sit in actu*), ez diteke esan ba-dala; izandakoan bear du, (*in facto esse*)”. Bestela esanda: eskolastikoez existentziatik esentziara

pasatzen dira batere beharrik gabe. Orixeren ustez, aldiz, prozesua beste hau da: errealtate objektiboan zertua den gauzak, guk ezagutu nahiz ez ezagutu, badu horrek bere egia ontologikoa edo *ipso facto*-ko baiezkotasuna; baldin gero guk gauza hori errealtate historikoan ezagutzen badugu, existentzia subjektiboa lortzen dugu. Honek berdin balio du bai izaki sortuen bai Jainkoaren beraren existentzia adierazteko. Hori horrela izanik, eta hemen laburbiltzen dut Orixeren izakiari buruzko bere pentsamendua, ondo bereizi behar dira existentziaren maila eta esentziarena:

a) San Tomasen *esse* horrek izaki fisiko baten baiezkotasuna bakarrik adierazten du, eta “ba al da?” galderari erantzuten dio soilki. Hauxe da, ez besterik, existentzia.

b) *To esse* edo *quidditas* honek, berriz, “zer da?” galderari erantzuten dio eta hau izango litzateke esentziari dagokiona.

Beraz, baliokide hauek dauzkagu: batetik, *esse* = existentzia eta, bestetik, *quidditas* = essentia. Eskolastikoez existentziarekin egin dutena da, gauza badela esatera mugatu ordez, zer den esatera pasatu. Zer-gatik egiten duten honela? Existentzia *in facto esse* gisa gogo eman ordez, *in fieri* gisa gogo ematen dutelako.

Orixerentzat, bada, “ba-dalazko”a da izakiari buruzko gogoetan oinarri-oinarrian dagoena. Horregatik, ezin du ulertu, *izan*-en inguruan egindako gogarte honen ondoren, nola esan zezakeen Heideggerrek baia “eza”tik datorrela, “Izatena eta gertatzena” artikuluko pasarte honetan dioen bezala: “Eza ez dezakegu asmatu ere soil-soilik, zerbait erauntsi gabe”. Era berean, ezagutzaren iturburutzat intuizioa ezartzen, substantziaren ordez irautea aldarrikatzen, kreazioa eta gauzen zertarakoa ukatzen duen Bergsonen filosofia materialistak ere ez dio sinisgarritasun handirik eskaintzen. Azkenean, adiskide batek (Lafittek) eman zizkion haren hiru liburu irakurri eta bere lantxoak bukatzean, gogoia arras mikatz, hauxe aitortzen du “Gogoetak metafisikaz” sorta aipatuan: “Bergson irakurri eta irakurriz geroz hartaz hatzeman dituzdan iritziek ez dautate gogorik beth; ez dautate erran nahi nukenik”. Eta, batek Bergson bai eta besteak Bergson ez, haserretzerainoko kalapita izan zuen Lafitte jaunarekin, aski luze iraun ziona, kalonjeak 1961eko abuztuaren 17ko *Herria*-n kontatzen duenez: “Behin haatik haserretu zitzaikun, eta hasarretu baino gehiago. Pentsa zertaz? Bergson-en *Evolution Créatrice* delakoaz: ez ginuen batere berdin asmatzen harek eta nik filosofoaren erakaspenean. Hasi zitzaidan oihuka ez nuela zentzurik aski Bergsonen ulertzeko, eta nik arrapostu harek ez

zakiela frantsesez aski... Hots, agurrik gabe gibela itzuli zitzaizun, eta malezia gaitza frango luzaz atchiki zautan, biz-pahiru aldiz bere lumaz ausiki ere baininduen. Ez baitzen (beharrik) errabiatu, zauriek ez zautaten utzi gerokorik”. Haserre honek erbestealdi osoan zehar iraungo du.

Barruak kezka inarosten dizkion eta erlijioa auzitan daukan filosofia subjektibista eta materialista honek ez du iraupenik, ez dio onik egiten. Hondamen horretatik Zubiri euskalduna bederen salbu ikusi nahi du: “Ortatik egungo pilosopi zoroa eta gaizoa, indarrak artzen ez dun ume aula. Aburu bat erori orduko beste bat altxatzen dute. Ioana da Bergson, ioana dago Sartre, ioana ditek luza gabe Heidegger, eta... ez, ez, irau dezala Zubiri euskaldunak, besteren izkuntzan mintzo bada ere. Gauza mardulik eta iraukorrik atera ba’leza, euskerara biurtuko diogu”.

Estetikan bezala, metafisika ere Orixeko eskolastiko bat gehiago da, kategoria aristotelikoak euskaraz –asmoz Aristotelesek berak baino zehazkiago–, ematen saiatuko dena. Orixek euskaratik abiatuta egiten du metafisikarako jauzia, euskara beste hizkuntzak baino gaituagoa dela pentsatzen baitu. Orixeko gramatikariak, azkenean, filosofo izanez bukatzen du. Eta ez du hor bukatzen apetz, gogoak eman diolako, alegia, euskarari buruzko bere ikuspegiak gidatuta baizik. Baina Orixeren suposizio horiek gaur eguneko zientzien munitatik begiratzen badira, ezin esan dezakegu hain ebidenteak direnik. Nekez esan daiteke hizkuntza bat bestea baino gaituago dela; are nekezago esan ahal izango da, agian, Orixeren metafisikak Aristoteles eta eskolastika gainditzen dituela argitasunean eta zehaztasunean. Dena den, bere bururakizunetan asmatu ala ez, haren alde daude bi gauza bederen: bat, filoso-fiaren oinarrian gramatika datzala asmatu izana, eta bi, euskaratik abiatuz eta euskaraz pentsatuz filosofatu beharra planteatu izana. Eta hemen, bai, begi luzekoa izan zela! Zubiri bati, hain zuzen, horixe aurpegiatzen dio: euskalduna izaki, erdaraz pentsatzen eta idazten duela. Donostiarrak idatzi zuena, euskaraz pentsatu eta idatzi izan balu, gure hizkuntza zaharraren mingainean beste txori batek kantatuko zukeen. Eta puntu honetan, eta ez zaio merezimendu gutxi zor, arrazoi du Orixek. Ez dezagun aiseegi ahantz garai haietan lur birjina zela euskerara filosofi gaietan.

LAUGARREN ATALA

EUSKAL GRAMATIKAZ ZERBAIT

Orixek *Euzkadi* egunkariko euskal atalaren arduradun egin zenean bazen sail bat, “Temas vascos” deitua, bere garaian Kirikiñok sortu zuena zenbait hizkuntz arazo kontsulta moduan argitu eta eztabaidatzeko xedearekin. Txoko hau oso bizia gertatu zen, erabiltzen ziren gaiak ere halakoxeak baitziren: polemikoak. Kirikiñok eta Orixek, jadanik 1924an, bina artikulu gurutzatu zituzten, bizkaieraren inguruan hainbat arazo harrotuz: Txorierriko euskararen antzinatasuna Bizkaian, bizkaierazko zenbait hitzen transkripzio fonetikoa, Arratiako euskararen laztasuna, eta beste batzuk. Honekin esan nahi dut sail honek bere bidea egina zeukala Kirikiñoren eskutik eta Orixek segida eman besterik ez zuela egin.

Euskal gaiei buruz txoko berezi bat ireki eta, zergatik gaztelaniaz? Norbaitek pentsatuko du guri bakarrik bururatu zaigula horrelako galdera egitea. Ez, bada, orduan ere, irakurle batek, bere kontsulta gaztelaniaz zergatik egiten duen azalduz, hauxe idazten baitio Orixeri 1928ko irailaren 7ko *Euzkadi*-n: “Ya que ‘Temas Vascos’ está en español en obsequio a usted, y para evitarle la molestia de la traducción, en lo mismo le escribo, en contra de mi costumbre”. Orixek, data bereko bere erantzunean, euskaraz ez dakiten baina euskal gaiez kuriositatea ageritzen dutenentzat idazten duela, dio: “Bienvenido sea usted a ‘Temas Vascos’, los cuales están escritos en castellano, porque hay muchos vascos que ignoran nuestra lengua, para su desgracia, y les gusta ver tratadas estas cuestiones de modo que las entiendan. Hará usted, pues, labor meritoria sirviendo también a ellos... En obsequio a ellos, y no a mí,

se fundó esa sección y conviene que no muera”. Testu honetan datorenez, erabaki horretan egunkariak berak lehendik dakarren hizkuntz politika da haren jokabidea markatzen duena eta hor Orixen erabakitzaileraino baino gehiago da ematen zaizkien arauen aplikatzaile. Hala ziurtatua ikusi dut Lizardiri egiten dion 1929ko apirilaren 17ko gutunean: “*Euzkadi*”koak adiskide-antzean asi dira nerekin, “Temas Vascos” argitaratzeko adierazi didate (erderaz) eta etsi egin bearako”. Dena den, esan behar da euskaltzaleen artean ere, gaztelania zela euskal gaiak aztertzeke ohiko tresna. Testuinguru horretan, euskaltzale erdaldunekin horrela gertatzea hainbat ulergarriago egiten zait. Besterik da, ordea, gaztelaniaz egiteke dakarren argudio soziolinguistikoko hori baliagarri denetz juzgatzea. Orduan, antza, gehiengo batek eskema horren arabera funtzionatzen zuen. Kirikiño eta Orixen zuzendariek ere bai.

Esan bezala, irakurleak bere iritziak eta jakinminak agertzen zitueneke txokoa izaki, linguistikaren eremuan kokatu ohi diren gai desberdinak datozkigu sail honetan: etimologikoak, gramatikazko zalantzak eta era sistematikoagoan landutako beste gai batzuk, adibidez, atzizki-sistema, hitz-elkarketa eta genitiboko pertsona-izenordeak. Azken hiru hauek jorratuko ditut, pixka bat handizka. Gai honetan sakondu nahiko lukeenari Patxi Goenagaren “Orixeren gramatika lanez” lana –jada aipatua– irakurtzeko gomendioa egiten diot, hitz-eraketan gai hau, egun, mende erdi bat eta gehiago pasa eta gero, zertan den jakin dezan.

Atzizki-sistema

“Morfología comparada” izeneko sailean, hitz-eratorpena aztertzean, atzizki-mota desberdinen sailkapen sistematikoa dakar, aurkezpen jarraituan burutua. Hasieran, bi ohar egiten ditu, batez ere itzulpenetan kontuan hartu beharrekoak direnak. Lehenik, erdarazko atzizki bati ez dagokiola euskaraz beti atzizki bakarra, esanahi anitzez hornitutako bat baino gehiago baizik. Gaztelaniazko *-ion* atzizkiak, adibidez, ekintza baino zerbait gehiago ere adierazten du: “Algunas veces significa conjunto o sucesión de acciones, v. g., ‘la acción del Marne’; otras, época o tiempo, v. g., ‘en mi tribulación invoqué al Señor’; otras, modo, manera, v. g., hermosa aclaración del texto; buena lección; otras, conjunto de cosas materiales, v. g., ‘higiénica población’; otras, número, v. g., ‘¿qué población tiene Bilbao?’, etc., etc.”. Bigarrenik, ohartuz euskara hitz berrien premian dagoela bere normalizaziorako

bidean, tresneria praktikoa eskaini nahi dio zeregin horri ekingo dion idazleari, atzizkien bidez hitz-eratorpenak nola eraiki jakin dezan. Eskaintzen digun sailkapen hau bigarren xede horri erantzutera dator, hain zuzen. Horregatik, atzizkien sailkapen zehatzari baino gehiago, gaztelaniatik euskarara itzultzeko erari begiratzen zaio. Aurkezpen honetan, bada, gaztelaniaren ereduari segitzen zaio.

Atzizki agenteak

Zailtasunik gehien aurkezten duena *-ion* atzizkia baita, euskaraz berori adierazteko zerrenda oparo hau dakar, bere adibide eta guzti, bakoitzak duen *ñabardurarekin*: *-ada, -alde, -aldi, -arte, -bide, -dura, -eta, -dura, -eta, -gura, -kari, -kera, -keri, -keta, -kizun, -kunde, -kuntza, -era, -men, -nai, -penl-tzapen, -tasun, -tel-katel-teka, -tzal-tze, -zaro* eta *-zitu*.

Zerrenda horretan datozen atzizkiak oro, adibidez *-gura* eta *nahi*, atzizki ala izen diren eztabaida daiteke, noski; honek, ordea, ez du indargabetzen zerrendaren balioa.

Izaera abstraktua duten atzizkiak

Atzizki hauek bitan zatitzen dira: batzuek, “obispado” hitzean bezala, duintasuna eta lanbidea adierazten dute; beste batzuek, berriz, koalitatea, adibidez, “ceguedad” hitzak. Duintasuna eta lanbidea adierazteko, euskaraz jarraiko atzizki hauek dauzkagu: *-go, -ko, -zko, -kuntza, -tza, -gintza*; koalitatea adierazteko, berriz, besteok: *-arzun, -asun, -era, -di, -ri, -duri, -go* (gutxitan), *-keri, -kune, -kunde, -kuntza* (gutxitan), *-men, -sarre, -kar, -te, -tze, -tza, -tzarre, -kar, -te, -tza, -keta*.

Kolektibitatea adierazten duten atzizkiak

Hemen kolektibitatea era askotara adierazten dutenak datoz: “vacada”, “tendadura”, “manzanal”, “plumaje”, “gentío”, eta abar. Hauek atzizki hauen bidez eman daitezke euskaraz: *-kada, -alde, -aldi, -di, -doi, -dui, -ti, -te, -tza, -keta, -tegi, -aga*.

Baina atzizki kolektiboen barruan, badira espezifikoki lekua eta kontinentea adierazten dituztenak ere, “condado”, “granero”, eta abar bezalako adibideetan ikus daitekeenez. Hauei atzizki hauek dagozkie: *-di, -doi, -toi, dui, -erri* (osagaia), *-gu, -gi, -ko, etako, -tegi, -toki, -ontzi* (osagaia).

Atzizki pasiboak eta posesiboak

Gaztelaniazko “lamentable”, “dividendo”, “venidero”, eta abar bezalako atzizki pasiboak emateko, euskaraz *-gai*, *-gaitz*, *garri*; *kizun*, *-koi*, *-tzeko* atzizkietara jotzen da. Atzizki posesiboetan, “barbudo”, “cabezón”, “famoso” eta horrelakoetan, *-dun*, *-ko*, *-zu*, *-handi*, *-tsu* erabiltzen dira.

Erlazio-atzizkiak

Atzizki-mota hauek dira zalantzarik gehien sorrarazten dutenak. Gaztelaniaz, normalean, kasu bidez ematen dira, “de” preposizioa tar-tekatuz: “día de fiesta”. Bestalde, erlazio-atzizkia hartzen duten gaztelaniazko adjektibo gehienak ez dira adjektibo abstraktiboak, substantiboetatik datozenak baizik. “Asmático”, adibidez, “asma”tik dator. Euskarak atzizkirik gabe ematen ditu erlazio horiek guztiak, substantibo substantiboarekin elkartuz, “eraendu + eraentzale” formularen arabera. Bedi argigarri adibide hau: sol primaveral = udaberri-eguzki (eraendu + eraentzale), edota día de fiesta = jai-egun. Hitz-elkarketa-
ren baliabide hau oso probetxugarri gertatzen da atzizki landuak itzul-tzeko, bereziki kimika-zientzietakoak. Bestalde, “eraendu + eraentzale” formulaz aparte, badaude kasuzko beste atzizkiok ere: *-ko*, *-ki*, *-gile*, *-ren*, *-antza*, *-kara*, *-din*, *-alde*, *-zu*, *-dun*, *-ti*, *-tiar*, eta abar.

Gradu handigarriak eta txikigarriak

Gradu handigarria adierazteko atzizkietan da pobreen euskara, lau bakarrik baitauzka: *-tzar*, *-kote*, *-ko* eta *-to*. Orixeren ustez, ausaz, atzizki handigarriak halako mesprezu bat inplikatzan duelako gertatzen da hori. Erromantzeetan gaztelania izango da aberatsena atzizki txikigarrietan; aberatsago, ordea, euskara.

Zuhaitzak eta landareak

Euskarak bi atzizki erabili ohi ditu: *-atze* eta *-ondo*. Batzuetan, gaztelaniaren antzera, ez dira bereizten zuhaitza eta beronen fruitua. Horrela, bata nahiz bestea adierazteko, “gerezi”, “intxaur”, eta abar, esaten da.

Patronimikoak, sortetxeakoak eta leinukoak

Lehenengo biak *-ena*, *-enea* eta *-ko* atzizkien bidez adierazten dira; sortetxea nahiz leinua, berriz, *-ar* eta *-tar* atzizkiak erabiliz.

Atzizki horiez gain, “karean” dakarkigu Orixek, Azkueren morfologian ez datorrena, baina bai Axularren testuan, “por vía de” eta “a punto de” adieraziz. Honetaz hauxe dio: “... es un sufijo interesante, cuyo significado, bien precisado, pudiera extenderse”. Esanahiaren aldetik eztabaidatua den beste atzizkia, *-dikl/-tik* da, gaztelaniazko atzizki asko itzultzeko erabiltzen baita: “punto de travesía”, “desde”, “de”, “por”, eta abar.

Orixek aurkezpen hau, funtsean, Azkueren *Morfología Vasca*-n oinarrituta egiten du, bere iritzi pertsonalen eta beste hainbat oharren hazia ereinez.

Hitz-elkarketa

Atal hauxe da Orixek gehien lantzen duenetako bat “Temas Vascos” sailean. Eta landu ere, arretaz lantzen du, hasieratik bertatik nolako prozedura eta irizpideak erabiliko dituen azalduz “Composición gramatical del vascuence” artikuluan: “Pretende ser completa, sí, y a ello he encaminado mis esfuerzos”. Baina hasi, konposizio gramatikala zerbait harrigarria dela esanez hasten zaigu: “... nuestra composición, verdaderamente tal, es una sintaxis concentrada o abreviada: es un sistema lógico, sencillísimo, pero sorprendente”. Eman diren azalpenetan argitasun baino iluntasun gehiago kausitzen baitu, besteentzat uzten digu lan hori: “Dejaremos a los sabios discutir científicamente las definiciones más o menos fundadas para entrar en la exposición de clarísimas realidades lingüísticas”. Dena den, Azkuerekin batera, hitzen elkarketa baino gehiago, hitzen alboratze hutsa dela uste du.

Erabiltzen dituen iturriak, hiru hauek dira: herri-hizkuntza, Axularren *Geroko Gero* eta Yoanategiren *Sainduen Bizitzea*. Beraz, autore klasikoak dakartza eta ez, nahita, modernoak: “... he prescindido por completo de los autores, aún buenos, de más de veinte años a esta parte. Así el valor científico de los ejemplos no le será sospechoso”.

Jokabide orokor gisa, bere lan-prozedurarako, bi irizpide ditu gidari. Hasteko, euskal konposizioa nola ulertzen duen esaten du: “Toda parte de la oración propiamente tal puede ser componente con otra”.

Printzipio honen arabera, euskal konposizioaren eremua eratorpenarena baino askozaz zabalagoa da, hizkien kopurua mugatua den bitartean, osagaiena substantiboena halako bi izan baitaiteke teorian bederen. Bestalde, hitzak bere baitan duela esanahia eta hizkiak ez, honetan datza konposizio gramatikalaren eta eratorpenaren arteko bereizketa. Gero, konposiziorako erabiltzen duen oinarritzko araua zein den mugatzen du: “Si una palabra ha de ser *pre-*, *intra-*, o poscomponente, se conoce por el lugar que correspondería a sus elementos si no se verificara la composición”. Esaldi baten barruan elementu bakoitzari dagokion lekuak zehazten du, bada, osagaiak non joan behar duen: aurretik, erdian ala atzetik. “Esnebehi”, adibidez, esnetarako behia da; “behiesne”, behiaren esnea.

Atzizkien kasuan bezala, hemen hitz-elkartuen sekuentzia nagusiak kategorizatzen saiatuko natzaizu, begi-ukaldi batez irakurleak nondik nora doan ikus dezan. Egilearen grafia errespetatzen dut adibideetan.

Konposatu propioak: substantiboak

Substantiboez osaturiko hitz-elkarteetan, sekuentzi mota hauek dauzkagu:

- Substantibo bikoiztuak: *mendi-mendian, galdor-galdorrean*.
- Substantiboa + substantiboa: *txoriburu, larrebei, sulabe*.
- Substantibo kopulatioak: *buru-belarriak, begi-biotzak*.
- Esanahia kontraesankorra duten substantiboak: *aitamak, seme-alabak, oin-eskuak*.
- Kontrako esanahia duten substantiboak, sekuentzia hauekin:
 - a) Adberbioa + adberbioa: *ezbai, goraberak*.
 - b) Adberbioa + substantiboa: *ezurte, ezaldi, ezbear*.
 - c) Aditza + aditza: *herts-ideki, salerosketan*.
 - d) Substantiboa + substantiboa: *urardo, par-negar*.
- Substantiboa + aditz agentea: *ogiyale, izjario*.
- Substantibo osagaiendokoa + aditz determinatzailea: *asisari, logale, sorburu*.
- Substantiboa + adjektiboa: *lepaluze, musuhuts, biozbera*.
- Substantiboa + aditz substantibatua: *odolixurtze, buruitzuli*.
- Osagarri zuzeneko substantiboa + aditza gerundioan: *atejoka, artazuriketan*.
- Osagarri zuzenekoa + aditz aktiboa: *itzeman, utsegin*.
- Aditza + osagarri zuzenekoa: *aipatu-denborak, bildu-ogia*.

- Substantiboa + substantiboa + adjektiboa: *maripurtaundi*.
Halaber, substantiboa + adjektiboa + adjektiboa: *marizikinzar*.

Adjektiboak

Adjektiboez osaturiko hitz-elkarteak, jarraiko hauek ditugu:

- Adjektibo bikoiztua: *denbora beltz-beltza, argi handi- handi*.
- Adjektiboa + adjektiboa(k): *luze-labur, erne-zozo*.
- Partizipioa + adjektiboa, adjektiboa + partizipioa, adberbioa + partizipioa, substantiboa + partizipioa: *gaizkiazia, ezinbizi, ezinjana, gaitzikusi*.

Numeralak

Numero kardinalak, “bat” izan ezik, osagai-urrekoak dira: berrogei, irurogei, berreun. Zenbaketa-sistemaz iritzi hau ematen du: “Dado nuestro sistema vigesimal, los números de varias centenas se han expresado en nuestra lengua con múltiplos de 20; los de miles con múltiplos de 100, aunque en esto pudo haber ya influencia románica. Nuestros antepasados no tuvieron palabra para expresar mil, ni la necesitaron en su sistema numerativo, por que en él naturalmente se imponía el veintecientos o dos mil”. Beraz, euskara zaharrean, ehundik gorako zenbakiak eta milatik gorakoak, hurrenez hurren, 20a eta 100a biderkatuz egin izan dira. Arkaismo honetan oinarrituta, literaturan, ez aritmetikan, lehengora itzultzeraz proposatzen du. Proposamen honi, ordea, ez zaio funtzionaltasun handirik ikusten.

Adberbioak

Adberbioen familian sekuentzia hauek aurki ditzakegu:

- Adberbio bikoiztuak: *erdi-merdi, zuri-muri*.
- Kontrastezko adberbioak: *an-emen, aitzingibel*.
- Adberbioa + adberbioa: *betiberandu, beti-goiz*.
- Adberbioa + aditza: *betiraute*.

Aditzeratzea

Horrekin Orixeren “verbificar” hitza itzultzen dut, esan nahi duena aditza substantibo bihurtzen dela. Baliabide hau guztiz praktikoa

atzematen du idazleentzat. Kategoria honetakoak ditugu, adibidez, honako hauek: *amatu-aitzin*, *amatu-ondoan*, *giristiñotu*, *bitaratu*, *eskietaratu*, *artaratu*, *etxeratu*, *odolberritu*.

Aditz-adjektiboak

Hauek hiru mailatakoak dira: positiboak, konparatiboak eta superlatiboak, banan-banan azalduko ditugunak:

- a) Positiboak, sekuentzia hauekin:
 - Adjektiboa + atzizki adiztua: *luzatu*.
 - Adjektiboa + kasuzko atzizkia + atzizki adiztua: *luzeratu*.
 - Adjektiboa + atzizki eratzaileria + atzizki adiztua: *luzakatu*.
- b) Konparatiboak, sekuentzia hauekin:
 - Adjektiboa + atzizki konparatiboa + aditz-atzizkia: *mai-te-ago-tu*.
 - Adjektiboa + aditz-atzizkia + atzizki konparatiboa: *mai-ta-tu-ago*.
 - Axular baitan ez dira falta *-ago* adiztuak, hala nola: *Jauntzenago*, *egarritzenago*, *behatzenago*, *hurbiltzenago*.
- c) Superlatibo adiztua: *luzeegitu*, *gothorregitu*.

Numeral adiztuak

- Kardinalak: *bat-u*, *beteratu*, *bateandu*, *irunakatu*.
- Ordinalak: *bigarr-engotu*, *lenengotu*, *aurrendu*.

Pertsonal, posesibo eta erakusle adiztuak

Pertsonalak genitiboaren marka ezarri eratzen dira: *zuretu*, *bere-tu*, *zeretu*. Hauen sekuentzia bikoitza da: batetik, pertsonala + atzizki posesiboa + aditz-atzizkia eta, bestetik, pertsonala + atzizki posesiboa + atzizki aldagarria + aditz-atzizkia.

Xedezko eta norabidezko adiztuek, aldiz, posesiboaren marka daramate: *beretakotu*, *zerezakotu*. Erakusle adiztuak, orobat, aurrekoak bezala dira. Nolanahi ere, azpiatal honetan nahaste handi samarra nabari da. Adibideak ere eskas dira.

Erlatibo, mugagabe eta adberbio adiztuak

Euskaraz ez baita izenorde erlatiborik ematen, hori *-n* atzizkiaren bidez adierazten da. Mugagabe adiztuak gramatika-zalutasun handia

eskaintzen du hitz-elkarketak egiteko, hala nola: *norenganatu*, *zertaratu*. Badaude, egon, adberbio adiztuak ere: *oneragotu*, *aragotu*.

Aditzarekin hitz-elkarketak osatzeari dagokionez, Orixek, hainbat erabaki idazlearen esku utzita, aholku hau ematen du: “En lo que se debe fijar el lector es en que los procedimientos nuestros derivativos son generales, sin más límite que la exigencia de la idea. En otras lenguas vecinas, no faltan ejemplos de verbización de sustantivos, adjetivos, adverbios, pero les falta nuestra asombrosa generalización”.

Aditz konposatuak

Aditz hauek hartzen dituzten formak sailkatuko ditut:

- Osagaiaurre gisa izena daramatenak: *indarberritu*, *ozkarbitu*.
- Osagaiaurre gisa adjektiboa daramatenak: *ederretsi*.
- Osagaiaurre gisa adberbioa daramatenak: *aitzindu*.
- Osagaiondoko gisa adberbioa daramatenak: *gal-urrandu*.
- Aditza + aditza sekuentzia dutenak: *agindu-agindu* (intentsiboetan), *aditu-iduri* (atenuatiboetan).
- Osagaiaurreko eta ondoko faktitiboak: *ikus-erazi*.
- Aditz konposatu eta eratorri bitartekoak (afektiboak): *minberatu*, *logaletu*, *ongosetu*.

Aditz-atzizkiak

Aditzetik eratorritakoak sartzen dira kategoria honetan, hari deklinabidezko atzizkiok erantsiz: *-dik* (*di,ti*), *-gabe*, *-gan*, *-gana*, *-gandik*, *-pe*, *-ra*, *-ren*, *-ko*, *-rakol-tarako*, *-raño* eta *-zta*. Hauetako batzuk, adibidez *-gan*, *-gandik*, ez dira erabiltzen, edo oso gutxi, baina erabili ezinik ez dago. Badira, bestalde, atzizki aditz-aldatzaileak ere: *-na*, *-nada*, *-kel-kil-gi*, *-egi*, *-xel-txe*, *-urran*, *-ka*, *-ki*, *-lako*, *-ago*, *-arl-tar*, *-dun*, *-aril-lari*, *-gile*, *-gin*, *-koi*, *-gai*, *-tsu*, eta abar.

Orixek, gainez gain eman dudan hitz-elkarketari buruzko azalpen honetan, euskararen ezagutza handia erakusten du, sakona, idazleari hamaikatxo bide irekitzen dizkiona. Noski, akatsak izango ditu, eta nork ez!, kategoria gramatikalak zehazteko orduan. Zentzu honetan, oso posible da zenbait hitz, sail batean ordeztu, beste batean kokatu izana. Patxi Goenagarentzat, *betiberandu*, *beti-goiz*, *gaurgoiti*, *emengoiti*, adibidez, ez dira aditzondo. Agian beste norbaitek beste zuzenketa batzuk ere egingo dizkio. Zuzenketa eta hobespen batzuk gorabehera,

ezingo da ukatu haren iturritik edanez oraindik ere asko ikasten dela. Idazlea baitzen halakoxea, bazekien zerbait hitz-elkarketek eskaintzen dituzten abantailez.

“Haren/bere” arazoa

Erakusleak, izenorde intentsiboak, posesiboak direla eta, orrialde asko bete zituen Orixek *Euzkadi*-ko “Temas Vascos”eko sailean, 1928-1930eko epealdian. Bitarte horretan, zehazki 1929an, *Euzkerea* tarte-katu zen eztabaidan, haren iritziei erasoz. Arazoaren gunea, azken batean, Orixek “haren” eta “bere” genitiboen artean ezartzen zuen bereizketara mugatzen da. Artikuluak giro polemiko eta nahasian eginak badira ere, euskal gramatikari nahiz idazle klasikoen aipuetan oso aberatsak dituzu.

Eztabaida Oiz-mendik Orixeri egiten dion erantzunarekin hasten da 1928ko irailean, besteak beste, izenorde erakusle, intentsibo eta posesiboen inguruan. Hiru puntu dira eztabaidatuak.

Lehen arazoa da euskarak nola egiten duen pertsona-izenordea hirugarren pertsonetan. Nola bizkaierak eta nola beste euskalkiek? Oiz-mendirentzat bizkaierazko “a” eta gaztelaniazko “él” formak ez dira baliokideak: “Pero ni para el pueblo, ni para los escritores bizkainos, el pronombre ‘a’ significa ‘él’, como se obstina ‘Orixé’ en sostener hasta en sus conclusiones”. Orixerentzat ere ez erabat, aipu honetan zehaztapen hau baitator: “No creo haber dicho que en el pueblo vizcaíno (generalizando) ‘a’ sea ‘él’. Al contrario, he dicho, por lo menos dos veces, que no teniendo los vascos hoy palabra exclusiva para dar a entender ‘él’, acudimos los vizcaínos a *bera*, ‘él mismo’, y los demás a *ura*, *hura*, ‘aquel’”. Beraz, gaztelaniazko “él” adierazteko zailtasuna, euskarak forma komun bakarra ez edukitzean datza.

Bigarrena da nola itzultzen den euskarara gaztelaniazko “su” posesiboa. Oiz-mendiren ustez, “su” eta “bere” baliokideak dira. Orixek, latinean oinarrizuz, “aren” eta “bere” bereizten ditu: “No es que esté entusiasmado con *ura* y *aren*. Más entusiasmado quedaría si tuviéramos palabra exclusiva para decir *él*. Pero digo que donde el castellano, el francés y el escritor vizcaíno traducen *su*, *son*, *sa*, *bere*, en los dos casos diversos del latín *suus* y *eius*, (sólo al primero de los cuales corresponden), nosotros traducimos *aren* y *bere*, distinguiendo como los latinos”. Bereizketa honen arrazoia da euskaraz ez dagoela, egon, egiazko

posesiborik, “su, de él” esateko hitz eskusiboa falta zaigula, alegia. Horregatik, argitasun semantikoaren amoretan, arau hau proposatzen du, gaur egun ere guztiz erabilgarri gertatzen dena: posesiboa erreflexiboa ez denean “haren”, latinaren *eius*-aren baliokide gisa; aditzaren ekintza subjektuarengana bihurtzen denean, “bere”, latinaren *suus*-aren baliokide gisa.

Hirugarren arazoa, “neu, zeu, eu” formek zein kategoria gramatikala duten jakitea da. Intentsiboak al dira, ala besterik? Orixerentzat zalantzarik ez da forma horiek intentsiboak direla, “nerau, erau, zerau” eta “nihaur, zuhaur, ihaur” forma zaharragoen laburbilketa hutsak, alegia: “Los *eu* son, pues, intensivos, y *neu, eu, zeu*, son contracciones sencillas de *nerau, erau, zerau*”. Era berean, Txadon Zaya jaunarekin eztabaidan, “zure” eta “ire” posesibo sinpleak izango lirateke eta “zere” eta “ere”, hurrenez hurren, intentsiboak: “Así como el *zere, ere, bere* son intensivos, también el *neru* parece haberlo sido en un principio. Porque existe *nire*, y es lo natural, como de *i ire*. *Nere, zere, ere, bere*, parecen ser contracciones de *neure, zeure, eure, beure*”.

Orixe nahiko nahastuta dabilela esango nuke, ez baitu forma horien eraketa zehazten. Txillardegik bere *Euskal gramatika*-n ezartzen duen arau garbiago zaigu. Honek dakarrenaren arabera, kasu berean deklinatzen diren erakusleak eta ez direnak bereiz daitezke. Kasu berean deklinatzen diren “ni neu, hi heu” bezalako izenorde erakusle errepikatuak, batez ere, aurkaritza markatzeko erabiltzen dira, galdegaia beste izenorde edo perpausa bat denean, hain zuzen. Kasu honetan, “ni neu” honek gaztelaniatzko “en cuanto a mí” edo itzuliko luke. Kasu desberdinean deklinatzen diren erakusleetan, “haren” eta “bere” formen arau bera aplikatzen da: erreflexiboetan “ni neure, hi heure, gu geure, zu zeure” eta ez-erreflexiboetan, berriz, “ni haren, zu haren, zuk haren, hura ene, nik zure, zuek gure”. Orixe arau hau hirugarren pertsona bakarrik aplikatzen du, ez besteetan. Uste dudanez, hortik dator nahasketa. Biderdian geratzen da.

Zergatik nahasten den ere, uler daitekeela uste dut. Orixe, bere iritzi horiek azaltzerakoan, lehenik *Euzkadi*-tik bertatik eta gero *Euzkerea*-tik erasotzen dioten aranistak dauzka aurrean. Hauen tesiak, maisutzat Sabino Arana Goiri hartuta, honela laburbil daitezke: 1) “neu, ni; eu, i; bera” pertsona-izenorde sinpleak eta “nerau; erori; bera” intentsiboak dira eta horien erroa “eu” forma da; 2) orobat, “au, ori, a” izenorde erakusle sinpleak dira eta “berau, berori, bera” intentsiboak, eta horien erroa, berriz, “beu” da; 3) beraz, ondorioetara etorriz, “bere”

eta “aren” gaztelaniazko “suyo, de él” eta “suyo, de aquel” adierazteko erabili behar dira bizkaieraz, hurrenez hurren.

Aranisten tesi horiekez, azken batean, “bere” eta gaztelaniazko “su” posesiboa (“suyo, de él”) berdintzera mugatzen baitira, Orixe ahalegintzen da frogatzen lehen aipaturiko “bere” eta “aren” forma erreflexiboek eta ez-erreflexiboek badutela oinarririk euskal gramatikan eta literaturan. Horregatik, autore klasikoak aztertzean, Orixeren ikerketa hirugarren pertsonara mugatzen da soilki. Hiru motatako aipuak dakartza: gramatikarienak, idazleenak eta herri-erabileratik jasotakoak. Lehentasuna gramatikari ematen dio. Ez ditu gramatika guztiak maitzen, baina bai eskura dauzkanak. Asko dira zeharka edo zuzenean aipatzen dituenak: Mikoleta, Larramendi, J. Etxeberri, Kanpion eta, honen bidez, Geze eta Intxauspe, Van Eys, Schuchardt, H. Gavel, Pierre Urte, Harriet, Arrayet, Ithurry, P. Zamarripa, eta abar. Idazleetan ere beste hainbestekoa da zerrenda: Kapanaga, Bartolome, Añibarro, Mogel, Manterola, aita Balzola, R. M. Azkue eta Altube bizkaitarrak; Mendiburu, Kardaberaz, Lardizabal, J. I. Iztueta, Asteasuko Agirre eta Emeterio Arrese gipuzkoarrak; Leizarraga, Axular, Haraneder, Duvoisin, Yoanategi, Arbelbide lapurtarrak, eta abar. Oro har, zuzenean edo zeharka, hogeita hamabi autore baino gehiagoren aipuak dakartza. Bestalde, herri-mailako erabileraz aztertzeko, *Erizkizundi irukoitz*a-n jasotako ondorioez eta herrian bertan egindako kontsultez baliatzen da. Azkenean, objektzioa batez ere Bizkaitik baitzetorren, hemen ere “aren” eta “bere” bereizten direla ondorioztatzen du: “Creo haber demostrado ampliamente la contradictoria que se me opuso de que en vizcaíno siempre se ha usado *bere* para decir *su, de él, y nunca aren*. Mi opinión es, después de los datos, que aun en vizcaíno la regla del *eius* y del *suus*, con su sabia distinción, ha sido general hasta no hace mucho. Lástima que no haya más contemporáneos de Capanaga, quien hemos visto observó esa ley en el siglo XVII con casi absoluto rigor en su catecismo. En el siglo XIX tenemos al Padre Bartolomé, quien la cumple a medias, y hasta en el siglo XX hallamos un autor que alguna vez lo usa... En cuanto a Guipúzcoa, que en Cardaberaz guardaba admirablemente esa distinción, hoy la ha abandonado casi por completo, y es alarmante su próxima desaparición, si los escritores no la contienen. Hasta en algunos navarros se ha sentido esa influencia”. Lapurdin garbi gorde da bereizketa: “Axularrek ‘bere’ asko dakaz amar orrialde orreitan, baño beti ‘su mismo’ ta ‘su propio’, adierazoteko, ez ‘suyo, de él’ bakarria. Ganera, ‘bere’ itz au, oker darabil

Axularrek askotan; norbait ez ezik norbaitzuek direanean be, ‘beren’ edo ‘euren’ ordeztu, ‘bere’ esaten dau ta. Yoanategik eta Arbelbidek be, ez dakarte erakusgarri bat bakarrik, ‘bere’ ‘suyo, de él’ esateko: Yoanategik ‘haren’ asko, ta Arbelbidek iru aldiz orrialde bakarrean ‘bere’ ‘suyo propio’ alperrik edo ganez”.

Halako kalapita sortu zuen bereizketa hori, ordea, ez da Orixek sortua. Aitzitik, berak espreski dakarrenez, Arturo Kanpion gramatikariari hartu zion: “En el uso del pronombre posesivo de tercera persona, *bere*, ‘suyo’, y *beren* ‘suyos’, hay que fijar una distinción interesante. Los mencionados pronombres se usan cuando se refiere directa e inmediatamente al sujeto de la preposición; por ejemplo: Piarresek *bere* ogia jan du: Pedro ha comido su pan. Pero cuando no hay que girar la frase valiéndose del pronombre personal de la tercera persona con sufixo de posesión, por ejemplo: Piarresi esan diot *aren* semea ikusi nuela: He dicho a Pedro que he visto su hijo (lit) ‘el hijo de él’”.

Aranistek ez dituzte onartzen Orixek dakartzen frogak, Mikolentaren kasuan bezala, kontrako adibideak isiltzen dituelako: “Quiero hacer ver aquí la falta de veracidad, de total veracidad, de ‘Orixek’ al exponer ambos textos, y cómo calla los ejemplos que van en contra de su opinión”. Kontraobjekzio honi beste honekin erantzuten dio Orixek: “¡Me he dejado nueve casos en Micoleta!... De los nueve ejemplos, cuatro son también de nuestro dialecto, por la regla tantas veces mencionada que practicamos desde niños y en que tanto cuesta entrar a los que no la han mamado”. Egia esateko, joera nagusiaren berri jakiteko hainbat orrialdetako erakuskaria aski zelakoan, Orixek autore klasiko horien irakurketa partziala egin zuen. Adibidez, Frai Bartolomeren *Icasquizunac* liburuko lehen tomotik 100 orrialde bakarrik irakurtzen ditu, Axular, Yoanategi eta Arbelbideren idazlanetatik hamarna. Gaur egun, hustuketa informatizatua dagoenez gero, exhaustiboa izateko modua dago eta, alde horretatik begiratura, Orixek erakuskari gisa gainbegiratu egingako autore-miaketa hark izango du zertan osaturik. Hala ere, bere partzialtasunean, joera nagusia zein zen jakiteko argitasunik bazekarren.

Azkenerako gaiztotu egin zen *Euzkerea*-ko aranistekin hasitako eztabaida. “Amandarro” izenordez izenpetzen zuen Zeferino Jemeinek 1929ko abenduaren 6an “Atarrene” delakoari zuzendutako “Idazki agirija” bidali zuen *Euzkadi* egunkarira, bertan argitara zezaten. Gutun honetan Zeferino Jemein jauna, Kirikiño, Euzkaltzale-Bazkuna, Jaungoiko-Zale eta *Euzkerea* taldekoen aldeko agertzen da eta, bukaeran,

Orixerri min ematen dion hauxe dakar: “Ekin, ba, *Euzkerea* irakurten, neuk *Euzkadi* irakurten dodan lez... agertzen daun gustija atsegin etxatant arren”. Orixek, jaso eta handik bi egunera, 1929ko abenduaren 8an, egunkarian argitaratu ordez, gutun batekin erantzuten dio, *Euzkerea*-n bertan, norbera bere etxean agintzen saia dadila esanez: “Idazten asi naizanez geroz, etzait ongi iduri, zuek or etxean zeren fonetika nai ta nai ez idazleai agintzea, ta bertzerenera etorrita ere agintzea. Eskeantzean etorri, baiño berbertain zorrozki agindu, zuen fonetikarik ez ukitzeko. Ez derizkiot bidezko. Etxean antola or, baiño bertzerenean ez sartu”. “Kirikiño” lehiaketarako ezarritako baldintzen artean, hain zuzen, *Euzkerea*-koek beren fonetika aplikatzea eskatzen zuten.

Orixe eta aranista horien artean etena zegoela garbi ageri da Amandarrioren “Idazki Agirija” idazki honetako zati honetan: “Batasuna ezin lettekela ikusi edo-dozu. Etxe bi dagozalako. Bata ‘Orixe’rena: *Euzkadi*. Bestia geuria: *Euzkerea*. Aretan eztogu guk sartu-urtenik”. Eta bukaeran: “*Euzkadi*, ‘Orixe’ren etxia da, bertan etorribarrija ixanarren”. Geroxeago, leku beretik, “Mutijondo” delakoak ausardiaz ekiten dio, “Orixe’kerijak” izenburuarekin, egunkaritik bota dezatela eskatuz: “*Euzkadi*”ko Burutza dagixubenoik: ¿ez ete da, gero, lotsagarrija euzkel-atal-buru olako gixontxuba eukittia? Gizontxo orrentzat, *Goizparra* ta *Goizparrkija*, itz itxusijak dira ta Ebangelioa itzik ederrenetarikua”.

Ageriko eztabaida hori bukatzen den leku horretantxe hasten da gure kuriositatea: zer ote zegoen egiazki artikuluen eta gutunen arteko gerra horien atzean? Baina galdera hau beste nonbait lantzeko eskegita utziko dut, lehendik dakarkidan gaiari lot nakion.

Orixek ez du erabat bukatutzat ematen *Euzkadi* egunkarian hasitako lana eta, Orexan dagoela, “Personales, posesivos, intensivos” artikulua idazten du 1934an. Lan honetan, lehen esanak errepikatzeaz gain, “berau, berori, bera” formen urrunera-mailaz R. M. Azkue eta Altuberekin eztabaidan diharduela, ez bizkaitarren sistema konposatua, baizik eta sinplea erabiltzea proposatzen du: “A un oído vizcaíno moderno, dice poco el *a* sin más refuerzo, porque le falta cierto peso, *pondus*, o como dicen hoy los lingüistas, tiene poco volumen fonético. Me doy cuenta de ello, y cesaré de dar a los vizcaínos el consejo anterior; pero paralelamente se pueden dar ellos cuenta, que el ‘onen, orren, aren’, nos suena mejor a nosotros que sus compuestos, caso de no evitarlos siempre que se pueda, por agilidad literaria. No veo pues necesidad de completar nuestros dialectos con ‘beronen, berorren,

beraren' para distinguir los graduativos de distancia". Sistema sinplea zenbat eta gehiago erabili, orduan eta hobeto. Hori da idazleari ematen dion aholkua: "Procuren eliminar ese énfasis, ese lastre pesado de tanto y tanto pronombre posesivo, que es el erderismo que más a mí me molesta". Arrazoi estetikoak badu hor indarrrik.

Gerora ere, zahartzaroan, arazo horri bueltaka gogoeta luzeak egiten omen zituen eta bereizketa horrekin egiazko aurkikuntza egin zuelakoan omen zegoen. Hala daukat entzuna. Beti eutsi izan zion fermuki iritzi horri. Txillardegiren *Peru Leartza'ko* (1960) nobelari gramatika-jipoi majoa erantsi zion *Jakin*-en (manuscripto), 323 akats aurkitu baitzizkion, horien artean errepikatuena "haren/bere" posesiboari buruzko erabilera okerra izanik: "Zazpi uts-mota auek, berrizkoak kopuratu ezkerro, eun pasatxoak egingo ditutela nago. Beste gaiñerakoak alde batera utzita, leenbizikoa ("haren/bere"ren erabilera, alegia) artuko det aztertzeko, irakaskizun aundia baitu. Lenengo 50 orrialdeetan ogei ta bost aldiz ateratzen du. Aspaldi ontan arau-billa ibili naiz, eta bururako arau edo teoriakin ez det ezer iritxi. Orain egun batzuk, Leartza ari nintzala, arau bat asmatu nuun eskurakoa, edozeiñek ondo erabili dezakena, arrazoia atxikitzen ez ba'du ere: erderazko *su*, *suyo* orren aurretik, gizon, emakume, etxe, gauza (noiz eta nola) ipiñi; baiñan itz oieri, *-k* atzetik erauntsi gabe; *-k* orrek uztarrerazi egiten baitu *su*, *suyo* ori, eta ordun *bere* bear du; *da'*rekin eta *zan'*ekin ez diteke uztartu, itsusi gelditzen baita; 'etxe *au* berea *da'* ordez 'gizonak etxe *au* berea *du*. Ederki uztartzen da *du'*rekin".

Hauxe da beti arrazoi praktikiko nahiz logiko nahiz estetiko berrien bila zebilen gramatikariak ondu zigun azken gogoeta. Egia aitortu behar badizut, nik ez dut ikusten arau horretan lehen formulatuta ez zeukan ezer berririk.

BOSGARREN ATALA

EUSKAL FONETIKA

Orixeren lehen ikerketa-lan serioa, bizitza osoan zehar landuz joan zena, euskal azentuari buruzkoa izan zen. RIEV aldizkari espezializatuan hiru artikulu interesgarriok idatzi zituen: “Acento vasco” (1918), “Vocales compuestas o de acento doble en el euskera” (1919) eta “De la música y letra popular al acento” (1920). Ondoren etorriko diren beste lanen oinarria artikulu horietan aurkitzen da.

“Acento vasco” izeneko lehen artikulu hau artean RIEVen argitaratzeke zegoela aipatu zuen Julio Urkijo Ibarrek Oñatiko Batzarrean emandako “Estado actual de los estudios relativos a la lengua vasca” izeneko hitzaldian, euskal fonetikaren sailean lan aitzindari gisa aipatu ere: “Las futuras experiencias tendrían, además, especial interés para el estudio del acento vasco, materia de capital importancia para la etimología y que ha estado casi olvidada hasta los trabajos del señor Azkue y del P. Ormaechea; el de este último en prensa”. Julio Urkijok oso ondo ezagutzen zuen Orixeren artikulu hori, zeren, jesuiten artean ez zegoela inor gaitua berori juzgatzeko eta, aita Bianchi nagusiak hari bidaltzeko esan baitzion, edukiari zegokiona argitaratu aurretik ikus zezan. Orixek berak zehaztasunez azaltzen digu pasadizo hau aita Leza probintzialari Tuterara egiten dion 1919ko abuztuaren 21eko gutunean: “He aquí cómo empezó mi colaboración en la *Revista Internacional de Estudios Vascos*. Había yo escrito un largo artículo ‘Del acento vasco’, que devuelto de la censura por el P. Ciarán Socio que estaba en Comillas junto al P. Viceprovincial, durante el viaje del P. Carvajal a América, me dijo el P. Bianchi, que si bien por los censores había pasado,

eran éstos y aún otros de la provincia, en sentir del P. Ciarán, incompetentes para juzgarlo. El mismo P. Bianchi, para proceder con más cautela a su publicación, me señaló un seglar, D. Julio Urquijo, para que viera amigablemente mi trabajo, con cuyo fallo, y la censura de la Compañía en cuanto a la forma, pudiera publicarlo más tranquilamente. Lo hice así, lo aprobó, alabó y solicitó para la Revista de su dirección; se publicó y fué alabado por el mismo en público Congreso de Oñate el año pasado”.

Ez zen Julio Urkijo izan Orixeren lan horri laudorioak bota zizkion bakarra. A. Milletek ere egin zuen horren aipua, goresgarria gainera, *Revue linguistique*-n. Manuel Lekuonak, Orixeren lan hau eza gutzen zuelako agian, bere *La métrica vasca* liburuxka eskaintzen dio, gai honetan berari maisutza aitortuz: “Al que es maestro en esta materia N. Ormaechea S. J. El autor”. Liburuxka hau, hain zuzen, 1918an argitaratu zen eta bertan Manuel Lekuona euskara-irakasleak Gasteizko Seminarioan 1918-1919ko ikasturtearen hasieran emandako hitzaldia jasotzen da. Jarraian ikusiko dugun bezala, nahikoa hurbiletik segitzen dio Orixeri bai gaiaren azalpenean eta, neurri handi batean, baita aburuetan ere.

Euskarologoen komunitatean, bada, ate zabaletik sartu zitzaigun. Ordurako Orixe 29 urteko intelektual heldua zen.

Ondo dago garaiko laudorioen berri ematea, baina guretzat garrantzi handiagoa du edukia aztertzea, zeren, segidan ikusiz etorriko garen bezala, euskal fonetika ikertzetik ez baititu begiak kenduko heriotzarekin betiko itzaliko zaizkion arte. Euskaltzaindian sartzeko hitzaldian ere, eta datu hau aski sintomatikoa da, gai bera hautatzen du.

“Acento vasco” artikuluan hiru zati datoz desberdinak: lehenik, azentuaz dihardu eta hauxe da zatirik luzeena; bigarrenik, esaldiko azentuak aztertzen ditu, aski labur; azkenik, luzeago, esaldia (*período, frase*) du aztergai.

Lehen zatiari dagokionez, hasteko, ohartzen da lur labainean sartzzen dela: batetik, ikerketa-mota honetan aitzindaririk izan ez duelako eta, bestetik, aparailu mekanikoen ezagatik, entzumenaren laguntza besterik ez duelako. Hala ere, konfiantza gehiago jartzen du aparailurik gabeko euskaldun zaharren belarrietan aparailuez hornitutako euskaldun berriengan baino.

Egon, euskal azentuari buruz iritzi kontrajarriak daudela konstatzetzetik abiatzen da: Sabino Aranak bere *Lecciones de Ortografía del euskera bizkaino*-n euskaraz azenturik ez dagoela baieztatzen du; Azkuek,

berriz, lehen eta azken silabek daramatela, dio *Euskal Izkindea*-n. Orixek, azentuaz jardutean, azentu fonikoaz dihardu, eta ez azentu grafikoaz. Honek esan nahi du silaba batzuk besteak baino indar edo intentsitate handiagorekin ahoskatzen direla. Baina azentu foniko honen barruan, “intentsiboa” eta “tonikoa” bereizten ditu, bakoitza honela mugatuz: “Consiste el primero en la mayor *amplitud* de las vibraciones de las cuerdas vocales; y es causa del segundo el mayor *número* de vibraciones en un tiempo dado: llámanlos respectivamente acento *intensivo* y acento *tónico*”. Azentu toniko hau oinarrizko maiztasunaren dardara-maiztasunetan oinarritzen da eta melodikoaren parekide da. Bereizketa hau egin ondoren, azentua silaba baten intentsitate edo altuera erlatiboa dela esango du. Orixe ez da sartzen euskaraz azentu intentsibo edo azkarra badenetz eztabaidatzen. Baina oraingoz euskara arruntean emango ez balitz bezala jokaturaz –berak “supuesto por ahora”, dio–, euskal azentua honela mugatzen du: “es la altura relativa de una sílaba en la palabra, frase o período”. Manuel Lekuonak ere, Orixek bezala, azentu melodikoa edo tonikoa eta intentsiboa bereizten ditu bere *Métrica vasca* liburuan: “Poco estudiado es todavía el acento melódico o tónico, pero creo, sin embargo, que desde luego se puede asentar, que no siempre anda acorde con el intensivo, pues con frecuencia acontece ser más aguda que otra una sílaba que es menos energética y otra, por el contrario, es menos aguda a pesar de ser más energética”. Baina oiartzuarrak, Orixeren “balizko” hori alde batera utzita, garbi esaten digu euskal azentuan biak ematen direla: “Y, en efecto, lejos de ser cierto, que en Euskera no existe el acento, cualquiera puede apreciar en el habla del vasco un doble acento: tónico, musical o melódico el uno y energético o intensivo el otro”.

Azentu grafikoari dagokionez, Orixe zirkunflexua erabiltzearen aldekoa agertzen da bokal bera (*aa* edo *ee*, adibidez, beera = abajo, beera = blando, aaztu = olvidar) ematen den kasuetan. Azentu zirkunflexuan bi azentu batzen dira, zeinetan lehenengoa zorrotza edo tonikoa baita eta bigarrena, berriz, grabea. Manuel Lekuonak ere gauza bera errepikatzen du. Horregatik, egin beharreko bereizketak egin eta gero, Orixek jarraiko lau ondorio hauek ateratzen ditu arian-arian.

Lehenengoa: hasieran aipatutako Sabino Arana eta Azkueren arteko iritzi kontrajarri haiek, funtsean, soilki azalezkoak direla: “El vascuence tiene acentos tónicos, pero carece de intensivos al menos claramente perceptibles por el oído, en la conversación ordinaria”. Beraz, euskara arruntean belarriak ez du azentu intentsiborik hautematen.

Eta zehaztasun honekin, hasierako “supuesto por ahora” hura erabakita geratzen da. Manuel Lekuonak, ordea, zutik eutsiko dio bere lehen-go baieztapenari. Honentzat azentuak euskaraz egiazkoak eta garbiki hautemangarriak dira. Nahiz egiazki hala izan, erritmo poetiko nahiz musikalarentzat euskaraz azenturik ez balego bezala da. Zergatik? Azkuek uste duenari segituz, euskara mintzatua, tonuari eta intentsitateari dagokienez, hizkuntza modernoak baino askozaz bigunagoa, lauagoa, delako.

Bigarrena: beti ere salbuespen batzuk badaudela aitortuz, hiru silaba edo gehiagoko euskal hitzek azentu tonikoa daramatela beren lehen eta azken silaban.

Hirugarrena: lau silaba edo gehiagoko hitzetan eta, oro har, erro desberdineko hitz elkartuetan, silaba bat bestek baino gehiago azentuatzen dela, hala nola: “Zumarraga” eta “Arrazola” hitzetan. Nolanahi ere, zaila da zehaztea zein silaba den azentuatzen dena, nahiz eta Orixekek pentsatzen duen lehenengoan doala azentua.

Laugarrena: bi silabatako hitzek, dirudienez, bigarreanean daramatela azentua, adibidez, “ama” hitzean.

Nahiz eta, oro har, lege horiei segitu, gertatzen dena da azentuak aldakorrek direla bai hitzean eta bai esaldian. Zergatik diren aldakorrek? Orixekek bi zergatik aipatzen ditu.

Alde batetik, egoera patetikoak aurkitzen dira, esklamazio bidez beldurra, poza edo antzeko afekturen bat adierazten dutenak, hala nola: *Aurrera*, *Bejondaizula*, *Ene*. Kasu hauetan egiazko azentu intentsiboa ematen da, nahiz eta azentu hori zein silabatan kokatzen den jakiteko arau finkorik ez dagoen. Hala ere, ohiko elkarrizketan belarriak ez du hautematen azentu gogor hori. Geroxeago, Durangoko hitzaldian (1921) ere, arazo berbera modu berean formulatuko du.

Bestetik, berriz, eta zergatik honi ideala edo logikoa deitzen dio, homonimoak eta adierabiko esaldiak dauzkagu. Segun eta hitzak non kokatzen diren esaldi baten barruan edota, azentu tonikoa segun eta zein silabatan erortzen den, esanahia aldatu egiten da. Euskaldunok azentu tonikoz baliatzen gara homonimoak bereizteko. Adibide bila nafarrerara jotzen du. Euskalki honetan, egilea singularrean doanean kendu egiten da azkeneko azentua, baina ez pluralean doanean. Bestela esanda: lehen kasuan, azken silabak azentu grabea darama (adibidez, “gizonàk egin du”) eta, bigarrengoan, zorrotza (adibidez, “gizonàk egin dute”). Badaki “gizonak” plural pasiboa eta “gizonek” plural aktiboa ere badirela. Badaki, baina, forma horiek direla eta, ez du ezta-

baidan sartu nahi, pentsatzen baitu objektio horiek ez dutela ezeztatzen bere baieztapena. Ez hitzekin bakarrik, adierabiko esaldiekin ere antzeko zerbait gertatzen da. Demagun “ama etorri al da?” esaldia. Azentu nagusiak erabakitzen du esanahia. Baldin azenturik garaiena “al” silaban badao, orduan badakigu ama etorri den ala ez galdetzen dela; alderantziz, baldin azentu berbera “to” silaban ezartzen bada, ama ala beste norbait etorri den galdetzen da. Adibide hauek adierazten dute azentuak baduela bere eragina logikan. Hala ere, Orixek berak ohartzarazten duenez, homonimoak azentu tonikoaren bidez bereizteko legea ez da orokorra, herri batzuetan homonimoetan ez baita tonuz aldatzen.

Artikuluaren bigarren zatian, azentuek esaldian duten zeregina aztertzerakoan, hemen, azentu finkoak eta aldakorrak bereizten ditu. Esaldian, hitzean bezala, azentu finkoak dira lehen eta azken silaban doazenak. Azentu aldakorrak dira hitz batetik bestera edota, baita ere, hitz baten barruan silaba batetik bestera pasatzen direnak. “Ikusi” hitzak, adibidez, segun eta esaldiaren barruan non kokatzen den, azentua hiru silaba desberdinetan eraman dezake. Honela, Orixek dakarren “¿Ikusi al dezu? Zer ikusi dezu? ¿Ez dezu ikusi?” adibideetan, lehen kasuan “ikusi” hitzak lehen silaban darama azentua, bigarrean erdi-koan eta hirugarrean azkenekoan. Hemendik aurrera, bitarteko azentuak areago zehaztea zail gertatzen da, norberaren esperientziaren araberazalantzak ere ugari sortzen baitira.

Azkeneko zatian, euskal esaldiaz zer ulertzen duen esango du: “Lo que yo entiendo del período vasco definido con relación a la parte musical de la lengua, no con relación a la sentencia desarrollada, es el conjunto de ascenso y descenso de tonos entre los acentos inicial dominante y el final”. Esaldian ere hasierako azentua eta bukaerakoa dira finkoak. Eta azentu aldakorrari dagokionez, esaldiaz jardutean esandakoa errepikatu behar da. Hori bai, euskal esaldia batasun erritmiko baten barruan oro baturik doan zerbait da, zerbait bizia, zerbait zatiezina. Eta ondorio hau ateratzen du: “No me es dado penetrar más en el conocimiento de nuestro caprichoso acento; pero lo que claramente se puede deducir atendiendo a su carácter melódico, es que no es propio de nosotros el verso moderno. Ni parece tener aplicación en nuestra lengua el ritmo clásico con sus arsis y thesis. Las estrofas que usamos se han debido introducir por el canto. Nuestra estrofa zortziko (no hablo del compás, que esto les toca a los músicos) es la misma alejandrina francesa, la cual tiene su origen en una combinación del ritmo trocáico usada por los autores de la decadencia latina”.

Euskaraz, beraz, ez da aplikatzen arsi eta tesiaren legea, poesia klasikoan ohi zen bezala; aitzitik, euskal bertsoetan (estrofetan) mugimendu erritmikoa gordetzen bada, kantuaren bidez sartua dateke ohi-tura edo lege hori. Esaldia, euskaraz, batasun bat osatzen duena da, bizi-bizia dena eta erritmoaren aldetik ezin zati daitekeena. Bere laburtasunean, eskala oso zabala du. Euskal prosodiak duen berezitasun hori bide, euskaraz, adibidez, zortzikoan egindako bertsoak ezin dira errezipitatu hura erabat aldatu gabe, azentu azkarrak gaztelaniaren arabera ezarri gabe, alegia. Kantuan, ordea, ezintasun hori desagertu egiten da: “Esta imposibilidad de recitar los versos desaparece en el canto, y ese ha debido ser el medio por el que hemos adoptado la estrofa y los versos rítmicos, totalmente exóticos”. Testu horretan bertan aurreratzeko digu Orixek, gure zortzikoak Frantziako alexandriar bertsoaren moldaera bat besterik ez dela.

Manuel Lekuonak kantuaren eraginera jo gabe esplikatzen du euskal erritmoaren fenomenoak. Honen ustez, belarriak doinu jarraituaren atseginez goza dezan, erritmoan ematen den legea bete behar da: bi tesiren artean arsi bat tartekatuz behar dela, alegia. Hain zuzen, tesia eta arsia bata besteari segidan txandatu, lauoinkan doan zaldiaren antzera, goranzko (*arsi*) eta beherako (*tesi*) mugimendua eginez, alegia, osatzen da “paso” deituriko batasun erritmikoa edo melodia. Eta lege hau euskal doinuaren ere konplizten da. Honela, bata besteari segidan bi azentu edo bi tesi datozenean, euskaraz bi tesi horien artean arsi bat tartekatuz edo, gauza bera dena, bokal hori zirkunflexu bilakatu gaituzten du arazo hori. Adibidez, “Nor dator? Ama” esaldian, lehen bokala *áá* edo *â* bihurtzen da, lehenengoan tonua goratuz eta bigarrengoan jaitsiz. Azentu grabeeak arsiaren lekua hartzen du. Beraz, euskaraz ere konplizten da arsi eta tesiaren legea.

Orixek, euskal azentuaz esandakoa abiapuntutzat hartuta, euskal metrika aztertzerako pasatzen da. Baina euskal bertsoaz edo prosaz inolako teoriarik eraikitzeko asmorik gabe. Bertso erritmikoan eta erriman azentu intentsiboak oinarritzekoak baitira eta euskaraz, lehen esan bezala, ez baitugu horrelakorik, euskal metrika ezin da oinarritu azentu intentsiboan. Gure bertsoek kantatzeko balio dute, baina ez deklamatzeko. Horregatik, bertso gintzan “igual amplitud de escala, con igual cadencia” arauari jarraitzea proposatzen du. Bestela esanda: nolako doinu musikaren zabalera, halakoa azentuarena. Honen arabera, euskal metrikaren unitatea ez da izango silaben kopurua, eskala musi-

kala baizik, Manuel Lekuonak “oina” (*paso*) deitzen diona. Baina puntu honetara geroago itzuliko gara, Orixek lan monografiko bat eskaintzen baitio gai honi.

Hitz-elkarketa eta eratorpenari edo, Orixeren terminologian esateko, aglutinazioari buruzko erregelak ere prosodiaren bidez esplikatzen dira. Euskaraz elementuak flexio-eran elkartzeko joera ematen da. “Basajaun” hitza, adibidez, “basoko” eta “jaun” elkartzetik sortua da. Herrian erabiliagoa da, dotoreagoa ere bai, lehen forma bigarrena baino. Baina hitz-elkarketak zerikusirik ba ote du prosodiarekin? Badu, eta da belarriak esaldia ahalik eta gehien laburtzera edota, gauza bera dena, melodia bizkortzera jotzen duela: “Según he experimentado al componer, aunque a veces sea por tendencia a sintetizar el pensamiento, es que el oído tiende a apresurar la melodía en aquellos casos sobre todo en que halla trabas, o quiere aunque no las encuentre, adelantarse a cerrar el período por lo largo que resultaría quizá éste con las formas ordinarias. Esta es necesidad nuestra dada la prosodia que tenemos, y que evidentemente existirá mientras el vascuence exista”. Monosilabismoa gramatikan geroago sartu den zerbait da.

Euskal azentuari buruzko artikulu honetan, Orixek arazo asko eta interesgarriak harrotzen ditu, hala nola, semantikarena homonimoe-tan, euskal metrikarena, hitz-elkarketa eta eratorpenarena, eta beste hainbat xehetasun.

Artikulu horren jarraipen gisa, hurrengo urtean “Vocales compuestas o de acento doble en el euskera” artikulu laburra argitaratzen du aldizkari berean. Lehen artikuluan bokal laburrek eta luzeek ez zutela aplikaziorik baieztatu baitzuen, baieztatu soilki, orain horri buruzko azalpen zehatzagoa ematera dator. Orduan “beera = abajo” eta “be-
raa = blando” hitzen adibideak ekarri zituen, horietan hiatoa soilki grafikoa zela sostengatuz eta, ondorioz, lehen kasuan azentu zirkunflexua behera eta bigarrenagoan gora begira jarriz. Han etenda utzitako hariari lotzen zaio hemen.

Bokal geminatuak –Orixeren hiztegian “konposatuak”– bi erata-
ra muga daitezke: abiapuntutzat denbora bakarrik, edota tonua hartu-
ta. Normalean, bokal luzeetaz mintzatzean, kantitate tenporalaren erreferentzian egin ohi da. Ezin da ukatu horrelako bokal geminatuak euskaraz badirenik. Fenomeno hori sarritan ematen da eta, lehen esan bezala, idazterakoan ere azentu konposatua (zirkunflexua) grafikoki adierazi beharra ere ikusi izan da, adibidez, eliz kantu zaharretan.

Bokal geminatu gehienak, batez ere, atzizki edo sufixuetatik eta aditz formatatik datoz, bokalak horietan ematen baitira ugarienik. Bokal-mota hauek xehatzen ditu Orixek, adibideak jarritz.

Atzizkiei dagokienez, bi lege ematen dira: a) izenen sufixatzean bi bokal elkarren ondoan datozenean, lehenengoak azentu zorrotza darama singularrean (adibidez, *ogidàná = ogiàná*), eta alderantziz pluralean (*ogèná = oginá*); b) eboluzioagatik azentu konposatuaren zati bat desagertzen denean, beti lehenengo desagertzen da, goranzko zirkunflexua nahiz beherakoa. Hemendik ateratzen den ondorioa da, hizkuntza modernoetan gertatzen denaren alderantziz, lehen bokala zorrotza denean ezabatuta geratzen dela. Azentu zorrotz hori, beraz, tonikoa da eta ez intentsiboa, zeren, hala balitz, lehen bokala bigarrenari nagusituko bailitzaioke. Orixek uste osoz dio Euskal Herriko lekurik gehienetan ez dela azentu intentsiborik ematen.

Aditz formei dagokienez, eboluzioagatik elipsia ematen da. Adibidez, “gara” esateko, “r” jan eta lehen bokala luzatzen da: *gàá = ga*. Nolanahi ere, horietan, lehen bokala gorde egiten da. Beste hizkuntzetatik eratorritako hitzak, orobat, euskal erara ebakitzen dira. Horietan oreka bilatzen da, “deabru(i)a, zeru(i)a” eta horrelako hitzekin gertatzen den bezala. Gogora dezagun euskaraz azentu intentsiborik ez dela frogatzeko, argudio bera erabili zuela lehen artikuluan ere.

Beraz, Orixeren aburuz, euskal azentua ez da aldatu batzuek uste adina: “De donde se sigue, que la fisonomía de nuestras voces no puede variar tanto como algunos han pretendido, a causa del acento suave o tonal, y de su tendencia al equilibrio; si bien tampoco puede decirse que ha de quedar invariable a través de los tiempos”.

Hauxe da, beraz, haren tesia: azentu tonala bai, azkarra ez.

Musika eta azentua

Handik bi urtera, 1920an, “De la música y letra popular al acento” argitaratzen du, hau ere argitalpen-iturri berean. Aurreko bere artikuluei segida ematera dator, eta, herri-musika eta hizkuntz prosodia batera doazen bi zientzia kide direla baieztatu ondoren, euskal azentuaren tonikotasuna frogatzen saiatzen zaigu.

Gai hau astintzean, ordea, norberari berea emateko, bidezko iruditzen zait esatea Orixe ez dela bere kabuz soilki ari, bere aurretik jar-

dunak baitziren beste batzuk herri-musikaren eta metrikaren arteko harremanak zertzen. Karmelo Etxegaraik “Orígenes de nuestra música popular y sus relaciones con la métrica” eta Frantziako Gaskuek “Nuestra música popular” izeneko artikulua argitaratu zituzten 1919an, hauek ere RIEV aldizkariko X. zenbakian. Urte bat lehenago mintzatua zen R. M. Azkue, bera izan baikenuen euskararen musikalitateaz lehen ondorioak atera zituena “Música popular vasca” gaiari buruzko hitzaldian (1918). Orixerena bere lekuan kokatzearen, egin dezagun historia pixka bat.

Karmelo Etxegaraik, nahiz eta gero ez hala gertatu, artikulua hau Gaskueren liburuaren hitzaurrerako egin zuen. Bazekien zein zen haren iritzia, jadanik 1913an jarduna baitzen RIEVen argitaratutako eskal kantuen jatorriari buruz ziharduen “Origen de la música popular vascongada” artikuluan. Etxegaraik ez du uste –Gaskueren iritzia-ren kontra, noski–, eskal melodia tipikoak Europako Iparraldetik –Flandria eta Galesetik, zehazki–, Erdi Aroan etorritakoak direnik. Aitzitik, eskal musikaren eboluzioa euskaldunek musika-arterako duten gaitasunean ezartzen du, batik bat. Eta, zentzu honetan, pentsatzekoa ere bada eskal musikak bere eragina izan zezakeela Flandrian nahiz Galesen: “¿No pudimos influir en alguna ocasión, en vez de ser influídos siempre?”. Bestalde, zortziko txikia, konjetura gisa, Frantziako alexandriar bertsoaren moldaera izan bide daitekeela pentsatzen du, lapurtarren edo zuberotarren bidez gauzatua. Zortziko txikiak mugimendu hila du, tristea, ez da poetikoa. Kontakizun eta narrazioetarako erabili izan da, eta, nahiz eta hitz neurtuak erabili, ez da asko bereizten prosatik. Hedaduraz bakarrik esan daiteke poetikoa dela, bertsolariak darabilten heinean, hauentzat egokia baita herri-hizkuntzan bat-bateko bertsoak para ditzaten. Zortziko txiki honi italiar aireko tankera hartzen dio; ez euskalduna, behintzat. Euskal kanta zaharretan, Joan Karlos Gerrak aztertu dituenetan, batez ere, metrika ez dela batere zehatza ageri da, eta bai oso irregularra. Irregularitasun hau, bertso horiek kantatzeko eginak izan zirela esanez esplikatzen du. Berak harreman hertsia-hertsian ezartzen ditu musika, dantza eta letraren erritmoa. Musikaren jatorria azaltzeko, bada, euskal dantzetara jotzea proposatzen du. Geroago ikusiko dugunez, irizkide izango du Orixe puntu honetan.

Frantziako Gaskuek Karmelo Etxegarairen lanari erantzuten dio, tesi gisa sostengatuz Euskal Herriak ez zuela bere musika propioa eduki, ez bederen hitzaren zentzu orokorrean, harik eta kanpotik etorrita-

koaren eraginez bertan mamitu zen arte. Noski, lehendik ere euskal musika bazen, baina uste hori zentzu erlatiboan ulertu beharrekoa da. Zehatzago esanda, gaur egun euskal kanta tipikotzat dauzkagun horiek eboluzio geldi baten ondorio dira, kanpotik –XV-XVI. mendeetan edo-, musikaren bidezko ukipenez sartutakoak. Froga gisa, euskal kantuen antzekoak diren 36 atzerri-kanturen adibideak ekartzen ditu, zerrenda askozaz gehiago luza dezakeela esanez.

Geroztik ere eztabaidak segidarik izan du. Jose Antonio Arana Martija, bere *Música vasca* (1976) liburuan, behar diren zehaztapenak eta oharrak egin eta gero, ondorio honetara iristen da euskal musikaren inguruan egindako ibilaldi historikoa bukatzean: “Parece incuestionable, con lo que hasta ahora hemos visto, que existe con entidad propia: que el pueblo vasco ha dado a la historia musical un gran número de músicos, creadores e intérpretes, que como minoría culta, diríamos *temperada*, ha colaborado en la musicalidad del pueblo; y, sobre todo, que este pueblo ha sido capaz de crear su propia música con la personalidad artística que ahora nos toca analizar”.

Hemen planteatzen den arazoa, nahiz eta gaur egun inolako zailtarik ez egon euskal musikaren nortasunaz, hauxe da: euskal musika, herritarra deitzen zaion hori, ea zein neurritan den euskalduna edota, bestela esanda, ea euskal muskarik badenetz. Dударik ez dut egiten Orixek ezagutzen zituela bi artikuluko horiek –Karmelo Etxegarairena espreski dakar– eta jakinaren gainean sartzen dela horietan auzaltzen diren hipotesien argi-ilunetan eztabaida luzatzera. Aurreko bi artikuluei segida ematen die, eta, herri-musika eta euskal prosodia batera doazen bi zientzia kide direla baieztatu ondoren, euskal azentuaren tonikotasuna frogatzen saiatzen zaigu. Aurreko artikuluan bezala, musikan oinarritzen da horretarako.

Orixeren tesia da, gaztelaniarekin gertatzen denaren alderantziz, hemen hitzak azentu gogorra eta finkoa baitu, euskaraz musika-zati gogorrak berdin-berdin aplikatzen zaizkiola hitzaren edozein silabari. Honek esan nahi du euskaraz ez dela azentu erritmikorik ematen; eta ez da ematen, hain zuzen, euskal kantuetan konpas kapritxokoa eta erritmo libre eta orekatua erabiltzen delako.

Tesi horren inguruan bi gai nagusiok harrotzen ditu: batetik, zortzikoa eta beronen erritmoa eta, bestetik, melodia gregorianoaren eragina euskal kantuan.

Zortzikoaren erritmoari dagokionez, ez da adostasunik ematen euskal musikologoaren artean. Zein ote da egiazko konpasa? Denetarik

esan da: bost-zortzikoa dela, sei-zortzikoa, hamar-zortzikoa. Orixek bost-zortzikoa berriki sartua dela baieztatu ondoren, aita Otañoren iritziari atxikitzen zaio. Honela dio “De la música y letra popular al acento” artikuluan: “Está muy conforme con la prosodia vasca tal como la concibe el autor de estas líneas, la opinión del P. Otaño, de que nuestro zortziko tradicional no es el que hoy se ejecuta comúnmente con ritmo torpe y machacón, sino más bien un compás compuesto de tres por cuatro y binario alternados”. Beraz, zortzikoaren jatorrizko konpasean hiru-laukoa eta bitarra aurkituko lirateke txandakatuak.

Euskal kantu zaharren erritmoa, Orixek uste duenez, oraingoena baino askozaz libreago eta orekatuagoa zen eta, ondorioz, deklamaziorako egokiagoa. Ezin da ukatu zortziko geurea dugunik. Egia da, aurreko artikuluan esan bezala, letraren formari dagokionez, alexandriar bertsoaren arabera egindako moldaera dela eta musikak bihurtzen duela euskaldun: “Sin afirmar la hipótesis de alguno de que es la estrofa enteramente exótica, no se ha podido hasta el día de hoy acomodar a nuestro genio, (opinión muy verdadera si se contrae a la estrofa literal), parece que hubo época en que llegó a hacerse vasca musicalmente, y lo es en alguna comarca, por más que en la mayor parte del territorio haya degenerado por influencia extraña”.

Baina zein erritmoren bidez euskaldundu? Zein da zortzikoaren erritmo jatorra? Hara hor gakoa. Hemen sartzen da musikaren eta hizkuntzaren arteko harreman baldintzatzailea.

Bost-zortziko konpasekoa irregularra, gozagaitza eta zakarra iruditzen zaio Orixeri. Arrotza. Berak Nafarroako zenbait mendi-herritan ezagutu izan ditu zortziko txikian kantatzen eta dantzatzen erritmo arinago batean, grazia gehiagorekin. Euskal era jatorragoan, alegia. Baina euskal lurralde gehienetan, atzerriko hezkuntza modernoaren eraginez, arrotzatsuna sartua dago bai musikan eta bai hizkuntzan. Ez da mirakulua hala gertatzea. Hasteko, hizkuntz kontzeptuak gurea ez den gramatika batetik ikasiak ditugu. Bigarrenik, atzerriko eskuliburu zientifikoak herrian zabaldu gabe daudenez, hemendik nahasketa besterik ez dator. Azentuaren kontzeptuari dagokionez, adibidez, “intonazioa” dela esaten du Espainiako Akademiak bere gramatikan (1917), baina lehen “intensitatea” deitzen zitzaion. Kontua da definizio hau ez dagokiola hizkuntza orori, zeren hizkuntza batzuek –hauen artean euskarak–, ez baitaramate azentu intentsiborik: “Lo que se puede conceder es que en el período podrá haber grupos de sílabas de más intensidad que otras, conservando la misma relación de intensidad las de

cada grupo. Pero en este caso no hay verdadero acento intensivo propio de la palabra, porque cuando hablamos de ese acento entendemos comúnmente la intensidad de una sílaba respecto de su vecina. No puede haber lengua que no tenga intensidad, porque ésta es una de las cualidades indispensables del sonido; pero sí puede haberlas tales, que en ninguna de sus palabras sea mayor o más sensible la intensidad de una sílaba”.

Hizkuntza orok, doinua duen aldetik, badu intentsitatea. Baina, testu horretan datorren bezala, euskaraz ez dela egiazko azentu intentsiborik ematen esatean, adierazi nahi da hitz baten silaben artean ez dela egiazko azentu intentsiborik ezagutzen. Argudio hau indartzeko, froga enpiriko baten proposamena egiten du: euskal testu bat hartu eta jar ditzagun, adibidez, ehun lagun, guztiak belarri finekoak, beren ustez azentuatu beharrekoak diren silabetan azentu grafikoak jartzen. Orixek uste duenez, ez lirakeke ezta bi ere bat etorriko. Ezinezkoa da hizkuntza bera mintzatzen duten herri berekoek edo auzokoek era desberdinean ahoskatzen dituzten azentuak intentsiboak izatea, zeren, hala izatekotan, sekulako disonantzia sortuko bailukete. Bere uste hau Durangoko hitzaldian (1921) egiaztatu ahal izan zuen bertara hiru irakasle eramanda: “Bakoitzak zirudion tokiin ipiñi zittuun, da –etziren beren buruurekin berdiñ, 38 itzetatik 16^{tan} aldetittu ziren”.

Manuel Lekuonak, aipatutako bere “Métrica vasca” lanean, greziera nahiz latin zaharrean azentu intentsiboa ematen zela sinetsi nahi du. Orixe ez da irizkide eta, Zizeronena aipatuz, ohar hau egiten dio: “Suponemos que entenderá la intensidad mayor o relativa, porque absoluta la hay en toda lengua, desde el momento que ésta sea hablada por sonidos. Pues Cicerón dice terminantemente, que solo usaban ‘omnino’, los tres acentos tónicos: el agudo, el grave y el circunflejo, y que combinados éstos con las sílabas largas y breves, resultaba cosa tan maravillosa la lengua. De creer es que fenómeno tan perceptible como la intensidad mayor de una sílaba respecto de su contigua como en las palabras castellanas, no se escaparía al análisis de aquel fino observador”.

Dena den, Orixek ez du uste azentu intentsiboa zerbait garrantzitsua denik prosodian. Doinuak dituen tasun guztietatik, bera da hizkuntza gutxien edertzen eta gehien lotzen duena. Balio du esaldi luzeak eraikitzeko, oso luzeak zatien hedaduran, baina ez zabalak melodian. Aitzitik, prosodiaren barruan, hizkuntzak duen gauzarik ederrena, tonua da. Bera dugu giza afektuen adierazpenerako tresnarik abe-

ratsena: “Los innumerables grados y matices de cada efecto los expresa admirablemente el tono y solo el tono: el odio, el sacarmo, la ironía, la broma, la frialdad, la admiración, el terror, la sorpresa, el miedo, el recelo, la precaución, la satisfacción, el gozo, el júbilo, el entusiasmo, la proposición, el ruego, la amenaza, el aliento y desaliento, la esperanza y la desesperación; ¿quién es capaz de agotar toda la riquísima fuente de los afectos del alma? Pues a todo eso se extiende el tono”. Bestalde, badu beste abantaila bat ere, eta da, norbait gaztelaniaz mintzatzen sumatzen dugunean, adibidez, berehala ohartzen gabela euskalduna, katalana, gailegoa, gaztelarra ala beste norbait den. Nabardura hau hizlariaren beraren tonutxoak salatzen digu.

Berriro zortziko txikira itzuliz, bi ondorio ateratzen ditu. Bata da, nahiz eta sintaxi eta lexikoaren aldetik txukuna izan, horren oraingo erritmoa ez dela ongi ezkontzen euskal prosodiarekin, honen egiazko erritmo aske eta graziosoarekin. Zergatik? Haren erritmo metrikoa ez datorrelako bat euskal prosodiarekin. Horregatik, ezin da deklamatu belarrietan minik eman gabe. Zortziko txikiaren erritmoak, beraz, askatasun gehiago eskatzen du. Bestea da zortziko bertso horiek ez direla eginak deklamatzeko, kantatzeko baizik: “Si no por la música, no se hubiera aclimatado. Todavía en nuestro pueblo no se concibe poesía que no sea cantada”. Iritzi honi gero ere sendoago eutsiko dio.

Melodia gregorianoak euskal kantuan duen berezitasuna ere azpimarratzen du. Erritmo libreko bertsoak ugariagoak dira euskal kantuetan neurri isokronikoak edo iraun berdinekoak baino. Azken hauek, Bordes musikologoarekin esateko, modernoagoak dituzu.

Gregorianoaren eragina transkripzioan bertan ageri da. Hazparneko eliz liburuan badira notazio gregorianoarekin idatzitako euskal kantuak. Berak letra eta aita Otañok musika jarritako Lezoko Kristoren himnoan, lau euskal melodiak “Ait latro ad latronem” antifona gregorianoan oinarritzen dira. Herri txikietan, elizatik irten eta gero, bezperetako tonuarekin kantari bezala sumatzen da jendea kanpoan. “Liberame, Domine” piriniar kantuak bere lehen bi puntuetan erritmo gregorianoa du, nahiz azkenengoetan isokronismora jotzen duen. Orobat, “Domine, dominetue” kantuak ez du gordetzen isometria silabikorik lehen bi puntuetan. San Joanetako herri-koplek, ia guztiak, lehen puntua zortzi silabatakoea dute eta ez hamarrekoea, beharko luketen bezala. Honek adierazten du, eta hauxe da Orixek ateratzen duen ondorioa, Euskal Herrian koplak asko dela isometria silabikoa zein musikala gorde gabe kantatzen dena. Euskal kantuan biak batera eman ohi dira.

Eta hori ez da hala gertatzen euskal poetak letra behar bezala jar-tzen ez dakielako, ez, gure herriak berezko joera baitu erritmoa oreka-tzea. Gure herrian hainbat jende da –batez ere, bertsolari-giroko fami-lietan asko–, nota bakoitzari silaba bat emanaz, silaba bakar batean huts egin gabe zortzikoak edo bertsoak asmatzeko gai dena. Herriak, berezko senaren arabera erritmoa edo tonua aldatuz, bere erara mol-datzen ditu kantu erdieruditoak. Joera hau ez da gaitasun ezaren edo kultura ezaren seinale, euskarari darion koalitatea baizik.

Euskal kantuetan zergatik gertatzen diren horrelako lizentzia sila-bikoak eta musikalak? Orixek erantzuna, goian aurreratu bezala, melo-dia gregorianoak euskal kantuetan izan duen eraginean aurkitzen du. Euskara, honek ez baitu azentu ez gogor ez finkorik, oso aukerakoa ikusten du eliz melodiak, dauden bezala, osoki beretzeko. Herri ba-tzuetan, lehen aipatu dugunez, Orixek berak euskaratutako “Stabat Mater” himnoa latinez bezala kantatzen zen. Interpretazio honetan irizkide ikusten du Karmelo Etxegarai: “Hipótesis muy verosímil y estimable cree don Carmelo de Echeagaray en el *Prólogo a un estudio de don Francisco Gáscue*, que unas y otras (las canciones gaélicas y las vas-cas) procediesen de una fuente común y más remota, por ejemplo del canto eclesiástico que hubo de influir en toda Europa, según se desprende cada vez con mayor claridad, de investigaciones recientes y afortunadas”.

Beraz, eta bukatzeko, garbi esango du euskararen azentua melo-dikoa dela eta ez erritmikoa: “No será temerario el afirmar que no son nuestras, porque están en pugna con la índole del euskera, ciertas es-trofas rítmicas cuya recitación no se resignan a sufrir nuestros oídos. En versos más largos que los del zortziko menor, no es tan grande la dificultad de la lectura, que siempre, sin embargo, subsiste. Los versos más cómodos de leerse son aquellos cuyo número de sílabas es múlti-plo de 3, 4, 5. La razón de esto es la que indicamos en el primer artí-culo: que se interrumpe la melodía de la frase y no avanza en altura, resultando más atada y torpe que en la sencilla y ligada prosa”. Beraz, aburu honen arabera, zortziko txikia ez da euskal belarrietara egiten, ezta –ez bederen osoki–, zortziko handia ere, hamar eta zortziko pun-tuak honela zatitzen baitira: $5 / 5 = 10$ eta $5 / 6 / 3 = 8$. Ez da bete-tzen 3, 4 eta 5aren multiplo hori.

Gaur zer deritzo euskal musika eta bertsoaren alderdi honi jende espezializatuak? Jose Antonio Arana Martijak, Joan Karlos Gerra eta

Garibairen iturrietan oinarrituta, garbiki ikusten du XIII. mendeko metrika eta XVII. mendekoa desberdinak direla. Zortzi puntuko zortziko nagusia, “Goizian goizik” kanta adibidez, XVII. mende-hasieratik datorkiguna da. Eta bertsoaritzaren tradizio honen barruan sartu beharrekoak dira zortziko txikia, bederatzi puntuko bertsoa, eta beste batzuk. Bertso-mota klasiko hauek, Jose Antonio Arana Martijaren ustez, guztiz jatorrak dira. Ez du ikusten euskal musikaren koordinatua barruan sartzeko inolako eragozpenik. Hau dakar *Jakin*-en argitaratutako “Bertsoen doinua” artikuluan: “Badu euskal musikak gregoriano kutsua, baina gregorianoa melismatikoa da (testuaren silaba bat abesteko, askotan, hainbat nota kantatzen dira); euskal melodia, oster, silabikoa da, hau da, silaba bakoitzari nota bakar bat dagokio. Euskal musikaren bereiztasun hau oso ondo errespetatzen dute bertsolariak eta errespetatu behar ere taiuzko bertsoa osatzeko. Hamar silabako puntuak hamar nota eduki behar ditu, zortzikoak zortzi, eta abar”. Hemen, beraz, taxuzko bertsoa osatzeko, isometria musikala eta silabiko abetetzeari eskatzen da.

Metodo experimentalaren sorrera euskal fonetikan

Orixek artikuluoak idatziz geroztik, metodo esperimentalez hornitutako ikerketa berriak etorri ziren 1920ko hamarkadan, fonetikazko bibliografian oinarritako kontsulta-iturri direnak. Lehenengoa Navarro Tomásen *Pronunciación Guipuzcoana. Contribución a la fonética vasca* da, 1925ean argitara emana. Bigarrena J. Larrasquet abatak 1928an egin da, *Action de l'accent dans l'évolution des consonnes, étudiée dans le Basque Souletain* izeneko. Biak ditugu lan zehatzak, Orixek bere garaian jakin-gose biziz irakurri eta kritikatuak dituenak Bilboko egonaldian. Jesusen Konpaniatik kanpora ere gogoz segituko ditu lehen urratutako bideak.

Orixeren “La pronunciación guipuzcoana del Sr. Navarro Tomás” artikulua 1926an argitaratzen da, fonetikan aditua den horri egiten dion kritika gisa. Hasieran bertan aitortzen duenez, lan hori irakurtzean, sentimendu bikoitza sentitu zuen. Batetik, pozarena, batez ere belarri bidezko bere hipotesiak egiaztatuak ikusi dituelako: “He leído con interés y aun con placer este trabajo, por hallar felizmente confirmados por el aparato fonético los hechos fundamentales que dejé señalados con el auxilio del simple oído”. Bestetik, berriz, harrirituta bezala

geratzen da, berak inoiz defendatu ez duen tesia leporatzen baitio Navarro Tomás autoreak, hots: euskaraz badagoela azentu toniko finkoa. Bitxia deritzo objekzio horri, bera, hain zuzen, iritzi horren kontra agertu izan baita behin baino gehiagotan: “... mi más obstinado empeño ha sido siempre el defender que no hay acentos fijos ni fuertes en nuestras palabras”. Tesi honen defentsan, gaizkiulerturik egon ez dadin, lehengo lanetatik zazpi aipu berridazten ditu. Eta azken frogagisa, bere hiru ikaslerekin Durangon egindako esperientziaren berri ekartzen du. Hor, lehen aipatu bezala, 38 hitzez osatutako Mendibururen testu-zati batean, 22 hitzetan bakarrik etorri omen ziren ados azentua jartzeko orduan: “De las 38 palabras que contenía el fragmento, dejaron de coincidir nada menos que en la acentuación de 16, casi la mitad de ellas. Más aún: haciendo cuestión de amor propio, afirmé, que presentando a cualquiera de ellos 15 días después otra copia del mismo trozo, sin que se pecataran ni hubieran podido ver la copia anterior acentuada, no coincidirían en todo ni consigo mismos. Así sucedió en efecto. ¿Cómo, pues se compagina esto con la afirmación que se me atribuye de un acento tónico fijo?”. Beraz, ia erdiek ezadostasuna agertzen dute.

Testu hauetan adierazi nahi duena da euskaraz ez dela azentu finkorik ematen. “Finko” adjektiboa da hemen azpimarratu behar dena, zeren euskarak azentu tonikoak badituala garbiki eta espreski esaten baitu lehen artikuluan: “El vascuence tiene acentos tónicos, pero carece de intensivos al menos claramente perceptibles por el oído, en la conversación ordinaria”. Beraz, euskarak badu azentu tonikoa, baina hau ez da finkoa. Nik bederen hala ulertzen dut hemen eztabaidatzen den arazoa.

Orixek, hasieran esan digun arren Navarro Tomásen ikerlana bere oinarrizko hipotesiak egiaztatzeraz datorrela, baditu honekin bere ezadostasun-puntu nabariak. Ikus dezagun zein diren horiek.

Azentudun silabari dagokionez, zeinari Orixek “intonazioa” deitzen baitio, Navarro Tomásék uste du bi silabak musika-altuera berbera izatea dela ohikoena, nahiz eta, zenbait kasutan, bigarren silaba izan daitekeen lehenengoa baino zerbait altuxeagoa. Aparatuak jasoari kontra eginez, ohikoena –Navarro Tomásék “lo más corriente”, dio–, ez lehenengo suposizioa, baizik eta bigarrena dela baieztatzen du, baldin eta Bizkaiko prosodia eta Azpeitia aldekoa alboan uzten badira: “He hablado con personas de Alquiza, y dan alguna mayor altura siempre o casi siempre a la segunda sílaba. Esta apreciación tiene su parte de verdad,

que resulta diciendo que tiene mayor altura, no mayor sensible intensidad”. Baina, Manuel Lekuonaren iturrira joz, Orixek ihardetsiko dio esanez erritmo-legeak ez duela onartzen bi silabak altuera berekoak izatea. Horregatik, lehen esan bezala, bi tesi bata bestearen segidan datozenean, tartean arsi bat ezarriz, azentu zirkunflexu bilakatzen da: “Observa el Sr. Lekuona que en las comarcas de Oyarzun, Goizueta y sus contornos se da el fenómeno de alargar en estos casos la primera sílaba, haciéndola circunfleja, v. g. âma, âita. Este fenómeno lo hemos comprobado clarísimamente, y como complemento nos ocurre decir, que cuando tropezamos con una bisílaba que tiene la misma altura *sensible*, se la puede concebir como síncopa de la segunda mitad del circunflejo de que habla Lekuona, o sea del tono descendente. Creemos que para comprobar la igual altura de las dos sílabas, no es suficientemente perfecto el aparato de que hoy disponemos”.

Hiru silabako hitzetan, Navarro Tomásék uste duenez, lehenik, erabateko tonu-berdintasuna gutxitan gertatzen da; bigarrenik, gehienetan lehen bi silabak berdina dira eta oinarritzko maiztasuna –Orixek “voz” deitzen diona–, zertxobait jaso egiten da hirugarrenaren gainean; hirugarrenik, sarritan oinarritzko maiztasuna jaitxi egiten da bigarren silaban, hirugarrena lehenengoari nagusitzen zaiolarik. Orixek alderantziz pentsatzen du: hots, lehen kasua ez dela inoiz gertatzen, bigarrena ez dela sarrienik ematen dena eta bai, aldiz, hirugarrena: “Nosotros decimos, que aun en Alquiza y Tolosa es esto no solo frecuente, sino lo más frecuente y casi general, como en toda la alta Guipúzcoa”.

Azentuari dagokionez, oro har, Navarro Tomás autorearekiko adostasuna agertzen du, honek, besteak beste, hauxe baieztatzen baitu “Pronunciación Guipuzcoana” izeneko lanean: “Las observaciones que preceden sobre la cantidad y el tono demuestran la existencia de un acento enfático con que se ponen de relieve de vez en cuando algún concepto sobre el nivel medio del discurso. No hay indicio alguno de la existencia de un acento prosódico de colocación fija y regular”. Adostasun honetan, ordea, diferentzia bat dago, eta da Orixe hura baino lehenago heldu zela ondorio horretara, aparatua laguntzarik gabe heldu ere. Horregatik esango du: “Conformes, y estábamos hartos de repetirlo”. Hurrengo orrialdean, Navarro Tomásen testu batzuei ohar zehatz batzuk egitean, “lo teníamos dicho hasta la saciedad de palabra y por escrito”, esango du.

Baina Navarro Tomásék egindako ekarpen enpirikoen aurrean ez da oro adostasuna. Orixek badu zer zuzendurik eta zer zehazturik.

Hasteko, lehen artikuluan, esaldiko azentuei buruz, hauxe zeukan idatzia: “La sílaba *á* que toque en suerte ser la primera de la frase, conserva el acento así como la última. Por lo demás pueden perder los iniciales o los finales, según que les toque antes o después del dominante. Es decir, las palabras dentro de la frase pierden su personalidad, y hacen un todo melódico”. Orixek bera ohartzen da testu honetan bade-la formulazio nahasgarriarik. Honela, Navarro Tomásék dioenaren argitan, “la sílaba *á* que toque en suerte ser la primera de la frase, conserva el acento así como la última” lehen proposizio hau zuzendu beharrekoa dela esango du, bigarren honi zehatzagoa iritiz: “Es decir, las palabras dentro de la frase pierden su personalidad (se entiende tonal) y hacen un todo melódico”.

Bigarrenik, Navarro Tomásék uste du hitza, enuntziaziozko esaldiaren azkenean, gehienetan tonu grabean bukatzen dela, intonazioa batzuetan haren azken silabatik lehen silabara asko apaltzen delarik. Iritzi hau onartzen du, bai, baina ez adberbioetan *ñabardurak* egin gabe: “A ese *ordinariamente* (nik euskaraz ‘gehienetan’) hay que quitarle mucho de su generalidad, aunque vemos que es más frecuente de lo que al principio creíamos”. Beraz, ez “ordinariamente”, baina bai “más frecuente”.

Navarro Tomásék honela bukatzen du bere lana: “Se ve, en fin, que el guipuzcoano no tiene acento fijo ni de tono ni de intensidad. En pronunciación no afectada, las sílabas de cada palabra vienen a resultar todas igualmente acentuadas. Hay una leve tendencia en la pronunciación de las palabras sueltas, a destacar la última sílaba de cada palabra. Hay asimismo un acento enfático que refuerza la intensidad y el tono de las sílabas, y que se coloca libremente allí donde lo requiere en cada caso el carácter emocional de la expresión”. Orixek, azken ondorio gisa ateratako testu hau juzgatzeko orduan, bi gauza esango ditu: bat, bigarren proposizio horrekin ez datorrela ados, eta bi, beste guztia lehendik aurkitua eta garbiki formulatua zeukala. Bestela esanda, Navarro Tomásék ez dio gauza berririk erakusten: “Todo eso, salvo la segunda proposición con la que no estamos conformes, lo dejamos claramente consignado en nuestros trabajos a simple oído”.

Orixeren interpretazioaren arabera, bada, bi iritzi leporatzen dizkio Navarro Tomásék: lehenengoa, hasieran aipatua, euskaraz azentu toniko finkoa ematen dela, eta bigarrena, esaldia azken silaban tonua jasoz bukatzen dela beti. Orixek, artikuluan zehar bere ikuspuntuak

eta Navarro Tomásenak zehazten ahaleginak egin ondoren, erdizka bakarrik onartzen du honen kritika hori: “Si esto he dicho, lo rectifico, si bien no recuerdo haber escrito o dicho que *siempre*. Mi afirmación, sin embargo, lo reconozco, peca de excesivamente general, pero no he hecho jamás hincapié sobre ella, para que me cite los tres artículos consecutivos, en dos de los cuales ni se habla de tal cosa. Creo que no es hacerme justicia el citarme como adversario en una cosa que afirmé de pasada y sin insistencia, y con la tenacidad que ha visto el lector, y con las mismas palabras *no fijos* que el señor N. T. ha podido copiar o recordar seis años después. En su cita, (RIEV, XI, 174), que la he leído varias veces, nada encuentro de dicha opinión; en la del tomo X, 46 tampoco se habla de la vocal final aguda de la frase. A no ser que con esas citas haya querido aludir al conjunto de nuestro trabajo, en cuyo caso lo pudiera haber citado favorablemente en aquellos puntos en que hemos insinuado, es decir, en todo lo principal de su trabajo respecto del acento, que alguien incluso puede imaginar calcado en el nuestro”.

Bestalde, errore bat da Orixerentzat puntuan silaba-kopuruari bakarrik kasu egitea. Iparragirrek, bere “Gernikako arbola” bertsoari eman nahi zion esanahia emateko, ez “Gernikako arbola / da bedeikatua”, baizik eta “Gernikako arbola, / bedeikatua da” idatzi behar zuen. Beraz, sintaxia eta prosodia, biak behar dira kontuan hartu. Lehen artikuluan ere hauxe bera esana zeukan, adieraztean esaldiaren baitan azentu nagusia non jarri, esanahia aldatu egiten zela.

Bukatzeke, Orixek ohar interesgarri hau egiten du: metodo esperimental ondo dago, baina ez da nahikoa. Belarriak, tonalitatearen kontuan, aparatuari ihes egiten dioten hainbat fenomeno hauteman ditzake. Belarriaren lekukotzari adi egon behar zaio. Ohar hau herri-euskara ezagutzen ez duen Navarro Tomásí zeharbidez zuzentzen dion kritika da. Aparatua ondo dago, baita belarria ere. Biak, beraz, ditugu beharrezkoak prosodiaren espiritua jasotzeko.

J. Larrasquet abatak *Action de l'accent dans l'évolution des consonnes, étudiée dans le Basque Souletain* liburua 1928an argitaratzen du eta bere lehena Orixeri bidaltzen dio. Honek, egileari eskerrona agertuz eta bere lehengo afizioari amore emanez, obraren aipamen labur baina zukutsua egiten du *Euzkadi* egunkarian. Une horretan egunkari horretako euskal orriaren zuzendaritza berak hartu berria zuen eta hemendik aurrera bere lan gehienak bertan argitaratuko ditu. Beraz, 1928-1931ko epealdian, *Euzkadi* izango da, batik bat, RIEVeko lankidetzaren segida.

Navarro Tomásen antzera, J. Larrasquet abatak ere ikerketa esperimentalak eskaintzen du bere lanean. Baina, agian euskalduna delako eta itzal handiko maisuen ondoan jardun duelako, hari ez bezalako autoritatea ezagutzen dio honi “Acento zuberano” artikuluan: “Miembro de la Sociedad Lingüística de París, antiguo alumno de la escuela de Altos Estudios, hombre que empezó a trabajar al lado del abate Rousselot, inventor del aparato fonético y gran impulsor de esta ciencia; aleccionado y dirigido por el muy acreditado teórico Vendryes, documentado en Uhlenbeck, Gavel, Schuchardt y otros autores que han hecho objeto de estudio la fonética vasca, el abate Larrasketa (permítanos el autor la restauración morfológica de su apellido) ofrece con sólo ello una garantía de la seriedad de su trabajo”. Liburuan datorrenaren deskribapen orokorra (irudiak, bibliografia, eskaintza, etab.) egin ondoren, autoreak lantzen duen gaiaren laburpena egitera mugatzen da Orixen.

J. Larrasquet abatak ontzat hartzen eta Zuberoako azentuari buruz ateratzen dituen ondorio nagusiak zein diren? Orixen kazetaria gidari dugula, hauexek dituzu:

Lehen: metodoari dagokionez, zientzia esperimentalen metodoa zehazki aplikatzen du. Datu enpirikoak eta zuberotar azentuari buruzko teoriak bat ez datozenean, haiek nagusitzen zaizkio honi. Eta hala izatea ondo deritzo Orixeri, baldin eta, J. Larrasqueten kasuan bezala, esperimentazioa zuzen eta neurri zehatzak hartuz egina bada. Baldintza horixe da, hain zuzen, Navarro Tomásen lanari falta zaiona eta horregatik ateratzen ditu, lehen esan bezala, zentzuaren kontra doazen ondorioak. Lehen ez al zuen esan, bada, aparatuen ondoan belarriak ere bazuela bere egitekoa? Bai, halaxe da. Eta hemen ere, nahiz eta J. Larrasqueten ikerlanari objektibitatea aitortu, badu susmoa zehaztasunezko aparatu horiek ez ote diren erabat osoak. Horregatik, baliagarriak izateko, zehaztasunez erabili beharrekoak dira. Bestalde, J. Larrasquetek, bere esperimentua egiterakoan, idazten ez dakien eta arrotz-kutsurik ez duen jendea erabiltzen du eta, gainera, asko eta errepresentagarria. Eta alderdi hauxe da Navarro Tomásen betetzen ez duen beste baldintzetako bat.

Bigarrena: zubereraren homogeneotasun fonetikoaren aldarrikatzen du eta, une berean, beronen ezaugarriak eta beste euskalkienak desberdinak direla aitortzen.

Hirugarrena: kontsonanteen eboluzioan azentuak betetzen duen zereginaz diharduen bigarren zatian, zubererak hiru azentu-mota eza-

gutzen ditu: azentu musikala edo oinarritzko maiztasuna gailentzen denekoa, azentu dinamikoa edo intentsitatezkoa eta kantitatezko azentua edo iraupenari erreferentzia egiten diona. Azken azentu hau, hala ere, batzuetan ez da ematen. Funtsean, bada, zubererako azentua musikala da eta zubererako azentu tonikoa, berriz, dinamikoa. J. Larrasquetek, orain arte esan denaren kontra, zubereraz intentsitatezko azentua badela baieztatzen du: “En el dialecto vasco suletino existe acento de intensidad aun en el sentido subjetivo(sic) o fisiológico o de perceptibilidad más marcada”. Orixek, baieztapen honen aurrean, ez du inolako iruzkinik egiten. Zergatik ez du egiten, baldin, geroago baieztatuko digunez, salbuespen horretaz jabetua bazegoen? Ez dakigu zergatik geratzen den isilik.

Dena den, zalantzak zalantza, J. Larrasqueten lanari Navarro Tomasenari baino dezente hobea irizten dio eta, bere lanean aipatzen duelako eskerrona agertuz, nafarrera ikertzera bultzatzen du.

Egunkari eta urte berean, bizkaierazko azentuaz ere bere iritzia ematen du “Acentuación vizcaína” artikuluan, “Euskaldun barri bat” izenpetzen duen batek eginiko baieztapen honi erantzuteko orduan: “A pesar de todas las teorías y de los trabajos hechos con el aparato fonético de Rousselot, los euskaldunas vizcaínos pronuncian con acentuación distinta las palabras simples y sus componentes, según la letra en que terminen aquéllas, aunque consten del mismo número de sílabas”.

Esaldi horretan bi gauza bereizten ditu Orixek. Esaldiko lehen zatitari, teoriez eta zehaztasunezko aparatuez diharduen horri, alegia, erdeinagarri samarra deritzo. Aipatutako “Euskaldun barri bat” horrek hori idatzi izanaren arrazoia da, egunkariko “Temas Vascos” sailean Sabino Aranaren euskal azentuari buruzko ohar bat transkribatzen zela eta, haren formulazioarekin batera, jende soilak hobeto uler zezan, zuzendaritzak ezarritako beste ohar argigarri bat zetorrela, esaten zuena, intentsitatezko azentuari dagokionez, aparatuek arrazoia ematen ziotela hari. Orixek, hemen, salbuespen bat egiten du zubererarekin. Antza, J. Larrasquetek egiaztatu aurretik ere, bera salbuespen horretaz ohartua genuen. Baina bitxia da orain arte salbuespen horretaz ez mintzatzea. Zubereraren salbuespena mahai gainean jartzeko parada ezin hobea izan zuen, azentu intentsibo eta finkoa zela eta, Navarro Tomásekin izandako eztabaida hartan. Baina pasa egin zitzaion. Bitxia, diot berriro.

Esaldiko bigarren baieztapena, “ulea, bizarra, uledun bat eta bizardun bat” bezalako hitzak desberdin azentuatzen direla dioena, alegia,

ez du onartzen Orixek. Honek, seguruago sentitzearren, aburu hori R. M. Azkuerekin kontsultatu eta gero, fonetika-legeak errazegi kalera-tzen dituela botatzen dio aurpegira: “Sabios que llevan su vida entera en experiencias, apenas se atreven a formular una ley ni a generalizar, a vista de mayor número de hechos, y menos discutidos, con auxilio de buen oído también, según les parece, y de los aparatos de precisión. Uno que penosamente balbucea nuestra lengua creemos que no debería expresarse con ese aplomo”. Ur hotzagorik ezinago ausardi gorien gainean!

Hurrengo urtean (1929), “Experiencia y consecuencias” izeneko artikuluan, euskal fonetikaren iker-eremua areago zabaltzen du laburpen gisa egindako asertu berriekin. Azentuaren nolakoa euskalki bakoitzera mugatuz, hauxe da haren ustea: lehenik, zubererak eta lapurterak izaera desberdineko azentua dutela; bigarrenik, nahiz eta lapurtera gipuzkera, nafarrera eta bizkaieraren izaera berekoa izan, horietako bakoitzak arau desberdinak segitzen dituela azentuak banatzeko orduan.

Hizkuntza bakoitzak du bere azentu bereizgarria. Batzuek –adibidez, erromantzeek–, azentu intentsiboa dute; beste batzuek, hala nola klasikoek, azentu iraunkorra (*duradero*) daramate; beste batzuk, azkenik, eta hauxe da euskararen kasua, altuera edo tonalitateko azentu-gatik ezaugarritzen dira. Zuberera da salbuespen bakarra, honek, Larrasquetek dakarrenez, intentsitatez azentuatzen duen bakoitzean oinarrizko maiztasunarekin –eta, sarritan, iraupenarekin– azentuatzen baitu. Hizkuntza orok darama hiru azentu horietakoren bat, ez baita ematen azentu tonalik gabeko hizkuntzarik. Erdaraz esanda: “... ninguna lengua se habla en tono recto”.

Euskal azentuaren izaerari dagokionez, esan behar da, eskualde batetik bestera gertakari oso desberdinak jasotzen dituela belarriak, baina, oro har, zuberera salbu, soilki tonala dela: “... salvo en una pequeña parte de territorio, no es intensivo ni durativo, sino solamente tonal”.

Metodo esperimentalaren bidez ateratako ondorioak ez dira, berez, azken hitza. Ikusi behar da kalitatezko aparatua denetz, zer eska diezaiokeen eta zer ez. Aparatuaren perfekzioa eta erabilera dira auzigai. Aparatuak marka dezake bibrazio edo dardaren hedapen handiagoa edo txikiagoa. Hala ere, J. Larrasquetek uste duenez, metodo hori ez da nahikoa intentsitatea neurtzeko, zeren dardaren aldaketa ez baitator kasu guztietan intentsitateetik. Joko horretan faktore fisikoa eta

fisiologikoa nahasten dira. Faktore hauek neurri berean ez baloratzean egongo litzateke, hein batean bederen, lehen aipatutako J. Larrasqueten eta Navarro Tomásen arteko diferentzia.

Euskal azentuaren sistematizazioa

Sebero Altubek Bermeon 1932an argitaratutako *El acento vasco* liburuak emango dio berriro lumari heltzeko aitzakia. Laudoriozko hitzekin hartzen du argitalpen berria hurrengo urtean, 1933an, “El acento vasco” artikuluan: “He leído con atención el nuevo libro del señor Altube, titulado *El acento vasco*. Es un estudio bien planeado, claro, completo, del que espero no poder disentir tanto como algún otro dedicado a estas cuestiones, a pesar de ser vizcaíno este aludido”.

Sebero Altubek fonetika gramatikaren bidez eta, zehazkiago esateko, sintaxiaren bidez azaltzen du. Kritika-lan honetan egilearekin zertan ez datorren bat zehazten digu Orixek, oharrak orrialdeen arabera eginez. Puntuz puntu joango naiz desadostasunak markatzen. Hari ere hiruzpalau ohar egiten dizkio, neure azalpenean argitasunaren amoretan halaxe egitea erabaki dudanez, zerrendatuz azalduko ditudanak.

Lehenik, ez du ulertzen zergatik mintzatzen den intonazio literarioaz eta herritarraz. Azken hau dugu intonazio natural bakarra, berezkoa, alegia. Honetan J. Larrasqueten jokabideari zuzenago deritzo, honenek, landua edo literarioaz baliatu ziren Navarro Tomás, Abraham Abas eta aita A. Milleten kontra, herritarra besterik ez baitzuen onartu bere ikerketan. Intonazio herritarrean ez dira kontrakzioak eta ezabaketak ematen fonetikan bezala. Uitzin, kontsonanteak hain erraz jaten diren herrian, tonuak aldatzeke gordetzen dira, hala nola: *e-u-ki*, *e-un* (*egun*), etab. Orixek berak bere jaioterrian nahiz Uitzin egiaztatu ahal izan duenez, haurrak dira tonu guztiak ondoenik ahoskatzen dituztenak. Intonazioaren jatortasuna, beraz, herri-mintzairan datza. Jende ikasiaren baitan artifizialdu egiten da, aldatu.

Bigarrenik, euskararen elementu intentsiboaren izaerari dagokionez, kritikagarri atzematen du Sebero Altuberen baieztapena, “el acento impulso se percibe en euskera con suficiente claridad” dioena, alegia-, Navarro Tomásék Gipuzkoan eta J. Larrasquetek iparrekialdeko Zuberoan beren aparatuen bidez lortutako datuek ez baitute tesi horretarako biderik ematen. Ezin da esan, ez bederen kasurik gehienetan, euskaraz silaba bat bere albokoa baino gogorragoa (*fuerte*) denik. Silaba

guztiak gogorak edota silaba batzuk besteak baino gogorragoak izan daitezkeela? Bego. Baina honek ez du esan nahi azentu intentsiboa ematen denik. Arrazoi honengatik, hain zuzen: “Porque para que lo haya es menester que esa o esas sílabas sean más fuertes respecto de sus sílabas contiguas. Si algunas veces, por causas patéticas sobre todo, hay casos de sílabas contiguas que difieran en intensidad, no se puede decir por eso que haya un tanto por ciento bastante para que el fenómeno se pueda tener no ya como característico, sino suficientemente caracterizado”. Orixeren argudioan, bada, garbi ageri da bi silaben albokotasuna dela intentsitatea mugatzen duena. Oraingoan, beste inon ez bezala, esplizitua da formulazioan.

Hirugarrenik, ohar terminologikoa egiten dio, esanez, espezialista gehien arabera, “fuerte” eta “tónica” hitzak ez direla sinonimoak. Tonikoa intentsiboari kontrajartzen zaio. Tonikoa eta atonoa, hurrenez hurren, azentu melodiko eta ez-melodikoaren kide dira.

Laugarrenik, intonazioei dagokienez —eta hemen, bidenabar, esan behar da bai Orixek eta bai Altubek azentua eta intonazioa nahas-mahas darabiltzatela—, soilki bi eta hiru silabako hitzetan ez ezik, lau eta bostekoetan ere ematen direla esaten du Orixek. Adibidez, “daki-tela” hitzean, goratasunezko bi azentu edo alboko bi azentu melodiko ematen dira. *Scandicus* oinaren araua betetzen da hor. Adibide horretako *da* eta *ki* silabetan, hau hura baino zorrotzagoa edo altuagoa da, eta *torculus* luzatu baten itxura hartzen du. Areago oraindik: goratasunezko hiru azentu alboko ere ematen dira. Bestalde, Sebero Altubek Bizkaian jaso uste duenez, “sartu” hitzak beheako eskala hartzen du. Orixek justu alderantzizkoa hauteman uste du bere euskalkian, zirkunflexu sinkopatu antzeko zerbait lehen silaban, azentuaren bigarren zatia ia erabat ezabatuz. Beraz, Orixeren ustez, ez *sártu* baizik *sártu* izango litzateke. Hiru silabako hitzetan, hemen Sebero Altube irizkide duela baina ez Azkue, bi ertzetako azentuak zorrotzagoak dira, hala nola, “Jésusék” hitzean. Lau silabako hitzetan eta gehiagokoetan, berriz, hasierako tonalitatea altuago egiten da eta goratasunezko azentua azkenurreneko silabetan jartzen da. Honela joango lirateke azentuak jarraiko adibide honetan: “Tólosarengátik”.

Ebakerari buruzko datuetan askotan fiabardurak izatetik pasatzen ez diren ohar horiek alboan utzita, orokorrean abegi ezin hobegoa egiten dio Sebero Altuberen ekarpenari: “En muchos particulares dejamos de coincidir, en datos de pronunciación; pero esto no tiene tanta importancia, sobre todo si las conclusiones gramaticales a que endere-

za Altube su estudio las podemos aceptar por otra vía”. Adostasunik ezaren puntu nagusia, arestian esan bezala, intentsitatea bai ala ez arazoan zehazten da. Honetan tinko dauka Orixek bere aburua. Tresna horiek, garai horretan, ez ziren anplitudea eta intentsitatea neurtzeko gai. Geroago, 1940-1950eko epealdian edo, asmatuko dira ezaugarri fisikoak zehaztasunez neurtu ahal izango dituzten aparatua, hala nola, sonografoa. Eta berriro, aipatutako arrazoi horregatik ebakerari buruzko arazo honetan adostasuna ezinezkoa dela frogatzeko, Durangoko hitzaldian Azkoitiko bere hiru ikaslerekin egindako esperimentua aipatzen digu orexarrak. Ez ziren ados etorri lehen frogan, ezta bigarrengean ere, handik zortzi egunera, testu berberaren aurrean.

Gerrate zibila pasa eta Orixek El Salvadorreko Zaragozan dagoela, 1952an, Sebero Altubek “Acentuación española y francesa de los apellidos y toponímicos vascos” izenarekin sei artikulua argitaratzen ditu *Gernika* aldizkarian. Euskal azentuaz argitaratzen zen orori beti adi baitzegoen –areago oraindik egilea, Sebero Altuberen kasuan bezala, etxekoa eta gaian aditua izanda–, “Ciencia y práctica de nuestro idioma”, “Del acento vasco” eta “Paroxítonos y esdrújulos vascos” artikuluen bidez erantzuten dio Orixek, hamar urte inguru lehenago izandako eztabaidan aurrera segituz. Bataren nahiz bestearen artikulua gurutzatuz argitaratzen dira *Gernika* aldizkarian, 1951-1953ko epealdian. Eztabaida ulergarriago gerta dadin, norberaren ikuspegiak banakatuak emango ditut.

Altubek, bere lan horretan, azentua zentzu unibokabularrean –hitz solteak hartuta, alegia–, eta zentzu inpultsiboan –perkutsio-indarrean, alegia–, gogo ematen du. Hala ere, azentu inpultsibo hori zehazki zer den ez du mugatzen. Haren ikuspuntua ondorengo sei puntu hauetara laburbil daiteke:

— Latinak eta euskarak bi tonologi sistema desberdin dituzte. Latinez, bi silabako hitzetan edo gehiagokoetan, azentu intentsiboa, eskuarki, azkenaurreko silaban doa, adibidez, *abreviare* hitzean, gutxiagotan herenazkenekoan, adibidez, *virginem* hitzean (beraz, gutxitan darama azentu esdruxulu edo proparoxitonoa), inoiz ez azken silaban (beraz, azentu zorrotz edo oxitonorik ez du). Latinetik eratorritako hizkuntzetan, bada desberdintasunik gaztelania eta frantsesaren artean. Gaztelaniak, eskuarki, latinaren azentuazioa segitzen du; baina, batzuetan, aldendu egiten da, latinaren azken letra kamutsak kendu eta zorrotz edo oxitono bihurtzen baititu, adibidez, *abreviare* *abreviar* egi-

nez. Frantsesak, eskuarki, latinezko ahots guztiak oxitono edo zorrotz bihurtzen ditu, latinez azentuatuta datorren silabaren ondoko soinuak ezabatuz. Honela, *viereg(e)* egingo du latinaren *virginem* lekuan.

— Euskaraz ez dago silaba baten besteekiko nagusitasunik. Euskal azentua uniforme da, Altubek “consistencia tonal” deitzen diona, eta “isotonikoa”, azentuazio-berdintasuna adierazten duena. Isotonia hau biguna bada ere, hauteman daitezke, ahulki bederen, hasierako azentua eta bukaerakoa, adibidez, *Aita Gurea* otoitzean: *aita-gurea, zerue-tan zaudena...* Honela, hizkuntza latin-erromanikoetan (frantsesez izan ezik) sarrienik azentuatzen den silaba azkenaurrekoa den bezala (adibidez, *paloma* hitzean), euskarak, hain zuzen, azkenaurreko silaba horrek ez du eramaten azenturik. Beraz, *barkaTU* eta ez *barkatu*.

Euskarak eta frantsesak tonologi kidetasuna dute, biak, funtsean, isotonoak direlako eta, ondorioz, hitzen azken silaba inputriboki azkarra egiten dutelako abizenetan eta toponimoetan. Hona hemen adibide batzuk: bi silabako hitzetan, *hal-tsu*; hirukoetan, *Etxarri*; lau-koetan, *Behorlegi*; gehiagokoetan, *Elizaberrri*, etab. Izen guzti hauek, nola frantsesez hala euskaraz, azentuazio isotomikoaren arabera ebakitzen dira, azken silaba *azkarra* eginez, eta, kasurik gehienetan, *-i* bokalean bukatzen diren izenetan.

— Nahiz eta tonologi kidetasun hau egiazkoa izan hedapen fonikoan, batzuk sarritan –euskaldun ikasiek, bereziki–, beren izenak ebakitzean, hautsi egiten dute besteetatik bereizteko asmoarekin. Honetarako prozedura bikoitza erabiltzen da. Frantsesak, azken silaba ezabatuz, normalean *-e*, *-a* edo *-u* bokaletan bukatzen diren jatorrizko hotsen hedadura laburtzen du: Goienetch(e) Goienetxe-ren lekuan. Euskarak, *-e* bokala erantsiz, luzatu egiten ditu kontsonantean bukatzen diren jatorrizko izenak: *azkaine* *azkain-en* lekuan.

— Gaztelaniaz, hiru azentu-mota dauzkagu: kamutsa edo paraxitonoa, zorrotza edo oxitonoa eta proparoxitonoa. Hauetatik, ahots kamutsak “gehienetan” eta esdruxulak “beti” bokalean bukatzen dira eta zorrotzak, aldiz, “gehienetan” kontsonantean, hurrenez hurren, *puesto, cómodo* eta *poner* hitzetan bezala. Euskal izenak gazteleraz jartzean, zera gertatzen da: gehienetan azentuazio kamutsa egiteko joera nagusitzen dela kontsonantean bukatzen diren izenetan, lehen esan bezala, “prurito de diferenciar” delako horregatik. Joera horren ondorioz, *achabal*, *olazabal* esaten da bai euskaraz eta bai gaztelaniaz, azentuazio jatorragoa den *achabal*, *olazabal-en* lekuan.

— Euskal izenen gazteleratze-fenomeno honetan, euskal izen bartzuk azentu garbiki esdruxularekin agertzea da kasurik bitxiena, ia beti 4 silabako hitzetan (*azkuenaga*, *lizarraga*) eta gutxiagokoetan 5 (*iruarritzaga*) eta 3 (*Malzaga*) silabakoetan.

Orixeren kritikak ez zituen jorratu gabe utzi Altuberen iritzi horiek. Altuberekin egin dudanaren antzera, bidenabar, Orixeren ihar-despena ere puntuz puntu sailkatua emango dut, honenak ondorengo hiru ohar hauetan hesituz:

— Funtsean 16. zenbakiko Altuberen artikuluan oinarrituta, ohar terminologiko bat egiten dio “Ciencia y práctica de nuestro idioma” artikuluan, esanez ez dela egokia “isotono” adjektiboa erabiltzea, sor dezakeen nahasteagatik: “Por el mal empleo que algunos han hecho del adjetivo isótono y porque se presta a confusión, creo que convendría apartarse de ellos, y llamar sílabas isótonas a aquellas que tienen igual tono o tonalidad, y equipesadas a las de igual peso fonético”. “Isotonía” hitza gera bedi, beraz, tonu-berdintasuna adierazteko.

— Bere ustez, batetik, euskal silaba guztiak kontsistentzia berekoak direla eta, bestetik, azken silabak azentu inpultsiboa daramala esatea, kontraesanean erortzea da. Euskal hitzen azken silabak besteen kontsistentzia bera duela esatea zuzena da, baina ez bere alboko silabak baino kontsistentzia handiagoa duela esatea.

— Ondoko bi baieztapen hauek zaizkio hizpide, datozen bezala emango ditudanak: “1) Las palabras vascas se parecen más a las francesas por su isotonía y por tener mayor peso fonético en la última sílaba que las españolas; 2) La tendencia de los vascos a hacer llanas sus palabras cuando las traducen fónicamente al español, es prurito de diferenciación”.

Lehen baieztapenak egi itxuratik erdia bakarrik du, horren kontrakoa, eta hemen dator Orixeren objektzioa, hurbilago baitago egiatik. Bestela esanda, Orixeren ustez, euskal hitzak antz gehiago du gaztelaniarena frantsesarena baino, euskaraz esdruxula eta paroxitonoen iduriko hitzak dauzkagulako, hain zuzen, nahiz eta egiazki ez halakoak izan. Ezin dira batera etorri baliokidetasun fonetikorik ez duten bi prosodia: “Tenemos palabras que parecen esdrújulas –todas las trisílabas– que son las que más abundan en nuestro idioma como simples; porque el tono más alto parece estar en la tercera sílaba partiendo de la última, lo mismo que el acento de carga español. En mi variedad dialectal hay además cantidad de esdrújulas aparentes en la conjuga-

ción como también los había en Andoain en tiempo del P. Larramendi. A pesar de que ese acento ha cambiado mucho de puesto en las formas verbales de Andoain en sólo dos siglos y medio, sin embargo conserva el sistema de puras tonalidades, como en el resto del País, excepto en Zuberoa y en las cinco Villas de Navarra”. Hiru silabako hitz hauek zorrotzak direla dirudite, baina itxurazko uste hori baliogabetua utzi dute aparatu fonetikoaren bidez egindako Navarro Tomás eta Larrasqueten ikerketek. Eta frantsesak ez du horrelakorik, frantsesetik hitzak, azken silaban izan ezik, isotonoak eta monotonoak baitira; gureak, aldiz, tonu desberdinetakoak.

Bigarren baieztapena, halaber, ez da onargarri, euskaldunak espainolez nahiz frantsesetik mintzatzean azentu isotonikoa kamuts edo paroxitono bihurtzeko duen joera horretan ez baita inolako exotikotasunik ikusi behar. Tolosar bati espainolez ari denean euskal tonutxoaren nahi zaiola? Erabat normala. Baina ezaugarri hori ez da besteengandik bereizi nahi izatearen ondorio bat, hots, Altubek “prurito de diferenciación” dioten hori, baizik eta herri soilari tradizioetik darion zerbait, euskaldun soilari oharkabearen sortzen zaion zerbait. Bidarrain, Orixe lekuko zela, emazteki bati frantsesetik bere senarraren abizenagatik galdetu ziotelarik, eta berak “Ibarrol(e)” erantzun omen zuen. Orobat, aragoiarrek “ar-bo-les” esaten dute eta ez “árboles”, ezta “arbóles” ere. Horrela zergatik gertatzen den? Euskaldunak, euskaraz hain ugaria den *scandicus* oinean oinarrituta, gaztelaniazko proparoxitonoak (esdruxulak) nahiz paroxitonoak berdinduz ebakitzen dituelako. Horra!

Hiru silabako hitzetan, adibidez “Malzaga, Larraga, Zarraga” hitzak ebakitzean, herri soilak “*Malzaga* eta *Malzaga*, *Larraga* eta *Larraga*, *Zarraga* eta *Zarraga*” esaten du eta sekula ez “*Malzaga*, *Larraga* eta *Zarraga*”. S. Altuberen ustea da, adibide horietan, lehen silaba tonuz altuagoa dela bigarrena baino, baita hirugarrena ere; Orixe, aldiz, bigarrena lehenengoa baino altuagoa delakoan dago, bere euskalkian bederen. Sebero Altubek finkotasunez *porrectus* oina aplikatzen duen lekuan, Orixerri, euskalkietan egon daitezkeen desberdintasunak ezagutuz eta onartuz, askotan *scandicus* oina aplikagarriago iduri bide zaio, hots, azentu zorrotza zorrotzaren gainean. Altuberekin *Ar-ne-gi*, *A-rre-gi* dena, Orixerrekin *Ar-ne-gi*, *A-rre-gi* da.

Era berean, lau silabako hitzetan, batzuetan bat datoz, besteetan ez. Bat datoz, adibidez, *I-bar-bu-ru* eta *I-ri-be-ri* izenetan intonazio esdruxulua egitean; baina *I-la-rre-gi* eta *I-ra-ñe-ta* izenetan, adibidez,

ez da aplikatzen arau hori, izen horien azkenaurreko silabak oxitonoak direlako.

Abizenen transkripzio fonetikoan ere ez dagoela batasunik ageri da. Bizkaian *Ocharan*, *Zurbaran* esaten da; Gipuzkoan, aldiz, *Ocharan*, *Zurbaran*. Nafarroan potzoloagoak dira oraindik zalantzak, hemen, *Aberin*, *Barbarin*, etab. ez ezik, *Ba-ra-so-ain*, *Ga-ri-no-ain* ere esaten baita.

Horregatik, eta azken ondoriora etorritz, Orixek ez du onartzen goian aipaturiko tesi bikoitz hura, eta ez du onartzen, hain zuzen, gaztelaniak eta frantsesak euskararekin baliokidetasunik ez dutelako. Gaztelaniaren aldean oraindik gutxiago frantsesak, honek ez baitu ez esdruxularik eta ez paraxitonorik. Bestalde, Altuberi zuzentzen dion beste galdera, hau da: zubereraz “e-mái-te-ko, har-tzé-ko” hitzak zergatik egiten dira proparaxitonoak –eta paraxitonoak egin, gainera, gaztelaniaren arabera eta ez zorrotzak frantsesaren arabera–, dagoen lekuan kokaturik egonda? Funtsean, euskarak hitz zorrotzik ezagutzen ez delako, erantzungo du Orixek. Puntu honetan, euskalkiek dituzten desberdintasun guztien gainera, batera datoz euskaldunak oro, alde batekoak nahiz besteak.

Laugarrenik, aditz formei dagokienez, azentu esdruxuluak, gainesdruxuluak eta, azkenekotik hasita, azentua bosgarren silabaraino atzeratzen dutenak ere ematen dira. “Jakín” aditz sintetikotik hogeita hamar adibide baino gehiago eskaintzen dizkio, besteak beste: *ba-zenekiten*, *ba-zekíten*, *ba-zenekiteken*, *ba-dakízutela*... Kurtsibaz doazen silaba horietatik bigarrena altuagoa da eta *scandicus* itxura hartzen du; baina, aditz-forma bere osotasunean hartzen bada, orduan *torculus* hedatu baten tankerakoa bihurtzen da. Eta *ba-* aurrizkia kentzen bada, formak daktilikoak geratzen dira.

Eztabaida honi errematea eman –besterik da arrazoia–, Sebero Altubek ematen dio “Acentuación Española y Francesa de los Apellidos y Toponímicos Vascos” izeneko bere azken artikularekin. Orixe, ordea, ez da geratuko bere desadostasuna agertu gabe: “Por una parte repite Altube, por activa y por pasiva, que todas nuestras sílabas en palabra suelta tienen equiconsistencia; por otra habla del acento impulsivo en la última, cosa que está en contradicción. El decir que la última sílaba de nuestras palabras tiene la misma consistencia que las otras está bien, sobre todo con respecto a las palabras llanas españolas, cuyo final no se deja oír tan bien; pero no el decir que tiene mayor consistencia que su sílaba contigua”.

Orixeren testu horretan, Sebero Altubek bi proposizio irakurtzen ditu: lehenik, silaba guztiak indar berarekin ebakitzen direla eta, bigarrenik, azken silaba azkenaurrekoa baino indar handiagoarekin ebakitzen dela. Noski, hori horrela formulatuta, kontraesana dago hor. Baina gertatzen dena da –eta hemen dator Altuberen oharra–, Orixek ez dituela irakurri idatzirik dauden eta irakurri beharrekoak diren termino murriztaile batzuk, hala nola: “en principio” behin eta berriz errepikatua, “débilmente”, eta horrelakoak. Horregatik, egiten dion kritika orokorrean ez baitakarkio bere ikerketa aberasten lagun diezaiokeen ezer berririk, bukatutzat ematen du eztabaida.

Eztabaida batek, nahiz eta bukatutzat eman, beti uzten ditu hari batzuk zintzilika eta beti egoten da nondik zeri heldua. Lehen ere ohartarazia daukat, formulazio nagusietan orokortzeari muga ezartzen dioten hitz murriztaileak errepikatzen dituen arren, Altubek ez dituela behar bezala mugatzen oinarrizko kontzeptu batzuk, adibidez, azentu inpultsiboari buruzkoa. Isotoniaren kontzeptua zehazten ahalegindu den bezala, zergatik ez du beste horrenbeste egin intentsiboaren kontzeptuarekin? Duda-muda handiegiak ikusten ditut, baina biengan, terminologiaren aldetik begiratuta bederen.

Amerikatik etxeratu eta gero, azentuari buruzko azken azalpena Euskaltzaindian sartzeraoan egindako hitzaldian egin zuen, 1958an, hain zuzen, gaitzat “Leitza’ko mintza-doiñua” hartuta. Nafarroatik izan baitzen hautatua euskaltzain laguntzaile, bertatik orobat euskaltzain oso, horregatik hautatzen du Larraungo herri hori bere mintzalekutzat. Eta aztergaitzat Leitzako mintza-doinua hartzen badu, ez du kasualitatez hartzen, bere arrazoiak badituelako baizik. Hasteko, hango euskara da belarriz ondoenik ikasi duena: “Uitzi auzo-erri ortan azia ta ikasia naiz, eta, iakiña, orko mintza-doiñua maite dut iñongoa aiña”. Ez hori bakarrik. Euskararik jatorrena ere, bertakoa iduri zaio, arrazoi honengatik: “Izanez ere, Leitza’n entzuten ditut garbienik, musikan doiñu-bitarte edo *intervalo* esaten zaien oriek, eta gaiñera, esanaren azken-silaba beteago emaiten dutela Leitza’n nago, Euskalerrian bestetan baiño”.

Hitzaldi horretan, egia esan, ez du gauza berri askorik esaten. Euskarak, ez baitu “indarrezko azentu nabarmenik”, hortik datorkio kantuarekin ondo etortzea. Berezitasun horretan oinarritzen da, lehen esan bezala, euskarak eliz kantu gregorianora moldatzeko duen erraztasuna, frantsesari nahiz alemanari ezinezkoa zaiena. Orixek pozik

aipatzen du Matximentan Bezperak euskaraz kantatzen hasiak direneko albistea.

Hiru azentu-mota bereizten ditu: “silaba bakarrean daudenak, bitan dagokala daudenak, eta irutan dagokala daudenak”.

Silaba bakarrean dagoen azentua oxitonoa eta baritonoa da, hots, goranzkoa eta beherakoa, hurrenez hurren, positiboa eta negatiboa ere deitzen diena. Adibide hau dakar: “ni naiz” (negatiboa edo ez-azentua), “ez naiz ni” (positiboa edo bai-azentua).

Bi silabako hitzetan, biak dira positiboak, adibidez: *gizon, etxe*. Hasierako azentu hori sinkopatua (^), bizkarduna, delakoan dago, grekoek *perispómenos* deitzen zioten hura, alegia. Elkarrirerantz azentuetan, euskaraz sei azentu-mota eman daitezkeela eta beroriek Lekunberritik Goizueta bitartean atzeman ezinik ez litzatekeela egongo pentsatzen du.

Hiru silabako hitzetan, azentuak oso aldakorak dira euskaraz. “Ezkurra” herri-izena deklinatzerakoan, adibidez, desberdinki ematen dute: “Ez-ku-rrá-rá” Berastegi eta Uitzin, “Ez-ku-rrá-rà” Leitzan. Leitzakoa jatorragotzat jotzen du lau arrazoi hauengatik: “Lenbiziko, Leitzan garbiago entzuten ditut doiñu-bitarte edo *intervalo*’ak Euskalerrian iñon baiño; bigarrenik, Leitzarrak silaba batez lenago asten dira gainbera azentuan, eta silaba batez nekezago gaingora; irugarrenik, esaeraren azken-silaba beteago egiten dute Leitzarrak; laugarrena, Leitzan ez da entzuten batere bosgarren azentua edo bi gaingora dituna”. Hiru silabako hitz gehienek, bakarka hartuta, azentu magalduna dute. Larraungo hamazazpi herritatik, bederatzik hala dute. Lau silabako hitzetan, batzuk gora eta besteak behera dabilta: *Lekunbèrri*, magal eginez; *Berastégi*, gaingora eginez.

Aditzetan, segun eta esaera baten barruan non kokatzen den galdegaia, hark bereganatzen du beti azenturik garaiena. “Berez, itz-urrena edo syntasi iatorrago ta garbiagoa da lenbizitik galdekizuna ipintzen duna, komarik ere ez baitu bear argitasunareko”. Beraz, “Hiru alaba ditu gure auzoko Joxepiñaxik” adibideak sintaxi jatorrago eta garbiagoa du “Gure auzoko Joxepiñaxik, hiru alaba ditu” adibideak baino.

Koldo Mitxelena, bere erantzun-hitzaldian, Orixe euskalaria, ez idazlea, aurrean duela eskaintzen ditu euskal azentuari buruzko bere gogoetak, fonologiaren ikuspegitik eskaini ere. Gizakiak molda ditzakeen hotsak aleunka izanik ere, hizkuntza bakoitzak horietako banaka batzuk bakarrik erabiltzen ditu. Horiek dituzu, hain zuzen, fonemak.

Hauek, mintzatzerakoan, ez ditugu beti berdin ebakitzen eta hortik sortzen dira esanahi-desberdintasunak. Silaba batzuei gainean ezartzen zaien azentua, fonemen bidaidea da.

Sarrera terminologiko antzekoa egin eta gero, Navarro Tomás fonetistaren aipua eginenez sartzen da gaien. Egile honek gipuzkoar eta bizkaitar batzuen azentuaz egindako azterketa ondo dago, eta bego hor. Baina berari interesatzen zaiona da jakitea, ea azentuak balio due-netz hitz homonimoak bereizteko. Baiezkoaren alde agertu zen Azkue, baita Orixek bera ere; ezezkoarekin, aldiz, Altube, kasu banaka batzue-tan izan ezik. Koldo Mitxelenak lekukorik franko ekartzen du, Ara-kistainek 1746an zioenetik hasi eta Errenteriako herri-hizkuntzaraino etorritik, baietz esateko. Areago oraindik: artikuluekin hiru silaba osa-tzen dituzten izenak bi sailetan banatzen dira, hala nola *mokuà* baina *zokuá*, *lekuà* baina *trikuá*, eta abar.

Lekuan lekukoa bilduz sailkapen-lana osatzera baino haratago doan arazoa da jakitea, ea zein den banaketa horren arrazoia edo, bes-tela esanda, ea zein den euskal azentuaren izaera. Koldo Mitxelenaren ustea da, euskal azentu jatorra inon kausitzekotan, gaurko euskalkie-tan kausitzen dela hori. Euskal azentu-mota hau ez baita gaztelaniaz-koaren antzekoa, horregatixe da jatorra. Zuberoakoa txit bestelakoa da, hots, intentsiboa izatea ez da baieztapen horretarako oztopo. Baina ez da zuberera bakarrik. Koldo Mitxelenak, autore desberdinen testue-tan oinarrituta, salbuespen bitxia zirudienaren katea areago luzatzen du. Azkuek dakarrenez, Irun eta Hondarribian, baita Nafarroako Bost Hirietan ere, azentu intentsiboa da gailen. Koldo Mitxelenak berak horrelako zerbait jasotzen du bere belarriz Beintza-Labaienen ere. Orixek Ultzaman fenomeno bera kausitzen du. Erronkariko azentua erdal-azentuaren pare-parekoa da. Guzti honetatik ondorio hau ate-ratzen du Koldo Mitxelenak: “Indar-azentua esan dudan baiño zabal-duagoa dagoelako susmoa dut Nafarroa’n barrena. Ezta, beraz, azentu-mota ori ain desegokia euskal-belarriendako. Batez ere, euskararen atzoari, historiari, begiratzen badiogu”.

Eta historian barrena egin diren azken ikerketen arabera, euskara zaharrak azentu intentsiboa zeraman eta azentu hori hitzaren silaba baten gainean zegoen, A. Martineten ustez lehen silabaren gainean eta Koldo Mitxelenaren ustez, berriz, bigarrenaren gainean, oraingo Bidasoa aldeko hizkeraren antzera.

Ondorioak? Bat baino gehiago.

Lehenengoa: euskal azentu jatorra zein den erabaki behar dela. Hau jakin ezean, noski, ezingo da bilketa-lan onik egin. Esana geratu da, Koldo Mitxelenaren aburuz, gaurko Euskal Herriak mintzatzen duen herri-hizkuntzan datzala berori.

Bigarrena: iritzi orokortu baten kontra, azentu intentsiboa uste baino hedatuagoa dagoela Euskal Herrian zehar, gaurkoan eta areago oraindik atzokoan. Eta, hemen, ohartxo bat egin gogo dut, deigarri gertatu zaidalako. K. Mitxelenak omenduaren aipu-pare bat dakar bere hitzaldian. Eta horietako bat zertarako ekarriko eta, Ultzaman azentu intentsiboa nabarmen dela frogatzeko. Ez zuen, bada, izerdi gutxi atera azentu intentsiboa ukatzen Navarro Tomásekin izandako eztabaida hartan!

Hirugarrena: euskararen historia ez dela behar adina ezagutuko gaurko euskalki guztietako azentu-doinuak aztertuko ez diren arte.

Arazo hau zertan den egungo euskal linguistikaren argitan? Jose Ramon Zubiaur irakasleak “Fonetika-Fonologia” lanean dakarrenez, euskararen fonetika da landuenik dagoen adarra, baina horren barruan prosodi alderdiak, salbuespen batzuk aparte, oso gutxi arakatu dira: “Aztertzailer gehienek, zuberera salbu, euskal azentuaren ez-bereizletasuna markatzen dute aho-batez. Intentsitate eta tonuaren balioak elkartzen ditu euskal azentuak, ez bide da oso ‘azkarra’, eskuarki bigarren silaban gertatzen bide da (kontaketa hori hasieratik at egiten delarik), eta areago bide da morfologikoa, perpausezkoa, hitzezkoa baino. Zenbait atzizkik beragana erakartzen du azentua, hitzean ‘atzeratuz’; eta hasperenketan //b/, azentuaren aurrean joana bide da. Euskalkien mailan, aldiz, eta zubereraren alorrean, areago da tonikoa azentua, intentsitatezkoa baino. Areago: balio bereizle edo fonologikoa ere badu: *elíza # elizá*. Bokalen laburdura dela bide, bai erronkarieraz, bai zubererari dagokion eskualde guztian, hitz oxitono asko dago. Lafon-en ustez, zubererazko azentuak banandu egiten ditu hitzak, perpausaren erritmoa hausten; eta honexek egiten du zailago euskalki honen ulerkuntza. Beste eskualde guztietako euskaldunek erreparatzen dute arazo hau; baina, euskal hizkuntza-alorreko muturrekoak direnez, bizkaitarrek eta gipuzkoarrek dituzte trabarik larrienak. Zilegi bekigu, honetaz gero, ondoko hau iradokitzea: bai azentua, bai intonazioa, bai agian euskal lokuneak, prosodiaren eta segmentuz gaindiko baranoan aztertu behar lirakeela; eta Europako fonologia klasikoaren ikuspegia baino zabalagoak diren beste azterbide berrien arabera”.

Testu trinko horretan joera orokorra eta, euskalkien arabera, salbuespenak azpimarratzen dira. Tesi orokor gisa, hau daukagu: euskal azentuak, oro har, ez duela ezaugarri bereizlerik; ez dela oso azkarra (*fuerte*) eta, eskuarki, hitzaren bigarren silaban doala; areago nabarmentzen dela perpausetan hitzetan baino; zenbait atzizkik beregana ekartzen duela azentua eta *h*-a azentuaren aurretik doala. Salbuespenen sailean, zuberera nabarmentzen da gehienbat, beronen ezaugarriak ondoko hauek direlarik: azentua areago dela tonikoa intentsitatezkoa baino, azentuak banandu egiten dituela hitzak eta perpausaren erritmoa hausten, hitz oxitono asko duela.

Jakina, testu horretan iturriak aipatzen ez direnez gero, zail egiten da tesi horiek egiaztatzea. Nolanahi ere, ondorioetara etorrira, esan behar da bitxi gertatzen dela, batetik, zubereraz “areago da tonikoa azentua, intentsitatezkoa baino” irakurtzea eta, bestetik, zubereraz nahiz nafarreraz intentsitatezkoa ere uste baino zabalduagoa dela jakitea. Iturririk fidagarrienak, eskaintzen dituzten datuengatik, laborategian egindako ikerlan akustikoak dira, besteenak belarria erabiliz lortuak baitira. Horregatik, Pilartxo Etxeberria Muruak bere *Zaldibiako bokalen azterketa akustikoa* idazlanean dakarrenari jarraiki, euskal fonetikaren inguruan egindako baieztapenak egiaztatu ahal izateko, azentu eta intonazioari buruzko datu fisiko gaurkotuak ezinbesteko gertatzen dira, horien gabeziak behin eta berriro aurrekoek esana errepikatzen da, baikaramatza. Azken ikerketen lerroan, urrats bat gehiago izan da Ignacio Hualderen “Acentos vizcaínos” artikulua ere. Eta ikerketak segitzen du, ez baitu azken geltokirik.

SEIGARREN ATALA

EUSKARAREN BATASUNA

Orixek, euskararen batasunaz bere iritzia agertu baino lehen, beste batzuek sentitua zuten horren beharra. Euskaltzaleen komunitateak aspalditxotik zekarren horren kezka. Noan, beraz, errepasso txiki bat egitera, Orixeren testuari bere testuingurua ezar diezaiodan.

Euskal foruak galdu ondoren, batez ere XX. mendearen lehen bi hamarkadetan, euskararen arazoak bultzada berria hartuko du euskal nazionalismoaren arrimuan mugaren alde bietan. Epealdi honetan oratzen dira, euskaltzaleen arteko barne-tirabiren labean, helburutzat euskara sustatzea duten erakunde nagusiak: Eskualzaleen Biltzarra (1902) eta Cercles d'Etudes Euskariennes (1911) Ipar Euskal Herrian eta Euskal Esnalea (1908) eta Euskaltzaindia (1919) Hego Euskal Herrian.

Euskararen inguruan planteatutako gaien artean, haren batasunari buruzkoa izango da, seguru asko, euskaltzaleen artean arrangurarik gehien sortuko duenetako bat. Nik ez dut euskararen batasunaz espezifikoki jarduteko asmorik, lehendik ere ikertua baitago nahiko xeheki, besteen artean, Koldo Zuazoren *Euskararen batasuna* lanean (1988).

Euskararen batasunaren historia, Piarres Xarritonek *Pierre Brousseau. Sa contribution aux études basques*-en egiten duenaren antzera, bi aro nagusitan zati daitekeela uste dut. Lehenengoa 1920an hasten da eta epealdi hau, atzetik, XX. mende-hasieratik datorren historia hurbilak eta, aurretik, gerrate zibila arteko euskararen batasun-prozesuak mugatzen dute. Bigarren aroa 1968an irekitzen da Arantzazuko Batzarrearekin eta honek ere, aurrekoak bezala, bere historiaurrea du, 1950.

urte-inguruan abiatzen dena eta, halaber, bere historia ondokoa duena, oraindik ere osotara burutzeke dagoena. Ni hemen, Orixek euskararen batasunaz zuen ikuspegiak jardutean, lehen arora bakarrik mugatuko naiz, batasunarekin zerikusi zuzena duten beste gai batzuk, gramatikalak zehazki, aurreko ataletan aztertzen baitira.

Batasunaren aldeko oldea, lehen esan bezala, XX. mendearekin batera hasten da bideratzen Hendaia eta Hondarribian egindako Batzarretan. Hasiera hartan porrot egin zuen batasun ortografikoaren asmoak. Hizkuntz arrazoietan baino gehiago ikuspegi politikoan oinarritzen zen Sabino Aranaren euskarari buruzko aburu oker eta amoregaitzari botatzen zaio horren errua. Aranisten sektakeriagatik nonbait, ez zuten proiektu hura mamitzerik izan. Hala dio Xabier Kintanak “Euskararen batasuna” artikuluan: “Akademia sortu berriak berehala ortografiari buruzko akordio batzuk argitaratu zituen, baina sabindarren oposizioagatik ez zuen batasunaren eta neologismoen arazoa erabaki nahi izan”. Hemen adierazi nahi dena adierazteko, esan dezadan, bidenabar, Koldo Mitxelenari ez zitzaiola batere egokia iruditzen “aranismo” hitza erabiltzea, zeren berak Sabino eta bere ondorengo sabindarrak ondo baino hobeto bereizten baitzituen.

Dena den, esan beharra dago bederen Sabino Arana, nahiz batasunaren kontrakoa izan, ortografia bakarra erabiltzearen aldekoa agertu zela beti. Sabino Aranak, *Lecciones de ortografía del euskera bizkaino* (1896) liburuan, politika-mailako eredu konfederala aplikatu nahi izan zuen linguistikan ere. Printzipio honen arabera, “Euskeria” edo Euskal Herri independentean zenbat eskualde autonomo izan etorkizunean, hainbat euskalki egongo ziren. Beraz, Sabino Aranaren hizkuntz politika, “ugaritasuna batasunean” formulatzen oinarritua zegoenez, euskalkiak indartzera zihoan eta ez, normalizaziorako bidean, hizkuntza nazionala izan zitekeen euskara batua defendatzera. Batasunaren beharra azpieuskalkiak eta lokalismoak gaintitzean ikusten zen, baina beti euskalki bakoitzaren barruan eta hor ere ortografi mailan bakarrik.

Porrot haren goizak ekarritako izotza –zortzi urteko isilunea alegia–, *Euzkadi* aldizkariak 1910ean urtzen du, jarraiko lau galderok plazaratuz: 1) egoki al da euskararen uniformetasun literarioari ekitea?; baiezkoan, 2) uniformetasun horrek nolakoa izan behar du, erabatekoa ala partziala, hots, fonetika ala lexikoari soilki atxikia?; 3) uniformetasun hori nola lortuko da, euskaltzaleen akordioz ala hizkuntzaren beraren eboluzio-indarrez?; eta 4) euskara literario homogeen hori

nola egingo da, euskalki bat hautatuz eta berori beste euskalkien elementu gramatikalez aberastuz, ala euskara berri bat sortuz? Bost izan ziren lau galdera horiei erantzun zietenak. Hurrengo urtean, 1911n, Koldo Eleizalde *Raza, lengua y nación vascas* liburua argitaratzen du eta hor, espreski Sabino Aranaren iritziarekin hautsiz, euskararen batasuna aldarrikatzen du, literaturaren mailan bederen egin beharrekoa zela esanez. Koldo Eleizalderen bidetik aurrera eginez, Perderika Belaustegigoitiak “La unificación del euzkera” txostena idazten du 1916an. Batasunaz burutu den lanik sakonenetariko bat da. Bere garaian ez zen argitaratu, baina bai esku esku banatu euskaltzale batzuen artean, azter zezaten. Urte berean, Laudioko jeltzaleari erantzunez, Bilboko Euskaltzale-Bazkuna elkarteak “Sobre la unificación del euzkera” argitaratzen du. Hemengo partaideek, Sabino Aranaren *Lecciones de ortografía*-ko tesiak osoki berenganatuz, bizkaiera dela euskalkirik jatorrena defendatzen dute eta euskararen etorkizuna abertzaletasunean dartzala diote. Aburu honetakoak dira, besteak beste, Zubieta eta Manuel Egileor. *Euskal-Esnalea* aldizkarian aita Arbelaitzek (Buenabentura Oyeregi kaputxinoak), “Euskararen batasunak” (1916) artikuluan, B'tar P. jaunaren “La unificación del euzkera” iruzkinduz, argi-argitan jartzten du batasunaren beharra. Oñatiko Batzarrean (1818) ere, aro berri baten hasiera sinbolizatzen duen Batzar horretan, euskalkien ugaritasunak hizkuntzaren bizitzarako suposatzen duen zailtasuna eta, ondorioz, ortografi arau bakarra onartu beharra planteatzen da.

Ipar Euskal Herrian ere, lehendik ere bizirik baitzegoen han batasunaren arazoa, ez daude guztiak lo. Cercle d'Etudes Euskariennes elkartean, adibidez, euskalkien batasunaz jardutea proposatzen dio Broussainek Lacomberi 1911ko urriaren 25ean egindako gutun batean: “Nous aurions à décider, dans notre première réunion, comme vous le dites, quelle tâche nous aurions à entreprendre: études, orthographe, *koinè*, etc.”.

Baina batasunaren arazoa seriotasunez mahaigaineratzea, arazoaren gunea formulatu eta aterabide posibleak iradokitzea, sortu berria den Euskaltzaindiari tokatuko zaio. Honek, bere hasiera belaxka hartan, Pierre Broussain eta Arturo Kanpion izendatu zituen euskararen batasunari buruzko txosten bat egiteko. Hauek, gaztelaniaz idatzitako eta 1920ko apirilaren 24an izenpetutako txostenean, bi proposamen zehatz zuzendu zizkieten Euskaltzaindiari: lehenik, batasuna gipuzkeraren edo lapurteraren edo bi euskalki horien gainean egitea eta, bigarrenik, eginkizun hau bideratzeko hiru batzorde –fonetika eta ortogra-

fiarena, gramatikarena eta hiztegiarena— sortzea. Autore hauen ustez, euskara literario bakarrera iristeko bi bide besterik ez daude: bata da lau euskalki literariotik bat hautatzea, biderik zuzenena, eta bestea, bederatzigarren euskalki berri bat sortzea, biderik bihurritxoena. Lehen bideari “prohijación” deitzen diote eta bigarrena, berriz, “generación”. Euskalki bakar baten aldeko aukera honek, txosten-izenpe-tzaileak ongi jabetzen direnez, bere desabantaila handiak ditu, horien artean larriena izanik beste euskalkien aberastasuna alboratu beharra. Horregatik, horrelakorik gerta ez dadin edo, bederen, euskarak ahalik eta gutxien nozi dezan, bi aukera horien artekoa izan zitekeen zerbait proposatzen dute, hirugarren bidea deitzen diotena: “... se descubre un arbitrio intermedio que consistiría en elegir, a título de base, ejemplar, patrón o como quiera decirse, un dialecto literario y enriquecerle con los despojos que arrebatásemos a los otros...”. Beraz, proposatutako gipuzkera edo lapurtera hori beste euskalkiek onenetik duten elementuez hornituko da. Hala ere, kasurik onenean ere, euskara hori artifiziala izango litzateke: “Cierto es que esa lengua unificada será lengua artificial”. Hala izanda ere, euskarak ez dauka batu ala desagertu beste alternatibarik.

Broussain eta Kanpionek egindako txosten horren ondotik, Euskaltzaindiak euskararen batasunari buruz kontsulta zabala egitea erabakiko du. Aztergaiak alde aurretik lankide desberdinen artean banatu eta, 1920ko abendutik 1921eko apirilera, euskaltzaleak batzartuta egon ziren Bilbo, Donostia, Lekaroz eta Hazparnen. R. M. Azkuek dakar, bere “Euskeraren batasunaz” artikuluan, txostengile bakoitzak irakurritako lanaren berri laburra. Iritziak? Xehetasunetan sartu gabe, bitan banatzen dira:

- a) Euskalki jakin bat hautatzea hobesten dutenak:
 - *Bizkaera* (Gaubeka, aita Larrakoetxea, aita Iñaki Ayengiz).
 - *Gipuzkera* (Madariaga, Luis Jauregi, aita Buenabentura Oye-regi, Belaustegigoitia, Garitaonaindia).
 - *Lapurtera* (Saint Pierre apeza).
 - *Gipuzkera* edo *lapurtera* (Anabitarte).

b) Euskalki jakin bat izatea hobesten ez dutenak: Urrutia, Cortés, Zabala-Arana eta Goyenetxe.

Gehiengoak, bada, batasunaren alde agertzen da eta, joera honen barruan, euskalki jakin baten aldeko aukera egin beharrez gero, gehienek gipuzkera hobesten dute bizkaiera eta lapurterari buruzki. Pentsa

bide daiteke aukera honetan bere eragina izango zuela Broussain eta Kanpionek prestatutako txostenak.

Baina gehienak euskararen batasunaren aldekoak izanda, zer gertatu zen oldeak aurrera egin ez zezan, eta egin, bidezkoa zirudienez, gipuzkeraren bidetik? Arrazoiak, agian, bat baino gehiago izango ziren. Niri bi bederen funtsezkoak iruditzen zaizkit. Bata da Nikolas Ormaetxea eta Ramón Menéndez Pidal urgazleen iritzia oso pisuzkoak iruditu zitzaizkiola R. M. Azkueri eta bestea, ez txikiagoa, araristen presio politikoa sumatzen zuela gainean. Bi arrazoi horiengatik –aldi berean, linguistiko eta estralinguistikoengatik, alegia–, Azkuek atzera egin zuen. Gipuzkerara jo behar da, hala esango du, baina emeki, ez itsumustuan: “Euskalari ta euskaltzain batzuren iritzia aipatu ta azaldu ta eraskindu (komentatu) dedanezkero, entzun ezazute orain nik euskeraren batasunezko erizkizun onezaz dedan ustea. Bospasei idazkitxo ditut gipuzkeraz eginak: *Ortzuri, Urlo, Aitaren bildur, Pron-tuario de la lengua vasca* ta *Ardi galdua*; *Sakel-iztegia* ere gogo onezaz egin nuan. Nik nere kabuz egin nuana Euskaltzaindiak egun beintzat egiteari enioke zur ta egoki iritziko. Emeki ta astiro euskalki orretara yo, bai; muturrez ta datorrela betorka, ez. Nerea baino aburu argitsuagoak entzunak dituzue. Izker a banatu bat ezomenda indarka bat izatera iristen. Iriskizun (asequible) balitz ere, Bizkai ta Lapurdi-aldeko bakoitzasunezko garra ikusita, batasunerako asmo au tupustean, itsumustuan aurrera bagenerama, eriotzerabideko urrats bat, atzeratu ezindako urratsa izango litzake gure erabakia. Izkelki-gudu andi bat erakarriko genuke euskaldunen artean. *Abertzale*-alderdia bera puskatua geldituko litzake; eta au ez euskerari ez Euskalerriari eztagokio”.

Testu horretan, bi gauza esaten ditu Azkuek: “Nerea baino aburu argitsuagoak entzunak dituzue” eta gero, bukaeran, “izkelki-guda andi bat erakarriko genuke euskaldunen artean. *Abertzale*-alderdia puskatua geldituko litzake”. Goazen zatika, hemen zer argiturik badago eta.

Testutik gehiegi urrundu ez nadin, azken zatiari helduko diot. Eta hemen guztiz argigarri zaigu Piarres Xarritonek *Resurrección María de Azkue eta Piarres Broussain-en arteko elkarridazketa* bilduman dakarrena. Hor, 1920ko martxoaren 2an egiten dion gutunean, Azkuek baretzeko eskatzen dio Broussaini. Eta arrazoi hau ematen dio: “Nik goitso deritzayot *langue unifié* ortaz gure lanak asteari. Bizkaiko *bolchevique abertzale* onen bildurrez obe dala uste det geroxeagoko uztea. Bainan nik igorriko dedan *ordre du jour* artan ezarri zenezake:

Proposition de Mr. Broussain: unification de la langue...”. Ez dakigu “bolchevique abertzale” hori nor den. Seguru asko, euskaltzain aranis-taren bat izango da. Nolanahi ere, arrazoietako bat politikoa dela, ez da zalantzarik.

Testuaren lehen zatari dagokionez, berriz, aburu horiek Orixe-renak eta Menéndez Pidalenak dira. Honek 1920ko abenduan hitzaldi bat eman zuen Bilbon eta hor, Kanpion eta Broussainen txostena iruz-kinduz, esan zuen haien “hizkuntz artifizial” hura ezin izan zitekeela herri baten hizkuntza, beronen tradizioarekin era basati batez hautsi-ko lukeelako. Zertarako hautsi eta, azken finean, interes arkeologiko-rik ez duen eta giza kultur adierazpiderako batere balio ez duen hiz-kuntza bat sortzeko: “...habría matado a los venerables dialectos tradi-cionales, consagrados por la adhesión fervorosa de las generaciones vascas de hace muchos siglos, y los habría sacrificado en aras de un producto nuevo, desprovisto de interés arqueológico y sin utilidad al-guna para la cultura humana, hecho sólo para el pueril interés de poder decir en una lengua exótica lo que muy bien puede decirse en cualquiera de las dos grandiosas lenguas culturales del extremo occi-dental de Europa”. Horregatik, ez euskalki jakin bat, baizik eta eus-kalkiak oro indartzea proposatzen du: “Fomentar con energía la pro-ducción de los dialectos es cosa que está perfectamente en las manos de una Academia”. Ana Maria Echaidek, ez dakigu zein arrazoirengatik, Azkueren erabaki horretan Ramón Menéndez Pidalen ukitu era-bakigarria ikusten du. Orixe, aipatu ere ez. Baina Ramón Menéndez Pidalen hitzaldi horretan garrantzizkoena ez da batasunaren kontrako iritzia agertzen duela, baizik eta, batez ere lehen testuan garbiki for-mulatua datorrenez, euskarari buruz tesi asimilazionistaren defendat-zaille agertzen dela. Euskarari kultur hizkuntza izatea ukatzen zaio, *a priori* ukatzen ere. Asimilazionismoa ez du aldarrikatzen Unamunok bezain argi eta zaratatsu, baina bai irakurleak ulertzeko moduan. Puntu honetaz ohartu bide da Koldo Zuazo, ez Ana Maria Echaide.

Orixe euskararen batasunari buruzko arazo honetan nahiko hotz agertzen bada ere, ez da inolaz ere jartzen Ramón Menéndez Pidakel darabiltzan argudioen lerroan. Ikusia dugu, ez alferrik noski, nola jai-kitzen den Unamunoren kontra, euskara kultur hizkuntz bilakatzearen aldeko defentsa amorratua eginez. Eta praxian inor saiatu bada ahale-gin honetan, bera izango da lehenetakoa. Beraz, Orixe euskararen batasunaz duen iritzia agertu aurretik, bidezkoa deritzot aurre-ohar hau egiteari.

Orixek bere artikulua, “Unificación del lenguaje literario” izeneko, RIEVen argitaratu zuen 1920an, Xabierren zegoela. Eta artikulua hau egitera bultzatu zuen arrazoia ez zen izan Euskaltzaindiaren izenean egindako txostena, Henri Gavelek Oñatiko Batzarrean (1918) aurkeztutako “Necesidad de una lengua literaria y oficial y la unificación de la ortografía vasca” izeneko txostena baizik. Orixe, artikuluhasierako bere aipu honetan espreski datorrenez, Baionako Lizeoko katedradunak planteatzen dituen arazo ortografikoetatik abiatzen da: “Con todo, no es fácil aun el primero que solo nos reste convenir en las letras ts o *tx*, *rr* o *r*. Con laudable criterio, M. Gavel ha suscitado la cuestión de la *h*, que pudiera hacerse extensiva a la *p p* o *ph*, ya que es innegable la existencia de un sonido intermedio entre la *f* latina y la *p*, como en *aphari*, *Napharra*”. Beste arazo ortografiko batzuen artean, orduan mahaigaineratzen da zorioneko *h*-rena ere, 1960ko harmardaka-bukaeratik aurrera hainbeste istilu sortuko dituen. Baina Orixeren artikulua hori, nahiz eta Henri Gavelena bezala RIEVen emana izan, Euskaltzaindian eztabaidatzen zen batasun-arazorako egokia zela iritzirik, Bilboko Batzarrean irakurria izan zen eta *Euskara*-n berrargitaratua 1922an.

Henri Gavelek, bere txostenean, erabaki-eske zeuden bi arazomota nagusi eta larri planteatzen zituen: bata mintzaira literario eta ofizial baten beharra, txostengilearen aburuz eztabaida ezinezkoa, eta bestea, batasun ortografikoaren beharra. Ezinbesteko baldintza gisa, honek hura suposatzen du. Hemen, euskararen batasun literarioarena atutzita, ortografikoa aztertzeraz mugatzen da. Eta ortografian batasuna iristeko, oinarritzko irizpidetzat, hauxe proposatzen du: “Se ha de procurar en lo posible que una misma palabra se escriba del mismo modo por todos los vascos, sea cual fuere la pronunciación propia de cada uno de ellos”. Beraz, nahiz euskalki bakoitzak bere erara ahoskatu hitz bat, berdin idatzi behar da. Arau hau aplikatzeko orduan, zailtasunik handiena *h*-ren erabilerak dakar, euskalki batzuek asko erabiltzen duten bitartean, beste batzuek ez baitute ezagutzen. Desberdintasun horren aurrean, zer egin? Zalantza handitan igeri dabilen arren, oro har, *h* letra euskal ortografiatik ez ezabatzearen aldekoa agertzen da. Aterabide egokiagoa iruditzen zaio, jatorrizko euskararen *h* letra daramaten hitzak zein diren aldeztatik erabaki eta horiek euskal ortografian sartzea edota, bestela, *h*-a darabiltenek berori daraman bokalaren gainean letra txikiagoarekin idaztea. Honen aurrean, bigarren

mailako arazoa da *x* ala *s* tiletarekin, *r* bikoiztuarekin (*rr*) ala *r* azen-
tuarekin idatzi behar den erabakitzea.

Orixek, euskal ortografiari dagokionez, letra hauek ikusten ditu adostasunerako arazotsuenak: hasierako testuan aipaturiko *ts* ala *tx*, *rr* ala *r*, *h*, *p* ala *ph*, eta azentu zirkunflexua, zuzena nahiz alderantzizkoa. Nolanahi ere, nahiz eta ortografi arloan oraindik ikertzekorik asko egon, batasuna lortzea errazago ikusten du hor euskalki literario komun bat onartzea baino. Eta Orixek, Henri Gavelen ortografi arazoa-ri buruzko iradokizunak orrialde batean zeharbidez erabakitzat eman-
da, zuzenean hizkuntza literarioaren batasunari ekiten dio.

Batasunaren arazoz bi aterabide daudela uste du Orixek: “A dos se reducen éstas, a mi parecer: la de formar una lengua literaria nutrida de la savia de los cuatro dialectos principales, o la de adoptar uno fijo, el que esté más extendido verbigracia”. Bi aterabide hauen formulazioa Kanpion eta Broussainen txostenean datorrena da, funtsean. Baina bikote horrek hobetsitako azken aterabideari hiru akats egozten dizkio Orixek.

Lehenik, horrela jokatzu gero, gramatika –zehazki, morfologia– pobretu egingo litzatekeela uste du. Idazleek batasun literarioarako hautatutako euskalkiari dagokion morfologia soilki erabil balezate, irakurleek ez lukete ezagutuko beste euskalkiek eremu horretan duten aberastasuna eta, bide batez, kanpoko hizkuntzalariak ere beren ikerketarako beharrezkoa zaien hizkuntz materialik gabe geratuko lirateke.

Bigarrenak ere badu bere izateko arrazoa, eta da idazleek beren lumaren berezkotasuna eta freskotasuna galduko luketela. Puntu hone-tan, Julio Urkijok bere “Lengua internacional y lenguas nacionales” arti-kuluan dakartzan hitzak beretzen ditu: “... tomada al pie de la letra (esta solución), tendría el inconveniente de cerrar el camino a escritores de natural talento y aptitudes, que no se decidirían a escribir en un dialecto que no fuera el suyo, y en el que se verían privados de la frescura y lozanía, cualidades muy apreciables sobre todo en una literatura espontánea y popular como la nuestra”. Julio Urkijoren aipua transkribatu eta segi-dan, Azkueri zuzentzen zaio, erabakia hartu aurretik gipuzkeraren alde-ko aukeraz areago pentsa dezan: “Esto fué lo primero que nos ocurrió al tener noticia del proyecto del Señor Azkue, muy laudable en él, porque supone el noble sacrificio de abandonar en parte su propio dialecto”.

Hirugarren arrazoa ez da aurrekoa baino makalagoa eta, orduan bezala, gaur egun ere entzuten da, literatoen artean, batez ere. Sosten-

gatzen da euskalki bakarrak ez duela aberasten euskal literatura beste euskalkiek, hauek batera hartuta, aberats dezaketen adina.

Hedatuena, ulergarriena eta besteek ez dituzten barne-abantaila batzuk dituen nola gipuzkera den edo, bederen, halakotzat jotzen den, honi eman izan zaio lehentasuna. Baina uste hau, Orixek jakinarazten duenez, ez da oraingo kontua. Aita Kardaberazek Bizkaiko apaiz batzuek beren eliztarrei gipuzkeraz egiten ziela salatzen zuen. Orixeren aburuz arrazoiz, gainera.

Euskalkiren bat hautatu behar izanez gero, Orixek badaki zein hautatu: darion adeitasun-aireagatik edo, gipuzkera iruditzen zaio egokiena pulpiturako eta literaturarako, berriz, lapurtera: “La espontaneidad, la gracia, el humor propio de los hablantes pirenaicos en vano los buscaremos en otros vascos”. Gainera, egoki iruditzen zaio euskal klasikoen tradizioari eustea eta, zentzu honetan, gogora ekartzen du Axular eta Mendiburu maisuek euskalki honetan edo antzekoan idatzi zutela eta ondo frogatuta utzi zigutela euskalki horrek literaturarako duen gaitasuna.

Euskalkien desberdintasunean oinarritu izan da eskualde bateko euskaldunek bestekoekin elkar ulertzeko dugun zailtasuna. Eta, antza, euskara literarioaren batasun-beharra hortik sortu da. Orixeren ustez, abiapuntu hori ez da erabat zuzena. Euskaldunak euskaraz irakurtzeko ezintasuna edo zailtasuna sentitzen badu, ez datorkio hori euskalkien ugaritasunetik, bere hizkuntzan analfabetoa izatetik baizik. Froga gisa, berari gertatua kontatzen du: “Cierta amigo mío nada iliterato, pues además de saber desde niño el vascuence, conocía y manejaba las lenguas clásicas y varias modernas, al leer un artículo mío bien sencillito, confesó por no haber leído nunca en su lengua, que casi nada entendía. Herido en el amor propio se lo leí seguro de que me lo había de entender. En efecto, terminada la lectura exclama: ‘no he dejado de entender absolutamente nada’. Esta es la dificultad, y mucho mayor que la diversidad de dialectos”.

Azken aterabidea gaitzetsi ondoren, gatozen lehenengora. Beste euskalkiek onenetik dutenaz baliatuz, lexikoa, sintaxia eta grafian batutako hizkuntza literarioa sortzearen aldekoa dugu hau. Berez, ez dauka ezer horren kontra. Baina asmo hori nola bideratu? Hor bai ikusten dituela eragozpenak, ez hainbeste ortografian, baina bai sintaxian eta, batik bat, morfologian: “Lamentarse del exceso de dialectos y quererlos reducir a uno inflexible, formado sí en cuanto al léxico del

caudal de todos, pero adoptando una morfología estrecha y matemática, es procedimiento antinatural, antiartístico y absurdo, incapaz de retener la ruina del idioma, y muy capaz de apresurarla”. Horregatik, bi aterabide horiek alboan utzita, idazle bakoitzaren askatasunean kokatzen du batasunaren zeregina: “¿En qué forma se deberá practicar, pues, la unificación sin adoptar ningún dialecto fijo ni limitar por selección la riqueza de todos ellos? Dando libertad a cada escritor para que en cada ocasión, género literario y otras circunstancias que se le presenten al escribir, escoja con tino y siembre con arte, y use con prudencia sin acumularlas las formas más distantes y extrañas sin excluir ninguna”.

Hori da bidea, bere garaian grekoek egin zutena eta, gurean, aita Mendiburuk praktikatu zuena. Honen antzera, idazlea, batasunerako bidean, guztiek ulertuko dituzten hitzak bilatzen eta erabiltzen saiatu behar da. Hor dago giltza: “Cada escritor, pues, según el fin y la índole de la obra literaria, es el llamado a unificar el lenguaje, entendida la unificación como es debido”.

Ez dakit onerako ala txarrerako, baina Euskaltzaindiaren proposamena bertan behera geratu zen. Oldeari balazta Lehendakariak berak jarri zion, lehen aipatu ditugun arrazoiengatik. Aranismoaren presentzia indartsuaz gain, han atzean, itzal handia egiten, Ramón Menéndez Pidal eta Orixeren txapelak zeuden. Eta Orixeren txapelaren gainean, Julio Urkijorena, batasunari begira batere beroa ez zena. Eta ondo dakigunez, garaiko euskaltzaleengan itzal handia baitzeukan, haren iritziak beti entzungarriak eta askotan erabakigarriak gertatzen ziren. Kasu honetan ere, seguru asko bai. Dena den, esan dezagun txapela horiek ezkututzen dituzten ideiak ez direla, inolaz ere, molde eta pisu berekoak.

Funtsera etorrita, artean errotiko erabakiak hartzeko heldutasun zientifikorik eta sozialik ez zegoelako, Euskaltzaindiak, beti ere batasun-bidean aurrera eginez, ikerketa-bidea hartuko du ondoko urteetan. Horrela, Euskaltzaindiak, beronen erabakiak “errotuagoak” izan daitezten, *Erizkizundi irukoitza*, 40 orrialdeko galdeketa-txostena, aurkezten du 1921eko urriaren 27an egindako Batzarrean. Galdeketa honek hiru sail nagusi ditu: 1) hitzen hotsa edo galdeketa fonetikoa, 52 galderaz osatua; 2) hitzen erabidea edo galdeketa morfologikoa, 69 galdera dakartzana; 3) hitz batzuen erabilera edo galdeketa lexikografikoa, 68 galderak osatzen dutena.

R. M. Azkuek euskaltzainen urgazle eta lankideei eskaintzen dien hitzaurrean, hamasei ohar dakartza eta hauetan, xeheki, datuen bilketan nola jokatu behar duten esplikatzen die. Euskaltzainburua ohar-tzen da ez dela nornahi gai lan honetarako eta, horregatik, aldez aurretik neurriak hartzen ditu. Bizkaian 100 herritako 117 informatzaile izan ziren kontsultatuak; Gipuzkoan, 59 herritako 64 informatzaile; Nafarroan, 69 herritako 72 informatzaile; Lapurdin, 19 herritako 19 informatzaile; Behe Nafarroan, 10 herritako 10 informatzaile. Kontsultatuok, gehienak, helduak, 40-50 urtetik gorakoak, eta sorterrian bertan bizi zirenak genituen. *Erizkizundi irukoitza* horren bidez egindako herri-kontsultaren emaitzak *Eusker*a (1925-1928) aldizkarian argitaratu ziren.

Datu-bilketa talde-lanean egin zen, 1922an hasi eta 1924an bukatu. Galderak egiten eta jasotzen 25 lagun ibili ziren Bizkaian, baina, batez ere, Orixe; Gipuzkoan 11 lagun, bereziki, G. Bahr; Nafarroa Garaian 15 lagun, gehienbat, aita Polikarpo Iraizoz eta Eusebio Etxalar; Lapurdin 3 lagun; Nafarroa Beherean 2 lagun, gehienbat, Odon Apraiz. Bizkaiko taldearen buru eta bihotz, Orixe da. Halaxe dakar idatzia egileak berak “Erizkizundi irukoitzari Bizkaia erantzun diona” lanari egiten dion hitzaurrean. Jesusen Konpainia utzi eta nahiko laster hasten da honetan, 1923ko azaroan, hain zuzen.

Ez noa ni lan hori burutzen erabilitako metodoak eta ateratako emaitzak juzgatzen hastera. Oso posible da euskal hizkuntzalari batek hutsune bat baino gehiago aurkitzea ikerlan horretan. Bizkaikoari dagokionez, Orixe bederen ez da libratuko kritikaren haginkadatik. Ana Maria Echaidek, inkesta honen balioa “La unificación del euskera literario y el *Erizkizundi irukoitza*” izeneko lanean juzgatzen du eta bertan bere alderdi positiboak eta negatiboak aipatzen ditu. Positiboak? Hiru bederen bai: a) inkestaren hedapena, 260 herri desberdinetan egin baitzen, bertan gaur egun galdurik dauden hizkuntz alda-kiak jasoz; b) galdeketaren hedapena, honek 425 galdera hartzen baititu, bertan fenomeno fonetikoak, morfologikoak, lexikalak eta sintaktikoak besarkatuz; c) ahoz aho eginak eta gehienak espezialistek burutua izatea. Negatiboak? Hauek ere beste hainbeste eta gehiago dira: a) Azkuek ezarritako oharrek zehazki ez segitzetik eratorritako zailtasunak; b) galdeketa egiterakoan kontuan hartu ez ziren ezaugarri fonetikoak, hala nola, azentua, lotura bokalikoak, *i* eta *y* letren ahoskuntza, *s* eta *z* letren ozenketa; c) zehazki galderetara moldatzen ez

diren erantzunak; d) inkestatzaileen fideltasuna beren informatzaileen erantzunak jasotzeko orduan. Eta azken puntu honetan, batetik, Bähr, Apraiz eta Etxalar baten zehaztasuna azpimarratzen du eta, bestetik, beste askoren gehiegizko uniformetasuna zalantzan jartzen. Orixek Bizkaiari buruz *Euskera*-n egindako argitalpena zehaztasun handirik gabe egina dagoela esaten du. Adibidez, batzuetan, herriak ez dira zehazten, ezta jasotako aldaki guztiak ematen ere: “Un ejemplo bastará para hacerse cargo de ello: La pregunta III, 39, que se refiere a los nombres de los días de la semana, recoge como respuestas obtenidas en Vizcaya (incluye pueblos de Alava, cuyo dialecto se considera vizcaíno) al concepto de ‘jueves’: *egüena* (en la mayoría de las poblaciones); *eguaune* (en 8 pueblos, Cigoitia, Nafarrete); *egüune* (en 1 pueblo, Munguía). Además de no precisar las localidades, sabemos, como puede verse en el lugar correspondiente a esa pregunta, que en Vizcaya se ha recogido también *eguben*, *euen* y *eügena*, que no figura en las listas de Ormaechea”. Noski, kritika honen faktura Orixeren kargura doa.

Harritzekoa ere ez da hala izatea, orduko eta gaurko egoera ez baita berbera euskal filologiaren eremuan. Azkuek hasieran adierazi bezala, Orixek ere bazekien horrelako lan-mota behar bezala egiten ez zela uste bezain erraza. Irudi baten bidez espreski adierazten digu hau “Erizkizundi irukoitzari Bizkaiak erantzun diona” lanari egiten dion hitzaurre laburrean: “Uitziko oyanik itsuenean yoalerik gabeko ardi zortzorra bilatzen errazago da, erizkizundi orretako galde batzuen erantzupena buru egiten baño”.

Herri-iritzia jasotze honetan, Orixek dioenez, prozesu bikoitza ematen da: lehenik, herri desberdinetako informatzaileek esaten dutena erne hartzea eta, bigarrenik, talde-lankideak hartzen duena begiratu liburura aldatzea. Zailtasunik handiena lehen prozesuan kausitzen da. Hemen bi gauza gerta daitezke. Bata da informatzaileak herrian erabiltzen ez den hitza herrikotzat saltzea, Orixeren ustez maiz gertatzen den kasua, eta orduan lankideak ez du ezein errurik. Bestea da herri bereborean hitz bati buruz bertsio bat baino gehiago jasotzen direla egiaztatzea. Galdakaon, adibidez, bost lankidek “arreba” hitzaren hiru aldaki hauek jasotzen dituzte: *arrebea*, *arrabea* eta *arrebía*. Zergatik? Izan bide daiteke jendea herri batetik bestera asko aldatzen delako. Baina ez dirudi fenomeno hori beti herriarteko barne-migrazioari zor zaionik. Hara hemen, frogatuz, Orixeri berari gertatua: “Erri koxkorrera duzu Ibarruri. Sartu ninduzun etxe batean; ama bi alabakin ziren;

etzuten egundano erritik aldegin: Alare, bein baño geiagotan bakoitzak bere aldera jotzen zun: batak *biar*, besteak *biar*, besteak *bier* t. a.”.

Hartutakoa begiratuki transkribatzea da bigarren zailtasuna: “Baditugu azkenik tarteko vocal batzu, ez *a* ta ez *e*, ez *e* ta ez *i*, ez *o* ta ez *u* direnak. Oriek diren bezala artzerik ez digu erizkizundiak agintzen, ez da lan erraza ere; ortarako obe litzeke Rousseloten mintzo-langailua”. Tresna fonetikoaren laguntza izanik ere, zailtasunak oro ez dira gaingintzen.

Hala ere, zailtasunak zailtasun, Orixek uste du lan honek erantzuten diola Euskaltzaindiak ezarri zion helburuari, horko emaitzek aski argi ematen baitiote bere “erabakiak errotsuago” har ditzan. Lan honek, bere behin-behinekotasunean, balio dezake “Atlas linguistikoa” burutuko den arte. Bitartean, batasun-bidean, herriaren mintzoa izango da gidari eta ez linguistika.

Orixek aipatutako lanean aurkeztutako datuetan oinarrituta, Azkuek, 1928an, lau arazo-mota –ortografikoak, fonetikoak, morfologikoak eta lexikalak– bereizten ditu eta, sail bakoitzean puntu eztabaidagarriak zehaztuz gero, euskaltzainen esku uzten du, beren proposamenak egin ditzaten. Beraz, jarduera-mota honek betetzen du Euskaltzaindiaren egitekoa gerraurre arte.

Batasunaren arazoa berriro piztu, 1933an pizten du R. M. Azkuek bere “Gipuzkera osotua”rekin (498). Hemen, oraingoan, ez Ramon Menéndez Pidal eta Orixeren aburuetan, baizik Biktor Garitaonaindiak Hazparneko Batzarrean esandakoan oinarrituz, Azkuek “gipuzkera osotua” proposatuko die euskaltzainei Donostian 1933ko martxoaren 30ean egindako Batzarrean: “Idazle guzien euskera ori ez da izango gaur egunian itz edo idazten dan Gipuzkera, baizik osotua, apaindua. Orretarako, euskaltzainak lan egin bear dute. Artu, bai Bizkaiko ta Zuberoko ta bai Napar ta Lapurdiko izkelgi edo izkerak dituzten edertasun ta obekuntza bereziak eta Gipuzkoar izkelgiari ezarri”.

Batasunaren bidean zergatik bilakatzen ote da lehengo semaforo gorria orain berde? Agian, egindako ikerlanen ondorioz, Euskaltzaindia erabakiak hartzeko helduago sentitzen delako? Ez dakit. Berak dakarren arrazoia, jadanik *Prontuario de la lengua vasca* liburuaren hitzaurrean idatzia zeukana, hau da: “... la lengua vasca, al cabo de una admirable secular resistencia, moriría pletórica de vocablos y dicciones, anémica por falta de unidad, por penuria de savia vital. No es ciertamente este dialecto ni más rico ni más filosófico que los demás; pero en él nos entendemos los vascos mucho más fácilmente que en ningún otro”.

Batasun-bideak, bada, erritmo desberdina ezagutu du lehen aro honetan. Hasi, euforia handiarekin hasi zen 1920an, baina gero ikerketa-saioek ezarritako ibilaldi mantsoak *impasse*-an utziko du gerrate zibilaren atetan. Alabaina, gerraosteko bigarren aroan helduko zaio berriro hariari.

BIGARREN ZATIA

**EUSKAL ETNOGRAFIA ETA
SOZIOLOGIAREN ARTEAN**

ZAZPIGARREN ATALA

EUSKAL FOLKLOREA

Hizkuntzarekin batera, eta honen ondoan, folklorea da euskal nortasuna gehien ezaugarritzen duen elementu bereizgarria, tradizioaren eskutik datorkigun herri xumearen bizitza nolakoa den agertzen diguna. Folklore-altxor hau, noski, gizarte modernoaren ukitua jasan ez duen nekazal ingurunean gordetzen baita hobekien, Orixe, gizartemota horren lekuko zuzena izanik, berak bizi eta ezagutu dituenak jasotzen ahalegintzen da, hala nola dantzak, musika, kirolak, ohiturak, sinesteak, eta abar. *Euskaldunak* poeman eraikitzen duen etnologi museorako jadanik prestatuak zeuzkan, egunkarietako orrialdeetan barreiatuta, aipatu ditudan folklore-pusketa horiek. Poema hori ez da, inoiz pentsatu izan den bezala, bezperan enkargatu, hurrengo egunean inprobisatu eta biharamonean burututako proiektua.

Orixek, eta bere poemak, euskal literaturan eta herriaren oroimen kolektiboan du bere jatorri hurbila. Izan ere, orduko testuinguru historikoa desitxuratua geratuko litzateke baldin, XX. mende-hasieratik aurrera, eskualde desberdinetan euskal instituzio politikoaren babesean bideratutako kultur ekintzak, funtsean, folklorikoak izan zirela kontuan hartuko ez balitz. Eusko Pizkondeak, hasierako ekinaldian bereziki, euskal lurralde osoan zehar sakabanaturik zegoen folklore-altxorra arakatu eta biltzeari ekin zion era nahiko sistematikoan. *Euskalerrria* eta *Euskalerrriaren Alde* aldizkariak, adibidez, material asko, mota askotakoa eta ona dute jasorik. Orixe, bada, tradizio horren talaiatik murgiltzen da euskal munduan. Hortik aparte, Primo de Riveraren diktadurak ez baitzuen aukera handirik ematen, ezarritako legearen esanera zegoen

Euzkadi egunkariari erosoago zitzaion, euskal kulturaren alderdi folklorikoa lantzea politikoa baino. Konpromiso gutxiago eta zentsurarriskutik urrutiago. Koiunturazko egoera hau ere gogoan hartu behar da Orixeren isuri folklorista ulertzeko orduan.

Baina Orixek badu folklorea aztertzeke oraindik arrazoi indartsuagorik, eta da literaturaren edukia osagai egokiz janzteko ez dela hura bezalakorik. Greziar literaturan bezala, euskarak gizarte tradizionaletik heredatutako kultur elementuak –funtsean, folklorikoak–, landuko dituen Pindaro berria behar du. Literaturarik gorenaren erudizat greziarra daukanez gero, esan beharko da gaia ere alde zurretik aukeraturik duela. Horregatik, euskal literatura profanoari dagokionez, sorkuntzaren alderdi materiala hautatzerakoan batere zalantzan ibili gabe, argi dauka folklorea izango dela gaitzat hautatuko duena.

Segidan, Orixek euskal folklorea barruan aztertu zituen elementu batzuk eskainiko dizkizut, sailkatuta, eremu honetan zer pentsatzen zuen zertxobait ikus dezazun.

Dantzak

Orixek dantzari ematen dion garrantziaren handiaz jabetzeko, aski da *Quiton arrebarekin* saioa irakurtzea, hor zerua dantzaren bidez deskribatzen baita. Azentua aztertzerakoan, ikusi genuen, orobat, dantzak baduela zerikusituzenik kantuararekin eta zeharkakorik metrikarekin.

Dantzaren gaia oso maitea du. Bizi guztikoa. Jon Garmendiak 1956an egindako elkarrizketa batean, zer lan zerabilan eskuartean galdetu zionean, “dantzak” erantzun zion. Asmoetan zuen lan hau, azkenean, hamabost orrialdeko “Dantza nagusia” (1965) izeneko artikuluan mamituko du. Dantzaren gaia behin baino gehiagotan harrotu izan duela esaten du sarreran: “Orain dala ogeita zenbait urte, egunkari batean idatzi nitun sei edo zortzi artikulua gai berontaz, baiña txuri egin nun aiekin. Inortxo ez zitzaidan etorri atsegiñak ematera, baizik eta Araba’ko neskatxa bat, bere ikastaroak egiten Madrill’en ari zana. Ori Euskalerritik. Buenos Aires’ko Laurak Bat’ek Poliparko Barrena bialdu zidan, bere izenean neri atsegiñak ematera. Orrela ixildu zan nere dantza. Gero, bigarrenez, Andoain’en, Larramendi’re aipu-iaietan, nere esku utzi zuten dantza antolatzea, eta, ‘orain gaituk’ esan nun nere kolkorako. Dantza osoa, ain puskalaka zebillana, berritu naiean

asi nintzan eta olako ta olako dantzari ipiñi nitun elkarren ondozka; baiña bi erritako danboliñak muziñ egin zidaten, eta, aiek beren erriko bezala ari bear zutela ekarri zuten. Orra, berriz ere txuri egin, nere aspaldiko asmoan. Irugarren aldiz (auntzak ote-dira?) Tolosarrak lagunduko omen didate dantza ori lengorutzen. Ala ba'litza, nere poza ez litzake makala!"

Testu horretan aipatzen dituen aroak zehaztu ezinik ez dago. Lehen aroa *Euzkadi* egunkarian, 1927-1930eko epealdian, dantzaren eta dantzarako musika-tresnen inguruan egindako sei artikuluk osatzen dute; bigarrenean, Larramendiren omenez, 1929an egindako lau artikuluk datoz "Las danzas en Andoain" izenburuarekin; hirugarrena, nik uste, Zeleta eta Antonio Maria Labaienekin Bedaioko Sarasola txistulariari egindako ikustaldiarekin ixten da 1956an. Ezagutzen dugun azken emaitza, "Dantza nagusia" da, *Orixek Omenaldi* (1965) bilduman argitaratua. Baina ez dakigu hor ematen duen ala ez bere azken hitza, zeren bertan tolosarrekin beste ikerketa batzuk egitekoa zela esaten baitu.

Dantzaren gaia askotan ukitzen baitu, sarritan errepikatzen da, batean modu batera eta bestean bestera. Anarkia dezente kausitzen da haren artikuluk horietan, baina ez dakigu zuzen zergatik. Izan liteke, agian, zalantzaren edo desordenaren edo eboluzioaren ondorioz, edo guztien-gatik batera. Kontua da ez zarela hain erraz egiten haren ideien jabe.

Gaian ez da profanoa. J. I. Iztueta eta R. M. Azkueren iturriak ezagutzen ditu. Zaldibiarra, batez ere, gogoko gizona du, ondo eza-gutzen duena. Hala ere, hein handi batean, bere kontura ari da, leku-kotasunak ematen dion itzalarekin, bere iritziak ematen. Ohar honekin hasten du bere lana: "Iñoiz edo berriz lagunartean bildurik giñaudela, gure dantzaetara biurtu genun itza, eta nik nere eritziak ematean, laguneri ongi zerizkien, eta gai ontaz liburutxo bat eskatu zidaten. Egia esan, ni ez naiz batez ere ontarakoa. Baiña nere bidean gertatu zaidan ezkerro, atsegin zaida, nik ikusi ta ikasi dutana, ta ala bezala, gauza aideraztea. Ongi artu beraz, buruan, ni ez naizala tekniku; lekuko besterik ez naizala. Ortaz, nere aburuak ez dute nere diran beste baliorik".

Dantzaren gaiari heldu aurretik, ordea, zerbait esan nahi nizuke dantzarakoan erabiltzen diren musika-tresnez. Atabala edo danborra eta txistua dituzu horiek. Orixek, guztien gainetik, danborra lehenesten du dantzarako. Bi arrazoi dakartza horretarako: batetik, danborra txistua baino lehenagokoa delako eta, bestetik, zaharragoa izateaz gain,

metronomo baten zehaztasun zorrotzez erritmoa berak markatzen duelako. Txistulari modernoek sekulako deabrukeriak eta filigranak egiten dituzte beren txistuarekin, baina erritmoaren artean txiki uzten ditu Leitzako Ebaristo Elduaien analfabetoak. Horregatik, Iztueta bere garaian bezala, bera ere, “La tradición del tamboril” artikuluan datorenez, kexatu egiten da danborra alde batera utzia dagoelako: “Chistularis premiados en concurso hemos visto que no tienen idea, ni mucho menos sentimiento de ese ritmo. Han relegado el tamboril a un término inmerecido, y el ritmo parece ser para ellos cosa secundaria. Interrupciones arbitrarias, cambios bruscos, calderones aparatosos... ¡qué adulteración! Bien se quejaba Iztueta, y que se quejaría hoy, del olvido en que ha caído el empleo del tamboril”.

Horregatik, *Txistulari* aldizkaria sortzeko helburuarekin Arraten egindako bileran, Orixek, Zaldibiako maisuarekin ados ez zeuden txistulari batzuekin eztabaida gozoan, bi gauza defendatzen ditu: txistuarien lehengo materialtasunari eustea eta, orobat, danborrak duen garrantzia aitzakotzat hartzea. Bere azken lanean Dantza Nagusia zaldabaiez eman dezatela eskatzen du: “Nik ez dut esaten ziztua gure dantza guzietatik baztertzeko, ez; baiña Dantza Nagusia zaldabaiez eman ditela. Gaur len baiñon askoz errezago ta obeki egin diteke ori, mikrofonoari esker”.

Orixerentzat, lehen ikusi bezala, erritmoa artea da; erritmoa, berriaz, giza ahalmenek –hauek batera hartuta–, sortzen duten produktua da, gure bizitzaren neurria dena. Txistularien abileziak sortutakoa musika eta artea izango dira, baina ez, Orixeren ustez, euskal musika eta euskal arte tradizionala.

Edozein ikerketa egiterakoan, haste-hastetik finkatzen dira helburuak. Orixek, dantzak ikertzeari ekiten dionean, formulatzen ditu bereak.

Lehen helburua, etengabe agertzen den kezka, euskal dantzen eta dantzarako musika-tresnen hasierako iturrietara joan eta haien jatorrasuna berreskuratzea da. Bilaketa honetan, bere lekukotasunaz ari ez denean, Iztueta du bide-lagun gehienetan. Beraz, tradizioaren iturriari eutsi behar zaio ahalik eta garbien, bere lehengo jatorrasun hartan, zibilizazioak dakartzan aldaketak uxatuz. Hala aldarrikatuko du “Las viejas danzas vascas” artikuluan: “La civilización nos invade con toda su serie de escándalos coreográficos, inmorales y antiartísticos”. Lehen dantza asko zaindu eta ondo ikasten zen zerbait genuen, prestakuntza

serioa eskatzen zuen zerbait. Orain, ordea, ez. Hona hemen detaile-
pare bat, dantzetan endakapena noraino iritsi den ikusteko, Orixere-
rentzat aski adierazgarriak direnak. Orain, erritmoaren arabera oinak
gutxi-asko mugitzen badakitela eta, dantzan egiteko eskubidea dutela-
koan daude. Areago oraindik: lehen neskatxek maitasunez gordetzen
zuten setazko painuelo gorri eta handia festetan plazan erakusteko,
baina orain ez. Berari utziko diot esaten: "... hemos llegado a ver, ¡oh
vergüenza!, vulgares pañuelitos destinados a usos más viles, y aún ha
llegado el caso de no llevarlo escogido, sea cual fuere su color y forma,
la convidada al baile". Dantza errito bat da, eliz liturgian bezala, arre-
taz jagon behar dena, begirunea zor zaiona.

Dantzen jatortasunarekin batera, moraltasuna da zaindu behar
dena euskal ohitura garbietan. Dantza errito profanoa da, baina ez
dago urruti sakratutik. Painueloarekin zubiak egin eta, dantzariak az-
pitik pasatzen direnekoa, Orixek "puente de revisión" deitzen diona,
behinola izan bide zitekeen zeremonia bat, zeinaren bidez aditzera
ematen baitzen kanpoan uzten zirela, arrazoi bategatik edo besteaga-
tik, desiragarri ez zirenak. Beraz, errebisio horrek norbait dantza-tal-
detik bazter uztea suposatzen zuen. Eta baztertu, noski, baldintza
publiko batzuk betetzen ez zituelako. Orixek ez daki baldintza horiek
zein motatakoak ziren: moralezkoak ala arrazazkoak. Bestalde, batzuk
painueloaren erabilerari esanahi morala ezarri izan diote. Interpretazio
honen alde ematen den arrazoia da, eliz sermoilariiek dantzen aurka
gogor ziharduten garai hartan, aita Larramendik, une berean dantza-
ren beharri eta moraltasunari eusteko, beste baldintzen artean, pai-
nueloak erabiltzea ezarri omen zuela. Orixek, painueloaren erabilera
horretan, arrazoi morala baino gehiago estetiko hutsa ikusi bide du:
"Oituraren garbitasunagatik ote dan asko esan da; bear ba' da, batere ez
da olakorik. Zubiak egitean apaingarri ederra da, ta zubia ere zabalago
gelditzen da, bikoteak andik lasaigo pasa ditezen. Izan ere, lenengo
Ingurua bukatuta, sudur-zapiak bildu egiten dira, ta urrengo ingurue-
tan eskuak ematen dizkiote alkarri, bata bestearen beso-azpitik pasa-
tzen diren aldioro".

Iritzi bat gehiago. Hala ere, adibide horietan interpretazioak hala-
koak edo horrelakoak izan, ezingo da ukatu morala presente dagoela.
Dantzak, berez, garbiak dira. Eta hala ez badira, zibilizazioak zikindu
dituelako izango da. Bonifazio Etxegaraik *Txistulari* aldizkarian egin-
dako "Un tesoro que se pierde: moralidad y danzas públicas" artikulua
iruzkinduz, han eta hemen zabaltzen hasiak diren praktika exotiko

batzuk gaitzesten ditu, adibidez, dantza lotua eta neskak elkarri helduta dantzan egitea txistuaren doinura. Zoritxarrez, herri gutxi dira, dantza publikoetan, praktikan irizpide moral zuzenaren arabera portatzen direnak. Horregatik, inolako justifikaziorik ez duen ohitura txarrrak jarraipenik izan ez dezan, agintzaritzak horrelako jokaera endekatuak zigortu egin beharko lituzkeela pentsatzen du. Erantzun honekin ateratzen da bidera “La revista *Txistulari*” artikuluan: “Aun en el criterio pervertido de hoy, parece bien que un acto semejante ejecutado en la calle pública sea castigado por la autoridad. ¿Pues en qué caso cabe legalizar la misma acción indecorosa en eso que se llama baile? Se acude al eterno estribillo de ‘la costumbre’, de la mala costumbre que, por arte de esos moralistas, queda convertida en buena ley”. Nolanahi ere, Orixek ondo utziak dauzka dantza-jolasak 1929rako: “No tengo noticias de Vizcaya hace mucho tiempo, porque renuncié a frecuentar las diversiones”. Berak dioen inmoralitatea ordurako sartuegia dagoe-lako, agian? Ez dut uste. Seguruago adinean aurrera doalako, berrogeiak paseak baititu.

Honezkero erreparatu diozu, irakurle, Orixek tradizioaren eta zibilizazioaren artean ezartzen duen dualismoari: tradizioaren kutxan gordetzen dira jatortasuna eta moralitatea, zibilizazioak dakartzan herri-nortasunaren narriapena eta inmoralitatea. Ohar hau guztiz garrantzitsua da, euskalduntasuna moralarekin elkartzeko baita. Tesi honetan oinarrituta idatziko du gero Ibarrek bere *Genio y Lengua* liburua, gerraurreko euskal intelligentsiaren ideologia nolakoa zen jakiteko ezibesteko iturri dena.

Gipuzkoako auzo-herrietan (Bedaio, Amezketako Huarte, Lizartza, Gaztelu eta Orexan) eta Gipuzkoarekin mugakide diren Nafarroako Arantzako eta Larraungo haranetan ezagutu dituen dantzak abiapuntutzat hartuta, berak egiten duen hipotesia da euskal dantzek badutela beren batasuna eta orain, zenbait lekutan, zatituta ematen diren dantza solte horiek –sokadantza, aureskua eta, ingurutxo izenez ezagutzen ditugun horiek, alegia–, dantza oso baten zati bat besterik ez direla. Lehen dantza guztiek dantza bakarra osatzen zutelakoan dago. Ondorio hau ateratzen du, hain zuzen, Bizkaian gizon-dantza dantzatzeko zela dioten Iztuetaren testuan oinarrituta.

Beraz, “auresku” izenarekin ezagutzen duguna ez da dantza osoa; aitzitik, Hego Euskal Herrian egin izan zenari dagokionez bederen, “ingurutxo” izenekoan bakarrik gordetzen da bere osotasunean. Gero

dantza bakar horri Dantza Nagusia deituko dio: “Len-lenago ez zun izen berezirik, Dantza besterik. Larramendi’k bere *Corografía de Guipúzcoa*’n, *La Danza* esaten dio soil-soilik. Iztueta’ren garaian Gizon-dantza esaten bide zitzaion, baiñan ez egoki, emaztekiek ere baitute artukizun. Giza-dantza ipintzeko egon naiz, gizarteko dantza, esate baterako; baiñan Azkue’k ola deitzen ditu gizonetzko utsen dantzak eta nik azkenik ‘Dantza nagusia’ ezarri diot”.

Dantza Nagusi horren zatiak zein diren? Lehen epealdiko artikuluetan (1927-1929), dantza osoaren prozesua azaltzen saiatzen da. Nahiko ilun, hala ere. Dantzaren prozesuan hiru une berezi ezartzen dituela irakurri uste dut: a) sarrera, mutilek bakarrik dantzatzen dutena, zeina modu askotara deitua izan baita, hala nola, sokadantza, esku-dantza, gizon-dantza; b) dantzaren zerbitzua, bi mutil nesken bila joaten direnekoa; c) bi ingurutxoak, neska-mutilek, bi lerrotan jarrita, plazaren ingurumari dantzatzen dituztenak. Lehenengo bi une horiek lehen zatia osatzen dute eta azkenekoak, berriz, bigarrena. Prozesu orokor horren barruan –bereziki, azkeneko bi une horietan–, zeremonia batzuk tartekatzen dira, hala nola setazko sudur-zapia luzatzea, zubiak egitea, aurreko eta atzeko mutilek egindako desafioak edo oho-rezko dantzak, erreberentziak, konpas desberdinean dantzatutako zortzikoak eta beste zenbait xehetasun, guztiak interesgarriak, baina hemen argitzea ez dagozkidanak. Puntu honetaz xehetasun gehiago nahi izanez gero, jakingarriak gertatuko zaizkizu “Viejas danzas vascas” eta “Unidad de las danzas vascas” artikuluak, hurrenez hurren, 1927 eta 1928an argitaratuak.

Jose Antonio Urbeltzek, dantza luze eta gizon-dantzarekin batera, gizon-emakumeek inguru ireki batean egindako dantzen barruan kokatzen du ingurutxoak. Inguru honetan dantzatzen da, ordulari-orratzaren aurkako zentzuan dantzatu ere Orixek sostengatzen duenaren kontra. Soka-dantza eta ingurutxoak garbiki bereiziz, hauxe esaten du bere *Dantzak* liburuan: “Era este baile, hace unos sesenta años, el centro de las diversiones domingueras de la juventud de Leiza. Sobre la manera de hacerse hemos recogido variadas opiniones, aunque las diferencias son más de detalle, sin que alteren su contenido fundamental”. Egile hau, ingurutxoari dagokionez, aita Hilario Olazaranen *Ingurutxo. Danza Baska popular de Leiza* (1931) lanean eta lekuko jendearengandik –zehazki, Leitzako Brigida Sarasola eta Angel Alduntzinen ahotik–, jasotako informazioan oinarritzen da. Kontu honetan harrigarri

samarra gertatzen dena da, iturriak aipatzerakoan, Orixeren izenik ez dela agertzen. Alafede, bazuen zerbait idatzirik dantzari buruz eta, batik bat, ingurutxoaz. Gainera, “Prólogo y epílogo” artikuluan dakarrenez, Orixe bera izan zen 1927ko Leitzako festetan dantzak prestatzen ibili zena eta ezagutzen zuen lehendik ere ondo asko hango berri: “Conocía yo de antes la vida vasca del pueblo de Leiza, acaso el más vasco que he conocido; pero en esta ocasión he llegado a sentirla mejor que nunca, por alguna parte activa que he tomado o querido tomar en la preparación de las fiestas”. Andoaingo euskal jaietan ere, 1929an, berari eman zioten dantzen egitaraua antolatzeko ardura: “Habiéndome confiado amablemente el borrador del programa de fiestas vascas de Andoain, y a requerimiento de un miembro de la Junta organizadora, me ha parecido oportuno declarar lo que entiendo acerca de las danzas que se van a ejecutar el día 22”. Batzarkide hori, hari Tolosatik 1929ko abuztuaren 16an egiten dion gutunagatik dakigunez, Lizardi da. Aitortzen zaio, bada, nolabaiteko itzala gai honetan.

Musika

Orixe ez genuen musikaria eta ez zeukan gai horretan aditua izateko arrazoirik. Berak, erritmoari nahiz dantzari buruz diharduen guztietan, beti errespetatzen du musikarien iritzia. Horregatik, zenbait kasutan aita Madina eta aita Donostiarekin eztabaidan jarduten badu ere, maisuei zor zaien begirapena (*debita reverentia*) erakutsiz sartzen da gaien. Ez zen musikari ikasia. Baina badakigu, Nemesio Etxanizek esanda, belarri oso onekoa zela. Eta, batez ere, musikazale amorratua. Eta hauxe da, hain zuzen, azpimarratu nahi dudana.

Euzkadi egunkarian idatzi zituen musikari buruzko kronika batzuk irakurriz gero, bi gauza ikasten dituzu: musika sakratuaren emandialdiak gogotik segitzen dituela eta musika sakratuak liturgian leku gorena betetzen duela. “La Schola Cantorum. A su excelsa patrona” artikulutik jasoa da pasarte hau: “La música sagrada no es sino la oración hecha en voz alta. Fortaleza y hermosura, virilidad y belleza se encuentran en esta como en las demás manifestaciones de la Iglesia militante”. Gasteizen ospatutako Musika Sakratuko IV. Batzarrean, berriz, harrituta geratzen da musika erlijiosoak Euskal Herri osoan zehar hartu duen indarrarekin. Zentzu honetan, pozikarren ikusten du

Argia argitaletxeak kaleraturako kantu erlijiosoen bilduma, eliztarren beharriaz erantzutera datorrena. Bilduma honetan, bestalde, bada Orixeren bihotza bereziki alaitzen duen berritasunik, hots: eliz kantu liturgiko eta ofizialez gain, badakartzala herri-kantu erlijiosoak ere. Lehendik esana zeukan euskal letra, azentuaren aldetik aski librea delako, oso erraz moldatzen dela melodia gregorianoetara, eta hara non ikusten dituen bilduman sartuta euskal herri-melodiak eta euskal musikari desberdinek harmonizatutako euskal idazle desberdinen letrak. Hauen artean, Orixerena ere bai. Euskal letra melodia gregorianoetara moldatzen, *Jesus'en Biotzaren Deya* hasi zen, Orixek berak latinetik itzulitako testuez baliatuz. Alabaina, honetan lanik gehien egin duena *Zeruko Argia* izan da, aita Polikarpo Iraizozen letrarekin eta aita Donostiaren musikarekin.

Azentua, metrika, dantza eta kantua: hara hor Orixerengan baturik doazen oinarritzko lau elementu. Baturik, baina nola? Zaila da elementu horietako bakoitzaren mugak non dauden jakitea, zehazteko dezente gehiago arakatu beharra baitago. Hala ere, orain arte gai zehatz horietaz Orixerengan ikusiak laburbilduz gero, nahikoa garbi usmatzen dut ikuspegi oso baten barruan kateatzen dituela elementu horiek eta elkarri argi egiten diotela. Lotura egiteko katebegiak falta zaizkigu, Orixe bera ez baita heltzen harreman horiek zehaztera. Ni baino luma jantziago batek baduke zer eginik laukote horren elkarinplikazioak argitu eta zehazten.

Kirolak

Euskal kirolaz jarduteko hizpidea Salaverria jaunaren “El atleta vascongado” artikuluak (1924) ematen dio. Hor, Paulino Uzkudunek boxeoa lortutako garaipenak haizatzean, tarteka-marteka, Orixeri gehiegi gustatzen ez zaizkion lorak botatzen ditu euskaldunen bizkar. Honek haren pasarte batzuk apartatu eta, aire aski ironikoan erantzunez, kirolari buruz duen ikuspegia azaltzen digu.

Salaverriaren pasarte batek hauxe zioen: “Los guipuzcoanos están muy contentos, porque tienen, al fin, un atleta de fama universal. Esto les satisface más que si apareciera entre ellos un filósofo, un literato o un profesor”. Agian, jende-mota batentzat, hala izan bide zitekeen. Ez, ordea, Orixerentzat. Honek bazekien bereizten kultura eta kirola eta,

ondorioz, bakoitzari berea ematen. Horregatik, zalantzarik izan ez dezan, garbi adierazten du intelektualak herrigintzan lehenagokoak eta beharrezkoagoak direla atletak baino. Filosoforik, idazlerik, irakaslerik ez dugula? Irakaslerik bederen bai, eta onak gainera, Penintsulako bazter guztietan. Idazlerik ere bai, baina ez, noski, Platonen neurrikorik. Esanez bezala: ezta Espainian ere. Salaverria artikuluegilea bederen ez da.

Haren beste honako esaldi honek ere zer esana ematen dio: “Los guipuzcoanos están muy contentos porque uno de sus compatriotas alcanza en el extranjero grandes triunfos como boxeador de fuerza”. Oro har, ez dauka kirolen kontrako aurreritirik; hala ere, euskal kirolak nahiago ditu arrotzak baino. Arrazoi honegatik, maiteago du, adibidez, pilotaria boxeolaria baino.

Paulino Uzkudunen gorpuzkeraz trufatzen den beste esaldi honek ere mizto pozoinduak baino min gehiago ematen dio: “Yo no conozco a Paulino Uzcudun, el coloso vasco; pero sospecho que no ha de ser un ejemplar fino, selecto, de la hermosa raza”. Gorpuzkera finekoa ala baldarrekoa izan, lepo lodikoa ala mehekoa izan, berdin da. Gizakia burutik gora neurtzen da. Orixek pozikarren hartuko lituzke bai Esopo konkorduna bai Platon bizkar zabala bai Akinoko Tomas buru handia bai Sokrate buru soila, eta gisakoak. Adimena da gizakiaren neurri, ez gorpuzkera: “No, señor Salaverría; lo mismo al hombre fino que al basto, le debemos estimar si posee inteligencia aventajada; y ella se da en ambos tipos”.

Hor dauzkazu, irakurle, hiru pentsamendu zehazki azalduak bere “Vindicación de ‘El atleta vascongado’” artikuluan: lehenik, zeregin intelektuala kirol-jarduera baino lehenagokoa dela; bigarrenik, kirolaren barruan, etxekoa landu behar dela kanpokoaren aurretik; azkenik, lehenengoari loturik doana, adimenean dagoela gizakiaren bikaintasuna eta ez gorputzaren ederrean edo itsusian. Azken puntu honek badu bere esanahia Orixeren luman, zeren, euskararen eta Euskal Herriaren kontra burlaka aritu izan diren hainbat espainol letradunen antzera, Salaverriak ere, Paulino Uzkudunen irudiaz baliatuz, euskaldunak arlote eta ezjakin batzuk bailiran juzgatzen baititu.

Orixeri kirola gustatzen zitzaioela, ezin da ukatu. Zein gehien, ez nizuke esango. Korrikalari eta haizkolariei lehendik ere poesiak eskainia zen. Orain, berriro, haizkoraren gaia dakar bi artikuluetan, palankarena ere bai beste batean. Badirudi kirol hauek bederen gogokoak zituela, hala izan ez balitz ez baitzituen luman aintzakotzat hartuko.

Haizkora-kirolari dagokionez, *Euzkadi* egunkarian badu artikulua bat, “Dos revelaciones y un fenómeno” izenekoa, Ansorena nafarrak eta Olazabal beizamarrak Tolosan, 1928ko maiatzean, egindako haizkora-apustua xehetasunez kontatzen duena. Guatemalan dagoela, 1951n, bi artikulua idazten ditu, “Aizkoraketa” eta “Aizkora. Berriketa”, biak oso antzekoak edukiaren aldetik, Gartziarena leitzarrak eta Luxia azkoitirrak Donostian jokaturako apustu handiaren gainean. Bietan, gipuzkoarrak irabazle. Hala ere, Orixe, ez dakit beronen bihotza ala arrazoia, nafarren alde agertzen da. Ezin du ezkutatu bere nafar sentimendua. Nafarrek galdu badute, jokuan berdintasunik eta garbitasunik egon ez delako izan da. Ansorenaz hauxe esaten zuen “Dos revelaciones y un fenómeno” artikuluan: “En estas circunstancias, en absoluta igualdad de habilidades, puede vencer a Olazábal y quizá a todos los existentes, menos a Errekalde, el campeón”. Gartziarenaz ere halatsu “Aizkoraketa”n: “Itzaren aukera neri ematen ba’didate, ona nik eskatuko nukena: Lan berori, erakustunekin, ez edari, ez arnaspai ta ez ezer artzeko itzean. Etzait iruditzen Luxia’k naiko lukenik, baiña bai naparrak”. Apustu-baldintzetan dago koxka. Horregatik, eskarmentu gisa emango du Orixe abisu hau “Aizkora.Berriketa”n: “Begira berriz ere zulora erori, Naparrak!”.

Haizkora-apustuetara joaten zen, antza. Ederki gogoratzen zituen haizkora egindako markak: Santagedak egur txikietan eta Atxunberri handietan. Azkoitian zen, Uzkuaduni omenaldia egin zitzaion egunean, Errekaldek Santagedaren marka hautsi nahi izan zuenean. Honek esan nahi du hurbiletik segitzen zuela. Baita Amerikan zegoenean ere. Hara berriak bialtzen dizkiolako eskertzen du Iguaran adiskidea.

Palankaren kasuan, “Nuestro palankaris” artikulua bakarrean, Euskal Herriak ezagutu dituen palankari onenen azainak eta izenak dakartza. Horrela jakiten dugu Urdanpilleta, Bidaniako Juan Martin eta Juan Bautista Elola anaiak, Labaka baserrikoak, Matxinandiarena, Berastegiko Gabino Lizartza, Martintxonea baserrikoa, etab., norbait izan zirela palankaren jaurtiketan. Famatueta famatuena –Montevideon eta, kontrariorik izan ez zuena–, Juan Bautista Elola izan bide daiteke, 176 kiloko gizon puska. Nork markarik onena? Honek erantzun zehatzik ez du, zeren, barrak pisuz eta egituraz era berekoak ez izatean, ezin baita konparaziorik egin Labaka, Matxinandiarena eta Lizartzaren artean. Gerora ere, baldin jaurtigailuaren neurria eta itxura aldatuz joaten bada, ezingo da jakin nor den onena. Oharrok egin

eta gero, iritzi hau botatzen du: “Parece difícil la mayor perfección de la barra de ley moderna, y quizá con Esnaola y Lizarza se haya llegado muy cerca del límite humano en esos lanzamientos”.

Artikulu hori idatzi eta gero, seguru asko palanka-kirolean ere aditua zela uste zuelako, Lizardik palankari buruz zerbait idazteko eskatzen dio Andoaingo jaialdirako: “Zuri idaztekoa dezu Aranguren apaiza, palanka ta dantza ‘osoá’ gaiz. Onezkero, nik uste, aurki zera onuntza, ez?, ta orixe genduke onena. Artara bear ainbat berriketa egingo genduke, ta baita zuri zeregintxo bat edo beste eman ere, Andoaing’go orretarako”. Dantzaren kasuan baiezkoarekin erantzun zion bezala, palankarenean, nahiz eta birritan eskatu, ezezkoa eman beste biderik ez zitzaion geratu, eta hori, 1929ko abuztuaren 12ko gutunean esaten dionez, jarraiko arrazoi honengatik: “Ni, palanka gai dala mintzaldi bat egiteko enago gerturik. Ortarako Iguaran’en archivoa bear nuke, ta dedan baiño asti geixego. Iguaranek berak ez al lezake egin? Euskera ezik, nik baiño askoz obeki. Euskeraratzen lagunduko nioke”. Hor aipatzen duen Iguaran jauna, gaien bera baino aditua-gotzat daukan hori, izan bide daiteke Amerikara kirol-albisteak bidaltzen dizkion huraxe bera.

Herri-festak eta usadioak

Badira Euskal Herrian herri-festa batzuk, aspaldidanik, sinbolismoz kargatuta datozenak eta, horregatixe hain zuzen, etnologi ikerketen orrialdeetan sartuta daudenak. Santu edo santutegi baten izena esan orduko, berehala datozkigu gogora ez dakit zenbat burutapen. Horrek esan nahi du herri-pentsamendu oso bat dagoela mamitua haren inguruan. Horixe gertatu zait segidan aipatuko ditudan Orixeren artikulu batzuk irakurtzean. Orixe herri-hitzaren entzule bezain gordetzaille fina da.

Sanjoanak

Sanjoan jaiek oroitzapen goxoak utzi dizkiote bere haurtzarora eta gaztarora Uitzin egin dituen Orixeri. Honen “Canciones de San Juan” artikulua irakurri eta gero, jabetuko gara lau gertakari bederen ospatzen direla Sanjoanetan.

Lehenengoa, agian gaur egun ezagunena, Sanjoan-sua da. Bezperan mendira joan eta, handik sutarako egurra ekartzen zuten. Etxe-atarrietan egur-pila handiak egiten ziren, eguzkia itzaltzean, su emateko. Sua itzaliz zihoan eran, herriko haurrek eta gazteek, ileran jarrita, jauzi egiten zuten txingarraren gainetik. Emazteki eta amona herabeak supilaren ertzetik pasatzen ziren, sua beren soineko puntarekin justu-justu ukitzeko moduan. Jauzi hauek, antza, superstiziozko formulen bidez azaleko gaisotasunak uxatzeko egiten ziren. Ondoren, sutea indargetu eta gaua aski aurreratutakoan, zahagi zahar bat makila batez zeharkatu, su eman eta herri barruan eta kanpokaldean zehar ibiltzen zuten, bika zeriola eta sutan.

Bigarrena, Orixerentzat Sanjoan-sua baino garrantzitsuagoa dena, gazteek gauerdian kantatzen zituzten eske-kantuek osatzen dutena da. Azkue, aita Donostia, J. M. Barandiaran eta beste folklorezale batzuek esan bezala, koplak horiek dira gure kantutegiko bertso zaharrenetako batzuk, Euskal Herriko leku desberdinetan, garai desberdinetan, kantatzen direnak: San Nikolasetan, Santa Agedatan, Urtezahar-gauean eta Urteberri-egunean.

Bada superstiziozko beste hirugarren ohitura bat ere, Europatik sartua dena eta hango zenbait lekutan zabaldua dagoena, eta da, gauerdian, iturri eta erreketan bainatzen direla, herdoila eta beste gaisotasunak urruntzeko.

Azkenik, Uitzin egun horretan, etxe-ateetako bi aldetan bi elorri adar tinkatzen dira. Elorria bedeinkatua denez gero, ataurrean jartzen dira etxea eta etxeoak tximistatik zainduak izan daitezten. Ekaitzak mendian harrapatzen zuenean, elorria izaten zen Orixeren tximistorratza.

Sanmigelak

“La ‘sanmiguelada’” artikuluan, irakurleari hasieran egiten dion oharrean dakarrenez, kakoarteko hitz horrek esanahi berezia du Aralar inguruan, han Goiaingeru borrokalariaren babesean, bizi izan den batentzat. Sanmigel goiaingerua, klasikoen aita Udazkenak baino balio sinboliko handiagoa duena da.

Ama-lur emankorraren testamentaria delako datorkio izendapen horri halako sinbolikotasuna. Latindarren *pater autumnus* pagano berbera da, baina kristautua. Aita Sanmigelek, beti gazte eta beti lerdin dirauenak, ematen digu urrezko artoa, txurikinez estalia, ohe pobre baina garbiaren bigungarri izango dena. Sanmigeletan biltzen dira

gure gorputza asetzen duen eta zerrien bizkarrak guritzen dituen gaztaina, haurrek hainbeste gutiziatzen dituzten intxaurrak, urrak eta sagarrak. Ez bakarrik haurrentzat, helduentzat ere badu urtearo honek bere xarma. Sasoin honetan egiten da ehiza. Orixek muxarraren ehiza txikia maitekiro gogoratzen du, pagadia ezkurrez beteta dagoenean enbor zaharretan ezkutatuta egon ohi dena. Goiko zuloa estali, behekotik kea bota eta, zorabiatuta, ehiztariaren eskuetara erortzen da. Aitonek lubrifikatzaile gisa erabiltzen dute, neurri txikian noski, erreuma zitalaren kontra. Basoak orduantxe egoten baitira gaztainez eta ezkurrez beteta, aproposa da basurde-ihiza handirako ere. Baina Sanmiguel egunak, batez ere, eliz jaia esan nahi du, bai mezakoan eta bai mahaiean goraki ospatzen dena. Horregatik, Sanmiguel, izadi oparoaren testamentaria ez ezik, gure arimaren udazkena sinbolizatzen duen testamentari espirituala ere bada, fruitu onak eta txarrak bereizten erakusten digun gidaria.

Euskal bizimodua

Orixek “euskal” jarria daukan lekuan, nik “nekazal” jarriko nuke. Ñabardura honek badu bere esanahia, zeren, ikazkintza, lihogintza, artzantza eta antzeko beste jarduerak osoki euskaldunenak izanik ere, nekazal gizartean lantzen diren jarduera espezifikoak baitira. Zentzu hertsian hitz eginda, baserri-giroko bizimoduari dagozkionak dira. Badira meagintzan nahiz merkataritzan nahiz arrantzan diharduten euskaldunak ere eta ezin esango dugu horien jarduerak nekazarienak bezain “euskal” ez direnik. Orixek ere ez zuen sekula horrelakorik esan. Baina nabari da –eta puntu honetaz ohartzeko nahikoa da idazterakoan zein gai-mota hautatzen duen begiratzea–, euskalduntasunaren muina euskal gizarte tradizionalari ohikoak zaizkion lanbide eta ohi-turetan ezartzen duela. Gogo emazu artikuluko hauek egitean, Bilbo hiriburuko industrializatuan bizi dela, gizarte-bizimodu arras bestelakoan, alegia. Hala ere, berak dioen “vida vasca” hori nekazal gizartera murrizten du. Eta hementxe datza, hain zuzen, hasierako ñabardura hark izan dezakeen garrantzia.

Ohar horiekin egin eta gero, aipa ditzadan Orixek deskribatzen dituen baserriarren lanbide batzuk.

“La industria del lino” artikuluan esaten zaigunez, emakumeak bere esku-trebetasunaz baliatuz egiten ditu etxeko lanak. Lihogintzan

ere bai, ofizio hau emakumeari dagokiona baita, esku fina eskatzen duena. Lihogintzaren prozesuan sartzen diren une batzuk azaltzen ditu, estanpa erdi-poetiko erdi-deskriptiboan azaltzen ere, hari logikorik gabe. Batean amona gaixoa ernegatuta ikusten duzu haurtxoak mataza korapilotzen diolako, bestean larrainera doakizu ilar gisako ale biribilak maindire xahar batean hartuta bertan zabaltzera, hurrengoan auzoko emakumeak, korrika joanda, belazean somatzen dituzu haize zakarrak nahastu dituen gabikoak zein norenak diren ezin asmatuz.

Hazia erein eta jaso, alea jo, haria egin eta josi, prozesu osoa etxean egiten baita, urte guztiko lana da eta, nahiz eta liho-lana emakumelana izan, etxeko guztiek parte hartzen dute modu batera edo bestera.

Janztea jatea bezain garrantzitsua da eta, baserrietan, biak etxe-ekonomian sartzen dira. Orixek, nostalgi errainuak hedatuz, janztekoak oro, oinetatik burara, etxean bertan egiten zireneko garaiak gogoratzen ditu. Behi-larruaz edo behorrarenaz egiten ziren abarkak, azarilarruaz txapela, etxean egindako ohe-erropa eta alkandora ezagutu zituen, artilezko galtzerdiak zer esanik ez. Janztekoarekin bezala jatekoarekin. Eta etxean egindakoa, beti ere kanpotik erosita ekarritakoa baino hobea da. Ez konparatu etxeko labean egindako ogia, “gafolla” ogiarekin edo Vienakoarekin. Etxeko haria, askotan garbitu arren, ez zaizu ehun modernoa bezain aguro zarpilduko. Lehengoa ona, onena; oraingo ekoizpen industrialdua, eskasa, eskasagoa. Hara hemen berriro argitan antinomiaren irudia. Joana berreskuratu nahi du: “Esa poesía, esa realidad, va pasando, pero aún hay algo que vive y merece nuestro recuerdo”.

Ikazkinaren lana basoari lotua dago, ez lurrari. Hala ere, astea basoan eta asteburuak herrian egiten dituzenez gero, esan dezakegu nekazari-giroko bizimodua egiten duela. Ikazkinen gaia askotan errepikatzen duena da eta, zentzu honetan, “Los carboneros” artikuluan datarrenak ez du berritasunik. Lau estanpa eskaintzen ditu, betikoak eta betiko lekuan. Esaten ez badu ere, igerri zaio Uitz daukala aurrean. Noan banan-banan azaltzera, oroimenaren begiradaz ikusteko modukoak dira eta.

Lehenengoa baso-gizonen herriratzeari dagokiona da, asteburu oroz errepikatzen dena. Hogeiren bat gizon datoz mendian behera, bizkarretik helduta eta kantari, igandekoa egitera. Herri-sarrerako askan aurpegi belztuak zuri bihurtu eta, elizara doaz. Meza ondoren, elizatarian elkartzen dira, kontu-kontari eta anaitasun ederrean elkartu ere,

herritarrak eta beste herrietako basomutilak. Leku askotatik etorriak dituzu: Ezkurratik, Donibane Lohizunetik, Zugarramurditik, Ataundik, eta abar. Orixeren ustez, herriz-herri dabiltzan ikazkin hauek izan dira, beroriek ohartu gabe, gure herri-literatura eta folklorea gehien zabaldu eta ondoen gorde dutenak.

Bigarrena, mezakoa egin eta gero, jolasak osatzen du. Bazkal aurretik, frontoian herriko gazteen pilota-partida ikusten geratzen dira. Arratsaldean, bezperak ondoren, palanka, jauzia, pilotan eta, jokatzen dute. Plaza zabalean ez da faltako zahagi-ardoa. Ilunabarrean, herritarrak agurtu eta, berriro basoruntz abiatzen dira, etortzerakoan bezala kantari eta umerotsu.

Hirugarrena, ikazkinak herrian dauden bitartean, basora joaten diren bisitalariek eskaintzen duten ikuskaria da. Bisitalari hauek herriko neskatxak dituzu. Eskuetan saskiak dituztela, lantegi ondoetan sortutako marrubiak biltzen dituzte. Antza, basa-marrubi hauek basinusitako lekuetan sortzen dira ugariarik, kolore bizikoak eta usain finekoak dituzu, baratzetan izan ohi diren ez bezelakoak. Estampa hau berria egiten zait.

Laugarrena, ikazkinek basoan daramaten bizitza da. Basoak Orixeri alaitasunaren sentipenak sorrarazten dizkio. Dena da kantua: ikazkinen haizkorek ateratzen duten taketako akonpasatua, itzainen gurdi karrankaria, zerrarien kirriz-karraz hotsa, ardi nahiz betizu nahiz behorren zintzarri-mingain dilindariaren deia.

Ikazkinak hegaztien kantuekin esnatzen dira eta goizean goiz hasten lanean. Txondorrek kargatu eta zotalez estaltzen dituzte. Bitartean, txabola ondoan, talogileak –hau normalean oraindik lan neketsu horietan hezi gabeko gaztea izaten zen–, babak eta taloak prestatzen ditu bazkaltzeko. Eguerdian ikaztegitik pasatzea suertatu zen batean, Orixeri bazkaltzen geratzeko erregutu omen zioten. Konbidatuarentzako ezpelezko kutxararik ez eta, pintxeak ogi-azalekin egin zizkion nahi adina kutxara. Buru zorrotzari darion erremedioa! Orixe, ikazkin haien sabelean zenbat baba sartu zen ikusita, harrituta atera zitzaigun.

Antzeko gaiak ukitzen dituen artikulua gehienetan bezala, hemengo honen azkenaldere ere, bihotzean min ematen dio idilioa elegia bihurtu beharrak, ikazkinen mundu hura erabat desagertu baita. Berriro nostalgiaren zakuan husten ditu bere penak. Erruduna, ia esan beharrik ere ez daukat, badakigu zein den: zorieko teknologia. Tresneria zaharra eta berria nola kontrastatzen dituen ikusteko, aukera-aukerakoa

duzu pieza hau: “ La aserradora mecánica, los tronzadores que sustituyen al hacha, los poderosos cables, que sin tropiezo conducen por el aire a temibles velocidades, al son de triste crujido, la carga que debieran llevar en su chirriante carro los pacienzudos bueyes; el monstruoso camión, que atruena los oídos e irrita el olfato con su humillo de progreso, han acabado con aquella grata poesía y han empobrecido a muchos pueblos por falta de ocupación. El monte sigue siendo rico, pero no para ellos”. Orixeren nekazal pentsamendua, teknologiaurrekoa da, kamioi graduak, motozerrak, traktoreak eta horiek guztiak baino oraindik ere askozaz lehenagokoa. Azken mezua antinomiarena da: tresneria berri horren hotsak, alaitu ez, tristetu egiten du basoa.

“Las castañas” izeneko artikuluan, elkarrekin hizketan jartzen ditu baserritarra eta hiritarra Bilboko kaleetan. Aurrekoetan bezala, hemen ere gaztainak oroimenera dakarkiona du gogoeta-gai.

Hasteko, esan dezagun, Bilbon eta neguan, ez kaleko edozein eskaparetek, baizik eta baserriko sukaldeetan laratzatik zintzilikatzen den tresna batek liluratzen duela. Baserritarrari, Orixerri, burdinazko zubi ondoan dagoen gaztain-saltzailearen danbolinak irabazten dio begirada. Hura begiztatzearekin batera, bilbotar hiritarrari gaztainak nola erretzen diren esplikatzen dio, gaztainak barruan tiroka hasten direnean nola azkar-azkar eragin behar zaion danbolinari, erre eta mahai gainera ateratakoan eskuz nola zanpatzen diren.

Bide batez, beti ere hirugarren pertsona erabiliz, gaztainadian geratutako desgraziak kontatzen ditu: nola “Begibakar”ek begia galdu zuen morkotsa begi gainera erorita eta nola gizon batek, haz gaztainarbola asintzen ari zela, adarrak huts egin eta erortzean garondoa hautsi zuen. Bere aitona, hirurogei urtetik gorakoa zenean ere, katua bezala igotzen zen arbola gainera, baina berari ez omen zion uzten, eror zitekeen beldurrez. Zoritxarrak berakin eraman zituzten bi horiek, deskribatzen duen moduan deskribatuta, izan bide daitezke bere ama Mañazi eta bere aitona, bere ama Mañaziren aita, alegia.

Baina gaztainak danbolinan erretzeko, lehenik basoan bildu egin behar dira. Ez dakien bilbotarrari, gaztain-bilketaren lezioa erakusten dio. Gaztainadian, usu ikusiko dituzu zerriak, basurdeak eta ardiak, gaztain-bazka maite baitute. Horregatik, aurrea hartu behar zaie horiei. Bakoitzak du bere egitekoa. Gizonezkoek haga luze batzuen bidez adarrak dantzatzen dituzte morkotsak lurrera botatzeko. Emakumezkoek eta haurrei tokatzen zaie, eskuetan matxardeak dituztela, morko-

tsak saskira jasotzea eta sobratutakoak pilatzea. Bildutakoak bertan pirlatzen dira, gainetik arbastez ondo estalita, hurrengo batean etxera eramane arte.

Artikulu honek bukaera du adierazgarria, intentzior kargatua atzematen baitut. Azalpen guztien ondoren, elkarrizketa ixteko, hauxe esaten dio nekazariak hiritarrari: “Tú, al ver a esa sufrida castañera, no pensabas en ninguna de esas cosas. Ahora, a tí te toca hablarme de los secretos de la ciudad dignos de saberse”. Beste modu batera esanda: baseritar klasikoak hiritar modernoari nekazal kulturari dagozkion etnologi alderdi batzuen berri ematen dio, ezagutzen ez zuen eta galtzeaz dagoen zerbaiten berri. Eta trukean, zer eskaintzen dio hiritarrak baseritarrari? Agian ezer ez, edo ezer gutxi, erantzuteko hitzik gabe uzten baitu. Sintomatikoa da benetan. Agian hiriak ez dauka nekazal kultura aberastu dezakeen ezer onik eskaintzeko. Horrela ulertu behar ote da bukaera horren mezua?

“Entre nieve” artikuluaeren hasieran irakurtzen dugunez, badirudi elurte handien urtea izan zela 1927koa. Orixerentzat abagune egokia da, elurraren aitzakiarekin, poesiaz betetako egun zuri horietan Uitzin zer egiten den deskribatzeko.

Herria, kanpo-lanetarako, hila geratzen da: “Visto el pueblo por el exterior, semeja una serie de ataúdes dispersos: ni un alma aparece en las calles. Ni los patinadores, que están de moda en aquel pueblo, se han atrevido este año a animar al pacífico vecindario”. Gehiago oraindik, urte hartan bezala, metro eta erdiko elurra egiten duenean. Behin 700 metrotik gora –Uitziko herritxoa altuera horretatik ez dabil hain urruti–, elurra aise metatzen da.

Zer egiten duen baseritarrak horrelako egunetan? Etxean aski egur eta irin izanez gero, ez dago zertaz beldurtu. Betor elurra soroen onerako eta etzekoen pozerako. Kanpoan izadiak hilerri badirudi ere, barruan guztiz alderantziz gertatzen da. Famili bizitzak, etxe barruan, inoiz ez bezalako bizitasuna hartzen du. Ikuiluan behiak marruka, ardiak marraka, behorrak arrantzaka, oiloak kakaraka, goian emakume gazteak eta amona kantari. Behekoek eta goikoek osatutako polifonia hartan, orkesta antzeko zerbaitek sortzen duen giro harmoniatsua bizitzen da baserri barruan.

Baina, atarian elurra dagoela eta, barruan inor ez dago besoak an-txumaturik. Gizonezkoek udazkenean etxeratutako lizarra kimatzen dute, edota urritzez ipurdia hartzen diote silari nahiz saskiari. Aitonak,

sutondoan jarrita, errotarako artoa jalkitzen du. Emakumeek josten, hariltzen, lihoa zehatzen edo artilea ilazten jarduten dute. Baina etxebizitza gehien animatzen duena, auzoko emakumeek liho-sortak zehatzen egiten duten talde-lana da, batez ere. Lan hori hain duzu nekeza, kolpeak emanez eta orruak eginez altxatzen baitzuten lanerako kuraia. Noski, meriendakoan bokadiloa eta pattarra –”Katalingorri” bedeinkatua– ez baitziren eskas izaten, hango algara eta kantua gero eta gorago joan ohi zen. Sorgin-kontuak ere ugariago izaten ziren horrelakoetan.

Ikusi berria dugu lihogintzari buruzko artikulua eta ez noa hangoak berritzera. Esango nizuke, ordea, lihogintzaz zekiena baino gehiago jakiteko amorratzen zegoela Orixen: “El otoño pasado asistimos a una serie larga de operaciones que exige esa industria: desde el arranque del lino hasta que se le enfaja para tundirle. Nos sería deleitoso presenciar una vez más la otra serie más larga de requisitos para los que sólo el invierno de aquel lugar ofrece tiempo suficiente. Peinar, cardar, hilar, ovillar, tejer, son palabras de pocas sílabas para lo mucho que significan, según los antiguos procedimientos”.

Aztertu ditugun artikuluetatik barrena egindako ibilaldiaren ondoren, ez naiz hasiko Orixeren ikuspegi agro-isurbera ez zurriz ez belzten, ezinukatzukoa baita haren kontserbadurismo-joera. Hainbeste pasarte ikusi eta gero, ez du zalantzarako biderik ematen. Hala ere, arestian aipatu dudan testu horren haritik joanda, esan beharra dago Orixeren kontserbadurismoak, besterik gabe, baduela ideologia atzerakoiarekin ezin nahas daitekeen folklore-sustrai indartsurik. Etnografia hutsa da egiten duena. Noski, literaturaz baliatuz. R. M. Azkue, J. M. Barandiaran, edo beste edozein folklorezaleren antzera, Orixeren kezka nagusia euskal kulturaren alderdi filologiko-kostunbrista lantzea da eta, oroz gainetik, bizirik baina galtzear dauden herri-ohiturak jaso eta historiaren kutxan sartzea, inoiz erabat galtzea gerta baledi ere, geroak bederen haien berri izan dezan. Bizirik dagoena eta jadanik desagertua dena, biak jaso behar dira, baina lehenik hura eta gero hau. Hierarkia horren argitan ikusten dut etnologoen eta kostunbrista nahiz linguisten artean ezartzen duen bereizketa. “La industria del lino” artikuluan hala dakar: “Está bien que los etnólogos hagan un inventario de lo que encuentren para complemento y adorno de los Museos; pero los costumbristas, en cualquiera de sus aspectos, y los filólogos deben recoger lo más viviente. A varios centenares llegarán las

palabras y variantes que figuran en el gran Diccionario Vasco-español-francés de Tours, sin que aparezcan todas las relacionadas con esos menesteres. Y es hora que alguno se encargue de recogerlas minuciosamente, ya que nuestro país no es nada inmenso. Para muchos vascos de ciudad y estudios, nuestro suelo tiene pliegues inexplorados que merecerían escudriñarse con más cariño”.

Ohitura eta jarduera zaharrak ez ditu maite zaharrak direlako bakarrik, baita kultur balioa dutelako ere. Herriak bere oroimen kolektiboaren zati bat galtzen duenean, mermatu egiten da haren nortasun-zeinua. Irizpide honetan oinarritzen da, hain zuzen, elementu folklorikoen balioa. Horretan, halaber, balio horiek salbatzeko Orixek egiten duen ahalegina. Asmo honek eraginda eman zion zegokion zabalkundea J. B. Daranazen *Curiosités du País Vasque* folklore-liburu mardulari, bi artikuluen bidez. Folklorean dena interesatzen zaio, jakinminaren hegoak besarkatzen duen oro: deabruaren izenak, gure asaba zaharren ohitura landarejaleak, euskaldunek testamentua ohitura zaharrera egiteko daukaten eskubidea, “usarioa” deitua. Eta horrelako bitxikeriak.

ZORTZIGARREN ATALA

BASERRITARREN EGOERA PENOSOA

Baina baserriak, eguneroko bizitzara jausten bazara, oso gutxi du idilikotik. Orixek beste inork baino hobeto bereizten ditu nekazal gizartearen alderdi etnologikoa eta soziologikoa.

Baserrria gainbehera hasia da. Orixek *Euzkadi* egunkaritik jasotzen du nekazaritzari buruzko eztabaidaren haria 1927an. Arazoa zen ea zergatik ari ziren husten baserriak. Baserritarra alferra delako? Aurre-rapen teknologikoak onartu nahi ez dituelako? Lurzoruak gehiagorako ematen ez duelako? Arrazoi hauek guztiak erabili zituzten eztabaidan parte hartu zutenek. Orixeren ustez, nekazaritzaren beherakada, mingarria bada ere, ezinbestekoa da. Eta hala bada, ez da baserritarren erruz zenbaitek uste izan duen bezala, hainbat faktorek hartaratzen dutelako baizik.

Lehen arrazoia da euskal lurak ez duela ematen gaur eguneko beharrianek eskatzen dutenaren arabera bizitzako adina. Eta arazo hau ez da konpontzen nekazal ustiapenean teknologia sartu eta ekoizpena ugaltzearekin. Teknologia ondo dago, baserritarrak ez dio ezezkorik esango, horren legea, beste gehienen antzera, ahalik eta lanik gutxien egitea baita. Baina baserritarrak egiten ez duena da edozein tresneria edo aurrerapen berri itu-itsuan hartu, alde zurreratik egokia izango den ala ez arazoitu gabe. Orixek ongari mineralekin belazee-tan egindako esperientzia dakar. Aplikatua izan den kasuetan, hala dio, kantitatean irabazten dena galtzen da kalitatean. Horregatik, ongari mineralarekin emaitza hobea lortu arte, gorotza lehenetsiko du nekazari burutsuak. Orixek, bere “El abandono del caserío” lantxoan irakur

daitekeenez, mesfidantza dio nekazari moderno eta karreradunari: “Todavía conocemos a un propietario de carrera, ganadero que dispone de la fuerza necesaria para ensilar hierba y otros trabajosos menesteres, empeñado en hablar de la rutina de sus convecinos, a quienes no ha resultado la experiencia. Ganas de hablar y de no querer deponer una actitud vanidosa. A su ganado no le luce más el pelo a pesar de todo, y cualquier otro vecino del pueblo obtendría mayor rendimiento con sus métodos, de poder disponer de piensos y otras comodidades en que el desdeñoso entendido les aventaja. ‘Rutina’, sigue éste diciendo todavía”.

Beraz, baserritarrak aurrerapena onartzen ez badu, ez da bere betiko ohituretan aldagaitza delako, aldeko eta kontrako ondorioak balantzan jartzen dituelako baizik. Areago oraindik: baserritarra ez baita eskolatua, errezeloz hartzen du abelazkuntzako berrikuntzen mezuarekin jarrera harroskoan datorkion injineru agronomo erakuslea. Horregatik, nekazariak badu proposatzen zaizkion eraldakuntzen aurrean uzkur agertzeko motiborik: “De la socorridísima rutina hemos hablado ya, y aunque no del todo, absolveremos al labrador, no le condenamos tan severamente”.

Esan dezakegu, bada, Orixeren jarrera aski erreserbatua dela gizarte modernoak dakartzan aurrerapen teknologikoen aurrean. Baldintza batzuk eskatzen dizkio, baserritarrak onar ditzan. Lehenik, teknologia ez da on teknologia delako, baizik eta onuragarri dela frogatzen den neurrian bakarrik dateke onargarri. Bigarrenik, berrikuntzak proposatzeko orduan, baserritar landugabearen psikologia hartu behar da kontuan, zeren, gauzak sotil-sotil eta umil-umil azaltzen ez bazaizkio eta haren bihotza irabazten ez bada, alferrik izango baitira proposamen guztiak, arrazoizkoak izanda ere.

Bigarren zergatikoa, “¿Pobres? ¿Ricos?” artikuluan azaltzen duenez, gure lurzorua pobretasunean datza. Geografiako liburuetan esaten denez, Penintsulan ez omen da gure lurzorua bezain pobrerik izadiko aberastasunean. Bizkaiko lurzorua, adibidez, buztintsua da, maneiagaitza, ez da harrotzen, nekez meteorizatzen da. Ez litzaioke bati gaizki etorriko euskal lurri zentrimetro batzuetako hare-geruza izatea.

Arrazoi geologiko hori dela medio, euskal lurzorua gehiago balio du abelazkuntzarako lurgintzarako baino. Askia euri egiten du, zuhoin ederrak hazteko nahikoa. Hain dugu premiazkoa, zeruko urrea deitzen

baitio. Horregatik, baserritarrak etekin handiagoa atera dezan, bidezkoa izango litzateke soroak belardi bihurtzea. Horrek bidezkoa dirudi, baina ezinezkoa praktikan, nagusiak maizterra lurgintzara behartzen duelako. Orixek hemen bere etxean gertatua kontatzen du. Lur batzuk errentan hartu omen zituzten, urte batzuetan bederen haietaz gozatzeko modua izango zutelakoan. Ardibordako belardiak hobetzen aztarrika leher putz egin ondoren, zer gertatuko eta, nagusia maiztarraren lanaz baliatu zela ederki asko, ez baitzuten izan eskriturak hamar urterako egiteko aukerarik. Orixek harro-harro dioenez, berak egin omen zuen elorrizko hesia, inguru haietan den onena.

Baserriak aurrera egiteko modua, beraz, lurak nahierara lantzeko ahalmena edukitzean datza: “Luego la solución a esto, como a tantas otras dificultades, es la propiedad, y, cuando no se puede, el arrendamiento a largos plazos”. Egia da lur-puskak gaizki banatuta daudela eta honek asko zailtzen duela lana. Hala ere, arazo hori baino lehenagokoa da jabetzari dagokiona. Hau konpondu ezean, sobera daude beste gainerako berrikuntzak.

Nekazarien gizarte-egoera, segun non, oso desberdina baldin bada ere, ez dago inolako zalantzarik jabetza-erregimena oso garrantzi handikoa dela sektore horren bilakaeran. Gipuzkoan, 1931ko datuen arabera, % 55 beren baserriaren jabe ziren eta Bizkaian, berriz, % 40; gainerako guztiak maizterrak edo errenta-erregimenean bizi zirenak genituen.

Hirugarren zergatikoa, Orixek “impuesto a la metafísica” deitzen diona, baserritarrari administrazioak era abstraktuan ezartzen dizkion zergak dira. Diputazioak nekazariaren ganaduak eta lurak zenbaki bihurtzen ditu, buruko hainbeste, balio abstratu bihurturiko gauza horiek egiazki errentagarri diren ala ez kontuan hartu gabe: “Pero ese número abstracto resulta una realidad palpable en las cinco pesetas o en el real por cabeza de res, aunque esa res no dé ninguna utilidad para la casa”.

Segidan, baserritarraren bizimodu nekeza hiritarraren bizimodu ero-soari kontrajarriz, Orixek arenga bizi-bizia egiten du nekazariaren defentsan, zerga horren kontra sutan. Sakonean, artean itzali gabe, nekazari izan zeneko bizipena darama eta honek bultzatzen du baserritarrak defendatzera: “Yo el que lo creo, porque he sido labrador, y mi ideal ha sido en la mesa el comer bien cocidas las alubias, como lo es hoy de la ‘mayor parte’ de vosotros. Hablo con más conocimiento del que se tiene comúnmente por aquí. Yo no he sido labrador vizcaíno.

Y mucho menos de los alrededores de Bilbao, que se pueden permitir ciertos lujos; pero he recorrido los pueblos de casi toda Vizcaya, muchísimos hogares de ella y estoy enterado de vuestro banquete diario”.

Artikulu horiek idatzi eta handik lau urtera, nekazaritzaz 1931n irakurritako hitzaldi batean, berriro baserriaren eta hiriaren arteko antinomia erabiltzen du. Badaki nola autore klasikoek –Virgilio, Horazio, Tibulok eta– esan zuten nekazari eta artzainen bizitza zoriontsua zela. Esan ala ez, hala behar luke bederen, gaineratzen du Orixek “Nekazaritza” lanean, baina zoritxarrez ez da horrela gertatzen euskal baserriarraren kasuan: “... ametsa da gaur, nekazariaren zorion ori, erdia baiño geiago”. Nekazariak, lan gogorretik ihes egiteko, nahiago du hirira etorri eta hemengo eskola eta malezia ikasi. Alderantziz, mingainez bai ederki baserrian esan arren, hirian ez du inork baserrira itzuli nahi. Hirian ere badira lan-arazoak, hauen artean langabezia. Eta esketik bizi direnak ikusi, asko eta asko ikusten dira. Baina hauen arazoa, Orixeren ustez, gehiago da alferkeriarena egiazko langabeziarena baino, lanik gabe dauden askok nahiago baitute dirua lanean irabazi baino eskean bildu. Horregatik egiten du baieztapen hau: “Gezur biribilla da lanik ez dagola esatea. Lan egiteko gogorik ez”.

Lehen aipatu ditut baserriarra egoera txarrean egotearen arrazoi batzuk. Azkeneneko, hain zuzen, administratiboaren zen. Hitzaldi honetan oso gogor salatzen du Diputazioaren nekazari-politika, esku batekin ematen duena bestearekin kentzen duelako. Nekazariak, lehen esan bezala, ez luke zergarik ordaindu behar. Diputazioak mendietan landatutako pinuei artzainak su ematen badie, ez da inor harritu behar, ardiak bazkatzeko ez baitio ezer trukean ematen. Jarraiko testu honetan datorrenez, jokabide militantea hartu zuen Orixek nekazarien aldeko borrokan: “Olako egi batzuk esan nitulako, debekatu egin zidaten Bizkaian nekazarien alde iskribitzen. Ostea, Busturi’ko nekazari gizagajo batzuk bost duroko papel bat eskuan zutela etorri zitzaizkidan aien alde atera nintzalako. Enizkien artu, jakiña. Orduko gobernadore txarrari baimena eskatu genion Gernikako barrutiko nekazariak bilera bat egiteko, ta gure papera saskira joan zan nonbait”. Izenez guztiekikoa baina izatez berekoia den eta nekazariaren odola zurgatzen duen Diputazioaren aurrean, honen aurrean batez ere, talde gisa antolatatu eta beren eskubideak errebindikatzera deitzen die Orixek nekazariari: “Nekazariak, zer bear dezue zuek zoriontsu izateko? Zuetako bat eskolatu ditela ta egiak esan ditzala garbi, aboaren jabe uzten duten

bitartean; urren, Diputazioarengana jo, zuen eskubideen eske. Ortarako guziok alkar ezkerre, egin oiugogotik, egiten zaizkizuten bidegabe oien buruzki”.

Orixeren pasarte horiek ezin ditut utzi ohartxo batzuk egin gabe, haren pentsamendua zeharkatzen duten gogoeten artean alderdi ideologikoak eta teknikoak nahasian kausitzen baitituz.

Lehenik, eztabaidatutako arazoaren alderdi teknikoetara mugatuz, esango dut Orixek, bere azalpenean, era intuitibo eta periodistikoan jokatzeko duela eta haren ekarriek ez dutela ikerketa-asmorik. Hala ere, nekazaritzak une hartan jasaten duen krisia kaleratzeko adina elementu eskaintzen duelakoan nago. Nekazari-krisiaren funtsezko zergatikoetara joaten bagara, Orixek ematen dituen arrazoiez gain, Bizkaian nahiz Gipuzkoan mende honen hasieratik aurrera finkatzen den iraultza industrial aipatu behar da guztien gainetik. Industrializazioa da nekazaritzaren eboluzioa baldintzatzen duena, egoera berri honek beharrezkoak sortzen baititu, hala nola industrigintzako lan-esku gehigarria, espekulazioak eraikitzen diren sektorean ezartzen duen baserri-lurren prezio-igoera, demografi hazkundeak eskatzen duen nekazal ekoizpena handitu ahal izateko nekazaritza teknologia berriak hornitu beharra, eta abar. Azken batean, industri aurrerapena eta teknologia dira ordurarteko nekazal bizitzaren ohiko dinamika kinka larrian jartzen dutenak. Krisia, Beltzak *El nacionalismo vasco (1876-1936)* liburuan dioen bezala, orokorra da: “Pero en general, el conjunto de los campesinos ve su modo de vida directamente afectado y de una manera negativa: bajan los comunales, se enajenan los bosques, los pequeños oficios artesanos (cestería, etc) desaparecen, con la industria las máquinas agrícolas aumentan (poco, ciertamente) y la pequeña propiedad y el pequeño arrendatario tienen encima que hacer frente a las cargas fiscales”. Eta honen ondorioa da, eta orain hasierara gatzoz, baserriak hustea. Gipuzkoa eta Bizkaian, baserriak gehienak lekuko industriak zurgatuko ditu. Orixe Bizkaiko nekazaritzari buruz ari baita bere lanean, 1921-1930eko epealdian, honela banatzen dira migrazio-saldoak auzitegi-barrutien arabera: Bilbo eta Durango industri hiriek, zifrak hurrenez hurren emanda, 33.396 eta 1.475 biztanle berri hartzen dituzten bitartean, Gernika, Markina eta Balmaseda nekazal udalerriek 6.268, 2.176 eta 8.137 biztanle galtzen dituzte. Zifra hauek nabarmenki adierazten dute industrigintzaren gorakadak, ondorioz, nekazaritzaren beharrezkoak dakarrela. Egiatzko kausa, beraz,

bigarren sektorearen eboluzioan datza. Une honetako euskal nekazal gizartearen egoera eta honi buruzko Orixeren ikuspegia gogoan hartu behar dira, batez ere, *Euskaldunak* poema baloratzeko orduan.

Bigarrenik, Orixek nekazaritzaz egiten duen apologian, bada pentsamolde klasikoari datxekion ideologia isla dezakeen daturik. Honela, baserriaren eta hiriaren arteko kontraposizioa egiten duen bakoitzean, deskribatzen digun hiritarra bulegoan ordu batzuk egiten dituen da, neguan goxo eta udan fresko egoten dena, aldamenean kafetegiak dituen, kapritxoak egin ditzakeena, soldata ziurtatua daukana, eta abar. Hori izan bide daiteke hiri-burgeseriaren erretratu aski fidela, baina ez Bilbo inguruan bizi den langileriarena. Beraz, ez gehiengo batena. Langilearen miseriaz eta nekeziaz mintzatzean, ez du ezertarako aipatzen industrian diharduen langilearen egoera. Omisiozko jarraia hau gertatzen zait deigarri. Bilbon eta inguruetan, hor kokatzen baititu bere deskribapenak eta gogoetak, kalean dabilen edo bulegoan dagoen hiritarra soilki du gogo ematen, ez fabrikatik etxera akiturik datorren langilea, edo meatzetan ari dena.

HIRUGARREN ZATIA
ESTETIKA ETA LITERATURAREN GAINEAN

BEDERATZIGARREN ATALA

LITERATURA EPIKOAREN LEHENTASUNA

Durangoko lehen hitzaldiaren erdialdetik aurrera, euskararen kulturegintzarako nahiz literaturgintzarako gaitasunaz mintzatu ondoren, beste galdera honi erantzun nahi dio: euskaraz, lehen-lehenik eta bereziki, literaturaren zein alor jorratu behar da? Oso esanguratsua da gai hau hitzaldi honetan harrotzea, aurreko ataletan esanez natorren bezala, orduantxe agertzen baititu Orixek literaturari buruzko bere iritziak, “Eusko olerkitzaz” izeneko hitzaldian. Hemendik arituko natzaizu aipuak egiten.

Pedagogia jesuitikoaz jardutean, *Orixe eta bere garaia* idazlanean azaldutakoa jasoz, gogoratuko dut, funtsean, kultura grekoa da berori oinarritzen duena. Orixe jesuita ohiaren kasuan ere –eta hitzaldi hau eman zuenean artean jesuitagai zen–, greziar eredu izango da euskal literaturaren norabidea markatuko duena. Eta eredu horren barruan, guztien gainetik, genero epikoa. Herri batek bere nortasuna, Hegelek dioen bezala, poesia epikoaren bidez agertzen du lehendabizi. Gerra-kantua da lehenik loratzen dena herriaren ezpainetan. Euskalduna ez da basatia, baina ezta hiritar biguna ere. Euskalduna, oihaneko haritzaren antzera, mardula da, bizkorra eta gogorra. Ez zaio bururatzen Orixeri “margul, ziri, begipedun, illeluze, begiik azpikoz gora iraulita azkengabera begira” dagoen euskal idazlerik. Honela deskribatzen digu euskal idazlearen tipokera.

Euskal kulturak gairik aski ematen du genero hori lantzeko. Herri bakoitzak ditu bere ohiturak eta bere historia. Gure herriak ere baditu

bereak eta, Orixerekin esateko, “berezigoak, garbiagoak, erritarragoak beste askok baño”.

Beraz, nondik hasi euskal literatura lantzen? Arestian esan dugu: beste edonondik baino lehenago poesia epikotik, genero hau baita herriari gehien eragiten diona: “Nere aburua au da. Asieratik asi bear dela, ta emendik asi obe dugula. Erriiri zer gogora zaion, zerk atsegitten dion, zerk su ta gar eragiten dion ikertu bear dugu”. Kanpionek ohartarazten duenez, bizitza guztia gerran igaro duen herri honek ez du poesia epikorik idatzi. Orixeren ustez, euskalduna, ez odolzale, baikirik bakezale delako gertatzen da horrela. Hala ere, zilegi da, eta kome-nigarri, aspaldiko gertakariak gaitzat hartu eta beroriek poematan kantatzea. Haurrak ere ez dira ikaratzen aspaldiko ipuin zaharrak entzuten. Euskal historian hortxe dago, erdi-ahantzia, Karlomagnoaren ar-madakoek euskaldunen kontra Orreagan egindako bataila, gerra-kan-turako beste ezer baino aproposagoa: “Or daukegu, Europa guziik eus-kaldunei ebatsi arren, guk bear bezala eresi ez dugun Karlomanoren ausi-aldi ta azpiraldii”.

Euskal folklorea ere landu behar da, eta hemen kirola, bereziki. “Indarketa” gai maitea du Orixek. Euskal Pindaro bat aldarrikatzen du gurerako: “Pindaro dut nere aldezkari, ainbeste ta ainbeste indarlari ospetsu ta aipagarri egin dittulako”. Atletismoa, azken finean, mesedetako du espiritu-bizitzak. Horregatik aipatzen du diziplina erlijiosoan oso eza-guna den slogan hau: *Mens sana in corpore sano*. Euskal Herrian ez dira falta korrikalariak, haizkolariak, pilotariak, futbolariak, arraunlariak, harrijasotzaileak, eta abar. Orixek kirolari horiek goraiapatuko dituen euskal Pindaro baten irrika bizia du: “Zuen bat edo bat su ta gar dago-kela dirudit onozkero, ta laister atera littekela neurtizlari bikañen bat”.

Aholkuak saltzen ibili eta gero, bera hasten da exenplua ematen, azkenean bera adinako euskal Pindarorik ez baita agertuko euskal lite-raturaren zelaian. Poema dezente ditu kirolarien gainean egindakoak, jesuitagai izan zen garaian, batez ere. Gero ere bai beste batzuk, *Eus-kaldunak* poeman eta.

Nobelak ere egin daitezke, baina hauek baino askoz aurreagokoak ditugu kontakizun epikoak. Lehenagokoak dira gertakariak, ipuinak baino. Nobelagintzari, beraz, ez dio horrelako garrantzirik ematen. Oratoria bera ere horren aurretik pasatzen da.

Beharrezkoa da, halaber, zuberotarren bideari segida eman eta an-tzerkia lantzea, herria bera entzule eta ikusle izan dadin: “Atarira-bai,

gizonak, erri osoa bedi entzule ta ikusle; beree beza erriik ere; ala gure antze-izkera len esan dudanez erritarra, sendoa, bizkorra litteke”. Antzerkian jendeak, ez entzun ez ezik, ikusi ere egiten baitu, hemen zaindu behar da, inon zaintzekotan, ohituren eta portaeren garbitasuna. Orixeren eta, han atzean, pedagogia jesuitikoaren puritanismoari belarri-punta ikusten zaio: “Askotan gogorra zait, oraingo antze-izkera ustel, lotsa gaiztoko ori sar littekela gure erriin ere; antze-izketa ori izateee baño deus ez izateee obe litzaigu; antzeeren zale bear dugu baño oitura onen zalego, oraindiñokoan bezala. Bai, gaurko antze-izkera lizunak egitten dun kaltee ikaragarrii da, ta beste edozerk baño areago yardun-eresiik; au ez da irakurri bakarrik, entzun bakarrik egitten, baita ikusi ere yardule edo begitantzale nabarmen oriik begitandu oi dutena”. Antzerkia, baldin lizunkeriatic salbatzen bada, herri xumearentzat literatur janari goxoa izan liteke. Grezian hoge mila ikusletatik gora joaten omen ziren Dionisioko antzokira. Hemen aldean gaude. Hala ere, gure eskasian, merezi du hura suspertzeak.

HAMARGARREN ATALA

EUSKAL METRIKAREN GAINEAN

Azentua eta metrika, Orixe baitan, hezurra eta haragia bezala dira. Ezin bananduak. Horregatik, azentuaz jardutean ikusi ahal izan dugunez, sarritan arakutzen du neurtitzen arazoa; orobat, neurtitzen gaia jorratzera goazen honetan, azentuarena ez da geratuko han edo hemen aipatu gabe.

Euskal metrikaren gaia harrotzen den bakoitzean, lehen erreferentzi puntu bakarra –eta azkena ere hortxe nonbait–, Manuel Lekuonaren ekarpena izaten da, haren 1918ko hitzaldi hura, artean, berak egoki dioen bezala, inor gutxik ukitutako gaia baitzen. Inoiz aipatzen da Orixeren izena ere, baina ez, nik uste, behar adina. Lehen esana daukat Manuel Lekuonak Orixe maisutzat zeukala eta ez nago batere seguru lehen abiapuntuan nor noren zordunago den. Maisu ala ez, ezin uka daiteke Orixe ordu asko eskaini zizkiola –oso goiz hasita, gainera–, metrikaren gaiari. Ikerketa honen emaitzak, funtsezkoenak bederen, hitzaldien bidez hedatu zituen. Hasiera eman, oraindik jesuitagai zela, Durangon eman zion 1921eko irailaren 4tik 8ra bitartean Astarloaren gomutan ospatutako Euskalegunetan. Euskaltzaindiak deituta, bi ekinalditan, hurrenez hurren, bi gaiok irakurri zizkien entzuleei, hots: “Eusko olerkitzaz” eta “Eusko olerki neurritzaz”, beste atal batean aztertzen ditudanak. Handik sei urtera, 1927ko maiatzaren 1ean, oraingoan Euskal-Esnalea elkartearen gomitaz, beste hitzaldi entzutetsu bat eskaini zuen Donostiako Ateneo Guipuzcoano-ko hitzaldi-aretoan, “Oraindoñoko euskal-neurritzak” gaitzat hartuta. Euskaltzain izendatzean (1958), orobat, bertsoez mintzatuz bukatzen du

Leitzan egindako sarrera-hitzaldia. Baditu, bestalde, gai horren inguruan eta garai desberdinetan idatzitako artikulu batzuk ere bere lekuan aztertzen direnak.

Orixeren Durangoko hitzaldi haietan, euskarak abstrakziorako duen gaitasunaz eta literatura epikoari eman behar zaion lehenetasunaz goraki mintzatu bazen ere, gai nagusia izan, euskal metrikari buruzkoa izan zen, “Euskal olerki neurritzaz” izenburupean emana.

Gaiaren azalpenari ekin aurretik, hitzen atzetik zein kontzeptu dauden jakitea ezinbestekoa denez, ohar terminologiko batzuk egingo ditut, Joxe Azurmendik “Bertsolaritzaren estudioarako” lanean esan bezala, oraindik lexikoa bera finkatzeke baitago. “Bertso” hitza, adibidez, oso nahasia agertzen zaigu, honetaz diharduen autore bakoitzak bere erara ulertzen baitu. Orixerentzat “bertsoa” gaztelaniazko “verso”aren sinonimoa da, honekin estrofa bakoitzeko lerro bakoitza edo neurtitza ulertzen duelarik. Hitzaldikoan, gaztelaniazko “estrofa” adierazteko “ahapaldia” erabiltzen du. Bestalde, “puntua” eta errima berdintzen ditu. Baina azken honi buruz, nahasketa handi samarra dago. Metrikaz aritu diren gehientzat (Santi Onaindia, Luis Maria Mujikarentzat eta), Orixerentzat bezala, errima eta puntua gauza bera dira, baina badira bi horiek bereizten dituztenak ere. Manuel Lekuonak “puntu luzea” eta “puntu motxa” bereizten ditu eta errima eta puntuaren artean “ta” konjuntiboa ezartzen du. Juan Maria Lekuonak errima azken fonemen hoskidetasunarekin eta puntua erritmoarekin uztartzen ditu. Xabier Amurizarentzat, puntua oin batetik beste oin batera doana da.

Beraz, anbiguotasunak indarrean dirau. Ni, neure azalpen honetan, batik bat, arrazoi operatiboengatik, Jose Antonio Martijak “Bertsoen doinua” lanean darabilen terminologiari lotuko natzaio, sinonimoak honela sailkatuz: *estrofa* = bertsoa eta ahapaldia; *verso* = puntua edo estrofaren lerro bakoitza; *rima* = errima edo azken fonemen hoskidetasuna.

Orixe Durangoko bigarren hitzaldian mintzatzen da olerkian sartzten diren elementu desberdinez. Jarraiko hauek dira funtsezkoenak: azentua (*mintzara*), erritmoa (*igikera*), lerroa (*neurtizkera*), ahapaldia eta errima.

Azentuaz jardutean esana daukat olerkiak kantuarekin zerikusi zuzena duela Orixe baitan. Edozein hizkuntzatan irakurtzen ari garenean, berehala konturatzen gara hizkuntza horrek hitzak laburrak ala luzeak dituen, bokal eta kontsonante asko ala gutxi dituen, ahoskatzeko

errazak ala nekezak diren, eta abar. Horretarako aski da begiak erne edukitzea. Hitz horiek belarrientzat arinak eta mintxoak diren ala ez jakiteko, ordea, entzumenari kasu egin behar zaio, begiek ez baitezakete irakur liburuetan ñabardura hori adieraz lezakeen zeinu berezirik. Mintzoa, irakurri ez, entzun egiten da: “Mintzoa belarriendako egiña da, ta begiik eziñ ikusi dukete. Mintzo oro, izenak dionaz, miindun edo soñudun da”. Eta hizkuntza mintzatu orok, doinuaren aldetik begiratuta, badu bere berezitasuna. Hiru adibide ekartzen ditu: “Batzu-tan orde, latiñeen da grezieran edo, nausigo zen irauna edo aldia; itz-zati bat bestee baño astirogo, laisterrago mingatu oi zuten: Txina-eran da euskeran berriz goibei ori da garaiena; ta oraingo izkera berriitan indarra, *capitán, corazón, bárbaro*”. Zer bait garbi baldin badago Orixerengan, hauxe da, ziurki: belarria dela gidari poesiagintzan, belarria bitartekari nagusi Jainkoarekiko harreman isiletan.

Beraz, latin eta greziera klasikoetan hitz-zati edo silaba batzuk besteak baino laburragoak edo luzeagoak dira. Manuel Lekuonak, seguru asko, pasarte hau edukiko zuen gogoan Orixerekin zertan ez zetorren bat azaltzeko orduan: “Latiñari dagokion ortan azaldu zitzaidan ‘Orixé’, nere iritziaren aurka; bayetz, latiñak –latin klasikoak– luze ta laburtasun ori garbi-garbi ta oso-osorik zeukala bere silabaetan”. Lehen esana baitaukat euskarak, lurralde jakin batzuetan izan ezik, besteetan tonuera-azentua duela eta hizkuntza modernoek, aldiz, intentsitatezkoa, ez noa ordurorik ezer errepikatzerá. Baina ez nuke esan gabe utzi nahi Orixek euskararen azentu toniko horren baitan, zortzi azentu bereizten dituela: hiru “garai-mintzara” edo oxitonoan, beste hiru “barne-mintzara” edo baritonoan, eta beste bi “kako-mintzaran”, kakoa batzuetan gora (v) eta besteetan behera (^) begira egonki. Azentuaz jardutean azaldu bezala, Leitzako hitzaldikoan (1958) puntu hauxe bera areago sakondu baitzuen, oraingoz aski bekigu Orixek hemen dakartzan bi arauok oroitaraztea: bata da hiru azentu, gorantza nahiz beherantza, jarraian egitea ez dela gertatzen, eta bestea, azentu horiek tokiz alda daitezkeela hitz baten barruan.

Azentuarekin besondotik hartuta dator erritmoaren arazoa. Erritmoaz luze jardunak gaituzu euskal azentuari eskainitako atalean. Han hartutako hariari eutsiz, Orixek “El acento vasco” (1918) artikuluko “El período” azpiatalean, aldi erritmikoaz dakarrena jaso dut. Eta hemen funtsezkoena hauxe da: alegia, hasierako azentu nagusiaren eta bukaerakoaren artean gora eta behera egiten duten tonuen multzoak

osetzen duela esaldi erritmikoa eta multzo hori ezin zati daitekeen zer-bait dela. Multzo horretan oro da batua, oro lotua. Ez da ahaztekoa ere, aldi erritmiko horretan hasiera eta bukaerako azentuak direla garrantzitsuenak, hauek bakarrik direlako finkoak.

Durangoko hitzaldian, Van Ginneken, Uhlenbeck, Meillet, Kintiliano eta Zizeronen aipuak ekarriz, erritmorako ez dela nahitaezkoa intentsitatezko azentua pentsatzen du Orixek. Erritmoa, indarretik ez ezik, “iraunezkotik” nahiz “geldirotik” ere erator daiteke, indoeuropar hizkuntzetan gertatzen den bezala. Poesian erritmoa azentuaren arabera baitoa, nolakoa izan beharko lukeen galdetzen da. Orixeren ustez, ez greziera eta latinean bezala emana. Honela arrazoitzen du: “Neurtitz (verso = puntu) bakoitzerako gutienaz bear dire bi iru luze ta labur naste, bestela ezin esan ditteke izkuntzaren igikera ortan dagola. Bada-kigu mintzaera guzitan ba direla itzati bat edo beste luzexego, baño gureen ezdire naikorik, gure igikera berezi ori dela esateko”. J. M. Barandiaranen ipuin-testu bat aztertuz, hirurogei lerrotan zehar bat edo bi besterik ez ditu aurkitzen berenaz luzeagoak diren silabak, bokalak at utzita, noski: batez beste, 100 hitzetan, 5 silaba luzeagoak direnak.

Hizkuntza klasikoaren ereduak balio ez badu, nolako puntua hartu behar da, bada, poesia irakurria edo erreztatua izan dadin? Zortziko txikia ez bederen: “Obekiena irakurri naita ere ez dut arkitzen zortziko bat ere”. Adibidez, “Gernikako arbola - da bedekatua (7-6), euskaldunen artean - guziz maitatua” (7-6) poesia ezin da irakurri erdarakutsurik gabe. Konbentzimendu handirik gabe baina, bat hautatu beharra izanez gero, hiruakoa erritmoa proposatuko luke: “Irunako igikera ez dakit besteri baño neri etzait ain motel”. Zentzu honetan, Adema Zaldubiren ahapaldi hau atsegin gertatzen zaio:

“Gurutzean Jesus - odolez ustu zen (6-6),
odol bera dugu - Mezan ezagutzen (6-6);
bainan Mezan ez du - odolik ixurtzen (6-6),
pizturik ez baita - gehiago iltzen (6-6)”.

Ahapaldi hau irakurtzean, “ez dakit zuen belarriendako igikerarik ba dagon Adema Zaldubiren neurtitz orietan: nereendako bai”, esango du. Eta honela, oinarritzko erritmotzat hiruakoa hartuta, 6, 9, 12, 15 eta 18 puntukoa ere egin daiteke. Eta azkeneko hau ez litzateke izango latinezko “seineurridun” edo hexametroa baino luzeagoa, latinezko astiro-lasterrak berdin baitezake euskarazko hemezortzikoa. Orixek berak, Virgilioren *Georgikon*-etik itzulitako “Zaldia” poesian,

hamabikoa darabil, nolabait latindarren asklepiadeoari hurbiltzen zaiona. Hona hemen horko zatitxo bat:

“Guda-adarrak urru otsegindunean (12),
egonarririk ez, ta belarri-ikara (12),
zain-ikara dabil. Sudupilletako (12)
sua ba darabil sudurrots egiñez” (12).

Andima Ibinagabeitiari erritmo-mota hau gustagarri zaio eta aintzat har dezaten eskatzen die olerkarietara, ozenki aitortuz erritmoaren musikalitatea gozagarriago zaiola belarriarentzat errimaren kalaka aspergarria baino. Ahapaldia iruzkintzean, hauxe dio: “Latiña ikasten ari ginaanean, ederki oroitzen gera oraindik zeinen artua zeukaten gure irakasleek Bergili’ren zenbait exametrori darien adieraz-musika (*música descriptiva*) edo durundi berezia. Antxe oartu oi zuten zaldi-lauoinkaren azkazal-ots bizia, zaldi-sudurraren arnas-otsa, e. a. Zati ontan ain zuzen, lateraz baino nabarmenago ageri da adieraz-musika ori ‘Orixe’ren euskal bertsoetan”.

Binako eta hirunako erritmoaz osatutako puntua ere eder da, adibidez Manuel Lekuonaren ahapaldi “polit” honetan datorren hau:

“Aloña-mendian - agertu zifan (6-5)
eskarra darion - iturri (6-3)
or izan zaitugu - elorri-gañean (6-6)
naigabe artean - pozkarri” (6-3).

Manuel Lekuonaren “Orixe’ren metrika” artikuluan irakurtzen da Orixek Durangon emandako hitzaldian “oso ondo eratutzat aitortu (omen) zuela” bere himnoa. Hasiara gogoratzen ez delako, himnoaren bukaera bakarrik dakar, daktiliko eta espondeikoaren legera burutua dagoena:

“Zure / itzal / gogo- /a (7 silaba eta 4 oin)
itsaso- / -raño / ema- / -zu (8 silaba eta 4 oin)
Arantza- / -zu” (4 silaba eta bi oin).

Zalantzarik gabe, Orixeren gorako aipu hura da hemen Manuel Lekuonak dakarrena, Aloñamendin agertutako Ama Birjina Arantzazukoa baita. Orixek himno hori erritmoaren banako, binako eta hirunakoak duen edertasuna azpimarratzeko dakarren bitartean, egileak berak euskal metrika, ez silabetan, baizik eta oinetan finkatzen dela esateko ekartzen du. Erritmoa, beraz, ez du markatzen puntuaren luze-

laburrak, oin daktiliko eta espondaikoen multzoak baizik. Baina Orixek, hitzaldi honetan erritmoaz mintzatzen denean, ez du ezertarako aipatzen metrika latinoaren terminologiarik, ez oin espondaikorik ez daktilikorik, ez besterik. Bestalde, aipatutako poesia horretan, puntu edo bertsoaren etena edo zesura desberdinki egiten dute: Lekuonak oinen eta Orixek silaben arabera. Lehen esanda utzi dugu erritmoaren mugaketan ez diola segitzen ez grekoaren eta ez latinaren ereduari, nahiz norbaitek eredu klasikoa baliagarri dela uste izan. Eta norbait hori Manuel Lekuona izan bide daiteke, beronek espreski aitortua baita latinaren metrika hartzen duela oinarritzat: “Nik nere itzaldian (Gasteiz, 1918), Euskeraren metrikari latiñezko metrikaren jokaera erantsi nion. Latiñaren jokaera, ez erderarena: ots, euskeraz ez ditugula bertsuak silabaz neurtu bear, oñetaz baizik”. Nolanahi ere, Orixeren lexikoa ez da argia puntu honetan eta binako, hirunako, launako eta gehiagoko erritmoaz mintzatzen denean, ez dakigu zuzen erritmoa nola zatitzen duen, silaben arabera ala oinen arabera. Nik uste, eta orain Durangoko hitzaldian esandakoaz ari naiz, silaben arabera. Manuel Lekuonaren interpretazioa ontzat hartzen bada, ordea, oinen arauari segitzen diola esan beharko da: “Itzaldiaren asieran, gauzak errezago adierazteko, berak ere *silabak* aipatzen ditu; bañan neurtitza nola neurtu esan bear duanean, *oñetara* jotzen du bete-betean”.

Testu hori irakurri eta gero, Manuel Lekuonak Durangoko hitzaldia (1921) eta Donostiakoa (1927) nahasten dituela iruditzen zait. Geroago ikusiko dugun bezala, Donostiakoan bai, hemen hitzaldiaren bigarren partetik aurrera, bertsoen neurketa oin espondeiko eta daktilikoen legera egiten du eta ez, hasieran bezala, silaben arabera. Honetan zuzen dabil Manuel Lekuona. Beraz, honen iritziari segituz gero, Orixeren erritmo binakoan dipodia bat ikusi beharko litzateke, hirunakoan tripodia bat, launakoan tetrapodia bat, seinakoan hexapodia bat, eta horrela. Orixeren bertso-neurketa interpretatzeko orduan, Manuel Lekuona bere iritzi horretan seguru antzean sumatzen badut ere, nik ezin dut gainetik kendu zalantzaren mamua, zeren azken autore honek berak geroxeago, erritmoaren izaera zehaztean, bi gauza aipatzen baititu: batetik, erritmoa zerbait misteriotsua dela eta, bestetik, erritmoa zehazteko hitzaren silaba-izaera begiratu beharra dagoela. Sena, misteriotsua, hitzaren silaba-izaera, eta honelakoak, elementu aski subjektiboak ditugu, nahasiegiak, erritmoa non nola mugatu behar den erabaki ahal izateko. Orixek, iruditzen zaidanez, bitara jokatzen

du bertsoen neurketan: batzuetan silaben legera, bestectan oinen legera. Dena den, beude oharrok inork areago aztertu nahiko balitu.

Baina Manuel Lekuonarengandik gehiegi urrutiratu gabe, natorren Orixerengana. Honek, ez bakarrik hirunako erritmoa, launakoa ere onesten du, baldin, Lapurdiko kantu honetan ikus daitekeen bezala, bosnakoarekin nahasian badoa:

“Gizona non duk / zuurtzia (5-4)

Zer? ez dakik (4)

Ez dela deuse- / re bizia (5-4)

Kea baizik? (4)

Jorge Manriqueren koplara ere launakoa eta bosnako erritmoa nahasian ezarritzen zuten Orixek. Adibidetzat hor doakizu lehen ahalpaldia:

“Gogo lotia / esna zaite / erne begira (5-4-5)

bizitz au iges / doayela (5-4)

eriotza / ixil ixillik / datorrela (4-5-4).

Laister doaze / poz-aldia (5-4),

esnatzean / min dario (5-4),

norinai *lena*, / *oraina* baño (5-5)

obe dela / derizkio (4-4).

Lehen Virgilioren “Zaldia” rena hainbeste goraiatu zuen Andima Ibinagabeitiak ez du laudoriorik, ez bederen metrikaren aldetik, itzulpen honentzat. Biribiltasuna eta alde orotako betegintzarrea falta zaizkio. Hala dio “Orixek euskaratzalle” lanean: “Neurtzikera erren eta exkaxa arkitzen dut, izkera bikaiña erabiliarren; eta laisterka itzuliak dirudizkit aapaldi bitsuok”.

Azkenik, bosnako erritmo hutsak, adibidez Arrese Beitiari gerrakantuetarako egokienak iruditzen zitzaizkionak, Orixeri lotarako ezin hobeak iruditzen zaizkio, aspergarriak. Bosnako eta launako puntuak bale, baina bosnako hutsak, ez. Otxandiar poetaren elegiak zirela eta, orexarra eta oiartzuarra ez zetozen ados. Gasteizko bere hitzaldian, Arrese Beitiaren ari zela, “su verso de quince sílabas no es más que un hexapodio o hexámetro, distribuído en tres hemistiquios de a dos pies cada uno”, esan zuen M. Lekuonak. Baina Orixek –beti ere Manuel Lekuonaren ustez–, ez omen zion berdinketa hori ontzat hartu: “Ontan ere etzidan ontzat eman nere iritzia. Latiñezko *exametroak* bai omen-du beste muñarik; Arrese ta Beitia-ren *sei-oñekoak* ez duan

muñarik. Muin ori berak ondotoxo xurgatzen zuan nunbait Vergilio'ren exámetroetan. Ni, ordea, artean ez ortaraño eltzen. Ez bait-nintzan orduan –ta gero ere ez– bera bezain klasiko-xurgatzalle. Nik *exapodio* bat ikusten nuan, ez besterik, bai Vergilio'ren *exámetroan*, bai Arrese ta Beitia'ren sei-oñekoan. Berak, ordea, ikusten zuan exámetroan beste zer-edo-zer sakonagorik”. Oiartzuarrak ez baitu iturri zehatzik eskaintzen, argitasun gehiagorik ezean, ezinezkoa egiten da aipu hauen edukia egiaztatzea. Iruzkintzen ari garen Durangoko hitzaldi honetan bederen, ez dugu kausitu horrelakorik deus. Agian beste nonbait mintzatu ote zen puntu horretaz? Bakiteke. Nolanahi ere, Manuel Lekuonak bere “Orixe'ren metrika” artikuluan Orixerri buruzko aipuak egiten dituenean, ez du sekula iturririk aipatzen. Susmoa daukat buruz aritu zela. Eta buruz dabilenari, oroimenez ondo ibilita ere, zehaztasunak ihes egiten dio berak nahi baino urrutiago.

Ahapaldiaz eta errimaz oso labur mintzatzen da. Orri bat doi-doi.

Lehenengoari dagokionez, euskal poesiaren egiturak askea izan behar duela adierazteko, zintzarriaren irudia dakar. Zintzarriari atzaparez mingaina estutzen bazaio, ez du dilin-dalan egiten edo hots motela ateratzen du. Berebat, euskara gehiegi estutzen bada, galdu egingo da haren mintzoa. Hizkuntza ez itozteko aholkua ematen du Orixek: “Igikera bakarra, launakoa edo, estuegi ba da, erabilli naste, ta leunago ta euskerago ditteke”.

Errimari dagokionez, esan behar da, poesia ederra egiteko, ez duela horren beharrik ikusten. Askotan, gainera, onerako baino gehiagoko kalterako da: “... askotan bada estutu egiten du orrek ere; itzen yoskera gañezberatu ta nasi. Goraberako igikera oni yarra bear diogu; nai ta nai ez ari yabon beagu, neurtitzik egiñen ezpadugu ere”.

Oro har, hitzari askatasun handia ematen dio, ez bakarrik neurkeran, baita ahapaldian nahiz erriman ere, poesia neurtuak doinua izan dezan eta musika-gozamenean irakurria izan dadin.

Euskal-Esnalea elkarteak antolatuta, 1928ko azaroaren 25ean, igandearekin, Orixek beste hitzaldi sonatu bat eman zuen Donostiako Ateneo Guipuzcoano-n. Lehen aldiz ematen zen euskarazko hitzaldi bat areto horretan, ordurarte Diputazioko Salón de Novedades-en ematen baitziren. Euskal-Esnalea elkarteko Jose Eizagirre zuzendariak egin zion aurkezpena hizlariari. Orixe, une honetan, Bilboko *Euzkadi* egunkariko euskal orriaren zuzendari genuen, ordurako oso ezaguna euskal letretan. Gaia ere, halakoxea zen, imanez betea, jadanik

Durangoko bigarren hitzaldian harrotu zuena: “Oraindañoko euskal-neurtitzak”. Horregatik, hala dakar garaiko kronikak bederen, kalitatezko entzuleak bertaratu zitzaizkion: “El lindo local ofrecía un aspecto brillante, hallándose totalmente ocupado de auditorio compuesto de gentes de distintas procedencias. Por la calidad de los concurrentes nos es permitido afirmar, sin que en nuestras palabras exista asomo de lisonja, que el tema escogido por ‘Orixe’ para su conferencia había despertado el interés y la curiosidad de cuantos dedican sus afanes al estudio de nuestra lengua”. Kalitatezko entzule horien artean, ziurki, Lizardi aurkitzen zen eta, seguruenik, Manuel Lekuona ere bai, azken honek, arestian esan dudanez, hemen esanak jasotzen baititu bere “Orixe’ren metrika” artikuluan. Bestalde, 1928ko azaroaren 11ko *Euzkadi* egunkarian agertzen den hitzaldi horri buruzko laburpenari haren lumaren usaina hartzen diot. Dirudienez, hitzaldia jendearen gustokoa gertatu zen eta kultur ekintza horri festa-giroan eman zitzaion bukaera. *Euskal Esnalea* aldizkariko kronikak honako hau dakar: “La disertación fué muy interesante, y a pesar de su carácter técnico, el señor Ormaechea la hizo muy comprensible y amena... El público recibió cariñosamente a Orixe y le aplaudió mucho cuando terminó su conferencia. Para terminar la fiesta, el gran tenor don Ramón Laborda, acompañado al piano por don José de Olaizola, cantó *Goizian on* armonizada por el P. Donosti, una composición de Usandizaga, y alguna otra melodía más”.

Zer esan zuen, bada, gai hain teknikoan jendearen belarriak hain erne eduki zitzaizkion?

Gai hori zergatik hautatu duen zuzituzeko, aspalditxoan bertsoekin haserre dabilela esanez hasten du hitzaldia Orixek: “Zuetan bakarren batzuk ba dakite, joan daneko alditxo batean bertsoekin asarre-samar ibillia naizela, ta ez naizela oraindio osotara adiskidetu”. Haserre bertsoekin, baita berak egindakoekin ere, baina ez bertsoariekin. Euskal Herrian –Gipuzkoan, batez ere–, ugari diren bertsoegile adiskide horiek eraginda etortzen da Bilbotik Donostiara. Euskal metrikaren inguruan iluntasun handia dagoela eta, puntu hori argi dezala eskatzen diote. Orixek orain arte zer egin den eta aurrerantzean zer egin daitekeen esatera mugatuko da.

Bertso-neurria eta errima ez dira hizkuntzak berekin dakartzan zerbait. Nondik datorkio, bada, hizkuntza bati metrikarako gaitasuna? Batzuek uste izan dutenaren kontra, ez musikatik, dantzatik baizik:

“Dantzak bai, neurri estuagoa nai du, ta esango nuke, dantzaren etorkia dala lerroxka berdin ori”.

Urte batzuk lehenago idatzitako “De la música y letra popular al acento” izeneko artikuluan (1920) defendatzen zuen iritzi berberari eusten dio hemen ere, hots: euskarak azentu tonala edo melodikoa duela, eta ez erritmikoa. Zortzikoari, hain zuzen, izaera erritmikoaren akatsa egozten dio; aldiz, euskal kantu zaharretan melodia gregoria-noen eragina ikusten du. Euskal musika, funtsean, tonikoa da, melodikoa, ez erritmikoa. Honek ez du esan nahi, ordea, euskal poesiak erritmorik ez duenik. Badu eta, gainera, neurketarako funtsezko elementua da. Gertatzen dena da artikulua horretan ez duela esplikatzen erritmoak non duen bere sorburua. Hitzaldi honetan, bai. Arrazoa ere badakar: dantzak kantuak baino neurri estuagoa, zehatzagoa, eskatzen duela, alegia.

Nolanahi ere, ez da derrigorrezkoa bertsoak neurri berdin-berdina izatea, kantuetan nahiz kantatutako dantzetan, nahiz musika berbera izan, neurri desberdineko bertsoak ematen baitira. Musikan, silaba bakoitzari ezartzen zaizkion notak, segun eta hauek nolakoak diren, iraupen desberdinekoak dira, edo izan daitezke. Beltz batek, adibidez, bi kortxea balio ditu. Euskaraz, alderantziz gertatzen da, silaba bakoitza beti balio berekoa baita. Hau hala izanda, hemendik ondorioz ateratzen da euskarak ez duela biderik ematen, mintzaira greko-latinoan ohi bezala, bertsoak oinen legera neurtzeko.

Irizpidetzat hartzen bada –konbentzionalki, jakina–, euskarazko silaba bakoitzari nota jakin baten iraupena ematen zaiola, demagun kasurako kortxea batena, bi semikortxeak silaba baten balioa izango lukete; demagun, alderantziz, beltz baten balioa ezartzen diogula, orduan nota batean bi silaba sartuko lirakeke. Adierazitako argudioaren muina aipu honetan laburbiltzen da: “Itz-atal edo silaba bakoitzari bere nota ematen ba diogu ere, notak ez baitira iraute berdindunak –beltxak, esaterako, bi kakoxdun balio baititu– bai ordea euskeran itz-atalak, euskerazko itz-atal bakoitzari nota kakotxaren irautea ematen ba diogu, bi kakotx-erdik bi itz-atal bearko ditue”. Esandakoaren adibidetzat zortziko hau dakar:

“Gorroti’ko mutillak
Uitzi’n galdetzen
Lizar gazteak
no(la) diran aldatzen”.

Ahapaldi horretan, laugarren lerroa oker egina dago irakurtzeko, behar baino silaba bat (-la) gehiego duelako; baina ez kantatzeko, baldin “nola” horri nota beltzaren balioa –bi semikortxearena– ematen bazaio. Irizpide hau erabili zuen, adibidez, *Euskaldunak* poeman. Baina puntu honetara, adar anitzeko zuhaitza baita, beste nonbait itzuliko gara.

Bertsoa nola neurtu behar da irizpide horren argitan? Orixek neurketa-mota bikoitzaren proposamena aurreratzen du: “Ona emen lerro oiek neurtzeko bi bide: lelotarako edo kantatzeko egin diranena, ta esateko edo irakurtzeko egin diranena”.

Beraz, testu horretan datorrenez, euskal bertsoa bi eratara neur dezakegu, hots: a) musikaren erritmoan eta b) mintzairaren beraren erritmoan oinarrituz. Eta inoiz greko-latinoen antzeko oin metrikoak aplikatu ahal izatea gerta badadi –noiz edo noiz erritmo musikalean–, Orixeren hitzetan “bein beingoarekin, aldian aldikoarekin”, ondo datorrelako izango da, baina ez silabak, berez, oin metrikoen parekoak direlako. Hauxe dio Orixek puntu honi buruz hitzaldiaren bukaeran: “Dadukagun gañera gogoan, latiñaren silabak berenez beren irautea zutela, ta iraute ori etzitekela aldatu maiz, nik euskerazkoekin egin dedan bezala. Banaka batzutan bai, silabari bertsoan toki au edo ori gertatzen zitzaiolako, baño ez eskuarki edo geiengan. Gureak ordea iraute berdiña dute, Navarro Tomášek adierazi digun bezela. Beaz, euskeraz egiñik, dauden zortzikoak, bein beingoarekin, aldian aldikoarekin neurtu-bearrak dira”.

Bego hori argi, Manuel Lekuonaren testuan gertatzen den bezala, askorentzat izan baitaiteke nahasmendu-iturri. Orain ulertzen da Orixek zergatik aplikatzen duen bertsoen neurketan batzuetan silaben legea eta besteetan oinena, segun eta zertarako –kantatua ala irakurria izateko– den.

Orixek lehendik ere sarritan esana zeukan euskal bertso askok –zortzikoek, batik bat–, ez zutela errezitatuak izateko balio edota, errezitatzekotan, erdal airera egin beste erremediorik ez zegoela. Baina zehazki formulatu, orain formulatzen du lehen aldiz, irakurtzekoak eta kantatzekoak bereiziz. Eta bereizketa hau sagaratu geratuko da geroztikako idazkietan. Lelo bera errepikatuko du biziarte guztian.

Beraz, kantatzeko bertsoari doinuak ezartzen dio erritmoa; irakurtzekoari, aldiz, hizkuntza mintzatuari darion berezko doinua dago kio eta horri segitu behar dio neurriak. Bakoitzak ditu bere legeak eta,

bertsoak egiterakoan, oso kontuan hartu behar dira kantatuak ala erre-zizatuak izateko egiten diren.

Oro har, euskal bertsoetan, akats hauek kausitzen ditu: lehenik, belarrientzat –eta areago fina duenarentzat–, neurri batzuk aspergarriak eta lotarazleak gertatzen direla, besteak beste, zortziko nagusia; bigarrenik, batetik, erdarazko tonua erabiliz errezitatzen ditugula eta, bestetik, etenak hurbilegi erabiltzen direla. Teknika honek “doiñu zurruna” (*tono recto*) erabiltzea dakar ondorioz, tonu hila, astuna, gel-doa, odolik gabekoa.

Neurriak, libreena izanda ere, beti estekatu egiten baitu, doinua bete, neurririk gabeko prosan betetzen da ondoenik. Horregatik esan-go du Leitzako hitzaldian: “Guk ez genuke irakurri bear oraiñarte euskeraz egin dan bertsorik ia batere, izketa arrunta edo prosa bainon askoz musikaz urriago baitira”. Zerk egiten du, bada, irakurtzeko bertsoak kantatzekoak baino zurrunagoak eta aspergarriagoak gerta daitezen?

Lehen neurriarena aipatu du esanez kantatzeko bertsoetan silabak gehitu ala guxitu daitezkeela eta horretan ez legokeela inolako okerririk. Irakurtzekoetan, ordea, ez baita haizu lizentzia hori, bertsoa estuago bilakatzen da bere adierazpenean. Neurriaz aparte, bada kontuan hartu beharreko beste elementu bat ere. Erritmoak markatzen duen “tarte-neurri”ari dagokiona da hori. Ahapaldi bateko lerroa, adibidez, era desberdinez neur daiteke. Azken batean, erritmoaren esku dago hitz-errenkadan tarteak edo espazioak nola sailkatu erabakitzea: “Zer igike-ra, zer joera edo ritmo ematen zaion ikusi bear, eta lerroxxka-lagunak nola irakurri ditezken”. Hamabost silabako lerro batean, adibidez, hori hiru bosteko edota, bestela, bost hiruko tarte-neurriak jarri neurtze-rik badago kantatzeko bertsoetan; irakurtzekoetan, ordea, ez dago hainbesteko aukerarik neurrian eta arrazoi horregatik zurrunagoak egiten zaizkigu bertso hauek. Irakurtzeko bertsoaz ari dela, aipatutako arrazoiak azaldu eta gero, ondorio honetara iristen da: “Beaz ez diteke eskuarki alde batetara bestetara neurtu. Orregatik asperten naute ni: beti batean ari diralako, ta mintzoari ez dun zurruntasuna ta gogortasuna ematen diotelako. Kantatzeko onartzen ditut bai bertsoak, baina irakurtzeko gutartean oraiñarte egin diran geienak ez beintzat”.

Bakoitzak dituela bere legeak, esan da. Hara hor bi: bata neurri-rena, silaben kopuruan zehazten dena, eta bestea erritmoarena, neurri-tarteen banaketa egitera mugatzen dena. Biotan askozaz ere askatasun gutxiago ematen da irakurtzeko bertsoetan baino. Hortik dator bertso horiei darien zurruntasuna.

Azalpen teorikoa finkatuta utzi ondoren, Etxeparerengandik abiatuta, neurri-aukera aberatsenak eta, bidenabar, bertso onenak aztertzen ditu, zehazki Etxepare, Oihenarte eta Adema-Zaldubirenak: “Neurtitzetan aukerarik aundiena Oihenart’ek utzi zigun, ta ordu-dandik onera ez da ezer azaldu neurri kontu orretan. Dechepare’k, Oihenart’ek eta Adema-Zaldubi’k egin dituztenak irakurri ezker, gañerakoak ikusirik daudela esan diteke”. Zortziko txikia eta handia alde batera utzita, ez bide du aukera handirik atzematen bertso neur-tuetan.

Neurketan bi metodo darabiltza: hasieran silabikoa eta gero oinea, azterbidean aurrera egin ahala agertuko direnak. Erraztasunaren amoretan, bertso-neurri desberdinak honela sailkatuta emango ditut: ahapaldiko lerro guztietan silaba-kopuru berbera dutenak, kopuru desberdina dutenak eta zortzikoak.

Silaba-kopuru berekoak

Guztira zortzi bertso-neurri desberdin dakartza, eta hauetatik bi –seinakoak eta hamarnakoak– hamabinakoan eta bosnakoan sar dai-tezkeenak dira, hurrenez hurren. Erdiko etenaren gorabehera dute ele-mentu bereizgarri bakarra. Aukera, funtsean, seira jaisten da.

Bosnakoak. Hemen Oihenarteren bertso batzuk bakarrik eskain-tzen ditu. Hona hemen hasierako lerro batzuk:

“Nahiz ezpegi
gaiüz ilhargi
ni zure begi
ederrez argi”.

Zazpinakoak. Hau ere Oihenarterena, honela hasten dena:

“Aspaldian nabila
hor, heben, laztan bila,
eta orai nahi nola
batu naiz batekila”.

Zortzinakoak. Neurri honetako hiru bertso dira aipatzen ditue-nak. Bakoitzetik lehen ahapaldia transkribatuko dut.

Beotibarko kantua:

“Beotibar’ko zelaia
len illunak, gaur alaiak.
Beotibar’ko arkaitzetan
frantsesak gure oñetan”.

Oihenarterena:

“Aspaldi neure gogara
libertatez bizi izanik,
orai dakusat hartzara
neure burua atzemanik,
gotor eta gotor izatez
galdu nahi n’aien batez”.

Zaldubirena:

“Mehetegi’ko txakurra,
zangoz, errainez makhurra,
berga bat luze muthurra,
larrutik hurbil hezurra,
urthe guzia barurra,
zeren den etxe xuhurra”.

Zortzi silabako bertso hau olerkari ikasiek gutxi badarabilte ere, irakurtzeko ez zaio hain makala iruditzen Orixeri. Grazian Ademarena (Zaldubirena), beti goseak bizi eta, azkenean, janaldi batetik hil zen txakurraren bizitza kontatzen duen bertso hau, osorik irakurri zuen entzuleen gozagarri. Bai mamiz eta bai azalez biziki goratzen du, baina ez hainbeste beti errima berbera errepikatzea: txakurra, makhurra, muthurra, hezurra, eta abar. Haren iritziz, “biz batean ere naikoa zan berdin-bukatze ori, gure belarri gaizki oituentzat ere. Batere gabe litzake obeenik, baño ez genduke etsiko”. Neurketari dagokionez, hiru eratarra egin daiteke banaketa:

Mehe - tegi - ko txa - kurra
Mehete - giko - txaku - rra
Mehe - tegiko - txaku - rra.

Bederatzinakoak. Oihenartek erabiltzen duena da, baina ez asko:

“Zenbait leihorra zabal baita,
ehon erakutsiko zaita”.

Hamarnakoak. Honako bertso solte hau dakarkigu hemen argigarriztat:

“Arruitz-aldean izandu dela
amar ezkutu galdu ttuela
galduak galdu; galduen pena,
iñork yakite(a) nai etzuen”.

Guztiak hamarna silabakoak diren bertso hauek, ez onak ez txarrak, baizik hainbestekoak iruditzen zaizkio.

Hamaikanakoak. Hauek ez dira bereziak. Segun eta non ezartzen den etena, bosgarren ala seigarren silabaren ondoren, bostekora eta seirekora jotzen dute. Hemen ez dakar adibiderik.

Hamabinakoak. Hauek erdian dute etena. Oihenartek gutxi ditu. Zaldubik gehiago eta, Orixek esatera, ederrak. Hemen haren “Jesusen azken afaria” aipatzen du, Durangoko hitzaldian aztertutako berbera. Horko bertsoek oso arinak dirudite, baina lerro bakoitzean lau intentsitate-azentu bezala daramatzate. Horregatik, bertso hauek zaldien laugaina gogorarazten diote.

Silaba-kopuru desberdinekoak

Honelakoetan, nik atera ditudanak kontatuta, bada lehenengoan adina aukera.

1. *mota:* 7-5-7-5ekoa. Bigarren ingurutxo dugu honelakoa, irakurria izateko hainbestekoa dena:

“Aixta txikurrun txakun
enaiz eroa (bis)
xardin burua baiño
obe da oiloa” (bis).

2. *mota:* 8-7-8-7koa. Oihenartek lehenengoa eta hirugarrena lau silabatan banaturik dakarren bertso-neurri hau, Orixeri zortziko txikia baino arinagoa gertatzen zaio. Hona hemen ahapaldi bat:

“Margarita, - badaidita
othe huts zin egitez;
begiz hurdin - bezain gordin
zarela zure egitez?”.

3. *mota*: 8-8-8-10-8-8-8-8koa. Hau Elizanburuk erabilitakoa duzu poesia ezagun honetan:

“Ikhusten duzu goizean
argia hasten denean,
menditto baten gainean,
etxe ttipitto aintzin xuri bat,
lau haitz ondoren erdian,
xakur xuri bat athean,
ithurriño bat aldean:
han bizi naiz ni bakean”.

4. *mota*: 9-9-5-7-7-7koa. Oihenarterena da hau, Orixek bihurri samartzat jotzen duena:

1 Zenbat leihorra zabal baita
2 ehon erakutsiko zaita
3 anderaurenik
4 ez eta nesikatorik
5 ni naizen bezain
6 zori gaiztokorik.

Ahapaldi honetan hasten da oin greko-latinoaren legea aplikatzen, lerroak zenbakituz:

1 - vv / - / - - / - -
2 - vv / - - / - - / - -
3 - vv / - - /
4 - - / - - / - - / -
5 - vv / - - /
6 - - / - - / - - / -

Oin klasiko hauen irakurketa honela egiten du Orixek: espondeak (- -), alde-aldera, musikako bi beltzen iraupena du; daktiloak (- vv), halaber, beltz bat eta bi kortxearena. Hemen arazoa da oin horiek euskal bertsoan nola aplikatzen diren edota, berdin dena, lerroko hitzerrenkadan silabak multzotan eratzeko zein irizpide dauden. Ahapaldiko lerro bati noiz dagokio espondeo-joera eta noiz daktilo-joera? Hamarnako bertsoek zergatik hartzen dute daktilo-joera? Hauek dira, eta agian gehiago, Orixek esan, bai, baina esplikatuz, aplikatzen ez dituen gauzak.

5. *mota*: 9-4-9-4koa. Hau ere Aezkoan kantatzen dena da, jadanik Durangoko hitzaldikoan aipatua:

“Gizona ¿non duk zuhurtzia?
¿ez al dakik
ez dela deusese bizia
khea baizik?”.

6. *mota*: 12-12-8-8koa. Oihenarteren soneto bat da, asklepiade antzera egina:

“Ikus, yende honak, ikus ene pena,
altxatzen darote nik nuen maitena.
hurren uste nuenean
haur dakusat hurrunea”.

7. *mota*: 12-12-9-9koa. Orixeren ustez, “agitz poliki ari den” Lauaxetarena da honako hau:

“Oi lenengoz ama danan zoriona
¿Nork azaldu oso poz orren sakona?
¿Oi lenengoz bere semea
besoetan daukon andrea!”.

8. *mota*: 10-10-13-7-11-11koa. Elizanbururena bide den “Herriko besta biharamuna” poesia da molde honetan egina dagoena:

“Iragan besta biharamunian
berek dakiten xoko batian,
lau andre: hiru mutxurdin, bat alarguna,
jarririk itzalian,
harri txabal bat belhainen gainean,
hari ziren, hari ziren trukian”.

Sagardotegi-giroko bertsoak dira, Orixeren ustez euskaraz sekula egin diren bertsorik goxoenak. Behar den guztia dute berekin: mamia, gatza, aho-goxotasuna, arintasuna. Azken hau musikatik datorkie, nahiz irakurtzeko ere aski arinak diren. Orixek ahapaldi guztiak irakurtzen dizkie irakurleei.

Zortzikoak

Hemen zortziko nagusia eta zortziko txikia dauzkagu, neurriaren aldetik lehenengoa 10-8-10-8-10-8-10-8koa eta bigarrena, berriz, 7-6-7-6-7-6-7-6koa.

Nahiz eta hitzaldi-hasieran zortzikoa –nagusia, batez ere–, “lo-argari” dela esaten duen, bukaeran bertsorik ederrenak molde horretan eginda daudela aitortzen du, hala nola “Solferino”ko itsua” eta “Egun bereko alharguntsa” herri-kantuak. Arrese Beitia, Karmelo Etxegarai eta Emeterio Arresek ere neurri horretan bertso ederrik badute emanik. Badu beste abantaila bat ere neurri honek: kantatzeko denean, era askotara neur daitekeela, alegia. Bere osoan irakurri zien “Martin eta Kataliñ” senar-emazte ardozaleen zortziko txikia, adibidez, bost eratarara neurtu zuen berak bere azalpenean. Hala ere, neurri hori ez du onztat ematen: “Ez dut ukatuko; baño neurri ori, an erren, or trinkin, emen oztopo dabilela iduri zait. Izketak berak dakarrena bezelako mintzorik edo prosodiarik ez da”. Gerora ere, zahartzaroan, bere ehun poesia onenak hautatzeari ekin zionean hain zuzen, lehengoari eusten zion, betikoari: “Ba’dira, bai, zortziko ta olakoetan ere, erderatik diran arren, kopla biribilak, esaterako, zazpi ta seikoetan, baiñan irakurtzean oztopoa errez arkitzen da, itz-urrena prosan bezala ez baldin ba’dago. Bost eta bostekoak, ondo egiñik ba-daude, irakurri ditezke ia prosa bezala, musikaren gora-bera ta kako-makoak galtzen ez ditutela; baiñan etena beti bat izate orrek, belarria aspertzen du, ozenki esateko”.

Horregatik, bertsoak kantatzeko lehengo ohitura ederra galdua dugunez gero, irakurriak izateko bertsoetarako, greko-latinoen neurri logaedikoaren antzera, hizketari gehien hurbiltzen zaiona ederresten du. Molde hori lantzera bultzatzen ditu olerkari gazteak. Orixek berak, bere azkenaldiko poesietan ikus daitekeenez, lerro laburrak utzi eta prosara jo zuen: “Nik lerro laburrei agur egin diet, eta prosa bezala emango ditut. Ebangelio’tik artu ditudan gogorakizunok, irakurleak naierara irakurri betza: nai dunak prosa antzera, nai dunak bertso antzera. Bietara eskatu didate adiskide batzuk, eta horra bieri gustoa eman”. Kontseiluak eman bakarrik ez, bete ere betetzen ditu.

Errimari dagokionez, oraindik Durangon baino fermuago, guztiz kontra agertzen da. Errimaren kontra, baina edozein hizkuntzatan: “Euskeraz eta erderaz ere diran bertsorik ederrenak orrek itxusten ditu”. Aspaldiko greko-latinoek ez zuten horren beharrik. Gure belarriek ere ez luke haren beharrik sentitu behar. Bertso-neurria ona izanez gero, aski da horrekin. Hala ere, Orixek, nahiz teorian errimaren kontra egon, poesia gehienak errimarekin egin zituen. Eta gainera, Manuel Lekuonarekin esateko, errima oso zorrotz erabili zuen: “Zorrotz, ondo biribildua. Puntu ederra, ondo aukeratua, ez Bidasoaz

aruzko batzuek erabiltzen duten askatasunez, baizik-eta emengo alde-
tik Otaño'k eta Xenpelar'en eskolakoak erabiltzen duten bezain zeatz.
Aukerakoa; aukeratua; bañan ez murririx. Oparoa, oso oparoa". Az-
kenaldian, ordea, lehen esan bezala, errimaren kontuan askozaz ere
libreago jokatu zuen, poesia prosa-moldean ondu zuenean, batez ere.

Ez noa hemen Orixek bere poesietan erabilitako neurriak azter-
tzera. Puntu honi buruz hor daukazu, irakurle, Manuel Lekuonaren
"Orixeren metrika" artikulua jadanik aipatua eta Gilermo Etxebe-
rriaren "Orixeren estrofismoa". Nik eskaini dizudan Orixeren bertso-
gintzari buruzko teoriari lan horietan aurkituko diozu berak bere pra-
xian eman zion erantzuna.

Dena den, atal honen bukaerara iristean, zerbait argi geratu bazai-
gu buruan, Orixek belarriari ematen dion garrantzia da hori. Haren
poesia mistikoetan funtsezko zerbait da barne-mintzo hori. Orain,
azentua zein bertso-neurria aztertzean, ikasi dugu entzumena dela
gusto estetikoa oinarritzen duena. Azentua, neurria, erritmoa, kantua,
dantza, berak hainbeste maitatu eta landutako gaiok, azken finean,
belarriaren inguruan dabilzanak dira. Belarria da horiek oro barru-
barrutik koordinatzen dituenak. Gai horiek elkarren erreferentzian
aztertzen ez badira, Orixeren literatur estetika ezer gutxi ulertzeko
arrisku galanta dago. Bestalde, beti belarriari adi zegoelako, hain zu-
zen, horregatik du Orixeren prosak nahiz poesiak doinu berezia. Orain
hobeto ulertzen da zergatik idatzi zuen Koldo Mitxelenak, Orixeri
azken agurra egiterakoan, honako hau: "Orixek-z geroztik doinu berri
batean ikasi du mintzatzen euskal-prosak, atsegin bazaigu eta ezpazai-
gu". Egia da, Orixerekin aro berri bat irekitzen da euskal literaturan.
Errenteriako hizkuntzalariaren begi zoliak erdiz erdi asmatu zuen.

HAMAIKAGARREN ATALA

PENTSAMENDU FILOSOFIKOA

Norberak, mundu honetan ibiltzeko, uneoro norabidea markatuz doakion argi gidaria behar izaten du. Anomia da, hain zuzen ere, gizarte batek eduki dezakeen gaixotasunik larrienetako bat, gizabanakoa norakorik gabe galduta geratzen baita. Gizabanakoari gizartetik bertatik emanak datozkio bizi-arau horiek, hezkuntzaren bidez, batez ere. Baina belaunez belaun datorkigun mundu-ikuspegi horren baitan –balioen munduan, alegia–, aldaketak sortzen direnean, orduan sortzen da pentsamenduaren krisia. Orduan hasten zara bizitzaren nondikoaz, norakoaz eta zergatikoaz pentsatzen. Zeure pentsamenduaren sustrai filosofiko-teologikoetara joaten zara sendagai bila. Literaturaren xedea, hain zuzen, hortxe finkatzen du Orixek. Honen baitan pentsamendu teologikoa, filosofikoa eta literarioa armazoi bat-beraren piezak besterik ez dira, bakarka hartuta zentzurik ez dutenak edota, zuzenago esanda, gogoeta teologikoaren erreferentziatik aparte sostengurik gabe geratzen direnak.

Ikuspegi eklektikoa

Orixeren pentsamendu filosofiko-teologikoa ezagutzeko, biziro egokiak dira Wilham Vienneot adiskide itsuari, 1941eko urtarriletik maiatzera bitartean, Saubiondik Donibane Lohizunera egin zizkion gutunak, frantsesez eta makinaz idatzita daudenak. Sei dira, eta haueetatik bost aski luzeak dituzu. Seguru asko, urte bereko uztailean hil zen

jaun adiskide hori, bere arrebari doluminak igorrriz idazten baitio hil honen 12an. Ez dakit adiskidantzak noiz eta nola egin zituzten. Frantses-irakasle izan zuelako, agian? Baliteke, gutun batzuk “votre élève” agurrarekin bukatzen baititu. Antza, bibliografi sailean aditua zen.

Orixe, garai honetan, Francoren atzaparretatik ihes eginda, Landetan dagoen Saubion izeneko herri txikian aurkitzen da, aspaldiko lagun zaharra duen Martin Oiartzabal apaizaren ondoan. Hango bakardadean, pentsamenduaren bilaketan bere baitan arras bilduta, begi fisikoak itzalita zeuzkan hari ispirituarenak ireki nahi dizkio 1941eko urtarilaren 1eko lehen gutun honetan: “Si je puisse restituer votre vue je ne manquerais pas d’en faire, bien sûr; mais puisqu’il m’est impossible, je profiterai le recours á une faculté très supérieur à la vue que vous possédez, la vue de l’esprit, c’est-à-dire, la pensée. Celle-ci est notre meilleure compagnie tandis que nous en conservons l’usage; celle-ci est ce qui plus nous peut soulager dans nos tribulations de cette vie”.

Pentsamendua da bizitza osoa argitzen duena. Baina ez edozein, argietan miresgarriena baizik, arteak eta zientziak oro argiagotzen dituen, alegia. Horregatik dakar maiuskularekin idatzita. Eta horren bilaketan barneratzeko, otoitzean bezala, bakartasuna behar da. Ispiritu-bizitzak barne-patxada eskatzen du, lasaitasuna. Egoera pribilegiatu hori bizitzeko aukera, 1941eko martxoaren 5eko gutunean jakinarazten dionez, Orexako egonaldi eztiak eman zion gerraurrean: “Je regrette bien les cinq années antérieures à notre guerre civile qui n’est pas finie. Je suis bien ici en compagnie de Mr. Oiartzabal, mon ami de toute la vie; je ne desire rien pour ainsi dire de ce que bien de gens ont besoin aujourd’hui; mais je regrette beaucoup, même ici, dans ce petit village isolé des Landes, l’isolement d’autrefois; la solitude de l’avant-guerre et la solitude aussi du 1938 quand j’ai été bien caché chez Franco, et assez allumé par la Pensée. Mais depuis ces jours-là que eclipse j’ai subi! On a besoin de faire quelque chose pour manger, pour s’acquitter envers les amis, et non n’a pas la habitude de regarder toujours à travers d’eux, qui sont aussi réverbérations de la Pensée, de la grande source de lumière qui nous éclaire tous... Surtout pendant les trois années dernières de l’avant guerre j’étais tous les jours et toujours sous le regard spécial de ce foyer lumineux vers lequel, á mon tour, je dirigeais ma vue. Je n’avais pour ainsi dire aucune autre occupation que me promener par les bois, tout seul, en compagnie de ma pensée, laquelle j’observais y réverbérer d’une façon inusitée”.

Baina zer da Pentsamendu hori? Platon eta Aristoteles maisuek irakatsi diotenaren sintesi bat, *Logos* deitua. Aristotelesek onartzen du badela goi-izaki bat, lehenengoa eta izaki adimendun nahiz adimengabeen sorburu dena. Platonek, orobat, beregaineko adimen batez dihardu. Adimen horixe da, hain zuzen, *Logos* edo Pentsamendua, jainkozkoa eta pertsonala dena. Ez dago pentsalaririk gabeko pentsamendurik.

Platon eta Aristoteles dituzu, bada, Orixek gogoko dituen bi izarak, oraindik argi eginez segitzen dutenak. Hauen aurrean jarrera eklektikoa hartuz, bakoitzarenetik egokien datorkiona aukeratzen du: “une philosophie dosée de l'idéalisme de Platon et du dogmatisme d'Aristote”. Baina bere aukera filosofiko honetan, begikoago du Platon Aristoteles baino, haren beregaineko ideien teoria hartzen baitu erdutat lehen gutunean: “Même étant donnée la difficulté de comprendre aujourd'hui la théorie des idées subsistantes de Platon, elle a été mal comprise à mon avis. Le just Platon, un des grands amis que j'ai fait dans les livres, grâce à sa grande lumière intellectuelle, non seulement a déduit que cette Pensée existe, mais il s'est aussi dédié et livré à la plus grande intimité ou familiarité avec elle, comme on peut déduire de quelques endroits de ses dialogues... Elle (la Pensée) a été la fin de ses recherches les plus sublimes. Il nous a parlé de la Théorie ou contemplation, laquelle peut devenir le sujet de quelques mes lettres”.

Segidan, gutun berean, haur baten xalotasunez aitortuko dio Pentsamendua izan dela bere bizitzako lagunik onena, zoritxar handietan, batez ere, eta nahiago duela jakintsu edo pentsalari harroputz eta hipokritekin baino Pentsamenduarekin berarekin harreman zuzenean egon. Harreman zuzeneko eta pertsonala nahi du Pentsamenduarekin: “Or, je n'ai pas trouvé, je ne crois ni possible de trouver un autre moyen meilleur que la communication directe avec cette Pensée illimitée, infinie, parfaitement personnelle, qui subsiste par soi-même. C'est le remède qu'a toujours cherché l'humanité, à tâtons ou sciemment”.

Paganoek bi bide erabili izan dituzte eskuraezinezko Pentsamendu horretara heltzeko: ikusten dena eta ikusten ez dena. Biak gertatu dira okerrekoak. Lehen bideak antropomorfismoa ekarri du, materialismoa; bigarrenak, berriz, espiritualitate abstraktua, edukirik gabekoa. Autore paganoen antzera, kristau-mistikan ere heterodoxoak iruditzen zaizkion bi jarrera aurkitzen ditu: “L'orthodoxie de la première voie est celle représentée par l'Areopagite et son école jusqu'à Saint Jean de la Croix, et l'orthodoxie de la seconde celle représentée par Saint Agustin,

Saint Bernard, par l'école franciscaine jusqu'à Sainte Thérèse. La première a essayé de chercher Dieu dans son même être invisible, et la seconde dans le Jésus-Christ. Chez les catholiques il y a des auteurs qui ont été condamnés par l'Eglise à cause de leur mauvaise conception de ces deux voies". Orixek uste du erdiko bidea dela ziurrena, baina berak ere ez ditu batere garbi ikusten bien arteko mugak: "Même les Apôtres ont été en certe façon advertis par le même Christ de ne pas être trop attachés à son Humanité. Ce que prouve bien que le terme moyen dans quelconque théorie de la Pensée n'est pas facile".

Aipu horretan ikus daitekeenez, Orixek ez daki bere hirugarren bide horretan Kristoren gizatasuna zein neurritan izan daitekeen bitartekari Jainkoaganako bidean. *Quito'n arrebarekin*-en, aldiz, kietisten arazoaz diharduela, Haren gizatasunak otoiitzean betetzen duen funtsezko zeregina azpimarratzen du. Nabaria da, bada, bitarte horretan egiten duen eboluzioa.

Era berean, giza ahalmenei dagokienez, maila mistikoan Pentsamenduarekin harremanetan jartzeko orduan, bi bide daudela dio: irudimenarena eta adimenarena. Mistikoen ekintzarik garaienak ez dira irudimenaren eta zentzuen bidetik zalapartaka datozenak, espirituari lasaitasuna eta gozotasuna dakarzkietenak baizik. Hala gertatzen da, zeren Pentsamendua, izanik den bezala espiritu hutsa, zentzuen bitartekorik gabe jartzen baita harremanetan espirituarekin. Espirituak jasaten dituen asaldatzeak, sarritan, gorputzari darion ahuleziatik eratorriak dituzu. Horregatik, erne ibili behar da nahasketarako bide eman dezakeen irudimenarekin, eta ondo zaindu adimena, gure gidaria, gizakiak duen ahalmenik bikainena: "Il faut donc bien employer notre faculté la plus excellente, l'intelligence, qui n'est pas autre chose que certaine réverbération de la Pensée. L'imagination dans ce cas-là ne fait que troubler, empêcher notre pensée claire, en s'interposant entre la Pensée originaire et notre pensée empruntée. L'isolement du monde extérieur, la renonciation à l'imagination nous ameneront au contraire à la vraie vie intérieur, la vie toute spirituelle de pensée à Pensée". Dena den, gerora ere, gogoeta berriak eginez segituko du, espiritu hori, arima, zer den galdezka. Galdezka ari da Orixek *Jainkoaren billa*-n, neke-minetan, garai batean San Agustin bezala: "Gauza bera gertatzen zaigu, esan degunez, Jainkoa zer dan eta nola dan asten ba'gera. Jainkoa, gu Beraren arraza izanik ere, gu bañon areago da milla bider, eta nola asmatu zer dan? San Agustini'ek ere neke aundia zun gogo utsa

edo ispiritua zer dan asmatzen. Guri ere berori gertatzen zaigu. Gorpuzkeko zentzuak sartzen diguten okerra zuzentzen jardun bear degu beti”.

Irudimenarekin bezala, bihotzarekin ere oso kontuz ibili behar da, hau borondatearen lekua hartzeko irrikatzen egoten baita. Hala ere, zentzuez eta espirituz horniturik gaudenez gero, komeni da noizbehinka gure ahalmenak oro, barrukoak nahiz kanpokoak, erabiltzea. Erabili bai, baina borondate ispiritualaren arabera jokatzu, sentimentalismoan lar erori gabe, alegia. Giza ahalmen desberdinen artean oreka harmoniatsua bilatu behar da. Zentzu honetan, XII. mendeko Hugo eta Rikardo teologoak, Parisko San Biktorko Abadiako eskolakoak, zaizkio aipagarrien, horiek baitira, nahiz eta alegoriez gehiegi baliatu izan, platonismoa eta aristotelismoa ondoenik uztartu zituztenak pentsamendu hutsaren bilaketan. Aipatutako autore horien atzean, espreski esanda ez badator ere, San Agustin dago, haiek honengandik jaso baitzuten beren herentzia intelektuala. Greziar filosofian Platon eta Aristoteles, Erdi Aroan Hugo eta Rikardo, hara hor Orixeren pentsamendu filosofiko-teologikoaren iturrian dauden lau autoreak. Aukera guztiz klasikoa, noski, berak egiten duena. Ondoan, kontrastea areago nabarmenduz, Bergson modernoari buruz zer pentsatzen duen azaltzen dio Wilham Vienne 181eko urtarrilaren 27ko gutunean: “Dans ce temps-là les sciences pratiques étaient arriérées, c'est vrai, mais cette philosophie spéculative et pratique de laquelle je vous parle, était alors beaucoup plus en avance que l'on suppose aujourd'hui. À l'occasion de la mort de Mr. Henri Bergson, j'ai lu sa Pensée et ses autres ouvrages; mais, malgré son style merveilleux, il a vecu, à mon avis, 25 siècles en retard, parce qu'il a été déjà réfuté par Aristote”.

Gutun honetan, hirugarren bidea hautatzen duela esan du, baina bide hori zer-nolakoa den zehazteko zailtasunak daudela gaineratuz, gehiagoko azalpenik gabe geratzen da. Hurrengo gutunean, berriro Hugorengana itzuli eta beronen ikuspegia bereganatuz, Pentsamendura hurbiltzeko ahaleginean hiru maila jartzen ditu. Pentsamendua edo Hitza, guk barruan sumatzen duguna, begi fisikoek ikusten duten izadian ageri zaigu. Behar bezala irakurtzen jakinez gero, txundigarria da izadiak eskaintzen digun ikuskaria. Honek osatzen du lehen maila. Bigarrena, Kristoren gizonegiteak dakarrena da. Lehen, Kristoren gizatasunetik jainkotasunerako jauzia nola gertatzen den azaltzea zail egiten dela esan badigu, oraingoan ez du ezer gehiago eransten. Beraz, maila honi dagokiona zehaztu gabe geratzen da. Hirugarrena, Eukaristia da,

bigarrenaren jarraipen gisa ulertu behar dena. Pentsamendua edo Jainkoaren Hitzza, izatez berbera dena, era desberdinean agertzen zaio kristau-pentsamenduari, hots, hiru maila hauetan: izadian, gizatasunean eta Eukaristian. Hemendik doa berak hartzen duen hirugarren bidea, 1941eko martxoaren 5eko gutunean azaltzen duena: ‘J’y trouve la théorie des théories au double sens du mot. Pour ceux qui ont cherché la Pensée dans l’anthropomorphisme ou dans les abstractions trop subtiles j’ai trouvé ici ma voie moyenne, pas dangereuse pour mon imagination. Le Corps du Christ est de telle façon y caché, qu’il paraît tout spiritualisé. Le regard de la théorie ou contemplation devient ici le plus délicat. C’est dans cette croyance qu’on comprend bien toutes les théoriciens et les pratiques de la plus sublime contemplation. Je suis arrivé à croire que dans cette solitude et dans cette compagnie les amis de la Pensée ont passé le temps perdu sans aucune interruption de leur regard envers la Pensée”.

Salomonek eta Joan Gurutzekoak Pentsamenduari “argi” deitzen diote. Egoki deitu ere, zeren argiari esker ikusten baititugu gauza argituak. Eguzkiak zokorik ezkutuena argitzen duen bezala, beregaineko Pentsamendu pertsonalak gure arrazoimenaren argia pizten du, gure kontzeptuak sortzen ditu. Pentsamenduari darion argia itzaliko balitz, gure adimenak ez luke deus ikusiko. Eguzkia desagertuko balitz, ilargia ikusiko ez litzatekeen bezala. Gure pentsamendu guztien sorburuan dagoelalo, horrexegatik geuretu behar dugu Pentsamendua edo Jainkoaren Hitz hori, geureganatu bakartasunean, eta hari so egonez egiazki maitatu.

Argia bera, ordea, ez dugu ikusten, irudimenez ez bada. Horregatik, gauza argituak baino gehiago argia bera maitatu behar da. Hala idazten dio Viennot adiskideari 1941eko ekainaren 8ko gutunean: “Nous devons aimer la lumière plutôt que les objets illuminés, et en réalité autant nous aimons les objets illuminés qu’ils reflètent la lumière, cette lumière comme cachée qui se repand sur les objets. Or nous devons aimer la grande Pensée plutôt que ses reflets en nous, plutôt que nos pensées et que notre propre raison”. Behin hona helduz gero, *Quiton arrebarekin irakurriz* liburuan xeheki azalduta dauzkadanak gogorarazi behar ditut: lehenik, Orixek Jainkoaren Hitzza entzutean oinarrizten duela, hor gehienbat, bere poesia mistikoa. Berak askotan errepikatzen duen esaera baita *fides ex auditu* delakoa, zentzuetan belarria dugula nagusi eta Hitzza hortik bideratzen zaigula zuzenenik; biga-

rrenik, argiaren irudia haren poesia askotan datorren elementua dela; hirugarrenik, otoitzerako baldintzen artean, bakartasuna ezinbestekotzat jotzen duela. Elementuok Pentsamenduaren kontenplazioan sartzen dira eta horren esanera daude jarriak.

Orixek maiuskularekin dakarren *Pensée* hori, greziar maisu paganoen *Logos* kristautu hori, azken batean, Jainkoaren Hitza besterik ez da, Kristo baitan haragi bihurtua. Honela, filosofia, zentzu teologiko-mistikoan ulertuta, ez da teoria baten adierazpen huts, bizitzarako baliagarri den zerbait baizik, bizipen bat. Esperientzia mistikoaren gantzuz igurtzitako mezua da, 1941eko urtarrilaren 1eko gutun aipatuan adierazi bezala, Orixek bere Euskal Herri bihotzakoari eskaini nahi dion literatur oparia, jadanik bukatuxe daukana: “Je ne sais pas si je pourrai finir la rédaction de ma Pensée que j’ai commencée et presque finie chez Franco; mais personnellement cela ne m’intéresse grande chose parce que je préfère vivre la philosophie à écrire la philosophie. C’est uniquement à l’égard de mon peuple basque que je voudrais lui donner la pensée philosophique utile que j’ai trouvée chez les philosophes de tout le monde”. Aipu honetan iragartzen duen obra hori, nik uste, Orixen gogo eman eta Amerikan burutu zuen hura izan daiteke: *Quiton arrebarekin* lan mistikoa, alegia. Ziur dakigunez, lan hori zeukan begiko ninia baino begikoago. Obra honetan gauzatzen du, bada, Pentsamenduari buruzko bere pentsamendu-muina.

Azterbide eskolastikoa

Orixek, Pentsamenduari buruzko gogoetan, Platon eta Aristoteles filosofoekin hasten du bere ibilbidea eta Erdi Aroko Hugo eta Rikardo teologoekin bukatzen. Filosofiatik teologiarako jauzi hori nola egiten duen? Galdera honi erantzuten saiatuko naiz, hementxe baitago arazoaren gakoa.

Ezaguna da San Tomas Aquinokoak aristotelismoa eta kristautasuna, hots, filosofia eta teologia, sintesi egoki batean urtu zituela eta, honela, eskolastikak greziar zibilizazioaren zati bat –kultura logikoa, alegia– soilki berreskuratutua zuela. Arrazoiaren argia fedearen esanetara jarrita, logika aristotelikoa fedezko dogmak sistematizatzeke erabiltzen da, horretarako bereizketa mehar-meharrak eginez. San Anselmoren latinezko formula honek laburbiltzen du ondoenik arrazoiketaren bidean

aplikatzen den metodoa: *credo ut intelligam*. Printzipio honen arabera esplikatzen dira, adibidez, Hirutasun Santuaren misterioa eta Eukaristiakoa. Prozedura honetan arrazoia ez da ukatzen, fedearen esanera jar-tzen baizik, berak bere ahapaldi eder honetan aitortzen duen bezala:

“Agur, fede, lurrean
nuen itsu-mutil;
zuri esker leizean
ez nun egin amil.
Itzak beude, Jaunagan
naimena zadan bil,
Au baita Argi betiko:
ontan nadin murgil”.

Orixek Erdi Aroko eskolastikoen azterbide hori beretzen du, as-kotan baitio arrazoimena federik gabe itsua dela. Hala, adibidez, *Jain-koaren billa* liburuan: “Aurrenik, Jainkoa ba-dala siñistea da, bai. Jain-koagana urbildu nai dunari, ba-dala jakitea komeni zaio. Liburu ontan erabiliko ditugun bi bide auetan, siñismena da oiñarria bai otoitzetik landa, bai otoitzean ere”. Dena den, filosofiaz eta teologiaz teorizatzen jardutea baino gehiago, horiek aztergaitzat gogo ematea baino areago, kristautasuna sakon eta jator bizitzea interesatzen zaio. Teologian ere, filosofian bezala, bizipena teoriaren aurretik doa. Horregatik, Ken-pisekin batera, “naiago det damu izan, damua zer dan itzez mugatzen jakin baño (...), naiago det otoitz aundiaren jabe izan, otoitz ori zer dan esaten jakin baño”. Otoitza zer den jakitea baino inportanteagoa da otoitz egitea. Hauxe du ardura nagusia.

Bestalde, misterioak oro fedearen argitan arrazoiaren bidez ere esplika zitezkeela uste zuten autoreengandik aldenduz, garbi esango du badirela giza adimenean inola ere kabitzen ez diren gauzak, baita arra-zoiaz kanpo daudenak ere, eta alferrikakoa dela horien galdezka urdu-ritasunez jardutea. Ideia honen inguruan dabiltzan aipuak dezente aurkituko dituzu *Jainkoaren billa* liburuan. Nola arrazoitzen duen ikusteko, aski izango duzu honako hau irakurtzea iturri berean: “Jakinzale edo pilosopu zerala iruditzen al zaizu jarduera orrekin? Ezi-ñaren aurrean ez dago aurrera pasa besterik. Zer esango zenduke âri adardun bat tunpaka ikusiko ba'zendu Gibraltar'ko arkaitza berdindu naiean? Olako antzekoa da gaurko zenbait jakintzaleen jarduera. Ba-dira auziak, asieratik ezin garbituzkoak ezagutzen ditugunak. Zertako

asi oiekin buru-ausketan”. Badira, beraz, egiak auzitan jartzea ere me-rezi ez dutenak eta, adimen-ekonomiaren amoretan, aldez aurretik halakotzat onartu behar direnak.

Metodo eskolastikoa aldez aplikatzen du, aldez ez. Fedezko egiak, batetik, besterik gabe onartu behar ditugu, datozen lekutik datozelako; bestetik, misteriozkoak ez diren baina arrazoimena gainditzen duten beste zenbait jakingairen azalpen bila abiatzea ez da batere onuragarri gizakiarentzat, jokabide honek bakea ez, baizik urduritasuna ekartzen baitio. Lehen kasuan sinestu egin behar da; bigarrengoan, onartu. Bietan, azken batean, sinestu egin behar du kristauak, Aitaren eskuak ziurtatzen baitio ulertu ezin duenaren egia: “Zer uste dezu, gaztedi maitea, besteei etzaizkiela etortzen ezinegona, kezka, duda, tentazioa? Anima zintzoak, zintzoago ta areago, santuak santuago ta areago, oiek izaten ditute aundienak, eta Aitak eskutik edukiz pakeatzen ditu”.

Fedearen eta garaian garaiko kultur ekarpenen artean derrigorrezko kontraesanik badagoenez eztabaidatzen jarduteari jokabide honi antzua baiteritzot, arazo horri erantzuteko eskolastikak darabilen metodoa zein neurritan den onargarri galdetzera mugatuko gara. Kultura modernoak, Ilustrazioaz geroztik, filosofiaren teologiarekiko menpekotasuna kritikatzan du, batik bat. Filosofia teologiaren neskame izan gabe, bakoitzak du bere azterbide autonomo eta berezia izan behar du, hots: teologiak berea, zientziak berea. Katolikoan artean, Teologia Berriarekin batera, 1940ko hamarkadan hasten den planteamendu hau, ordea, ofizialki Vatikanoko II. Kontzilioan sagaratuko da. Orixe hil eta gero, beraz. Baina bitarte horretan, bere ahotsa gutxiengo heterodoxo horien kontra amorrazio biziz altxatuz, modernismoarekin etengabeko borroka-giroan biziko da. Esandakoaren froga garbia da, giza espeziearen eboluzioari buruzko teoria berriak zirela eta, Donibane Lohizunen jasan zuen purgatorio latza, *Quito'n arrebarekin*-en deskribatzen dena. Orixe, esan dezagun inolako lotsarik gabe, osoki eskema eskolastikoaren arabera funtzionatzen duen pentsalaria izan da. Errotik klasikoa eta kontserbadorea, Euskal Herriko bere garaiko kristau intelektual gehienak bezala.

HAMABIGARREN ATALA

ESTETIKA KLASIKOAREN OINARRIAK

Gogoz mamitutako diziplina desberdinen alderdi teorikoa baino gehiago interesatzen zitzaion alderdi praktikoa. Filosofia bizitzeko nahi zuen. Berdin teologia mistikoa. Eta estetika? Baita ere. Horretarako nagusiki, Orixe, den handiena idazle eta sortzaile bezala baita, izan. Hala ere, eredu estetikoaren bila, filosofian ez bezala saiatu zen arteari eta ederrari buruzko gogoetak hariltzen “Eder eta antze” atalean: “Estetikaz egin diran lanik zentzuzkoenen laburtzapen bat egitea gogoak eman zidan aurrena, baña alde batera gai ugarietara ta bestera liburutik ondoan ez, ederraz ta antzeaz naiz mintzo, oietaz diran aburutik artzekoenak gogora ekarriz”.

Abisu hori emanaz hasten da estetikari buruzko bere saioa argitaratzen *Euzko-Gogoia* aldizkarian, zatika 9. zenbakitik aurrera, 1950ean. Estetika eta, honen barruan, literatura zuen, betidanik izan ere, bere lanbide gogozkoena eta eremu horretan nolako aburuak zebiltzan jakiteke hartaz eta honetaz iritziak salduz jarduteari ez zeritzon egoki. Orixeko “Gogortzanea” baserriko bere liburutegian, goiko aipuan esan digunez, ez zeukan estetikaz lan sistematikoa egin ahal izateko adina bibliografi euskarri. Berak, iturriak aipatzean, Platon, Fr. Luis Leongoa, Marcelino Menéndez Pelayo, Benedetto Croce, J. J. Urraburu, eta abarren liburuak dakartza eta, gero, hainbat autore klasikoren –batik bat, greko-latinoren– aipuak, ez dakit nik zuzenean berorien jatorrizkoetatik ala besterenetik jasoak. Gaiaren azalpenerako, mahaiaren gainean begietatik kendu gabe dauzkanak, biok dira: Marcelino Menéndez Pelayoren *Historia de las ideas estéticas en España* (1883-1888)

eta Juan Jose Urrabururen *Ontologia* (1891). Zeanuritarrek sarritan aipatzen du santandertarraren lan hori bere “De pulchritudine” atalean. Klasikoen artean, batzuk bakarrik aipatzeko, maiz eta goxo ditu luman honako hauek: Platon, Plotino, San Agustin, San Tomas Aquinokoa eta Fr. Luis Leongoa. Bibliografian urri ibili arren, bere lanari alde zuzena ezartzen dizkion mugen barruan, saiakera polita ateratzen zaio azkenean. Politza eta, batez ere, pertsonala, inorenetik hartutako ideiak bere-bereak egiteraino ehotzen baititu Orixeren errotak. Azkenean, honi arrazoiak kendu eta hari eman, Orixe bera da mintzo zaiguna.

Dozena bat artikulua ditu, zein baino zein mamitsuagoak, bere osotasunean *Testu hautatuak euskal estetikaz* bilduma-liburuan jasotzen direnak. Hauxe aparte, lehendik kazetaritzan literaturaz egindakoak ere kontatzen badira, uste dut sorta honetan badaukagula Orixe estetikaz eta literaturaz zer pentsatzen zuen enteratzeko adina informazio-bide.

Ederra mugatzen

Ederra zer den galdezka ez du denbora galtzen. Zuzenean bera gehien betetzen duten definizioak ekartzen ditu: “San Tornašek ‘ikusiz atsegin ematen duna’ dala dio, ta, erabat esan, ‘adimenari atsegin zaiona’. Ederraren ondorioari gagozkiola, ondo esana; baña iturburura jo naiez alegiñak egin dituten aien artean, neri arako Platon’i egozten dioten ua zait atsegiñenik: *splendor veri*, egiaren dirdaia. Platon’i baña Plotin’i egozteya obe, bi lekutan naiko garbi adierazten baitu... Ezagun ezaguna dalako ezin utzia da Agustin Santuarena ere; *splendor ordinis*, taiuaren dirdaia. Ta Plotin’ena beste itz batzuetaz esan, ‘egiaren antz dirdaitsua’, *forma eximia veri*. Berdin jotzen baitu *splendor veri* ta *forma eximia veri* esateak”. Bideabar esan dezadan, definizio hauek, nola emanda dauden ikusita, Joan Jose Urraburu jesuitaren *Ontologia* liburutik jasoak daudela iruditzen zaidala. Platon, San Agustin eta San Tomas Aquinokoaren ederrari buruzko ikuspegiak, hain zuzen, horko 527-537 orrialdeetan datoz laburbildu eta iruzkinduak.

Autore horiek dakartzaten definizioetan garbiki ageri denez, ederra egiarekin uztartzen da. Beraz, Platon eta Plotinorekin batera, ederraren iturburua “egiaren dirdaia” dela esango digu; San Tomas Aquinokoa-ekin, berriz, “atsegin ematea” dela ederraren ondorioa. Eta atsegin

hori, geroxeago zehaztuko duenez, arimari atsedena dakarkiona da: “Atsegin ori animaren atsedena litzake, ez irabaziaren atsegiña. Esparik ez du eman bear ederrak, espak ez baitu atsedetik”. Egiak atsegin baketsu eta harmoniatsua dakarkigunean bakarrik gozaten dugu ederraz.

Aukera horrek jadanik markatua uzten du Orixeren irizpide estetikoak, atseginak, eder deitu ahal izateko, egian oinarritu behar baitu. Edozein arte-sorkuntzatan, berdin literaturan, edukiaren nolakoak garrantzi handia izango du harentzat. Ez da haizu zernahi eta nolanhia esatea. Beraz, zein mezu ematen den eta berori nola adierazten den, bi alderdiok oso kontuan hartzekoak dira. Literatura ez da forma-arazoa, edo estilo-kontua soilki, edukiarena ere bada. Funtsean, geroago azalduko dudanez, azken horrena.

Artearen helburua

“Antzearen jo-mugaz aburua” atalean, greziarrek hasi eta Hegelekin bukatuz, ibilaldi historiko laburra eskaintzen digu. Azken atalean, ordea, berriro harira itzultzen da izenburutzat “Eder-iritzia” darman azpiatalean eta hor kritikatzeko dizkigu Aro Modernoaz geroztik sortutako korrante estetiko desberdinak. Azalpena, Orixerengan ohikoa denez, aski narratsa da, ez baita hain aise ulertzen zergatik egiten dituen horrelako etenak.

Errepaso historikoa

Ibilaldi historikoa egin eta gero, zintzilik geratzen den funtsezko galdera hau da: artea, bai, baina zertarako? Galdera honek, aurreko puntuarekin duen loturagatik, asko arduratzen du Orixek, eta, historian zehar, guztiek era berean erantzuten ez dutenez gero, goazen gainbegiratu bat ematera. Geroxeago emango diogu leku eztabaidari.

Grezian, Aristotelesentzat, batez ere, arte-printzipioetan lehena eta garaiena *mimesis* edo imitazioa da, Orixek “antzeria egitea” deitzen diona: “Grezian, aurren-samarretan *mimesis* esan zioten antzeari, ots, antzeria egitea, batez ere Aristotel’ek. Antzeria egite ontan, aukera-bearra arkitu zan, antzeria kaxkartu ta lizundu ez zedin”. Aburu honetan bat datoz Platon eta Aristoteles, hau haren jarraitzaile zintzo izaki.

Bientzat poesia imitazioaren artea da; baina poesiak imitatzen duena ez da edozein gauza, demagun zerbait partikularra eta erlatiboa, baizik eta unibertsala eta beharrezkoa dena, hots, ideia.

Antzinateko humanistek –hauen artean sartzen ditu Aristofanes eta estoikoak–, arteari hezkuntzaren zeregina eman zioten, gazteria ohitura onetan hezia izan zedin: “Urrena gizabide-zaleak agertu ziran: antzea ez dala, alegia, edozer atsegiñetako ta atsegin utserako; irakaste-ko, gizabiderako, ta batez ere gaztedia ongi lantzeko baño”. Joera honetan, bada, artea eta ona hertsiki elkarturik ikusten ditugu.

Erroman, Horaziok, atsegina emateaz gain, onuragarri, *utile* alegia, izatea ere eskatuko dio arteari. Hitz hori ez dugula zentzu hertsiegian hartu behar esaten digu Orixek: “Zenbaitek zorrotzegi artu dute *utile* itz hau; ez du ordea nai ta nai ez irabazizko onik adierazten, soil soilik *onerakoa* ere bai, ta itzaren erroari gagozkioa *uti (bi) le*, zerbaitarakoa”.

Neoplatondarren artean, Plotinoren aburuz, bereziki, “anteak Jainkoarekin arr-eman izatea du asmo: On betea dan Jainkoarekin bat egitea, beren burua zori oneko egiteko”. Eskola honek arteari xede morala ematen dio, ederra gure izateari dagokion eta ontzat hartzen dugun zerbait baita, ikusmenaren nahiz entzumenaren bidez dastatzen duguna: “Plotin’ek ederki dionez, ederra, batez ere ikuskizunetan dartz, baño baita entzukizunetan ere, ots, izketan eta musikan. Sumaz gaindikoetan ere bai, ots, eginkizunetan, oituretan, jakingaietan, onjardunetan”. Horregatik deitzen zaio joera honi mistikoa, Orixek oso aintzakotzat hartzen duena: “Ezer gutxi kenduta nere egin nezake Plotin’ek diona. Ederra ta antzea guri dagozkigun gauzak ba dira, egoki dana eder da”.

Erdi Aroan, San Tomas Aquinokoak Hirutasun Santuko bigarren pertsona, Aitaren Hitza (*imago expressa Patri*), egin zuen artearen iturri. Hauxe dugu, hain zuzen, Antzinateko autore paganoek bilatzen zuten arte-eredua: “Onen billa ibilliak dirudite Platon, Plotin eta gure siñesterik ez zuten besteak, Eredura jotzen zutenean”. Eder gorena, beraz, eduki teologikotik datorrena da. Hortik datorke Orixeren literatura mistikorako lehia. Haren poesia gehienak, berdin *Quito’n arrebarekin* eta *Jainkoaren billa* saiakera mistikoak, zer besterik dira Hitz horren ingurumari entzuten den sinfonia isila ez bada?

Aro Modernoan, Hegel dakarkigu, asko dakiena eta greziar maisuak nahiz eskolastikoak ondo ezagutzen dituen. Menéndez Pelayoren

liburua lagun duela, honela laburtzen du haren pentsamendua: “Aditzapen mugatuena arloan omen daude, lenik Antzea, urrenik Erlijioa, goienik Pilosopia, kaxkarrenez aurrera. Ortaz, Pilosopia guzien buru, atzetik Erlijioa, azkenik Antzea. Eder eta Egi bat omen dira alde, eta bana bestera. Egia ‘eredua bere baitan’ omen da, erabateko etorburu; baña Eredu orrek ez baitu beregan sumakizunik, sumatzeko moduko agertzapena eman bear omen zaio, ta orduan biurtzen omen da eder”. Orixeren ustez, Hegelen eredu honek badu Platonenaren kutsurik.

Modernismoan sartuta, kritikaren ahoa ezpatarena baino areago zorroz-tuz, kontzeptismoa eta naturalismoa gaitzesten ditu Orixek, hurrenez hurren, “itxura-naia” eta “izadi-naia” deitzen dienak.

Lehenengoa, gauza ederrak sortzeko ahalmenik ez duenak erabil-tzen duen tresna da. Horrelakoak bere ezina handikeriaz estaltzen du: “Bestela ederrik agertzeko gauza ez danak, jakintasuna agertu nai du neurritz gaitzetik. Urrena, bere antze-gauzak berotasunik ez dula igar-tzen dionak, agoa puztu egiten du, aundikeri bila naiz gauzetan naiz itzetan durundia bilatuz”.

Bigarrenak, ametsetan aspertu eta, eder bila berriro izadira itzul-tzea suposatzen du, izadia den bezala, “bere makar ta guzi edergaitzat” hartuz: “Loia bera, gaitzakeria bera azaldu-bearra zan, ederra baitzeriz-kioten”. Izadia horrela gogo emanda, erabat larrutsik eta bere natural-tasun osoan, Orixerentzat “gordinkeria” da. Izen honekin bataiatzen du Zola eta konpainiaren naturalismo-eskola hau.

Badira korronte modernistaren barruan sartzen dituen beste joera batzuk ere: futurista, ultraista, sinbolista, parnasiarra, etab. Orotara hartuta, joera horiek gaitzegarri bazaizkio ere, ez ditu horregatik baz-tertzen autore batzuen lanak: “Oen artean ere, gizon banaka batzuk eta lan-egin banaka batzuk ez dira erabat baztar botatzekoak”. Ondikotz, ez digu inoren izenik aipatzen.

Askoz ere zailagoa egiten zaio Errenazimentuak ekarritako kla-sizismoaren kontzeptua mugatzea, berak “iatortasun” hitzaren bidez itzultzen duena. Joera honek, oro har, autore greko-latinoen idaztan-keria berpiztu nahi izan zuen, haien kultur eredu berreskuratu. Erre-nazentista hauengandik Antzinateko klasikoengana, ordea, diferentzia handi samarra dago, gauza bat baita zerbait berria sortzea eta beste bat inorena imitatzea. Horretan datza aldea: “Besteren istiak egin, edota bere buruzko ta oldezko eragiñak agertu, batetik bestera dagon aldea zegoan idazle oetatik antziñakoetara”. Antzinatean idazle onak, hots,

sortzaile gisa maila ematen zutenak bakarrik zeuzkaten klasikotzat. Harrezkero ere, Greziatik eta Erromatik kanpora, izan dira izen hori irabazi izan duten idazleak ere. Nor? Zein irizpideren arabera izan dira horrela izendatuak? Hementxe hasten dira iluntasunak, nor den klasi-koa eta nor ez erabaki ezinez.

Artearen autonomia auzitan

Artearen historiari buruz egindako errepaso historiko horretan, eskola desberdinetan nagusitu izan diren aburuak eman dira. Ikusi da ederra hainbat elementuren erreferentzian definitu izan dela, ona eta egia ez zaizkiola erabat arrotz. Baina ederra, ongia eta egia zein neurritan dira mugakide? Artearen erreinua autonomoa al da, bere arau estetikoak, inolako hertsapen moralik gabe, bere kabuz antola ditzan? Arazo hauxe da, guztien gaineratik izan, Orixeren irizpide estetikoan eraginik erabakigarriena duena.

Bilbon kazetaritzan ziharduela, literaturak zeraman norabideaz kezkatuta, “Finalidad del arte. La cara de las cosas” artikulua idatzi zuen *Euzkadi*-n 1928an, zuzen-zuzen lagunarteko tertulietan ahoz aho eta aldizkari nahiz liburuetan barra-barra zebilen zorioneko *l'art pour l'art* edo, Orixeren euskarazko zuzenketarekin esateko, “antzea antzearentzat” esaldi galgarria gezurtatzera zetorrena. Esaldi horren aldarrikatzaile nagusitzat M. Menéndez Pelayo dauka, honena baitzen “el fin inmediato del arte es el arte mismo” esaldia. Azken autore honen ustez, ordea, tradizioetik datorren ustea jaso eta berretsi besterik ez du egiten berak. Iturrietara joanda, Aristotelesek, ongiaren arauak poetikarako eta politikarako ez zirela berberak esatean, artearen independentzia aldarrikatzen du. San Agustinek, orobat, ederrari balio intrintsekoa ematen dio. Baina San Tomas Aquinokoa izango da, batez ere, Dionisio Areopagitak eta platondarrek ederraren eta ongiaren artean ezarria zeukaten nahasketa kontzeptuala gaindituko duena, bereizketa honi esker gainditu ere: “Con declarar que el bien y la belleza aunque sean una misma cosa en el sujeto, se distinguen *racionalmente*, quedaba de hecho consolidada la independencia de la estética como ciencia distinta de la ética”. Hemendik ateratzen duen ondorioan sartzen da, hain zuzen, Orixek hasieran egotzi dion esaldi hura: “La idea fundamental del Santo, la que da más precio a lo que podemos llamar, no

su sistema, sino sus ideas estéticas, es la separación profunda que donde quiera establece entre el arte y las demás virtudes intelectuales, mostrando que el arte no implica la rectitud del apetito, y que por eso, para usar rectamente de él, se requiere otra virtud distinta de la virtud moral. Ni indica jamás que el arte tenga otro fin inmediato que el arte mismo, ni otros medios que sus propios medios, de tal modo, que bien puede afirmarse que no le hubiera sonado tan mal como a sus discípulos el concepto de forma sin uso, que después de la crítica venimos aplicando a la forma artística”.

Artearen helburua zen, beraz, ondo mugatu beharrekoa. Goian aipaturiko artikuluan, Menéndez Pelayoren aburu horren kontra arrazoitzeke, argudio ontologikoa erabiltzen du, eskolastikan ezaguna dena: munduko izaki guztiek dituzte beren helburuak, elkarren menpeko direnak, zeinaren arabera izadi ikuskorraren arartegabeko helburua gizakia baita eta honen azken helburua, berriz, Jainkoaren aintza. Bere baitatik at helbururik ez duen izakirik ezin da gogo eman. Han ez du agintzen filosofiak: “No puede haber cosa que se tenga a sí misma como fin: es un absurdo filosófico. El fin, el destino de las cosas, es como la cara de ellas. Una cara no se mira a sí misma; siempre mira a otra cosa distinta de sí. El fin en las cosas es como el ojo que ve las cosas y no se ve a sí mismo”. Horregatik, artearen helburua morala dela sostengatzen dutenak adina dabilta erratuta artearena bere buruaren baitan datzala diotenak.

“Arteगतiko artea” delako hori, Orixeren ustez, aitzakia polit bat besterik ez da, moral-kontuan zernahi gauza zuritzeko erabil daitekeena. Artea eta morala, helburu desberdinak dituztenez gero, ez dira gauza bera, baina, hainbat gauzatan bat datozenez gero, ezin dira banandu. Bi maila hauek ez bereiztetik datoz nahasketak, moralaren aldetik begiratuta makur handikoak. Zertan aldentzen diren eta zertan batzen, ondoko testu honek esaten digu nahiko garbi: “El fin del arte es proporcionar sano placer estético al espíritu del hombre que lo contempla; el fin de la moral es perfeccionar las costumbres, aunque ello tenga que hacerse torturando el espíritu contra la exigencia de los placeres insanos. Ambas cosas, a pesar de sus fines bien definidamente diversos, tienen algo de común en cuanto ambas cosas se dirigen a perfeccionar el alma. Porque es indudable que la contemplación de las obras de arte da como resultado, entendiéndose bien, da como resultado la educación de las facultades mentales y afectivas, sobre todo de la

imaginación y del sentimiento”. Beraz, bakoitzak bere helburu espezi-
fikoa eduki arren, ondorioetan batera datoz: “da como resultado la
educación de las facultades mentales y afectivas”. Bestalde, artikulua-
hasieran izakien arteko helburuak elkarrekiko hierarkizatuak daudela
esan baita, Orixek, logika horretan oinarrituz, bere tesia ezaugarritzen
duen azken urrats hau emango du: arteak, azken batean, moralaren
esanekoa behar duela izan, honen helburua harena baino garaiagoa
delako. Gizakiagan, bada, morala artearen gainera dago: “Lo que la
moral pretende como fin directo e inmediato en un plano muy supe-
rior, el arte alcanza como resultado, no directa e inmediatamente y en
grado ínfimo. Y como el hombre es, ante todo, ser moral y no aficio-
nado al arte, siempre que en el corazón de ser así constituido luce el
amor al arte con las buenas costumbres, en esta colisión de exigencias
y deberes, el arte o lo que se quiera llamar tal, es el que tiene que
ceder”. Eguzkia bera ere ez testuan adierazia baino argiagoa. Artea da
gizakiarentzat egina, ez alderantziz. Eta gizakia, Jainkoarentzat.
Horrela gaintzen du Orixek, eskema eskolastikoaren barruan,
Menéndez Pelayoren falazia.

Berriro arazo horixe bera harrotzen du estetikari buruzko artiku-
luetan. Orduko tesiari eutsiz, baina sakonkiago begietsiz. “Antze eta
eder. Anitzearen jo-muga edo aurpegiar norabait” atalean, Menéndez
Pelayoren tesiak ezeztatzen ditu –eta urrutiago joanda, baita Kantenak
ere, hark honenak beretzen baititu–, zehazki “el fin inmediato del arte
es el arte mismo” eta “la finalidad sin fin” bezalako esaldiak jaulkitzen
dituenean. Esaldiok Menéndez Pelayok inolako adiera negatiborik
gabe ikusten baditu ere, gaizki uler daitezke, “izadi gordin-zaleen li-
zunkeriak estaltzeko” aitzakia gisa, alegia. Bestalde, Kanten “la finali-
dad sin fin” hori, ezein edukirik ez duen hitz hutsa da. Horixe: “izke-
ta alperra”. Artearen helburua ederra sortzea dela esatean, ez da artea
zertarako den esaten, zer den baizik. Horixe da Menéndez Pelayok egi-
ten duena: “Antzea ta edergintza bi itzetan gauza bera dira, Menéndez
y Pelayo-k bere maisu Milá y Fontanals’enean irakurriko zun bezala, ta
edozein esku-liburutan arki ditekenez bezala. ‘Arte es la realización de la
belleza mediante formas sensibles’. Zer dan besterik ez digu, beraz, esa-
ten jaun onek”. Fontanals aupatzera mugatzen da, jarraiko aipu hone-
tan egiten duen bezala: “La hermosa fórmula de la *finalidad sin fin*,
contenida en potencia en la filosofía escolástica, y especialmente en la
de nuestros españoles del siglo XVI, que ahondaron y tanto, insistieron

en esta distinción racional entre lo bueno y bello; el reconocimiento del carácter desinteresado, universal, subjetivo y necesario del juicio de lo bello; la luz de la idea de lo infinito derramada sobre el concepto de lo sublime, que hasta entonces sólo de Silvain había obtenido explicación imperfecta; la distinción luminosa de lo sublime *matemático* y *dinámico*; la distinción no menos esencial de la belleza libre y vaga, y de la belleza combinada o adherente... son puntos definitivamente adquiridos para la ciencia, y que de ningún modo deben ser rechazados *inodium auctoris*, sino recibidos e incorporados en todo cuerpo de doctrina estética digno de este nombre, como lo hizo nuestro Milá y Fontanals en la suya inolvidable”. Guziok dituzu, bada, estetikak zientziari egin dizkion ekarpenak, Menéndez Pelayoren ustez, onartu beharrekoak. Baina funtsean izan, Kanten doktrina estetikoak dira horiek denak.

Mundu honetan, bere burua jomuga duen bakarra, inor izatekotan, Jainkoa da. Hau du gizakiak bere azken muga: “Antze-lana berak asmatu ta berak egin du. Beretzat naski. Gizonak ordea, ta beste edozerk, azken muga Jainkoa du, gauza guzien asiera ta muga Bera baita”. Beste guztiek, zerbaitek eraginda dihardute. Horregatik, ezin da gogo eman zergatikorik eta zertarakorik gabeko arterik: “Gizonak antze-lana zertako ta zergatik egin dun galdetzean, bere atsegiñarako edo bere atsegiñagatik, ots, bere atsegiñak eraginda, besterik ez diteke erantzun. Lana lanarengatik egin dula esateak ez du zentzurik”. Zentzugabekeria bat da zerbait –kasu honetan artea–, bere buruaren helmuga dela baieztatzea. Funtsean, “Finalidad del arte. La cara de las cosas” artikuluan gaztelaniaz esana berritzen du hemen euskaraz, argudio berezirik asmatu gabe. Menéndez Pelayok ezartzen dizkio, bai, arteari azken helburua eta bitartekoak; baina ez ditu zehazten arteak mugakidituenezik harremanak. Arteak, Orixeren hizkuntzan esateko, “albo-mugak” ditu, adibidez, egia eta ona. Zehaztapen hori ahaztean datza gaizki-ulertua.

“Antzea bere jabe” atalean, Menéndez Pelayoren teoria utzi eta, Crocerenak kritikatzera pasatzen da. Bide batez, haren *La estética como ciencia de la expresión* (1902) liburuari sarrera egiten dion Unamunoren aho-zabalkeria ere salatzen du, honek, Orixeren ustez oker, baieztapen desegoki hau egiten duelako: “Por primera vez, he visto aquí la doctrina del arte liberada de la doctrina de la lógica, de la ética y de la psicología, aunque con ellos conexiónada”.

Orixeren begiekin begiratuta, zer esaten du Crocek? Honek bi ezagutza-mota bereizten ditu: adimenezkoa eta irudimenezkoa. Artea, gehienbat irudimenak sortua denez gero eta, bestalde, irudimena adimenetik bereiz daitekeenez gero, bere buruaren jabe bilakatzen da: “Saietseko ager-bearrak alde batera utzita, irudipen ori, begiztaldi ori omen da antzea, ta irudipena burutapenetik bereizi edo erauzi omen diteken ezkeru, bere jabe omen da; ortaz, antzea ere bai”. Artea, azken batean, bere baitako autonomia duen begiztaldi bat da, intuizio bat, gogamenaren irudipen bat.

Orixek zer pentsatzen duen honetaz? Bere gogoetak puntuz puntu sailkatuta doazkizu segidan.

Lehenik, Crocek artearen autonomia frogatzeko dakarren adibi-deak ez du gehiegi konbentzitzen Orixe: “Zuk, ur garbitan sartuta zegoen arrauna autsia zegoala iritzi zenion lenengo aldiz, ala iduri baitu. Begiek ori ikusten dute, ori iduri zaie, ta ontan ez dago gezurrik. Gero, zuk buruz ola irizten badiozu, iritzi okerra asmatu duzu. Bizialdi guzian ori ikusten ari dan itsasgizonari ere ori dirudio beti, aldioro iritzi okerra zuzendu bear ba du ere. Iduritzea bat da ta iriztea beste bat, maiz bat bezala jotzen ba ditugu ere. Iduritzea idurimenari dagokio ta iriztea adimenari, buruari”. Adimenak aldioro zuzenduz egon behar badu irudimenaren iritzi okerra, nolatan ezar daiteke artearen autonomia honen baitan? Artegintzan nolatan bereiz daitezke adimena eta irudimena? Dikotomia hori eta horren ondorioa dira Orixek zalantzan jartzen dituenak: “Croce’k erauzi al dezake iduri ortatik iritzi deritzaion burutapen ori, naiz adibide ortan naiz beste askotan?”.

Bigarrenik, baldin artea iduripen hutsa baldin bada, nahiz bere baitan autonomoa izan, “iduripenik lizunena ere, artan astiro kokatzen ez gerala, ta egiñera gabe uzten dugula ez da oitura-legeen menpeko” izango. Zergatik? Adimenaz kanpo gauzatzen ez den arteaz, hots, Croceren “buru-antze” horretaz mintzatzea, denbora alferrikerik galtzea delako. Hori horrela bada, hala dio Orixek, sobera daude estetika eta gainerakoak.

Hirugarrenik, Crocek dakarrenez, “idurikizunez naste arkitzen diren adikizunak, nasita dauden ezkeru, ez ditezke adikizun iritzi, bere jabetasuna galdu baitute. Adikizun izan ziran, baña orain iduri-gai uts biurtu dira”. Arrazoiketaren bidean geralditxo bat egin dezadan esateko Orixeren aipu honetan, irakurle ernea ohartuko zen bezala, badela zailtasunik “irudikizun” eta “adikizun” hitzen esanahi zehatza jasotzeko

orduan. Nik horien baliokidetzat “imaginación” eta “intelección” josten ditut, hurrenez hurren. Baina ziurtasun handirik gabe.

Crocek emandako arrazoi horrek ez du balio Orixerentzat, zeren, idurikizunak eta adikizunak nahasirik datozenez gero, ez baita ikusten adikizunek zergatik galtzen duten beren jabetasuna eta zergatik ez idurikizunek. Crocek bereizten ditu, bai, buru-artearen estetika eta buruz landako artearena, baina, artearen autonomia sostengatu behar horretan, sarritan sartzen du burruntzalia batean nahiz bestean.

Laugarrenik, beti ere Croceren iritiz, buru-arteaz ematen den iritziak ez dauka zerikusirik artisten on-gaiztoarekin. Baldin “iduri litzun bati buru-barnean so egitea, ez begi-zizta laburrez, ez (ba)da gaiztorakoa antzelarientzat”, erantzungo du Orixek, zergatik behar du gaiztorakoa buruz landa ikusten dutenentzat? Nolanahi ere, eta honetan arrazoia ematen dio Croceri, beronen estetika barruko iduripenari dagokiona denez gero, kanpora agertutako lizunkeriak ez du lekurik haren baitan.

Modu batera nahiz bestera aldarrikatua izan den artearen autonomiari ezezkoa ematen baitio Orixek, galdetu beharko da non kokatzen duen horren eremua. Puntu honek haren pentsamendu estetikoaren barruagotik ezagutzea eskatzen du eta horixe da hurrengo atalean egingo duguna.

HAMAIRUGARREN ATALA

ARTEAREN AURPEGIAK

Menéndez Pelayorentzat estetikak, San Tomas Aquinokoaz geroztik, izaera autonomoa du. Bere helburu espezifikoa duenez gero, beste diziplina baten –adibidez, etikaren– beharrik ez du. Tesi honen defentsan urruti doa, hain urruti greziarren urak ere bere errotara ekartzen baititu. Baina Joan Jose Urraburu eskolastikoaren pasartea irakurtzen baduzu –bidenabar esan behar dizut Orixek Menéndez Pelayoren pentsamendua bezain ondo edo hobeto ezagutzen zuela harena estetikari buruzkoetan–, ohartuko zara ederra eta ongia gauza berberatzat zeuzkan platonismoak bere aldekoak izan zituela, baita Erdi Arotik honantzago ere: “Non aequae tamen videtur convenire inter omnes, nun idem sint pulchrum et bonum. Unum idemque haec esse videtur sensisse vulgatus Dionysius Areopagita et platonici, quibus etiam hae in parte putant quidam S. Augustinum favisse, cum scripsit pulchrum esse amabile, nihilque amari nisi pulchrum. Eademque doctrinam videtur probatam velle P. Josephus Jungmann, cum ostendere fuse conatur pulchrum esse amabile amore perfecto benevolentiae, nihilque esse amabile nisi pulchrum, et benevolentiae amorem esse effectum immediatum et proximum, quem aspectus rei pulchrae gignit in nobis”.

Eskola hori, gustatu ala ez, hor dagoela ezin da ukatu. Autore modernoan artean, joera honen defendatzaile gisa, Jose Jungmann aipatzen digu J. J. Urraburuk, hau bezala hura ere jesuita, 1865ean *La Belleza y las Bellas Artes* idatzi zuena. Menéndez Pelayok dakarrenez, bera da harrezkero ortodoxoen jarrera hori garbienik ordezkatzeko duena. Sentimenduzko mistizismorako lehia agertzen duen teologo honek,

inolako probetxurik gabe, morala, erlijioa eta artea nahasten ditu eta, honela, hunkipen estetikorako bideak ixten. Funtsean –eta hau da Menéndez Pelayok leporatzen dion akusaziorik larriena–, Jungmann artea moralizatu nahi duen teologoa da eta ez estetikaz diharduen espezialista: “Jungmann, cuyo nombre no hemos visto citado en ningún libro de Teoría del Arte, no es, como del mismo contexto de su tratado se infiere, estético de profesión, sino teólogo y moralista”. Teologoari ez dagokio edozein gairi buruz iritziak ematen hastea, gutxiago zientziak beren nortasuna hartzen hasiak daudenean. Menéndez Pelayorena da pasarte hau: “Antiguamente se creía que los teólogos servían para todo, y, en realidad, los teólogos de entonces solían justificar esta creencia, no sólo dedicándose al estudio de muchas ciencias profanas, sino también sacando de las entrañas de su propia ciencia divina y sublime luces y principios transcendentales, que aplicaban con gran sabiduría a la creación y organización de otros estudios nuevos... Pero hoy, o sea, porque los teólogos suelen valer menos que los antiguos, o sea, porque el campo de las ciencias se ha dilatado de tal manera que parece cosa temeraria e imposible a las fuerzas de un solo hombre el pretender abarcarlo, suelen ser menos felices y gloriosas estas incursiones de los teólogos (y también de los filósofos) en estudios especiales que ellos no aman, a los cuales no se dedican por vocación irresistible, y de los cuales, por consiguiente, sólo llegan a adquirir una noticia general y somera”.

Bistan da egungo egunotan ikusmolde eskolastiko honi eustek ez lukeela inolako zentzurik eta hemen horrelako gogoetek Erdi Aroko eskematara garamatzatela. Nolanahi ere, Orixeren saio hau mamitu zen gerraurreko euskaltzaleen giro intelektualean, diskurtso hau ulergarriagoa zen orain baino. Menéndez Pelayo bezalako zenbat zerbitzari liberal zituen, bada, euskarak orduan?

Bistan da, halaber, literaturgintzan zein artegintzan eskema eskolastikoa aplikatuz gero, zangoak apriorismoaren istingan gero eta areago sartuz zoazen heinean, pentsamendu estetikoa ere absolutismoari gero eta lotuago kausitzen dela. Hau ote da Orixeren kasua? Honen pentsamenduaren ikerketan urrats batzuk areago eman gabe ezin dizut erantzun. Baina bego galdera hipotesi gisa egina.

Orixek, estetikari buruzko saiakera honetan, mugakide edo albo-mugatzat dauzkan hiru kontzeptuok ditu aztertzen: ederra, egia eta ongia. Lehen esan dugu, eta berriro errepikatzea ez da sobera egongo, kontzeptu horiek gardentasunez bereizten dituela maila batean.

Lehenik, desberdinak dira, ez bakarrik kizunaren aldetik, baita kizun hori atzitzen duen ahalmenaren aldetik ere: “Ederra, bestela adierazi, irudimenari dagokiona da, egia adimenari dagokiona dan bezala”. Beste pasarte hau ere desberdintasunak nabarmentzera dator: “Eder ez da Egi, ez On, bai bien arteko edo jarioko. Adimenak egia du jomuga, ez berez gezurra; naimenak ona, ez berez gaiztoa; atsemenak, nolabait esan, ederra”. Beste maila batean, ordea –ondorioetan zehazki–, berdinak dira: “Egi, On, Eder, gizonak iru etxeko ta barrengo ditu. Gezurra ez ditekete berez beñiere eder izan, ezta gaiztoa ere. Gizonak sortu-ederrak egi-antza bear du. Ederrak on-antza ere bear du. Gaiztakeria berez ez da edergarri, iñoiz ontasuna areago nabari bearrez edo ez ba da”.

Bigarrenik, bai ongiaren eta bai egiaren kontzeptuak ederrarenak baino zabalagoak dira. Hau haiek barne hartzen dute: “Ederra zeruetaraino jaso naiez zenbaitek egia ta ona baino areago dala esan dute, edatuago dala. Ez naski. ‘Eder’ek ez ditu bere barrenean artzen Egi ta On; aien kera danez mugatzen ditu. Kera aurpegiarena, begiena ta abar da; aurpegia, begiak eta abar ez dira kerarenak. Edertasuna egiarena, ontasunarena da, izatearena da; izatea, egia, ontasuna, ez dira kerarenak. Kera ez da gauza berezia, ez da izate berezirik. Ortaz, ederra gauzaren muga da”.

Hirugarrenik, ederra ezin izan daitekeela sekula ez gezurraren eta ez gaizkiaren iturri baieztatu eta gero, nondik zer datorren eta gizakiak zein gauza dituen beharrezkoen zehaztera pasatzen da: “Egia ta ona ditu gizonak bearrenik. Ederra oietatik sortzen da nolabait... Nere ustez, egizalea berez bikaiñagoa da ederzalea baño; on-zalea areago. Homer baño Aristoteles aundiago; biek baño Xabier areago. Egia bera zenbait aldiz eder da; ontasuna areago”.

Laugarrenik, ederra, ongia eta egia, gauza bera eta maila berekoak ez izanik ere, elkarren ondoan daudenak ditugu. Jarraian baieztapen hori frogatzeko aukera izango dugunez, esan ere esan dezakegu ederra, ongia eta egia berdintzenago dituela bereiztenago baino, San Tomas Aquinokoaren aburua baino maiteago duela platondarrena. Hala ere, agian, zehatzago mintzatuko nintzateke esan baneza gehiago interesatzen zaiola azpimarratzea batera dutena bereiz zaiena baino. Eta hau, lehen esan dugun arrazoi praktiko hargatik diogu, batez ere: artearen nolakoak portaera etikoan eragin zuzena duelako, hain zuzen.

Egia, ederra eta ongiak elkarrekin dutenaren gainean eraikitzen du bere estetika. Haren arte-axiologian, lau oin ikusten ditut, piramide

baten antzera antolatuta daudenak eta elkarri sostengua ematen diotenak: edertasun korporala, morala, intelektuala eta absolutua. Hauek dituzte ederraren lau aurpegiak, artea definitzen dutenak. Ederraren aurpegi hauek zehaztea dugu eginkizun.

Edertasun korporala

Hasteko, seguru asko Joan Jose Urrabururen *Ontologia* liburutik hartuta, eskolastikan bereizi ohi diren eder-mota desberdinez mintzatzeko zaigu. Hasteko, eder naturala eta artifiziala bereizten dizkigu: “Ederra berriz, bitarikoak da: jatorrizkoa eta asmatuzkoa, ots, Jainkoak sortua bat, gizonak egiña bestea”. Izadiaren ederra, adibidez, Jainkoak sortua da; gizakiak asmatzen duen arte-lana, aldiz, eder artifiziala. Eder naturala edo berezkoa (Orixek “jatorrizkoa”), aldi berean, bitarikoak da: “sortzerik-gabea ta sortzea-duna. Sortzerik ez dunari ta dunari ezin eman, ein bateko izena; bai ariora edo *per analogiam*. Sortze gabeko ederra Jainkoa da; batez ere, gizon egin baño leen ere Jainkoaren itza edo semea esaten zaiona, Jainkoak bere burua ezagutuz betidanik sortzen duna”. Beraz, artista sortzaile dela, hertsiki zentzu analogikoan bakarrik esan daiteke.

Hemen, edertasun korporalaz dihardugun honetan, izadiaren ederra da gogo ematen, gauzek berek duten edertasun benetakoa, materiala eta fisikoa. Orixeren ustea da izadiko gauzak berez direla eder eta ez giza adimenak ederresten dituelako: “Izadian arkitzen ote da gauza ederrik? Obeki esan, izadian arkitzen ditugun gauza ederrak, berenez ote dira eder, ala gure ezagueraz edertzen ote ditugu? Gure ezaguera baño len eder dirala esan diteke, gu sortu baño len ere Jainkoaren adimenak ezagutzen baitzitun... Nik uste, azkenik, gauzak berak dirala eder... Izadian ederra bere baitan ba dagola esan edo diteke. Zeru izartsua, lore-landa, itsasoa, baso aundi bat, urjauzi goi-goitiko hat (Xuberoko Santa Garazi’koa esaterako) ta abar, nonai gizon guzientzat dira eder”.

Pasarte horretan dakarrenaz zein konbentzimendu handiz mintzatu den ikus dezazun, irakur ezazu *Quito’n arrebarekin*-eko “Bolibiko zabaldia” eta zu zeu ohartuko zara, Andeak zeharkatzean, izadiaren handitasun, bakartasun eta isiltasun izugarri hartan, nola igotzen den Jainkoarengana entzumen eta ikusmenaren bidez, nola batzen dituen

goi-lautada hura eta Uitziko Entzelai, Mari-Axuntxiren “aundiago Yaungoikoa” hura oroituz. Ez al digu, bada, lehentxeago esan Orexan pasa zituela urterik eztenak gerraurrean, basoetatik barrena, Pentsumenduaren bila? Han landu zuen *Barne-Muiñetan*, han gogoz erne “Argi-erri”, gero *Quiton arrebarekin* bilakatu zena. Hiri-gizartea utzi eta, hara bildu zen, ingurumari bakar izadi hutsa duen herritxora, euskaldunen poema epikoa ontzera. Halaber, ez al genuen esan izadiko zenbait elementutan sakratutasuna sumatzen zuela, hala nola mendi, hodei eta zuhaitzetan? Eta ametsak misterio-kutsua zutela? Esana daukagu, baita ere, Espuruko lizar baten gainean orduak egiten zituela, gogoeta igoan sorgor. Berriki ikasi dut, Lizardiri egiten dion aitortzan, lizarretik erorita hanka hautsi zuela: “Ametsak askotan egi ateratzen dira. Nik amets egin nun bein, lizar-gaiñetik erori nintzala, ta bai erori ta anka autsi ere andik luzaro gabe”. Begira Orixeren literatur mundu sinbolikoan nola elkartzen diren errealitatea eta ametsa, profanoa eta erlijiosoa, sinbiosi trinkoan!

Honek guztiak zer adierazten duen? Orixeren minberatasun telurikoa zinezkoa dela, haren paraje-deskribapenak izadiari berari darion ederretik jaiok direla. Asmatutako ederraren abiapuntua, beraz, kanpo-zentzuek sumatzen duten sentipenezko izakietan datza.

Baina gizakiak nola asmatzen edo sortzen ditu eder-mota desberdinak, morala nahiz intelektuala nahiz absolutua edo goi-goikoa? Imitazioaren bidez, izaki ikusgarrietan kanpo-zentzuak oro eta adimenaren eder-ideala aplikatuz: “Lenik gauzen antza, ta au ez baita aski antzegauza esateko, jardunen edo eginkizunen antz ederra agertzea; beste itzez esan, gizonak beregan nolabait dakusan eder eredia antz bidez agertzea. Antz au, berez, ikusgarri diran gauzeri egozten diegu; baña, begieri ez ezen beste zentzueri ere nolabait beren antza badagokie. Begiak ikusten du etxe bat, aurpegi bat, mendi bat, tarteko errañu gabe, beroiek baititu errañu, beren ertz eta mugekin. Belarriak ere ba du bere errañu-antzekoa, errañu-orde onen ertza ta muga begiena bezain garbiak eta sumagarriak ez ba dira ere. Orobat ukiak, usmoak, gustoak: dardarakoa, zirrarakoa, aztarrena, zantzua, nai duzun bezala esan, baña errañu-antzera jo ditekena”.

Ez gara sartuko arazo epistemologikoetan, honek urrutira eramango gintuzkeelako. Baina nola gera gaitzke puntu honetan ere Orixeren azterbidea greziar gnoseologiari zordun zaiola esan gabe? Ezin bada. Mimesi edo imitazioarena, espreski dakarrenez, Aristotelesen

doktrina da. Imitazioa, ordea, bide da soilki, ez artearen helburu. Adimenak bere baitan daukan eder-ereduarena, “gizonak beregan nolabait dakusan eder ereduari” buruzkoa, alegia, badirudi Plotinorengandik beretua duela, honek adimenean bertan ezartzen baitu edertasun intelektualaren eta moralaren arketipoa. Adimenaren edertasun espiritua-lak edertzen du izadiko edertasun materiala. Menéndez Pelayorena da pasarte hau: “Truébase que hay en el entendimiento humano una belleza natural que hace hermosa la materia ruda. Plotino juzga deficiente el principio de imitación, puesto que el alma, usando de su razón íntima, enmienda los defectos de la naturaleza. De aquí se infiere que hay en el entendimiento una forma y una belleza más alta que en ninguna obra de arte, y a la vez más poderosa; porque en las obras del arte aparece dispersa, y en el entendimiento unida”. Maitasunari buruzko teorian, Orixek Platonena eta Plotinorena bateratzen baititu, puntu hau areago sakondu nahi izanez gero, argitasunik pranko aurki daiteke Jean-Michel Charrueren *Plotin, Lecteur de Platon* liburuan. Orixek bien teoriak uztartzen ditu.

Beraz, edertasun moralaz, intelektualaz eta absolutuaz ari garenean, jakizu asmatutako ederra dugula aztergai, eta aztergai gauza hau-temangarrien antzera eta, aldi berean, adimenaren eder-ereduaren araber-bera jokatu. Bi printzipio horiek bat eginda.

Edertasun morala

Aspaldikoa zuen Orixek printzipio moralak literaturan ere aplikatu beharra. Kezka hau jadanik hezkuntza jesuitikotik erantsita zetorkiona zen. Gai honetaz lehen artikulua idatzi, ordea, komentua utzi eta aski laster idazten du, 1924an, “Sofismas del corazón” izenburua-rekin. Intelektualtxo batzuk liburu pornografikoen zentsuraz eztabai-datzen ari ziren batean, haietako batek argudiatu omen zuen esanez arteak, zientziak bezala, ez omen zeukala zerikusirik moralarekin. Baietzapen hau Orixerentzat sofisma bat zen, bihozkeria bat.

Bihotzaren sofisma hori adimenaren argiz askatzeko xedearekin, orduantxe egiten ditu zientzia nahiz arte nahiz moralaren arteko bere lehen bereizketak. Lehen urrats gisa, kizunaren aldetik, bakoitzari da-gokiona zehazten du. Zientziaren helburua egia-aren bila saiatzea da; ar-tearena, aldiz, gizateria bertutean heztea. Alde horretatik begiratuta,

zuzen esana da artearen helburua ez dela moralizatzea. Hala ere –eta hemen hasten da sofismaren bihurrikeria–, ezin da esan zientziak, arteak eta moralak ez daukatela beren artean inolako lotura-modurik. Artearen helburua ez da egia ikertzea, ezta moralizatzea ere, baina hark ez ditzake bazter utz ez egia eta ez morala. Egia, edo egiantzekotasuna, elementu arras garrantzitsua da artean, hain garrantzitsua, ezen Aristotelesek poesia historia baino egiazkoagoa zela baieztatzen baitzuen. Areago oraino: “... ha habido filósofos que pusieron la belleza entre las nociones trascendentales del ser, del bien y de la verdad, haciéndola convertible con ellas”. Bestalde, ahalmenen aldetik, zientzia adimenera zuzentzen da; artea, aldiz, sentimenera eta, honen bidez, borondatera. Horregatik, zuzenean ez baina bai zeharka, arteak ezin ditu ahortzi ez zientzia eta ez morala, azken hau, batez ere: “La persuasión universal de los pueblos, el grito alarmante de nuestros des preocupados tiempos contra el libro obsceno, lo está proclamando muy alto: aunque el fin del arte no sea moralizar, en el arte no se puede prescindir de la moral”. San Paulok dioenaren arabera, arrazoimenak pasioaren gainetik egon behar du.

Moralak artean daukan eragina hain zen erabakigarria Orixerentzat, ezen, pieza eder-ederra izanik ere, hor moral aldetik tatzaren bat atzematen bazuen, edertasun horretaz behar adina gozatu gabe geratzen baitzen. Horixe gertatzen zitzaion, adibide klasiko bat ekartzeko, Sofoklesen *Edipo Erregea* tragedia famatuarekin, semeak aita hiltzeari ez baitzeritzon onargarri: “Concentrábamos nuestra atención en el desventurado Edipo, a quien estábamos defendiendo continuamente dentro de nuestra conciencia, mientras nuestros oídos se deleitaban incompletamente con la dulzura del verso. Aquella inquietud nos restaba placer estético, sin que llegara el restablecimiento y equilibrio de los afectos de nuestra alma”. Baina aita Errandonea jesuitak Edipo semeak bere aita Laio defentsa zuzenean –honek eraso bidegabeki egin ziolako, alegia–, hil zuela ikasi zuenean, interpretazio berri honi esker, Edipo kriminala izateak sortzen dion har gaiztoa kontzientziatik uxatu eta tragedia hori bere edertasun osoan dastatzeko barne-bakea berreskuratzen du: “Nuestro espíritu se tranquiliza ya ante el restablecimiento de la justicia. El contraste entre el infeliz Edipo y su criminal padre no se nos borrará jamás cuantas veces leamos esa sublime obra literaria, y contribuirá a intensificar y perfeccionar nuestra emoción estética”.

Berez, lehen esan zigunez, bideak ez du helburua justifikatzen. Lizunkeria ez da haizu, ezta literatur aitzakia gisa ere, baina kausa zuzena denean, Ediporen kasuan bezala justizia aplikatzen denean, krimena ez da moralki zentsuragarri. Berez kondenagarriak diren portae-rak kasu batzuetan onargarri bihur daitezke, beraz. Hemen ageri da Orixek, inoiz, irizpide kasuistikoaren arabera aplikatzen dituela bere printzipio moralak, batzuetan zabalago, besteetan estuago.

Aplikazio konkretuetan, segun eta zein kasu den, zalutasun handiagoz edo meharragoz jokatzeko badu ere, printzipio estetikoaren mailan, ideiak garbi finkatuak dauzka edertasun moralari dagokionez, Ederra, segidan zedarriz etorriko garenez, on, maitasun eta hezkuntzarekin harremanean azaltzen du.

Ederra eta ona

Orixek, onaren kontzeptua ederrarena baino zabalagoa dela esan eta gero, artearen eta ongiaren arteko kidetasuna azpimarratzen digu, hegi hori, batez ere: “Eder eta On elkarren lagun aundi dirala agertu bearrik ez dugu. Ortaz, eder-lanak, ots, antze-gauzak (*las obras de arte*) ta oiturak elkarren kide ditezkeela aitortzea ez da aundi”. Zentzu honetan ezesten du artearen autonomia, berori beste ezereen eta inoren mende ez dagoela aldarrikatzen den zentzuan, alegia. Kontzeptu horiekiko lotura aintzakotzat hartzen ez duelako, horregatixe kritikatzeko du Menéndez Pelayoren ikuspegia: “Antze-gauzak eta oiturak ez omen dute ar-emanik edo ikuskizunik. Iraizean esan ba lu, barkakizun zitezke, baina berariz ari izan zan, ori egia zala adierazi nairik, eta bidezko da, alako gizonari argitasun osoa eskatzea. Antzeak (*el arte*) bere burua dula begira-muga, ta beraz ez dala beste ezereen eta inoren mende aitortu zigun, Gainera, *La Celestina* dalako ipui artan, eder-irizleak ezer ez dezakela txartzat artu, oituralariak txartzat eman bear ta ere”.

Hor Orixek adibidetzat *La Celestina* tragikomedia ekartzea, inentzionala izateaz gain, jakingarri zaigulakoan nago, hori irakurri eta Orixe jesuitaz oroitu, botoia zapaldu eta argia piztu bezala izan baita nire gogoan. Aipu horrek, *Quito'n arrebarekin irakurriz* liburuan aski pasadizoa esandakoak, hemen astiroago hausnartzeko bide ematen dit.

Hezkuntzaren Soziologiako ikerketek erakusten dutena berretsiz, ageri da norberaren hezkuntzak literatur irizpideen moldaketan baduela zerikusia. Eta nolakoa, gainera! Oroituko zara, irakurle, Tuteran

irakasle egon zen ikasturtean (1918-1919) nola esaten zioten Lagundiko nagusiek ikasleen aurrean judizio praktikoko gutxi erakusten zuela. Orixek txarrena pentsatu zuen, bere irizpide moralak –literaturan, batez ere–, nolabaitekoak zirelako esango zutela hori, alegia: “se me ha acusado de que en mi concertación de Literatura aparecieron asuntos verdes; luego dicen se los he leído yo”. Bere defentsan, berde-usaina eduki zezaketen bi liburu aipatzen ditu: Hitako Artzapezaren *Libro del buen amor* eta *La Celestina*. Liburu hauek, literaturaren aldetik garaiak izan arren, arriskugarriak zitzaizkion. Arriskugarriak, soilki moralaren aldetik. Horregatik, hezkuntza erlijiosoan, zentsurak agintzen zuen zer irakurri eta zer ez. Areago oraindik, Orixek jesuita ohiaren kasuan bezala, hezkuntza moral kasuistikoari atxikirik zegoen ikastetxeetan. Berak espreski aitortzen duenez, literaturan adituena iruditzen zitzaizkion aita Ubillos eta Albenizekin kontsultatzen zuen zein liburu irakurri, eta gero, aita Errektoreari pasatzen zion irakurgaien zerrenda. Orixeren bizipen pertsonal hori baino adibide hoberik nekez aurkituko dugu garai eta giro hartan aita Jungmannen teoria estetikoak zein zehatz aplikatzen ziren ikusteko. Bistan da, Orixek tradizio horretatik hartuz osatzen dituela bere irizpide estetikoak. Pentsaezinezko zen harentzat, zakurrari bezala kateatik jaregin eta, artea, moralaren eta egiaren hesirik gabe, irudimenaren larre zabalean solte uztea erabateko askatasunarekin jolasean.

Berriro *La Celestina*-ren aipura itzulita, badirudi Menéndez Pelayo liberalegitzat jotzen duela, ez baitu onartzen kritikaria indiferente edo, agian ulergarriago, ez-moralista gisa agertzea literatur pieza baten aurrean. Nik bederen hala interpretatzen dut haren esaldi hau: “eder-irizleak ere ez dezakela txartzat artu, oituralariak txartzat eman bear ta ere”. Edukiak, nolana hiko delarik ere, jarrera etikoa hartzera behartzen du kritikaria. Baina zer du zentsuragarri, adibidez, *La Celestina*-k?, esango didazu. Orixek ez dakar ezer konkreturik. Tragikomedien inmoraltasuna izango dela pentsatzen dut, hor amodioari ematen zaion trataeran ohiko moralean onargarri ez diren egintzak eta pertsonaiak agertzen baitira: meretriza eta honen laguntzaileak, maiteminduen isilpeko jolasa, heriotzak, eta horrelakoak. Baina Orixeren aipu horretan bada oso ondo ulertzen ez den beste zerbait: *La Celestina* dela eta, ea zergatik sartzen den Menéndez Pelayorekin, zeren hau, Luis Vives poesian gai erlijiosoak lehenestean eta ipuinetan moralaltasuna zorrozki aplikatzearen aldekoa zela esan ondoren, tragikomediak zer

iritzi merezi zion esatera mugatzen baita soilki: "... tiene palabras de singular elogio para la *Celestina*, cuyo desenlace considera como ejemplar escarmiento". Hura goraiatzen duena Luis Vives da, eta badakigu zergatik: arau moralen hausteak, ipuin-bukaeran, zigor gogorraren moraleja tristea ("exitum... amarissimum") dakarrelako, hots, gordinkeria eta inmoralitatea zigortuta ikusten dituelako.

Luis Vivesentzat azken mezuak justifikatzen du *La Celestina*. Orixerentzat, ordea, argudio horrek ez du balio, helburu zuzenak ez baitu zuritzen bide txarrak erabiltzea. Testuinguru honen argitan orain askozaz hobeto ulertzen da zergatik ez zuen onartzen literaturan erotismoaz baliatzea, ezta ariketa gisa era inperzonalean hartuta ere. Horregatik zentsuratu zituen Mirande, Nemesio Etxaniz, Lauaxeta eta Jokin Zaitegi baten gehiegikeriak edo atrebentziak.

Ederra eta maitasuna

Ederra eta ona bezala, ederra eta maitasuna ere uztarri berberari estekatuak doaz, baina ez dira, Platonek *Sinposium*-en dakarrenez, gauza bera: "Maite ta Eder ez dira bat, maite ori zerbaiten mendeko baita; ez ordea edertasuna". Orixeren testuetan zenbat eta gehiago barneratzen zaren, orduan eta harrituago geratzen zara ikusiz zein betea dagoen haren pentsakera Platonen irakatsiez eta irudiez. Honetaz jabetzeko aski da iturri klasiko batzuk irakurtzea, beste batzuen artean, Léon Robinen *La théorie platonicienne de l'amour* (1964) eta A. Dièsen *Autour de Platon* (1972) liburuak edota, gurean, Jokin Zaitegiren *Platon'eneko atarian* jakingarria.

Maitasuna, hain zuzen, ez duen edertasun, ontasun eta egiaren bila dabilena da, ez duen horixe baitu lorkizun: "Maitasuna, Ona eta Ederra beregan edukinaia da, gizon guziek ere gogo dutena, guziaren izena maitasunaren mota bati egozten diogun arren, edergintza-mota bati poesi (egintza) izena ematen diogun bezala". Edertasuna, aldiz, "ilkorren eta ez-ilkorren tarteko" zerbait da, hilkorra dena ezilkor bihurtu nahi bat, artistarengan ezilkortasunaren egarria sortzen duena. Maitasun berezi hau zer den, erdi-minaren irudiaz baliatuz ematen zaigu aditzera: "Ba du ederrak alako erdi-bear bat, naiz gorputzari naiz animari dagokionez. Anima ilkor bat ez-ilkor bihurtzen da, bateratasunean ernatuz ta sortuz".

Poeta da, hain zuzen, ernalmin sentitzen dena, ariman on-inda-rraren hazia berarekin daramana, ederrera hurbiltzen dena eta itsusitik

alde egiten duena. Arimako ernalkuntza honen bidez, maitasunaren ondorioz alegia, gorputz bat maitatzetik bi maitatzera pasatzen da.

Zergatik dakargun maitasunarena edertasun moralaren atalean? Arrazoi simple honengatik: bere baitan bi joera dituelako, onerakoa eta txarrerakoa. Lehenengoa “oberen dana irrikatzen dun aburu bat” da eta “gogo-neurria” du ondorio; bigarrena “geronezko atsegin-gura” bat da, ondorioz, “lizunkeria” dakarrena. Artistak, ederra erditzean, lizunkeria da gairitu behar duena. Horretarako, txarrera bultzaka eginez datozkion bihotz-eraginak kontrolatu behar ditu. Platonek, arimaren bi joera nagusi horiek, alde banatara tiratzen duten bi zaldik daramaten hega-gurdiaren adibidearekin esplikatzen ditu: “Jainkoen zaldiak bikaiñak dira, ta errez iristen dira beren mugara; baña gizonen gurdiak, zaldi gaiztoaren indarrez, lurrerantza egiten du”. Orixek, asma-kizunetan ibili gabe, Platonen maitasunari buruzko teoria hartu eta kristautu besterik ez du egiten. Jainkoa da Egja bakarra eta, San Pauloren arabera, maitasunaren bidez bakarrik hel daiteke Harengan. Kristau-moralak lizunkeria gaitzetsi egiten du, Jainkoarengantzeko traba bihurtzen delako. Hona hemen zergatik duten hain harreman hertsia ederrak eta maitasunak.

Morala eta hezkuntza

Lehen esan da artearen helburua, platondarren eskolan, hezkuntza dela. Orixek “Las ideas de Pestalozzi” artikuluan egiten du bi kontzeptu horien aipamen esplizitua. Luzuriaga jaunak hitzaldi bat eman zuen Pestalozziri buruz, 1927an, Bilboko Ateneoan eta hari entzundakoan oinarrituta juzgatzen ditu suitzar pedagogoaren iritziak. Bigarren eskutik, beraz.

Entzuten dituen hainbat hitzaldirekin gertatzen zaion bezala, honek ere pedagogiaz gogoeta batzuk egiteko parada eskaintzen dio. Gogora dezagun lehen ere, analfabetismoaz jardutean, gogorki salatu zituela hezkuntza-sistemaren akatsak, nekazal gizarteko herri euskaldunetan ematen zirenak, zehazki: irakasteko metodo egokirik eza, irakasle euskaldunen beharra, eta abar. Baina hemen eztabaidatzen dena ez da, orduan bezala, hezkuntza praktikoa, hots, irakaskuntzaren praxia bera, hezkuntzaz dauden teoriak baizik.

Hitzaldi hartan Pestalozziz entzundakoak, antza, gustu mikatz samarra utzi zion, eta bi ohar egiten dizkio. Lehena, ikasketa teologikoak

utzi eta, modernismoaren besoetan erortzen dela, eta bigarrena, printzipio praktikoak ez dituela zaintzen. Emile Durkheimek ere, hezitzaile praktikoa eta pedagogo teorikoa bereiztean, antzeko zerbait leporatu zion bere garaian. Horregatik, pedagogiaz hitz egitea baino beharrezkoagoa da esperimintatzea, haurra maitatu eta honi erakusten jarduteko prest egon behar baita, Pestalozzi, Calasanz eta Manjón baten antzera. Horixe da, hain zuzen, pedagogia modernoan falta dena. Emile Durkheimen “el educador avezado sabe hacer lo que hace falta... y, a la inversa, el pedagogo puede estar falto de toda habilidad práctica” esaldi hura, Orixek, haren berri izan gabe, antzeko ideia formulatzen du pasarte honetan: “No el mejor teórico será el mejor pedagogo, sino el más sacrificado”. Hark trebetasunean jartzen duena, honek sakrifikatzeko gaitasunean jartzen du.

Gaur egun –metodoaren aldetik, bereziki–, asko aurreratu bada ere pedagogia modernoan eta aurrerapen honetan ez gutxi Pestalozziri zor bazaio ere, esan behar da Platon eta Kintilianoren baitan aurkitzen zirela jadanik suitzarrak aldarrikatutako formula batzuk, hala nola metodo intuitiboa eta esperientzien mundua. Areago oraindik, hezkuntza moralari dagokionez, atzerapena da atzematen duena: “Nos atrevemos a decirlo: creemos que desde Platón a Pestalozzi ha habido retroceso en las ideas, principalmente en lo que se refiere a la educación moral. Platón coge al niño desde los brazos de su nodriza y pone en boca de ésta fábulas expurgadas de inverisimilitudes y fantasías excesivas, y no permite, por respeto a los dioses, que viva en su República el poeta Homero, que hace concebir tan triste idea de ellos y puede viciar con sus versos las voluntades de los jóvenes”.

Platonek *La República*-n hezkuntza moralaz dakarren ideia horixe bera edo oso antzekoa aipatzen nuen *Orixek eta bere garaia* liburuan, haren bizi-urratsen berri ematen dudana VII. atalean, uste bainuen, baina intuizioz, Orixek harena ezagutzen zuela. Hemen, iturria ez badakar ere, esplizituki aipatua dator eta berretsia geratzen da Orixek Platonekin duen zorra. Greziar tradizio horretan oinarrituta, erlijioa eskolan irakatsia izan dadila eskatzen du, hezkuntzari bete-betean dagokion elementu hain garrantzitsua alboratzen duen pedagogia modernoaren kontra eskatzen, hain zuzen ere: “La voluntad, como potencia ciega, no sólo necesita dirección, sino también una fuerza motriz que la impulse al bien, a veces arduo, que se le propone... Y, hablando en católico, en la educación de la voluntad se prescinde de

un factor importantísimo, de un principio activo sobrenatural que informa y forma las almas en la perfección que es posible en esta vida. Tenemos derecho a hablar del elemento religioso ya que, aún los paganos inculcaban la piedad para con sus dioses. Nada de este elemento aparece en ciertas escuelas de nuevo cuño, sino todo lo contrario. Se prescinde calculadamente de Dios; se arranca solapada y criminalmente al niño la fe que haya podido recibir en la sociedad doméstica”.

Rousseau eta Kant bezalakoak beti ere konpainia arrisksua baitira katoliko batentzat, pentsatzekoa da horiengandik hartutako Pestalozzen subjektibismoa eta intuizio morala ez zitzaizkiola gustukoak. Baina hitzaldi batean hari buruz esandakoan oinarrituta, harena gehiago ezagutu gabe, juzguak egiten jardutea, ez da biderik egokiena. Egia da Pestalozzik irakaskuntza memorismoan eta abstrakzioan oinarritzen zuen metodo klasikoarekin hautsi eta, intuizio eta esperientzian oinarrituz, metodologia berria landu zuela, pedagogia psikologikoa deitzen zaiona. Pedagogi metodo honetan, gauza sinpleenetatik konplexuenera joatea proposatzen baita, hots, ikusten diren gauzetatik kontzeptu abstraktuetara, heziketa erlijioso eta morala gerorako uzten da, kontzeptu horiek atzitzeko haurra gai izango denerako. Jainkoarekin harremanetan jarri aurretik, bada, haurraren beste balio batzuk landu behar direla uste du, hala nola eskerronekoa izatea, maitasuna, karitatea eta obediencia. Horretarako eskola ez da beharrezkoa. Ama nahikoa da. Pestalozzik ez dio garrantzirik kentzen erlijioari, gutxiago ukatzen. Egiten duena da, hezkuntzaren baitan, eskolaren xedea eta erlijioarena bereizi. Bereizketa honek funtsezko aldaketa ekarri zuen gizarte-bizitza modernoan, zeren integrisimo katolikoarentzat eskola, lehen-lehenik, heziketa erlijiosoaren leku baitzen. Leku sakratua, ukiezina. Espainian, adibidez, XIX. mendean eta XX. mendeko lehen laurdenean, irakaskuntzaren eremuan gauzatutako erlijio-arazoaren inguruan borrokatu ziren gartsuenik integrisimo katolikoa eta liberalismoa. Orixe, ondoko testu honetatik ere susma daitekeenez, joera integristan sartua sumatzen dugu: “El señor Luzuriaga, como acostumbra hacerlo todos los de la acera de enfrente, tuvo cuidado de suprimir de la Historia ciertas glorias pedagógicas que para ellos nada significan. ¡Veremos los ejemplos de elevación de niños de las clases humildes que aduce la institución libre de enseñanza!”.

Orixe ur-tanta bat gehiago da integrisimoaren itsasoan. Nondik datorren jakinda, halakoxea izatea tokatzen zitzaion. Azken belaunaldiko

norbait aitarenka hasiko bada ere, jokamolde horretan ez dago izutze-korik ezer, oraintsu arte horixe izan baita euskaldun gehienek segitu izan dutena. Eusebio Osa izan zen, “Ikastola eta erlijioa” artikuluan zehazki Pestalozziren antzeko ondorioak plazaratu zituen lehena, funtsezko bereizketak eginez: Ikastolaren eta katekesiaren artekoa, euskaltzaleen eta Bibliako Jainkoaren artekoa. Garai hartarako aurrera-pauso handia zen fedearen baitako bizitzan mailak eta mailak bereiztea. Berak ondoko bostok bereiziko ditu: praxiarena, interpretazioarena, sistematizazioarena, transzendentziarena eta ospaketarena. Fedearen lehen unea praxi humanistan gauzatzen da eta horixe da Ikastolari ematea dagokion zeregin bakarra: “Kulturgingtza, pertsonagintza, askatasun eta justiziagintza, giza baloreak lantzea, gizon berriak sortzea da Ikastolaren egitekoa. Praxis humanista hori fedearen praxi-mementoarekin identifikaturik gelditzen da. Memento hori beharrezkoa du haurrak”. Beste uneak, autorearen ustez, Ikastolaren zereginetatik at geratzen dira. Ikastolen bilakaeran laikotze-prozesuaren hasiera suposatzen duen aldaketa hori, ordea, euskal gizartearen sektorerik aurreratuenen bakarrik ematen da, Orixe hil eta hamar urtera. Ez dezagun gal historiaren haria!

Edertasun intelektuala

Edertasun-mota honen etxean barneratu aitzin, sarrera gisa, hiru artikulua aipatu behar dizkizut, horietan, lainotsu bada ere, elementu baliotsuak dauzkagu eta.

Pedro Mourlane Michelena jaunaren hitzaldia entzun eta gero, haren esanetan fidatuta idazten duen “Anatole France” artikuluan, kritikak autore klasikotzat zeukan frantses idazle haren pentsamenduan bi gauza atzematen ditu, berari gustatzen ez zaizkionak: eszeptizismoa maila erlijiosoan nahiz politikoan eta Voltaire eta Renanen aireko moral liberala. Hizlariari entzunda, desilusionatuta geratu zen, seguru asko zerbait gehiago espero zuelako. Anatole France bezala, ideietan kontraesanekin tiki-mika ibiltzeak ez dio inori ematen idazle klasiko handien zerrendan sartzeko biderik. Klasiko izateko, haxe falta zaio: irmotasun intelektuala.

Aurreko artikulua horretan egindako kritikaren ildoan areago sakonduz, funtsezko arazora joaten da “Clásicos y clásicos” artikuluan,

esatean klasikotasuna ulertzeko moduak eta moduak daudela, eta, Anatole Francek ez bezala, klasikoek bere literatur obren oinarrian jakintza jartzen dutela: “Los clásicos ponían por principio capital de sus obras literarias el saber, el saber profundo, no la noticia más o menos confusa de las cosas. Se deleitaban en el orden, en la consecuencia, en la unidad y coordinación de las ideas. Eran hombres de severa disciplina intelectual; poseían conocimientos que lentamente se filtraron en su espíritu, que reposaron mucho en su cerebro”. Klasikoen lanek egiazko ikuspegi arkitektonikoaren arabera eginak dirudite: lehenik, plangintza orokorra dator, oso ongi trazatua; gero, osotasunaren ederra gordez, xehetasunak marrazten dira; azkenik, xehetasun bakoitza aztertzen da. Obra honetan ikuspegi orokorra bezain garrantzitsua da azken xehetasuna. Oro dago logika zehatzez josia. Horregatik, nahiz eta autore moderno batzuk egiazko jeinu izan, ezin dira klasikotzat aitortu. Eta ezin dira, hain zuzen, jakintzatik murriztuz antzean dabiltzalako: “Muchos escritores de hoy, algunos de verdadero ingenio, se resienten de falta de formación: no han tenido la educación metódica de sus facultades”. Lehen esan bezala, horixe da Anatole Franceren kasua, esandako arrazoiengatik, Orixeren gogokoa ez dena.

Hemen, jakintza diogunean, egia irakurri behar da. Egia bakarrik da eder eta maitagarri. Zentzu honetan, egiazkotasuna arteari zein zientziari dagokien ezaugarria da. Areago oraindik: zientzia, artistaren hezkuntzan oinarritzko elementu bat denez gero, beharrezkoa zaio arteari. Zientziaren helburua errealitatea ikertzea da, eta artearena, berriz, berori gainditzea; baina biak finkatzen dira errealitatean. Tesi honetan batera datoz, Antzinateko klasikoak ez ezik, baita erromantikoak, errealistak, naturalistak, beristak eta beste hainbat ere. Eta, horiekin batera, gure Orixe. Honek, “Ellos a nuestro campo” artikuluan, egia filosofiko eta literario hori aristotelismoak erakusten duen sendotasunean aurkitzen dela baieztatzen du. Bera da filosofia katolikoa oinarritzen duena: “... siempre volvemos en metafísica al punto de partida de Aristóteles, cuyas doctrinas ha archicanonizado la filosofía católica, llámese escolástica o eclesiástica”. Filosofia honek, sentsibilitate eta intuizioaren gainetik, adimena lehenesten baitu, oinarritzko egiak jadanik aurkituta daudela pentsatzen du: “Las verdades fundamentales que alcanza nuestra razón, si es que son verdades, no deben tampoco variar sin que esa estabilidad en progreso indique ausencia de progreso: las mismas son hoy que en tiempos de Aristóteles, el príncipe

de los filósofos. Aquellos que imaginan el progreso precisamente en el avance o en la evolución, no exigen que se cambie de sexo o de organización corporal, al menos desde los tiempos de Darwin. La verdad es una y la belleza es una. Frente a las aberraciones de la literatura y filosofía puramente subjetiva y sentimental, mientras el hombre no pierda la razón, se irá volviendo a la filosofía y literatura objetivas, que son las que especialmente ha amparado la Iglesia católica”.

Daukan mamiagatik bere osotasunean eman nahi izan dudan testu horretan ageri zaigu Orixen, inon bada, klasikozale itsua. Aristotelismo eta eskolastikarekiko fedea eta modernismoarekiko mesfidantza, adimen-aukera baten ondorio dira, txanponaren bi aurpegiak bezala. Testu hori aurrean edukita, oso ederki esplikatzeko da Donibane Lohizunen eboluzionismoari buruz izan zuen eztabaida garrantzitsua. Izan ere, filosofia eta literatura objektiboak bakarrik baitira baliozkoak, ondorioz datorren zerbait da ikuspegi horren haren eboluzioak zentzurik ez izatea. Objektibotasun horrek ixten du egiaren zikloa eta, hain zuzen, horregatik da bakarra. Haren ustez, Eliza katolikoa izan da autore klasikoaren kutxa ondoen zaindu eta landu duena, eta berari dagokio —eta ez Erreformen oinarritutako humanismo liberalari—, haien defentsa egitea. Elizaren tradizio klasikoan, autore klasiko aipagarrien artean, hauek izendatzen ditu: Krisostomo, Agustin, Ambrosio, Zipriano, Jeronimo, Luis Leongoa, Quevedo, Antxieta...

Beraz, Orixek klasikismoaren defentsa egiten duenean, korronte horretatik Erreformaren nahiz humanismo heterodoxoaren nahiz modernismo laikoaren kutsua daraman oro baztertzen du. Kristautasuna eta liberalismoa elkarrekiko zentzu baztertzailan ulertu izan duen jarreraren intelektual hori gehienbat jesuitikoa izan da; Jesusen Lagundiak Erreformari erasotzeko hartu zuen berbera, alegia. Fedearentzat arriskugarri izan zitekeen humanismo errenazentista liberalari aurpegi emateko, irakaskuntza jesuitikoa, jatorriz paganoa zen greko-erromatar tradizio klasikoari bere soineko historikoa kendu zion eta gainean estaldura logiko eta estatikoa ezarri. Esentzien estaldura zen hura, ideia unibertsalena, betiko egiena, ez hezur-haragizko gizaki historikoena. Ordutik hona urteak eta mendeak igaro diren arren, Orixek ez bide du eskemaz aldatuko. Modernismoari ateak sistemaz ixten dizkio. Sarraiz eta atalagaz.

Kazetaritzako artikuluetan jasotakoak bateratuta, egina daukagu jadanik ederraren eta egiaren arteko lotura. Eskolastikak egina ematen

dio, eta honi aristotelismoak: “Gauzen izana ta gauzen egia bat dirala diote jakintsuak, ots, ba dala izan-egia, gauzen egia (*veritas rerum*) gauzei dagokiena, izanezkoa, alegia. Ortatik gero gure baitako egia, ezagu-egia, ots, ezagumenaren eta ezagu-gauzaren arteko kidegoa, antza. Naiz bat eta naiz bi bere ditu ederrak; areago oraindik, egi diranak ez ezen, egi-antzeko diranak ere bai. Orregatik esan zun Aristotelesek, antze-eleak gerta-jakintzak baño arlo zabalagoa dula”. Hau, formula eskolastikoan esanda, *adequatio rei et intellectus* besterik ez da. Gauza bakoitzak bere egia duenez gero, gauzaren eta berau atzitzen duen pentsamenduaren arteko egokitzapena ematen denean, orduan erdies-ten da egia.

Ez filosofian bakarrik, estetikan ere antzeko egokitzapena ematen da bakoizkako gauzaren eta artistaren artean. Hemen ordea, adimenaz gain irudimenak ere parte hartzen duelako, egokitzapen hori modu berezi batez ematen da. Artistak, bakoizka agertzen zaion gauzaren aurrean, irudi konkretu horrek bere baitan duen egia unibertsala atze-man nahi izaten du eta hori ematen aditzera. Bakoizkako gauzari dagokion egia, bere bakoiztasunez erantzita, guziekikoa bihurtu nahi du: “Bakoizkako gauzetan, agertu bearra daukagu antze ori, ta berebat, bakoiztasun ori kendu nai diogu, guzierako zerbait ezarriz. Emen gure burruka. Antzea iduriari dagokio batez ere, ta iduria bakoiz-gauza da; baño bakoiz-muga ori urratu nai dugu beste aldera, guzierako egiteko. Idurimen-adimenak beren aldera egiten dute: idurimenak argitu egin nai, mugatu egin nai, adimenak guzierako biurtu nai”.

Aski abstraktua dirudien hori adibide baten bidez esplikatzten du. Itsasora begira dagoen gizonak, hasieran, gauzak bakoizka ikusten ditu: uhinak, txalupak, antxetak... So eta so dagoela, egoera erdi-sor horretan, bakoizkako gauzen aztarrena galduz doan heinean, gorago joateko deitzen dion barne-eragina sumatzen du barruan, “gorago-naia” sortzen zaio. Une honetan, egia handiagoaren, hots, guziekiko edo unibertsalaren bila abiatzen da. Horixe da, hain zuzen, ederraren egia edota, segun eta bilaketa horretan nolakoa den adimenaren eta irudimenaren partaidetza, egiantzekoa.

Bakoizkako gauzaren egiatik, azkenean, guztizko egiara goaz, han baitatza eder-eredua: “Egi bakoitzetatik aldeginaz, egi guztizkora bidetan asi gera. Egi guztizko ori azken azkenean bakarra da, ta artara jotzen dugu oarkabe. Sumatzen ditugunak oro, askotsu dirala ta, guzien batasuna billatu nai dugu, ta aiengan billatzen ez ba dugu ere, gerok ematen diegu batasun ori”.

Egia bakar hau, hala esango du Luis Leongoarekin eta Joan Gurutzekoarekin batera, Jainkoa da. Artistak, bada, gauzetan nolabait ispilatzen den Jainkoarengana jotzen du ereduaren bila abiatzen denean. Abiapuntu hau ontzat ematen den une beretik, edertasun absolutuaren ateetan aurkitzen gara, bertan sartzeko gertu.

Edertasun absolutua

Ederra, ona eta egia, azken finean, izaki absolutu baten baitan pertsonalizatzen dira. Izaki absolutu hau, bere baitan Eder, On eta Egia huts eta garbi den hori, Jainkoa da Orixerentzat. Hemen kokatzen dira artearen eta erlijioaren arteko harremanak, Jainkoarenganazte hori erlijiozko bizipenen bidez adierazten baita arte-munduan.

“Literatura religiosa” artikuluan, kultura herritarra, unibertsala eta erlijiosoa bereizten dituenean, oso garbi azaltzen du artearen eta erlijioaren arteko lotura hori. Gizakiak, izadiarekin dituen harremanez gain, gizarte-harremanetarako gutxienezko kultura ere bereganatu behar du, tokian tokiko beharrei erantzuteko gai eta, aldi berean, guztientzako baliagarri izango den hura. Baina kultura herritar eta unibertsala baino beharrezkoagoa du herri baten sinesteak eta morala besarkatzen dituen kultura erlijiosoa. Hau da Orixerentzat, beharrezkoena ez ezik, baita lehenengoa ere. Erlijio-sentimendua herriak, berez, bere erraietan txertaturik daraman zerbait da: “El sentimiento religioso, como lo atestigua la Historia, es, pues, también el más universal y el primero de los sentimientos del hombre. Estas dos cosas, cultivo de la inteligencia y de la voluntad, son las que completan la cultura humana, aunque sea vulgaridad el decirlo. No(s?) van casi acostumbrando a considerar culto a un hombre dotado de ciencia, por más que su corazón sea verdadero erial de malicia. Hombre vicioso no puede ser hombre culto en toda la extensión de la palabra, como no puede ser bello el jardín que tenga un tablar cubierto de flores y otro de cardos”.

Euskal literaturari gagozkiola, herriak gehien maite duena erlijio-kezkarri erantzuten diona da. Hala izan da literatura zaharrea: “Para lo más pueblo de nuestro pueblo estaba de sobra toda otra materia literaria, a no ser las hojas volantes de copleros improvisadores”. Heriotzondokoen gaia, heriotzarena, San Balendin Berriotxoaren martirioa,

kristau-dotrina, hamar mandamenduen kantua, etab., Detxepareren tradizioetik hasi eta Adema Zaldubiren garaia arte, bertsoan eman zaizkio herriari. Herri xeheari hurbilenik zaion *Argia* astekarian bertan, batzuek igandeko ebanjelioa da lehendabizi irakurtzen dutena. Orobat, elizarako liburuetan –eta, batzuetan, ez direnetan ere bai–, saltzaileek “el modo de oír la misa” propaganda-esaldia ezartzen diote liburuari. Honek guztiak zer frogatzen duen? Orixerentzat hauxe: kultura erlijioso delá baserriar sotilari gehien interesatzen zaiona. Literatur mota hori landu duten gehienak apaizak izan direla esateak ez du balio, Oihenart eta Joanes Etxeberri laikoek, adibidez, hauek ere gai erlijiosoak erabili baitzituzten. Horregatik, herrian gairik errotuena erlijioarena delako, euskal literaturak eremu hori landu beharko luke etorkizunean. Hauxe da Orixeren tesia, testu honetan ederki laburbiltzen dena: “La preferencia de los vascos por la literatura piadosa no obedece, pues, según creemos, a que apenas haya otra clase de literatura: obedece a las creencias y sentimientos arraigados, a su espíritu eminentemente práctico. Conocido éste, nuestros poetas tienen precioso campo en la poesía piadosa y moral”.

Artikulu hori egin eta handik hogeita hiru urtera (1950), Guatemalako erbestealdian idatzitako “Siñest-Begia” artikuluan, herria bi zati eginak izaten du: “Fedeari eutsi diotenak, Elizara doaz len bezala, ta len baño gartsuago; ez doazenak irri egiten diete lotsagarri bai litzan”. Fedegabeen portzentaia ere ematen du leku berean: % 60koa Euskal Herrian. Indize hori puztuegia da, zeren, 1946-1961eko epealdiari dagokionez, igandeko mezara doazenak, % 58,8 baitira Bizkaian 1952an, % 79 Gipuzkoan 1946an, % 82,2 Araban 1962an eta % 90 Nafarroan 1960an. Sekularizatuz doan euskal gizarte horren aurrean, berak jarrera bikoitza agertzen du: batetik, pesimista ageri da, horrek galera handia suposatzen duelako eta bestetik, berriz, optimismoari eragiten dio, esperantza ehuneko beste berrogei horien kristautasun gartsuan ezarria daukalako. Aurreko artikuluan kultura erlijioso aldarrikatzen zuen bezala, hemen ere kristautasuna –irakur kultura erlijioso– beharrezkotzat jotzen du herriarentzat. Beharrezkoa, bi arrazoi hauengatik: gure gurasoen ondarea delako eta, gainera, egia eta ederraren jabe egiten gaituelako. Fedea ukatetik datoz, etorri, lapurreta, lizunkeria, heriotza eta elkar ezin ikusia. Kristautasuna oraingotu egin behar delá? Ez; hura sakonki bizi duen kristaurentzat beti baita gaztea eta gaurkotua. Kristautasuna, hasierakoa nahiz oraingoa, berbera da. Lehen esan duguna: egia bakarra da. Bakarra filosofian eta teologian.

Euskal Herri kristauaren defentsan, berak errotik bizi zuen erlijio-sentimendu horretan, egiazko apologeta izan zen. Arestian ikusi bezala, literaturan gai erlijiosoak erabiltzearen aldeko aukera egin zuen. Euskal Herriko gizon ospetsuen zerrendan, fededunak sartu zituen, batik bat: Loiola, Xabier, Zumarraga, Legazpi, Urdaneta, eta abar. Menéndez Pelayoren kontra, eta Julio Urkijoren laguntzarekin, heterodoxiaren infernutik salbatu zituen euskal entziklopedistak: Manuel Ignazio Altuna, Rousseaturen adiskidea, Joaquín Eguía Aguirre, etab.

Adibide horiekin Orixek defendatu nahi duen tesia, bipil eta biribil esanda, hauxe da: kristau-erlijioan datzala egiazko bide bakarra, ez dela herri xumea bakarrik literatura erlijiosoa maite duena, baita bertako intelligentsia ere. Euskal entziklopedistek Frantziako Ilustrazioak eragindako zientziarekiko jakin-mina ekarri zuten, Espainiari falta zitzaion elementua, hain zuzen, baina ez heterodoxia.

Hasieran, Orixeren estetika lau edertasun-motaren argitan interpretatzeari ekiterakoan, piramidearen irudia ekarri da. Eder-mota horiek zentzu dialektikoan ulertu behar dira, edertasun korporaletik absolutura, espiralean doazela. Ederraren hasieran, berezkoan nahiz asmatutakoan, Jainkoa dago, Absolutua, Pentsamendua. Horregatik da erlijioa estetikaren alfa eta omega, aldi berean. Artea sakratutik abiatzen da eta sakratuan bukatzen. Estetikaren eta mistikaren irizpide bakarra estasia den bezala, egiazko artea erlijiositate-espirituz egindako bilaketan zertzen da. Honela, egia den bezala balio guztien kokagunea, sakratua da helmuga, gauzak oro nahitaez helburu horretara bideratzen ditueneko ideal transzendentea. Artea, beraz, edertasun absoluturako bidean mailarte bat gehiago besterik ez da. Azken muga, Jainkoa da. Bera dugu On, Eder eta Egia bakarra.

HAMALAU GARREN ATALA

ARGIALDIA: EDERGINTZAREN PROZESUA

Aurreko atalean, edertasunaren lau aurpegiak azaltzerakoan, Orixeren estetikan lau maila bereizi ditugu. Sailkapen hori, nolabait esateko, edergintzaren prozesu ontologikoari dagokiona da, edertasun-mota horien arteko harremanak maila horretakoak direlako. Orixek argialdia deitzen dion edergintzaren prozesu hau, ordea, psikologikoa da, gehienbat, ederraren sorkuntzan artistak nolako urratsak ematen dituen erakustea baita horren xedea. Komeni da bi mailok ez nahastea.

Artistak eder-lana egin aurrean izaten duen aldiari deitzen dio “argialdi” Orixek. Argialdi honek, egilearekin esateko, hiru une ditu: “lena, ezagumenari dagokiona, buru-lana, ots, adimen-irudimenen lana; bigarrena barneminaldia, ots, eder-bearraren gaiak antzelariari barrena ukitzea, zirrara ematea; irugarrena, erdialdia edo erditzea bera”.

Argitasunaren amoretan, prozesu hirukoitz hori banan-banan azalduko dut, une bakoitzaren ezaugarriak emanez.

Buru-lana

Artista izateko, Orixeren ustez, berezkoa eta ikasia izan behar du batek. Zertatik behar duen gehiago ez du esaten, baina bai “berezkoari ez ezen azibideari ere asko zor zaiola”. Gauzetaz ohartzea, behatzaille fina izatea, dohain hauxe duzu premiazkoena artista batentzat. Zergatik? Gizon ohartuaren lehen lana gauzak bakoizka ikustea delako. Horretarako, noski, begiak ondo zorroztu behar. Lege hau eder-lanaren maila guztietan aplikatzen da: “Au da aurreneko lana: gauzak bakoizka

ikustea. Orobat esan diteke giza-jardunetaz, naiz ederlan bat irakur-tzeaz. Irudimena ta adimena, oraiñarte adiskide dira, besotik dijoaz bakoiz-lan ori ari duten bitartean. Geroago lanak”.

Artistak lehen une honetan egiten duena da, adimena eta irudi-mena lanean jarri, eta, bidenabar, bakoizkako gauza hori eta horren ingurunea aztertu. Bestela esanda: non-nongoen koordenada barruan, egoera kokatu edota eder-gai dena deskribatu. Nahi duzun bezala. Orixek, dioena hobeto adierazteko, adibide plastiko hau dakar: “Zoaz basora, ikusten duzu arkaitz bat, illa, ikusten duzu aren gainean zugatz bizia, ta aren xarde izkutu batean kabia, bizi obearen itxaropena. Kabi orrek barrenean artille goxoa dauka, kanpotik abarrak eta zoztorrak ba ditu ere. Ikusiko zendun, agian, basora bidean sasiren batetik zintzili-ka, ardiren batek igarotzean utzi dun txima. Artaz edo olakoaz baliatu da txoria kabia atontzeko. Ikusten duzu, luzaro gabe, inguruan dizula txoria, kabira sar naian. Zozo-bikote balin ba da, ekarriko duzu gogora Euskalerrri guziko ipuia; etorriko zaizu burura artaldea, errekan ito zana, alegia; eguraldiaren berritzea, bigarren negua, artzai gaisoaren ondamera, ta abar ta abar”.

Adibide horretan datozen elementuak aztertuz gero, ohartzen zara bakoizkako gauza baten behaketatik –kasu honetan zuhaitz gaineko habia lekutzetik, alegia–, ideia mordo bat asoziatzen dituela berehala: ardi-txima, txoria, zozo bikotea, artaldea, negua, artzaina... Lan honetan, irudimena adimena bezain libre dabil lanean.

Lehen elementu hau –deskribapena, alegia–, ez da sekula falta Orixeren poesietan. Gauza onartua da, eta aztertua, haren oharmena biziki indartsua dela. Joxe Azurmendirena da pasarte hau: “Orixek sekulako deskribizioak utzi dizkigu. Paraje deskribizioak (gehienetan *coulisse* edo bastidore antzera). Egiteenak: lan, apustu, burruka, erro-meria, ehize, eta abar. Egonarenak, noski, ez dugu alferrik mistiko eta. Pertsonaia kuriooenak. Jendeenak, bakarrenak. Abere eta gizonenak. Eguraldienak. Nik ez dakit zenbat gauzarenak”. Honetan zeharo San Inazio Loiolakoaren eskolako dugu, honek ere bere otoitzaldia “lekua deskribatzetik” hasten baitzuen.

Barne-mina

Izadian nahiz giza jardunean nahiz irakurketan, behatzaileari bere bakoiztasunean agertzen zaion eder-gaia ondo aztertu ondoren, hurrengo

urratsa da, begiztaldi edo intuizio ahal bezain luze eta mamitsu batez, bakoiztasun horretatik alde egitea eta barruko sorraldian sartuz gero, barne-mina sortzea. Bigarren une honetan antzera jokatzan dute mistikoek eta artistek: “Gauza ontan, berdin ez badira ere, ariora jotzen ditut nik gizon Jainkozkoa ta gizon antzelaria. Diranak oro aurrena ikusiz ta begiztatuz, gorago-naia datorkio santuari, aiek sumarazten diote izate izkutu ua ezagutzera ta maitatzera. Orobatsu gertatzen zaio antzelariari ere. Erabateko begiratu ori, laiño-antzeko ori, itsas-ertzean esan genduanera edo, uste baño ernalgarrigo zaio, ortan bear bezala atsedean ezkerero. Olako sorraldian ematen dira antze-lanak”.

Edertasun intelektualean nabarmendu dugun prozesu berbera errepikatzen da une honetan ere. Artistak, bakoiztasuna utzita, gorago jo nahia sentitzen du, gauzaren ezkutuko zerizan edo egiaren bila. Bestalde, lehen unean adimena eta irudimena elkarren lagun baziren ere, orain adimenaren esanera egon behar du irudimenak, hari baita-gokio, ez arrazoketa bidez, begiztaldi bidez baizik, egiaren bilaketa horretan giza ahalmen guztien gidari izatea eta, horrela, ahalmen horien arteko harmonia edo “batera-joa” lortzea. Harmonia hau bai barne-mintzean bai erditzean, bietan da beharrezkoa.

Erdi-beharra

Ederra egiteko unea dugu hau. Edertasunaren eta maitasunaren arteko harremanak aztertzerakoan, ikusi genuen nola ongiaren hazia ernaltzen den ariman maitasunaren bidez eta nola, ondorioz, maitasuna ugalkor bihurtzen den. Platonengandik hartutako pasarte hauek irakurtzean, Lizardiren “erdi-bearra” datorkio gogora. Honek, Errenteriako poesi lehiaketa zela bide, “Erdi-bearra” izeneko artikulua idatzi zuen 1930eko maiatzean eta Orixek hortik pasarte batzuk hautatzen ditu. Nik pare bat eskaintzen dizkizut, Lizardiren erdi-behar horretaz zerbait jaso dezazun: “Gure gaitz ori, gure axkure edo dalako zer ori, gure ‘erdibearra’, beingoan esateko, ¿eztezute ezagutzen? Inork, eri danik, eztu bein-ere osasuna maite izan guk gere miña, gere zauria, gere legena; guk gere erdibear ori aña”. Beste honetan oraindik adierazkorragoa da Lizardiren luma: “Musak diralako atsoek atzaparpean ninduten; irudi-miñez nengoan izorra; oztikarak astintzen ninduan; sukar larri batek menderatzen. Gaitz orrek beñere artu zaituten guziok ongi

dakizute zenbatetaraño dan beldurgarri”. Orixek ordea, xaloki aitortzen digunez, ez du horrelako suminik sentitu izan bere erditze-aldian.

Gatozen berriro Platonengana Orixeren eskutik. Erditze-aldian adimenak, irudimenak eta nahimenak batera jokatu behar dute, era harmoniatsu eta orekatsuan jokatu ere, “batez ere, naigalea, barne-eragiña gerongan sumatzen dugula, ta, al bait, galtzen ez dugula, itzetan eta besteneko antze-gaietan goxotasuna, guritasuna ager dedin...”. Edergintzaren helburua bere osotasunean lortuko bada, irudimenak bere heinean jokatu behar du, berdin adimenak. Oreka hori erdiestea ez baita hain aise, horregatik sortzen dira lan osagabeak, Orixek “lan eketxak” deitzen dienak.

Harmonia da ederra zertzen duen elementu funtsezkoa. Hori gabe, Orixek Agustinekin eta Luis Leongoarekin batera dioen bezala, ederra ez litzateke eder: “Agustin santuak, antzera batera-jo ortan dartzala esan zigun, naiz aritze egonekoa naiz jarduneko. Izadia bera ere kantari guzizkoren baten baterako mintzoa omen da. Nekeak balio baitu, aren seme Fr. Luis de León’ek eder eta zabal adierazi zigun aritzearen bateratasun edo batera-jo ori”. Greziar ereduaren arabera, arte-lanak egitura arkitektonikoa izan behar du, osoa eta zatiak ondo orekatuak behar ditu.

Harmonia hori nola lor daitekeen? Lehen esan da artistak zor diola berezkoari, ez gutxiago ikasiari. Orixek, Leongoko Luis mistikoaren *Los nombres de Cristo* liburua maisu duela, bi lege nagusi ematen ditu.

Lehenengoa –eta nagusia–, izadia kontenplatzea da, hura ezagutu eta maitatzea, haren ukitua sentitzea. Izadia da artistaren lehen eskola, ikasteko gogoz doakionari lege iraunkorrek ematen dizkiona: “Au dugu ikas-lekua. Ikasgu ontan ez da, gaur asma ta biar igatu egiten dan legerik, ez adimenaren kezka okerrik, ez naimenaren naikeririk. Emengo arau ta lege, aldaezifñak dira, izadiaren einean. Eskola ontako azibidea gotorra da, ezarian burubide onekoa; ez bortxazkoa edo indar-bearrezkoa”. Izadiari egindako begiztaldi samur batek ehunka liburuk eta milaka legek baino hobeto esango digu zein den edergintzarako bidea, izadi-eskolako legeak jatorrizkoak direlako eta ariman leun-leun eta oker-beldurrik gabe kokatzen direlako. Horregatik jo behar du ederza-leak izadira: “Ortaz, au bedi lenengo lege: izadiari batez ere, naiz gizon antzegilleak egin dituten laneri begiztaldi maitea egitea, ederraz ta antzeaz egin diran liburueri jaramon egin gabe, ikaratzeko aifña baitira.

Ta ez alare izadi-eskola bezala egizkoak eta betikoak. Ontara jo bear du beti edonoizko antzelariak, okertu ez dedin eta azibide jatorra ar dezan”.

Esan behar da Orixek lehen lege hau zintzo bete zuela, nabarmenki zintzo ere, bere adiskide Lizardik bezala. Euskal literaturan zenbat izango dira izadiari bi hauek bezainbat kantatu diotenak, eta kantatu hain ondo?

Bigarren legea, aurrekoaren osagarri dena, irakurketa da: “Aurreneko ikaslekua, aurreneko maisua izadia da; baña eder-lanak ikusiz, entzunez, irakurriz, antzerako asko ikasi dezake artarako danak”. Zer eta nola irakurri behar den ere esaten digu. Ez da irakurri behar edozein gauza, baizik eta, Kintilianoren esana aintzakotzat hartuz, onena bakarrik: “Irakurtzeaz Kintilian’en onua artu gogoan: *Optimus quisque legendus*; oberenak irakur bitez”. Eta irakurri, ez tarrapatan, astiro eta hausnartuz baizik, harmoniaren bila joanki, erlea lore-antsiaz bezala: “Aurrena asti astiro irakurri eder-lan osoa; urrena, zatika aztertu, burubidea ikusi, adimen-idurimenak nola jokutzen diran ikertu; lanak batasunik eta borobiltasunik badun begieman. Ongi aztertu ondoan, berriro erabat irakurri aspertu arte, ta egin digun ukitua, zirrara, astiro auznartu”. Irakurketa pausaturako, batez ere Anatole France bezalako autore modernoengan nabari ohi den axaleko prestakuntza intelektualean pentsatuz, Kintilianoren beste aholku hau gomendatzen du berriro: “Hoy nos hace falta recordar el sabio consejo de Quintiliano. *Legere non multa sed multum*”. Irakurri, ez asko, baizik ondo. Zer irakurri jakin behar da. Honetan datza sekretua.

Badirudi bigarren lege hau ez zuela okerrago bete, ezaguna baita gutxi irakurtzen zuela. Eta nola ona urri izaten den, Orixek kasu handia egingo dio kritika adituak ontzat iritzitakoari. Zentzu honetan, ohargarri da, lehengo kontuak berrituz, “Originalidades de Pio Baroja” artikuluan datorren aipu hau: “Hará de esto unos diecisiete años. A la sombra de un pinar, dos amigos departámos de literatura. Argüífame el otro de cierto recelo mío, que él creía sistemático, hacia los autores modernos. No me creía yo con suficiente formación para discernir lo depurado y lo más o menos decadente. Leía lo consagrado por la alta crítica y por los largos años”.

Testu horrek zer adierazten duen? Niretzat asko. Orduan Orixe 25 urteko gaztea zen, Oñan filosofia irakasten ari zena eta bere kabuz pentsatzeko aski gaitua zegoena. Hala ere, literatur irizpideak finkatzeko orduan, besteak beste, bi elementu aipatu izan dira: hots, egilearen

ganako urruntasuna gordetzea eta kritikak urteen luzean onartua izatea. Eskola jesuitikoak bi elementu horiek eskatzen zizkion autore klasiko bati ontzat hartua izan zedin. Irizpide bikoitz hori da, Durkheimen ustez, jesuitek autore modernoak klasikotzat ez hartzea esplikatzen duena. Esango nuke Orixekitsu-itsuan segitzen diola irizpide horri literaturan. Honentzat, edozein literatur lan nolakoa den juzgatzeko orduan, kritikarien usteak oro ez dituzu maila berekoak. Jesuitetan, adibidez, aita Ubillos, Albeniz, Errandonea eta, aditutzat dauzka. Aita Estefania ere bai. Baina besteak? Hau beste oilar baten kukurrukua duzu.

HAMABOSGARREN ATALA

ORIXE NIRE BEGIAN

Azken atal honetan, gogoeta-gai gisa eta labur, ohar batzuk azaltzera mugatuko naiz, esatekoak hemen aztertua izan den Orixeren tesuinguru historikoan kokatuz. Jakizu, nire lehen eta azken asmoa, izan, Orixeren pentsamendu filosofiko, estetiko eta literarioa testuz testu, zuzenean beretik hartuz, aztertzea izan dela. Lehenik ezagutu. Gero letozke balorazioak eta gainerakoak.

Kantuz gozatzeko prosista eta poeta

Azentuaz eta bertsoez jardutean, garbi geratu delakoan gaude Orixerentzat ez duela balio musikarik gabeko poesiak, literaturan erritmoak, doinuak agintzen duela.

Orixeren tesi honetan ere, azkenean, greziar ereduaren sustraiekin egiten dugu topo. “Una esperanza de nuestras letras” artikuluan dakarrenez, lehen baino ere ohartuago geratzen da Orixeren begi zolia irakurtzean aita Errandonea jesuitak bat eginda atzematzen dituela musika eta poesia dramatikoa greziar tragedian, *Edipo erregea* tragedian, zehazki: “Esa combinación, esa fusión de ambas artes, pretensión de casi todas las literaturas existió realmente en Grecia. Hay en la literatura griega tragedias en que ni la música perjudica a la concepción dramática, ni ésta a aquélla, sino que sirven para acelerar la marcha de la acción”. Grezian, poeta bera baitzen bere tragediari musika ezartzen

ziona, dantzatzerakoan kantatzen ziren poesietan adina arreta jartzen zuen musikan.

Greziar literaturan poesia, musika eta dantza bat eginda bazetozen, Orixeren baitan ere halaxe datozela konstatatzen da. Paralelismo honek ezin digu ezkutatu hasieran esana, hots: hor atzean, azkenean, greziar eredu duela gidari eta eragile Orixek. Artikulu-bukaeran ere garbiki dio Grezian dagoela euskal literaturaren geroa: “Las futuras letras vascas, si no perece antes nuestro idioma, tendrán como fundamento sólido los eternos modelos de la bella forma”.

Baina Orixe urrutiago ere joan zen, esan baitzuen, behin eta berriz esan, euskal bertso gehienak, hizkuntzaren berezitasunagatik, hobeak zirela kantatzeko deklamatzeko baino. Esan nahi zuen poesia askok, musika ezagatik hain zuzen, min ematen ziotela belarrarian. Hain ozenki eta hain konbentzituta bota zuen hori jendearen aurrean, ezen euskal poetak izututa geratu baitziren. Lizardi bai, bederen. Lizardik, Orixeren Donostiako hitzaldia (1928) gogoan zuela, hauxe idatzi zuen Erretereriako poesi lehiaketak lortutako arrakasten ondotik: “Olerkariok degu orain aldi, gorapenak yasotzen. Bazan ere garaia! Irutsu urte auetan kikilduta bizi giñan, ‘Orixe’k eman baitzizkigun, beñola ederrak... Izneurtuz idaztea txaldankeri agiria dala, bertsoak beti dirala txar, beti mintzo aizun; eta abarra... Beltzena au zan: geren artekoxe batek, bere leena ukatuz, –amaika izneurtu ederren egille baita ‘Orixe’ yauna–, ain errukigabez gu yo-bearra”.

“Lectura y canto” artikuluan zehazten du zergatik gaitzesten duen bertso deklamatu: “El verso lírico meramente leído o declamado nos atormenta los oídos, la imaginación y el entendimiento, por su doble atentado contra la prosodia de la lengua y contra la forma interna del estilo”. Ezin du jasan bertso zaratatsuen mailukada. Horrelako bi ahapaldi irakurri baino lehen akitzen da, nazkatzen. Errimak bezain gogaikarriak zaizkio azentu behartuak. Baina hori ez zaio gertatzen euskal poesiarekin bakarrik. Baita klasikoekin ere. Pindaro eta Horazioren bertsoek, adibidez, ez dute erabat zoriontsu egiten gure gizona. Virgiliok ozta-ozta asetzen du. Bertsoak, errimak eta ahapaldiak ideiarenean hedakuntza askeri ezartzen dioten tiraniaren kontra, Orixek belarriaren estetika aldarrikatzen du. Horregatik eskatzen du kantatzeko bertsoetara itzultzea, Antzinatean bezala: “Así quisiéramos que se publicaran los versos líricos, con música o con indicación de ella. Versos para cantados, los admitimos todavía”.

Iritzi honek, entzumenari atxikiriko arrazoi estetikoaren eskutik hartuta, greziar tragediara garamatza zuzenean. Oso nabaria iruditzen zait aita Errandonearen eragina.

Klasizista eta kontserbadorea

Klasizista eta kontserbadorea ez ezik, Orixe absolutista ere badela esango duenik izango da. Jarrera absolutista kritikoa diodanean, esan nahi da arte-lanei buruzko judizio kritikoa arau doktrinalen argitan egiteko joera ezkatzen dela, ez dela bereizten norberaren ikuspegi doktrinala eta iritzi kritikoa. Horrelakoetan, juzgatu baino gehiago, aurreiritziz jokatzeko da objektibitatearen eta alde aurretik ezarritako arau absolutuen izenean. Ikuspuntu hau dogmatikoa eta absolutista da, eta halaxe da, kritikak erabakitzen duena, agindu kategorikoen indarrez erabakia izaten delako. Dena den, ez da erraza ikuspuntu teorikotik begiratu bereizgarri diren bi mailok praxian bereiztea.

Zentzu batean, C. C. Carloni eta Jean C. Fillouxek uste dutenez, esan daiteke doktrina klasikoak bide ematen duela kritika absolutistaren formulaziorako. Greziar estetika, adibidez, *a priori*ko estetika izanen litzateke. Zergatik? Egia, Ongia eta Ederra balore absolutu eta unibertsal gisa gogo ematen dituelako eta, honetaz aparte, nahitaezko harremanak ezartzen dituelako baloreen, moralitatearen eta egiaren artean eta hauek, bidenabar, edertasunaren baldintza eta ezaugarri direlako. Joera honetakoak genituen La Harpe, Nisard, Saint-Marc Girardin, Népomucène Lemercier, Brunetière, lehen aipaturiko J. Jungmann, eta gehiago. Eta gurean Orixe? Osoki ez bada ere, hein batean baietz esango nuke, jarrera absolutistari egotzi ohi zaizkion ezaugarri gehienak berekin baititu. Greziar estetikaren suposizioak onartzen dituen heinean, hala dela esan beharko da. Eta hein handi batean, saiakera honetan askozaz gehiago baita hartzaile sortzaile baino, zuzen esana dela uste dut jarrera absolutistaren ildotik hurbil dabilela bere iritzi kritikoetan.

Absolutismo honetan dogmatzat hartzen dira zenbait postulu: adibidez, badirela aldaezinak diren betiko egiak, egia oro adimenari dagokiona dela, badela bere baitako edertasuna, badela edonon eta noiznahi beti berbera izanez dirauen “giza izaera”, badela literatur egia bat, filosofikoa den bezala, eta, printzipio hauen sokatik tiratuz gero,

are gehiago luza daitekeen erretolikaren jarioa. Ideia hauek, honezkerro, kaskoan oso sartuak dauzkazu Orixeri entzunda.

Nire galdera hau da: hain ebidenteak ote dira postulatu horiek, besterik gabe onartuak izan daitezten? Literatur kritikan ni baino adituagoak diren lehen aipaturiko autoreek emango dizue erantzuna: “En fait, l’attitude absolutiste repose sur un certain nombre de postulats qui ne sont rien moins que prouvés”. Horixe dira: postulatuak, ez gehiago.

Baina Orixez landa, euskal idazleen erresuman ba al zen estetika-ri nahiz literaturari buruz hain ideia garbiak sistematizatuta, landuta eta idatzita zeuzkan beste norbait? Saiotzat hartzekoa al da Lauxetak, Orixek haren “Maitale kutuna”ri egindako kritika zela eta, 1932ko urrian sei emanalditan argitaraturako “Erantzuna”? Gaur horrelako lanak saiotzat joko bagenitu, aldizkari espezializatuetan argitaratzen diren euskal artikulua asko eta asko halakotzat hartu beharko lirateke. Eta halaxe hartuak izateko, gainera, askozaz arrazoi gehiago eta sendoagoak lituzkete.

LAUGARREN ZATIA
MISTIKAREN BARANOAN

HAMASEIGARREN ATALA

JAINKOAREKIN HIZKETAN

Orixek, *Quito'n arrebarekin* eta *Jainkoaren billa* mistika-liburuez gain, gaztelaniaz idatzitako *El trato con Dios* izenekoa ere bazuela, *Quito'n arrebarekin irakurriz* burutu eta gero, jakin nuen. Erdi-desgaraian, beraz, iritsi zitzaidan aita Isidor Baztakarrikaren bidez. Makinaz jotako lan hau izenbururik gabekoa da, baina beste bide batzuetatik ziur dakigu egileak *El trato con Dios* jarri ziola izena. Zoritxarrez, Orixeren *Idazlan Guztiak* bildumako III. tomoan ikus daitekeenez, eskuratu ahal izan dugun testua ez da osoa. Dauzkadan datu berrien arrimuan, orduan hipotesi gisa eskegita utzi nituen galdera eta zalantzak zehaztuko ditut atal honetan, behin baino gehiagotan geratu bainintzen, noraezean bezala, ilunpean galduta.

Sarrerako argibideak

Noan hasierara eta, barrura baino lehen, eman ditzadan argibide batzuk lan-zati berreskuratuaeren atarian, Orixek lan honi egiten dion hitzaurrean hainbat azalpenen giltza aurkitzen baita. Hemen aurreratzten ditu egileak liburuaeren edukia norabideratzen duten irizpide nagusiak.

Hasteko, koka ditzagun saio honen noiz-nongoa eta zertarakoa. Hitzaurrearen bukaeran, jatorrizko testuan, datu hau dator: “El Salvador, Centro-América, 1952”. Gutun-dokumentazioari esker, erabateko xehetasunez osa daiteke puntu hau. *Quito'n arrebarekin irakurriz* idazten

ari nintzela ikasi nuen, harriduraz ikasi ere, Orixek aldi bertsuan egin zituela euskaraz *Quito'n arrebarekin* eta gaztelaniaz *El trato con Dios*, El Salvadorreko Zaragozatik Jokin Zaitegiri 1952ko apirilaren 4an egingdako gutunean, beste hainbat konturen artean, albiste hau ematen baitio: “Zer ari naizan? ‘El trato con Dios’ bukaeran dut oraintxe. Urrena Salmuekin asi bearko. Oiek eta ‘Zerua’ bukatu ezker, ba’nindoake –etxera ezin– Belloc’a??”. *El trato con Dios* hori *Quito'n arrebarekin*-en itzulpena delakoan, Jokin Zaitegik lehendabizi euskarazkoa buka dezala esanez erantzuten dio hile bereko 21ean. Hurrengo gutunean, handik hamazazpi egunera, *El trato con Dios*, itzulpena ez, baizik eta “Argi-erri” delakoaren luzapena dela zehazten dio: “Ez al nizun eskutik esku-eman, ementxe? Ua zan guzia, aski luze ta aski labur. Galdu al zaizu? Irakurtzean ez al zindun ernarazi? Beste aldakia A. Mokoroari bialdu nion. Ez dauka naski saskirako. Orregatik diot itzaurrean: ‘Este trabajo es ampliación de otro publicado en mi idioma...’ iduri baitzait ordurako aterako duzula. ‘Jesuskristo gure argi otoiitzean’. Esan nizun nik egin dutan eta egingo dutan gauzarik ederrena zala nere ustez. Itsu ote nago, ala zu ez aski atzari irakurtzean? Galdu ba’duzu esaidazu. Mokoroak bialduko luke. ‘Argi-erri’ neurtitzetan ipintea alper deritzat. Ez luke, naski, ekin aña etekin”. ‘Argi-erri’ horren makinazko kopian, atal-buruan, eskuz idatziriko ohar honekin agurtzen du: “Or dioja nere bizi guziko ametsa, ustez egi biurtua. Sekulan ez det olako lan ederrik egin; ez egingo ere. Kopi au zuretzat. Ba-det bestea Zaitegirentzat. Ni batere gabe galdetzen naiz. Ongi gordetzeko ez daukat agindu bearrik. Ez dedila bidean galdu. Zuretzat esku-ikusi oberik ez dezaket asmatu”.

Baina hemen interesatzen zaiguna ez da, Orixek bere “Argi-Erri” hori zenbat ederresten duen jakitea, baizik eta arakatzea zergatik luzatzen duen lan hori gaztelaniazko *El trato con Dios* izenarekin. Hitzazurrearen hasieran ematen digun arrazoia, Zaitegiri gutunez esandakoa argitzera dator: “El presente trabajo es ampliación de otro publicado en diálogos literarios en mi idioma y bien aceptado por mi público. Me animo a publicarlos en español por consejo de varios ilustrados sacerdotes que lo creen útil para las personas que leen libros espirituales en nuestro País”. Lan hori gaztelaniaz argitaratzeko aholkua ematen dioten apaiz horiek euskaldunak ala El Salvadorrekoak bertakoak diren asmatzea, itxura batean erraza dirudien arren, askaezinezko korapilo bihurtzen da, dakigunean ia bateratsu burutu zituela bi lan horiek. Irakurleria euskaldunak *Euzko-Gogoa* aldizkariko zenbaki desberdinetan

argitaratutako *Quito'n arrebarekin* ezagutu orduko egina baldin bazeukan, nola esan zezakeen “acceptado por mi público” eta segidan “por consejo de varios ilustrados sacerdotes que lo creen útil para las personas que leen libros espirituales en nuestro País”? Orixeren *Quito'n arrebarekin* irakurtzen duena nahitaez euskalduna izaki, norentzat idazten du gaztelaniaz, Euskal Herriko “castellano” entzat ala El Salvadorrekoentzat? Ez dakigu. Bere inguruan zegoen Jokin Zaitegik berak harriduraz beteta hartzen du gaztelaniazko bertzio horren berri.

Bestalde, egilearen gogoan, saio honek ez dakar inolako laburpenik izateko xederik; aitzitik, mistikan harrotzen diren arazo garrantzitsuetan norabide batzuk zedarritzeko asmoarekin jaiotzen da: “Definiendo la contemplación con S. Juan de la Cruz una ‘simple atención afectuosa por fé a Dios presente’, me detengo bastante a explicar en qué consiste la atención y su contrario la distracción. También doy mucha importancia a las ‘presencias’, sobre todo a la evocación de la Ss. Humanidad”. Joxe Mari Aranaldek 1987ko urtarrilaren 22ko elkarriketan esan zidanez, jesuita lagun batek Orixe lan honetan mistikako maisuen morroi ikusten zuela eta, gaztelaniazko paperok hautsi egin omen zituen *Jainkoaren billa* burutu ahala. Nire ustez, hobe kritikariaren esanari kasurik egin izan ez balio. Txarrean ere, testua bederen bere osotasunean edukiko genuen. Gainera, autore mistikoen aipu ugari badakartza ere, iritzietan bere nortasunari ondo eusten dio. Abisatu ere, Hitzaurrean abisatzen du bere harrobitik ari dela bai definizioen zehaztapenean bai hautuen lehentasunean: “Al hablar por mi cuenta y generalizando, a la alta oración no la llamo contemplación, por no reducirla al sentido espiritual de la vista, aunque se ha tenido por el más noble. Toda contemplación es alta oración o se deriva de ella, pero no toda alta oración es precisamente contemplación. Por parecerme importante, doy bastante cabida al sentido espiritual del oído”.

Haren nortasuna oraindik areago nabarmentzen da, adibidez, espiritu-bizitzaren bilakaeran autore tradizionalak ezarri ohi duten hiru arotako eskema hausten duenean: “En mi anterior redacción seguía yo a los autores tradicionales, recorriendo las etapas indicadas por Sta. Teresa: pero en esta doy una brevísima referencia de ellas por haberme convencido de que sin pasar por ellas puede haber alta oración en casos no raros, y porque encuentro apoyo en San Juan de la Cruz, quien en sus tratados puramente científicos apenas pone más etapas que las purificaciones, y en ellos da toda la doctrina de oración”. *Quito'n arrebarekin*

rekin-en, Santa Teresaren ereduari jarraiki, espirituaren ohiko hiru bideak aipatzen ditu: garbitzapen-bidea Horeb mendian, argitzapen-bidea Karmel mendian eta bat egitearen bide Tabor mendian. Ondoko lanetan, ordea, San Joan Gurutzekoaren testu eztabaidagarrietan oinarrituz, otoitz bikainerako bide bakarraren aldeko proposamena egiten du. Eztabaidagarriak diogu, zeren San Joan Gurutzekoak otoitz bikainerako bide bat bakarra ala gehiago proposatzen ote dituen ala ez arazoaz asko eztabaidatu izan baita literatura mistikoan zehar, eta, haren lanetan, interpretatzaileek aldeko nahiz kontrako testuak aurkitu uste baitituzte. Badira San Joan Gurutzekoa kontraesanetan erortzen dela diotenak ere. Bikoiztasunaren defentsan, haren *Noche oscura*-tik hartutako aipu hau duzu famatuenetako bat: “... porque los que van por el camino de la contemplación, muy diferente modo llevan; porque esta noche de sequedades no suele ser en ellos continua en el sentido, porque, aunque algunas veces las tienen, otras veces no, y aunque algunas veces no pueden discurrir, otras pueden; porque, como sólo les mete Dios en esta *noche* a éstos solo para ejercitarlos y humillarlos y reformales el apetito porque no vaya criando golosina viciosa en las cosas espirituales, y no para llevarlos a la vía del espíritu, que es la contemplación, –porque no todos los que se ejercitan de propósito en el camino del espíritu lleva Dios a la contemplación, ni aún a la mitad; el porqué se lo sabe– de aquí es que a éstos nunca les acaba (de hecho) de desarrimar el sentido de los pechos de las consideraciones y discursos, sino algunos ratos a temporadas como habemos dicho”.

Bi ohar. Terminologikoarekin hasita, esan behar da “gau” hitzak, Santuaren mintzaira sinbolikoan, arimaren garbikuntza-prozesua adierazten duela, norbere buruari uko egitea, alegia. Gauak idortasuna du ezaugarri nagusi. Bestea, interpretazioari buruzkoa da. Eta hemen badirudi gidoi artean datorrena dela erabakigarri bide-aniztasunaren aldeko irakurketan. Itxura batean bakarrik, ordea. San Joan Gurutzekoak bi arima-mota bereizten ditu: Jainkoak kontenplazio-bidetik daramatzanak, eta bide hori ezagutzen ez dutenak. Baina honek ez du esan nahi lehenengoak mistika-bidetik eta bigarrenak, aldiz, aszetika-bidetik doazenak direnik, baizik eta bi arima-mota horiek direla testuan datorren gau mistiko horren eragin garbitzailea jasaten dutenak eta Jainkoak, noizbehinka eta aldizka, kontenplazio hartuan jartzen dituenak. Bide hertsiki aszetikoan ez baita ematen Jainkoagandiko esku-hartze pasibo eta ez-ohikorik, arima horiek, nolabait, mistikoak

dituzu. Otoitz bikainerako bidea, beraz, bakarra da eta ez bikoitza. Hala interpretatzen du F. Naval autoreak San Joan Gurutzekoaren pentsamendua, bere ustez egoki: “Creemos sinceramente que la posición de San Juan de la Cruz en favor de la unicidad de vías es algo indiscutible. Es consecuencia lógica ineludible de sus principios”. Orixek ere, “porque encuentro apoyo en San Juan de la Cruz” dioenean, badirudi tesi bera sostengatzen ari dela. Nolanahi ere, esan behar da, zehazki *Jainkoaren billa-n*, ez dela inon agertzen hiru arotako eske-ma hori. Eboluziorik ematen da, beraz, Orixeren pentsamendu teologikoan. Honek guztiak, oraingoan zein neurritan esan gabe, bere kabuz pentsatzeko eta bere aukerak egiteko gai zela esan nahi du.

Sarrera honek, osoagoa izateko, lanaren plangintzaz zerbait esatea eskatzen du. Lan honetan, bere plangintzaren zehaztapena egiteko orduan, oso argia da Orixe: “Dos partes contiene: la primera, la teoría general de la oración mental discursiva y no discursiva; segunda, el medio más eficaz para alcanzarla”. Mistikari buruzko gogoetan gidari nor dituen ere oso garbi esaten digu: “En la teoría de la oración discursiva sigo a San Ignacio de Loyola presentando un amplio resumen de sus *Ejercicios*. En la teoría general de la oración no discursiva que llaman contemplación, doy otro resumen de S. Juan de la Cruz. En el modo de adquirirla voy mas bien con Santa Teresa, que la cifra en la evocación bien hecha de la Ss. Humanidad de Cristo N.S.”. Asko eskertzen da horrelako argibideak eskueran izatea. Orri hauek eskuan eduki izan banitu, seguru nago *Quitón arrebarekin* mistika-liburuaren bizkarrezur tematikoa ezin atzemanaz atera nituen izerdiak ez nituela aterako. Iluntasunik handienak otoitzari buruzko atal nagusietan ematen dira, VI-X. mendeetan.

Lehen zati honi dagokionez, hiru atal bakarrik berreskuratu ahal izan dira, gero azalduko ditudanak. Bigarren zatian kietisten hamabigarren proposizioa gaitzestera mugatzen da, zeinaren arabera Kristoren Gizatasuna oztopo baita otoitz bikainean sartzeko: “Hay una dificultad real de nuestra imaginación a los principios de oración no discursiva a que Taulero y S. Juan de la Cruz conceden su importancia. Los quietistas extendieron indebidamente su alcance con las funestas consecuencias que conocemos. Veremos con Sta. Teresa que más bien sirve de gran ayuda en todos los grados de oración, desde el primero hasta el último”.

“Iluminados” edo argituak izan ziren Espainian XVI. mendean gezurrezko mistika modernoa sostengatu zutenak, esanez barne-inspirazioak zurgatu egiten zituela arimaren ahalmenak, akatsik gabeko

bihurtzeraino; XVII. mendean, berriz, kietistek giza ahalmenen lekuan Jainkoaren ustezko ekintza jarri zuten. Aita Santu Inozentzio XII.a izan zen azken hauen 23 proposizio kondenatu zituen, 1699an, *Cum alias* brebearen bidez. Iluminismoaren iturritzat XIV. mendeko Alemaniako domingotarren eskola mistikoa aipatzen da, Eckart maisuak, Joan Taulero espekulatiboak eta Enrike Suson afektiboak osatzen zuten hura. Hauek, Dionisio Areopagitakoarekin batera, esaten zuten arimak egiazki bat egiten zuela jainkozko zerizanarekin mistikako goi-mailetan eta arima guztiek lor zezaketela kontenplazio hartua. Tesi hau San Bernardoren garaitik zetorren ohiko iritziaren kontra zihoana zen. Ez da ahaztu behar, bestalde, aita santu Joan XXII.ak, Eckart hil eta handik bi urtera, honen 28 proposizio erdi-panteista eta kietista kondenatu zituela. Zati honi dagokionetik ez dugu deus berreskuratu, damuz. Dena den, ez dut uste gauza berezirik ekar zezakeenik, *Quito'n arrebarekin*-en esana ez letorkeenik. Honetaz aritua bainaiz *Quito'n arrebarekin irakurriz* liburuan, hemen betelanak egitea baino ez dagokit.

Azkenik, Hitzaurrearen bukaeran, saiakera hau polemika-giro bizian egina izan dela eta mistika-kontuan iritziak zatituta daudela irakurtzen da. Ez Euskal Herrian bakarrik, baita Loiolan bertan ere. Minnez dio San Inazio Loiolakoa ez dela onartua espiritu-bizitzako maisu handitzat eta bai, alderantziz, sutsuki ezeztatua haren metodoa, antiliturgikoa omen delako: “Desde que el P. Pierdot O.S.B. afirmó que San Ignacio vino a pervertir la piedad tradicional de la Iglesia de Dios con su método antilitúrgico –bien se conoce que no leyó las Reglas para sentir con la Iglesia y los mismos jesuitas contribuyeron a lo que por ahí corre como dogma, que el santo dirige a las almas por la vía trillada– y repitiendo la misma frase ‘por el camino de las vacas’, en nuestro País no se quiere estudiar el librito de los *Ejercicios*”. Orixe, Jesusen Lagunditik ohildua izanik ere, zenbait jesuita baino harago doa fundatzailearen espiritualitatea gidaritzat ezartzeko orduan. Lehenago ere, 1924-1928ko epealdian, *Euzkadi* egunkarian behin baino gehiagotan atera zen jendartera Jesusen Lagundiaren ohorea defendatzera eta espiritualitate jesuitikoa errebindikatuzera.

Otoitz-eskolak

Lehen esan da Orixek nori segitzen dion otoitz-bidean. Hemen, zehazkiago, otoitz-eskolak zertan diren aztertuko da.

Hitzaurrean, bi joera edo, zuzenago esan, bi eskola daudela esaten digu: intelektuala bata eta afektiboa bestea. Lehenengoaren arabera, ikusten diren gauzak alboan utziz abiatzen da ikusten ez den Jainkoaren bila eta hemen sartzen da San Joan Gurutzekoa; bigarrenengoaren arabera, ikusten diren gauzetan oinarrituz joaten da ikusten ez den Jainkoarengana eta hemen kokatzen da Santa Teresaren bidea. Lehen joera arestian aipatu dudan Dionisio Areopagitakoaren tradizioetik datorrena den bezala, bigarrena San Bernardo eta San Buenaventuraren tradizioetik datorrena da. Frantziskotarren eskola hau da Kristoren Gizatasuna otoitzaren erdigunetzat daukana. San Inazio Loiolakoaren espiritualitatea, Orixeren ustez, bi eskola horien sintesia egitera dator: “Creo que es innegable la existencia de esas dos tendencias, y creo que más derecho tienen a fundar dos escuelas que las llamadas intelectual y afectiva. S. Ignacio con su actuación de la presencia de Dios invisible en todas cuatro semanas de sus Ejercicios y la evocación de Cristo en la segunda, tercera y cuarta contiene, si no lo entiendo mal, ambos procedimientos”.

Hurbilketa historikoa

Labur esanda, hauxe da Orixek Hitzaurrean aurreratzen eta gero zehaztasunez lantzen duena. Azalpenean barneratu aurretik, otoitz-eskolen garapenari buruz argitasun historiko batzuk ematea egoki iruditzen zait, Orixeren sarrerako aurkezpena era nahiko nahasian egina baitago.

Erdi Aroko doktrina aszetiko-mistikoan eraginik izan zuten Elizako Gurasoen artean, hiru hauek gailentzen dira, batez ere: San Agustín, teologiako sail desberdinetan eman zituen maisu-argitasunengatik; San Gregorio Handia, bere aszetismo-praktikoagatik; Dionisio Areopagitakoa, doktrina mistikoaren sortzaile izategatik eta kristautelogian kontzeptu platonikoak txertatzeagatik. XII. mendetik aurrera hasten da espiritualitatea gorputz hartzen ordena erlijiosoen sorrerarekin batera eta orduan eratzen dira otoitz-eskola desberdinak. Mendehonetan bi ordena daude joera desberdinen adierazle gisa geratu zaizkigunak. Batetik, agustindar kalonjeak edo “viktorianoak” dauzkagu, Parisko “San Víctor” abadian kokatuak zeudelako horrela deituak. Eskola honetakoak genituen Hugo eta Rikardo filosofo-teologoak, Orixek oso estimutan dauzkanak. Hauek Dionisio Areopagitakoaren

doktrinan inspiratu ziren eta horien eskola, funtsean, afektiboa baino gehiago espekulatiboa zen. Bestetik, bereziki jaiera afektiboa lantzen duen beneditar eskola dago, inspiratzaile nagusi San Bernardo duena. XIII. mendean, espiritualitatea teologia eskolastikoaren printzipioez hornitzen denean, beste bi eskola eratzen dira: bata frantziskotarrena, San Buenaventuraren inguruan, afektibitateari eta borondateari lehen-tasuna ematen diena, eta bestea domingotarrena, San Tomas Aquino-koaren inguruan, adimena bihotzaren aurretik jartzen duena. Dionisio Areopagitakoarengandik datorren tradizio espekulatibo honetan kokatzen da, hain zuzen, lehen aipatutako Alemaniako eskola mistikoa, XIV. mendez gerotik iluminismo eta kietismoaren hazia hain indartsu erein zuena. XV. mendean dator, kartusiar eskolako Dionisio Riclelekin, batez ere, joera espekulatiboaren kontrako erreakzioa. Honak Parisko agustindar kalonjeen tradizioa –San Buenaventurarena eta Gersonena– bateratzen ditu, eta, oro har, espiritualitate afektiboa lehenesten du.

XVI. mendeari urrezko mendea deitzen zaio, orduan sortu baitziren zeru aszetiko-mistikoa gehienik argitu zutenak. Aszetikan eta pietate metodikoan San Inazio Loiolakoa eta Luis Granadakoa nagusituko dira eta mistikan, berriz, Santa Teresa Avilakoa eta San Joan Gurutzekoa. Autore hauei esker, espiritualitateak argitasunean eta zehaztasunean asko irabazten du, doktrina mistiko-asetikoaren metodoa landuz eta aurreko eskolen *ñabardura* partzialak osatuz. Hala ere, hauek ere aurreko eskolen eragina jasango dute, nor bihotzaren nor adimenaren nor biak batean urtzearen aldeko agertuko baita. Dena den, harrezkero, tratadistek aszetikaren bidea eta mistikarena bereizi izan dituzte eta hauek, hurrenez hurren, jesuiten eta karmeldarrenen eskolekin berdindu izan dira, batez ere. Nolanahi ere, ordena eta kongregazio erlijioso desberdinen arabera, bakoitzak bere espiritualitate espe-zifikoa landuko du eta bakoitzak bere espezialistak izango ditu. Jesuiten artean pisu handikoak ditugu, beste hainbaten artean, XVII. mendean, Alonso Rodríguez eta Juan Nieremberg, eta, XIX. mendean, Poulain, Bonniot eta Seisdedos. Tradizio honetan kokatu behar da Orixe ere. Honentzat, otoitz-eskolak oro, azken batean, adimenaren eskolara eta bihotzarenera mugatzen dira. Nahiz eta joera nagusiak bi horiek izan, ez dirudi eredu horiek bere garbitasun huts-hutsan inongo eskolak sostengatzen dituenik: “Influídos fueron un tanto por esta escuela (intelectual) San Agustín, Ricardo de S. Víctor y aún S. Buenaventura,

autor, por otra parte, de la escuela ‘por la Humanidad’. Sin afirmar que la gran escuela alemana del siglo XIV vaya exclusivamente, ni mucho menos, por el primer camino pues hay Cristólogos meritísimos, entre otros el genial Taulero con sus 55 sermones acerca de la Sgda. Pasión; pero no se puede negar que se extiende más en cuestiones derivadas del Dionisio y en disquisiciones escolásticas”. Aipatutako kasu horietan, bada, nahiago du eraginez hitz egin, hertsiki eskolez baino.

Jainkoaganako bi bide: ageri dena eta ez dena

Sarrera historiko hau egin eta gero, hobeto ulertuko da “Escuela de oración” izeneko lehen atalean dakarren zatiketa: “De dos escuelas de oración se puede hablar principalmente en nuestros días; la intelectual y la afectiva. Otros añaden la mixta”.

Bi eskola horiek, zehazkiago esanda, ageri ez denari eta ageri denari dagozkienak dira, “escuela de lo invisible y lo visible”, alegia. Orixeek esatera, aspalditik datozkigun bideak ditugu: “En consonancia con nuestro modo de conocer, con nuestras facultades intelectual e imaginativa, dos métodos de ‘buscar a Dios’ se han usado desde la antigüedad: el buscarle en su ser invisible, y el buscarle en sus criaturas visibles. La antigüedad pagana partía sobre todo del mundo visible, llegando a deificar criaturas: astros, plantas, animales, dioses, con su adulteración de Júpiter, padre de los dioses y de los hombres. De aquí nacieron la idolatría y el antropomorfismo. Algunos entendimientos más cultivados llegaron, sin embargo, a la concepción de un Dios invisible, inmaterial, extramundano, con providencia o sin ella sobre sus criaturas. Platón le concibe como alma del mundo. Las metáforas bíblicas de Dios espíritu y Dios luz están concebidas como realidades en Anaxímenes y Plotino. Este último fué influído por el cristianismo, pues fué discípulo de un cristiano”.

Arestian aipatutako bi bide horiek gaintitzen dituen hirugarren bide mistoa zer den mugatzeari ekin aurretik, esango dugu kristau-azetikan ere bi joera horiek ematen direla, errebelatua izan den egia- ren bidez osatuak direnak. Karmelo erreformatu zuten bi santu dira bi bide horiek ondoen ordezkatzeko dituztenak: Joan Gurutzekoa eta Teresa Avilakoa. Lehen esan bezala, lehenengoa, ezagutzen ditugun gauzak oro ukatzearekin batera abiatzen da Jainkoaren bila, bereziki *Subida del Monte Carmelo* eta *Noche oscura del sentido y del espíritu* izeneko

liburuetan. Ageri ez den Jainkoa bilatze horretan, gure irudimenean aurkitzen da trabarik gaitzena. Zergatik? Sinpletasun osoz esanda, Jainkoak irudirik ez duelako. Eta Harengan pentsatzeko, nolabait Hura gogo eman behar baita, hara nola sortzen den irudirik edo itxurarik ez duen Hura irudirik gabe atzeman ahal izateko zailtasuna. Irudimenak, Jainkoagana joateko, hegan egin behar du, hots, tarteko gauza agerikoen itxurak baztertu egin behar dira. Honela, ageri direnak ukatze honetan, Kristoren giza itxura ukatzeraino iristen da; itxura, ez haren Gizatasuna. Kristo gizonari buruzko eszena batzuk, hala nola Pasio-koak, espreski alboan uzten ditu arrazoiketa gabeko otoitzean. Santa Teresa Avilakoak justu alderantziz jokutzen du: Kristoren Gizatasunean oinarritzen da, Joan Gurutzekoak baztertzen dituen eszena horietan, alegia, Haren Jainkotasunera heltzeko.

Kristo batasun-bide bakarra

Bi bide horiek desberdinak diren arren, azkenean biak leku bereira doaz otoitzaldian: Kristorekin bat egitera, alegia. Joan Gurutzekoa, ageri dena alboratu eta gero, Semearekin, Maitearekin, Hitzarekin bat egitera pasatzen da. Teresa Avilakoa, halaber, ageri den Kristoren bidez, Aitagana joaten da. Semea da, azken batean, Hirutasun Santua ezagutzeko atea irekitzen diguna. Orixerentzat, ondoko aipu honetan irmo eta konbentzimenduz dakarren bezala, Kristo da zutabe otoitzean: “Si arrancamos de San Juan de la Cruz las bellísimas estrofas del *Cántico espiritual*, si suprimimos algunas páginas ni menos bellas de su glosa o de *Llama de amor viva*, en las cuales habla del Verbo, toque delicado y sustancial con que se realiza la más alta oración de esta vida, ¿qué es lo queda del resto de sus obras? Para el teólogo una tesis solidísima la tesis de la fé, único medio próximo proporcionado para unirse espiritualmente con Dios en esta vida; para el alma que quiera nutrirse espiritualmente, un desencanto; para el que busque literatura, páginas filosófico-teológicas interminables, con repeticiones enojosas, escritas en una prosa bastante pesada. Suprimamos al Hijo divino de la contemplación, y habremos suprimido el sermón de la montaña y de la Cena; habremos suprimido al extático Verboólogo San Juan, al seráfico Cristólogo San Pablo; habremos mutilado las mejores páginas de San Agustín, de San Bernardo, de San Buenaventura, del Kempis en sus hermosos diálogos entre Jesucristo y el alma”.

Kristo kenduz gero, oro huts bihurtzen da, oro zentzurik gabe otoitzean. Kristo gizon eginak izan behar du beti otoitz bikainean hausnartuko den gai nagusia.

Baina praktikan Kristorekin nola bat egin? Hemen datza kinka. Orixek, galderari erantzuteko bi giltza aurreratzen ditu: bata fedearena da, eta bestea Eukaristiarena. Lehenengoari dagokionez, San Joan Gurutzekoak San Pauloren aipu hau du abiapuntu: Jainkoagana hurbiltzeko, Hura badela sinetsi behar da. Eta Hura badela onartu, ez giza ahalmenez, fedearen bidez bakarrik onar daiteke: “Tengo para mí, que las personas que se abrazan desde el principio generosamente a la fé y buscan a Dios con sencillez, se librarán de este purgatorio del entendimiento. No sólo en la teoría teocéntrica pura sino en la mixta o Cristocéntrica, la fé es el medio”. Bigarrenari dagokionez, esan behar da hemen, Eukaristian, alegia, aurkitzen dutela metodo biek beren atarabide praktikoa, *Jainkoaren billa*-n “urrezko giltza” deitzen diona, bera baita ohiko eta ez-ohiko graziaren iturri nagusi. Hona hemen zergatik den hala: “El cuerpo del Dios humanado está aquí como espiritualizado, como divinizado, sin que pueda ser impedimento a nuestra imaginación al evocarle. En cuanto al medio proporcionado, la fé, aquí es donde hay que ejercitarla por excelencia. Por eso se ha llamado a la Eucaristía *misterio de fé*”.

Orixek, otoitz-eskolen arazo hau, hemen azaldu dugun hau, *Jainkoaren billa*-n dakar, aldaketa handirik gabe ekarri ere, 5. atalean. Ez dago inolako zalantzarik *El trato con Dios* aurrean izan zuela liburu hori egiterakoan.

San Inazioaren espiritualitatea: Karmeldar eskolaren sintesia

Lehen aurreratu bezala, San Inazio Loiolakoren espiritualitatea da bi bide horiek gainditzen dituen, Orixek “escuela mixta” deitzen diona.

San Inazio Loiolakoak bere *Ejertzizioak* liburutxoan utzi zuen idatzia otoitzerako bere metodoa. Honen garrantziaz eta berezitasunaz jabetzeko, puntuok bederen kontuan hartu behar dira: lehenik, San Inazioaren liburutxo hori iluminismoaren hazia han-hemen ugalduz zihoan unean sortu zela, eta, erreakzioz, aszesiaren beharra bereziki azpimarratu beharrean aurkitu zela; bigarrenik, espiritualitatean eskola batetik bestera desberdintasunak egon arren, otoitzerako erabiltzen

diren metodo guztiak, oharkabeen nahiz bestela, San Inazioaren metodoa biltzen direla, eta, harrezkero, harena Eliza osoan zehar aho batez gidaritzat hartua izan dela; hirugarrenik, metodo honetan otoitzaz ari garenean, arrazoiketa bidezko otoitza edo gogozkoaz dihardugula. San Inaziorik otoitz-mota honi arimako hiru ahalmenen ariketa deitzen dio, hots: oroimenarena, adimenarena eta nahimenarena. Orixek, ahalmen bakoitzari buruzkoa bakarka aztertu aurretik, “tokia gertatzea” zer den azaltzen du. Azken ariketa hau irudimenari dagokiona da. Goazen, bada, ahalmen bakoitzaren egitekoa banan-banan hariltzera, argiago ager dadin otoitz-metodo honen hezurdura, Luis Mari Mujikaren azterketan ageri denez, alderdi honek Orixeren bizitza mistikoan zein literatur sorkuntzan eragin erabatekoa izan baitzuen. Eskema hau gabe, galdetzen dut, serioski galdetzen, posible ote denetz Orixeren poesi egitura ulertzea. Bide batez, berresan behar dut, hemen datozen azalpenak *Jainkoaren billa*-n ere badatozela, horko 10. atalean, zerbait laburrago baina. Nolanahi ere, liburu horretan ez bezala, *El trato con Dios* saioan *Ejertzizioak* liburuxotik hartutako aipu asko ematen ditu. Honek esan nahi du testua zokorik zoko miatua zuela, bere iritzia egin zekala.

Tokia gertatzea

Argitasun terminologiko baten zorretan aurkitzen dut neure burua. Orixeren hiztegi-ugaritasuna nahasbiderako aproposa baita askotan, esan beharrean nago jatorrizko “composición de lugar” era askotara itzultzen duela: *Jainkoaren billa*-n “tokia gertatzea”; *Quito'n arrebarekin*-en, “tokia moldatzea”, edo “gertaera berritzea”, baita “gertaraztea ere”. Horregatik, irakurleak zuzen beza *Quito'n arrebarekin irakurriz* liburuan egin nuen okerra, “gertarazte” horren baliokidetzat “representación” eman bainuen lexikoan. Esaldi honetan, bada, bi alderdi sartzen dira: ageri dena eta ez dena.

Ageriko tokiaren gertatzean, bidenabar, beste bi osagai dauzkagu: gogo eman nahi dudana gaia edo gauza, batetik, eta, bestetik, gertakaria ematen deneko lekua. Irudimena lanean jarrita, gogo eman deza-kegu, adibidez, Nazaretoko Jesus Gurutzean dagoela, edo jende-multzolari hizketan ari zaiola, edo Baratzean otoitzean ari dela, edo borroek gogor astintzen dutela pilareari lotuta, eta abar. San Inazio Loiolakoak dakarren “lugar corpóreo o material” hori ez da egiazko lekua,

ez baitu gorputzik; irudimenean sortua denez gero, adierazi nahi duen esanahiaren hedaduraz bakarrik esaten da horrela. Lortu nahi den xedea, gogoeta-gaia asmoz gogora ekartzea da. Zentzu honetan ulertu behar da, bada, “bertan banengo bezala” esaldi ezaguna. Gogoeta-gaiak gogora ekartze honetan, bestalde, garrantzitsuena ez da gertakaria non kokatzen den zehaztea, gauzak eta pertsonak gogora ekartzea baizik. Horregatik, hain zuzen, ez dakar berak bere begiz ikusitako Leku Santuen deskribapenik. Tokiaren gertatzea nola egin, irudimenaren esku uzten du.

Tokiaren gertatzea dela eta, elizgizon batek baino gehiagok, Euskal Herrian bertan, barre egingo duela pentsatzen du Orixek: “Nere adiskide au Aita Jaungoikoarekin agotik agora, bitartekorik gabe otointzera sartzen dan oietakoa diteke”. Baina arrazoi gabe isekatuko du, kristau ezikasienak ere nahitaez irudikarazten baitu nolabait gogo eman duen gertaera. Ageri ez den tokia gertatzean, aldiz, ikusten ez diren gauzak sartzen dira. Hemen osagai nagusia, gauza da, objektua. San Inazio Loiolakoak, bekatuei buruzko gogoetaz diharduela, adibide haxe bakarra jarri zuen: “ver mi ánima (invisible) encarcerada en este cuerpo corruptible”. Adibide honetan, osagaiei bakarrik erreparatzen badiegu, ohartuko gara tokia gertatzearen osaketan elementu agerikoa (gorputza) eta ez-agerikoa (arima) sartzen direla. Horregatik, diferentzia gauzetan bakarrik egon daiteke. Adibide-mota honetan kokatzen dira, halaber, Aingeru zaindaria eta santuak gogoz hausnartzea eta Kristo Gurutzean dagoela irudikatzea. Gogoeta hauek aparte, Jainkoa gugan arartekorik gabe egoteari buruzkoa –San Inazio hirugarren oharkizunean dakarrena eta gogoeta guztietan egin beharrekoa dena, hain zuzen–, ageri ez den gauzarik behinena dela uste du Orixek. Hau izango litzateke adibiderik jatorrena, San Inazioaren pentsamendua ondoen azalduko lukeena.

Bekatuei buruzko gogoetaz gain, badira San Inazioaren *Ejertzizioak* liburutxoan datorren tokiaren gertatzea ematen ez deneko bi gogoeta-mota: bata binarioei dagokiena, eta bestea, kontenplazioari buruzkoa, maitasuna lortzera bideratua dagoena. Ez batean ez bestean dago eszenategirik. Tokiarena, Orixeren ustez, azken bi gogoeta-gai horietan baino nabariago ematen da, eta ematekotan, hirugarren oharkizunean: “Si apuramos, la tercera Adición es más composición de *lugar* que las otras dos, porque en aquellas se supone estar Dios inmediato a nosotros, y en esta hay que mirar al cielo con el entendimiento.

El hombre bien formado en espiritualidad no hace la tercera Adición como un principiante que va a Ejercicios. Está habituado a considerar a Dios dentro de sí, no por fuerza de la tercera Adición que de suyo no exige el acto de fé tan vivo, sino por la práctica provechosa de cada día. En cambio en las otras dos composiciones invisibles de que hablamos, se da más lugar al acto de fé –Dios delante de nosotros, inmediato como nosotros, no como si estuviera alejado allá arriba en el cielo–. Interpretazio honen argitan, hirugarren oharkizunean aurkitu uste du San Joan Gurutzekoaren eta Santa Teresa Avilakoaren bideak bateratzen direneko gakoa: “Si los exegetas de los Ejercicios no lo ven así, no me pueden negar, al menos, que la tercera Adición pueda yo usarla, como composición invisible y como S. Ignacio lo usa siempre, aun cuando en el ejercicio haya composición visible, creo que puedo decir que con esas dos llaves se abarca el sistema de San Juan de la Cruz –acto de fé en Dios invisible– y el de Sta. Teresa –acto de fé en Cristo visible–”.

San Inazioaren otoitz-sisteman ezin alda daitekeen elementu bakarra, hirugarren oharkizunarena da. Hor ageri da bera dela otoitzaldiaren gunea osatzen duena, ageri dena eta ez dena batera ematen direnekoa.

Oroimenaren ekina

Orixek gogoramena edo “memoria” deitzen dio horri. Adimena egia baten edo gehiagoren gainean gogo ematen aritu eta gero sartzen da lanean oroimena. Honek laguntzen dio adimenari gogoeta-gaiak hausnartzen eta, aldi berean, Jainko ikusezina begien aurrean arretaz jartzen, San Inazioaren aipu honetan datorrenez: “Un paso antes de donde tengo de meditar o contemplar, alzaré el entendimiento arriba considerando cómo N.S. me mira, y hacerle una reverencia o humillación”. Beraz, beharrekoak dira bi ekintza horiek, zeren gerta baitaiteke –inoiz gutxitan bada ere–, Jainkoak arima otoitz bikainera laster eraman izatea. Horregatik, komeni da noizik behin, otoitz-gaia buruan iraultzen den bitartean, Jainkoaren presentzia begien aurrean edukitzea. Santa Teresak otoitz-egoera honi “composición mixta de actuada y evocada” deitzen dio: “Actuada porque la segunda Persona divina la tiene siempre dentro de sí, y evocada porque la Humanidad la tiene ausente, salvo en la Comunión”.

Hemendik zein ondorio nagusi ateratzen den? Hauxe: ageri ez den tokia gertatzea, hots, Jainkoaren presentzia aktuatzea funtsezko

zerbait dela otoitz bikainean eta halakotzat zeukala San Inaziok: “El fin de toda oración no es sino hallar la presencia de Dios afectuosa, e Ignacio señala a su ejercitante esa meta desde el principio”.

Adimenaren ekina

San Inaziok bigarren oharrean agintzen dio ejertzizioak zuzentzen ari denari otoitz-gaiak labur azal ditzala, gainerakoa otoizlaria bera, Jainkoaren indarrez nahiz berarenaz, mamituz joan dadin, horrela probetxu gehiago aterako baitu. Asko jakiteak ez du betetzen arima, hausnartzen ari den gogoetan gustura sentitzeak baizik. Horregatik, ezin da esan San Inazio intelektualistegia denik.

Berrizkoa, gain-begiratu eta zentzuak ekartzea

Otoitzaldiaren barruan, San Inaziok “repeticiones”, “resumen” eta “aplicación de sentidos” izeneko jardunaldiak sartzen ditu, Orixek, bere hizkuntzan, hurrenez hurren, “berrizkoa edo gaia berriro iraultzea”, “gain-begiratu” eta “zentzuak ekartzea” deitzen diena.

Zertarako ekinaldi horietako bakoitza?, galdetuko da.

Lehenengoa, probetxurik edo gusturik gehien aurkitu den puntuan atsedendaldi bat egiteko. Honek suposatzen du, ordubeteko lehen otoitzaldia egin eta gaia orotara irauli ondoren, bigarren orduan edo jardunaldian puntu bat bakarrik aukeratzen dela Jainkoaren presentzia edo, Orixerekin esateko, “begiaurrea” berritzeko.

Bigarrena, lehen gogoan erabilitako gai osoari begiratu bat emateko. Beraz, hirugarren ordua osatzen duen hirugarren jardunaldi hau ez da, beraz, errepikapen berri bat, ordura arte hausnartutako gaiaz ikuspegi orokorra eskaintzen digun zerbait baizik. Oraingoan San Inaziok otoizlaria Jainkoaren aurrean jarri nahi du, adimena hara eta hona erabili gabe, Hark bere baitan har nahi baleza, prest egon dadin. Honek, arrazoiketarik gabeko otoitzaren ateetan uzten du.

Jardunaldi horien esanahia hobeto ulertzeko, lore-baratzearen metafora ematen digu. Lore-baratzera zoazenean, hiru une bezala ezagutzen dituzu: lehen aldian, loreak banan-banan ikusten dituzu eta usaintzen, eta honi meditazioa edo gogoeta deitzen dio; bigarren aldian, lehen ibilaldian gehien gustatu zaizkizun loreetan bakarrik egiten duzu pausaldia, besteetan arreta jarri gabe, eta honi “berritzekoa” deitzen dio;

hirugarren aldian, lore-baratzearen erdian geratzen zara, eta handik begirada batez lore-baratzea osoa hartzen duzu aurrean, atsedenean zaude, egon, ikusten duzunaz gozatuz. Azken honi deitzen dio “gain-begiratua”.

Bigarren, hirugarren eta laugarren astean ez da ematen berrizkorrik edo laburpenik. Edo, hobeto esanda, horren lekuan “aplicación de sentidos” edo, Orixerekin esateko, “zentzuak ekartzea” izeneko jardunaldia jartzen du. Lehen erabili diren gaietara irudimenezko zentzuak ekartzen dira. Irudimenez ikusten, entzuten ukitzen... balego bezala jokutzen du arimak. Zertarako? Ikusitakoa eta berritutakoa barnertzeko, beti ere atsedean hartuz atseginik edo nahigaberik gehien hartu den lekuan.

Ez nago batere seguru jardunaldi horiek zein ahalmeni dagozkion, Orixek berak ere ez baitu deus zehazten. Pentsatzen dut adimenaren egitekoa izango dela horiek gidatzea.

Nahimenaren ekina

Nahimenak betetzen du afektuzko alderdia. San Inaziok, hirugarren oharrean, Jainkoarekin ahozko nahiz gogozko otoitzaz hizketan ari garenean, esaten digu nahimena oso erne eduki behar dugula Jainkoaren presentziari eusteko, ondo baitaki adimena ahula dela zeregin horretan. Bestalde, lehen asteko lehen gogoetan, ahalmen bakoitzak nola jokatu behar duen azaltzerakoan, garbiki adierazten du bihotzari gehiago eragin behar zaiola: “y consequenter, moviendo más los afectos de la voluntad”. Beraz, badirudi otoitzaldian ariketa nagusia nahimenari dagokiona dela.

Sentikortasuna

Zenbaitek San Inaziori militar-kutsu handia hartu izan dio. Baina Orixek haren nortasuna oso bestelakoa zela uste du: sentikorra, bihozbera, goxoa. Daturik ere ematen du interpretazio horren alde, baliozkoak diren ala ez zalantzan jarri gabe, ordea. Haren adiskide min Laínezek zioenez, egunean zazpi aldiz negar egiten omen zuen. Bekatuei buruzko gogoetan, ez haien damua bakarrik, negar-malkoak isurtzea ere eskatzen du. Jesusen jaiotza deskribatzeko orduan, haren lumak San Bernardoren bihotz ezitia dirudi.

Atal hau bukatu baino lehen, ohar hau egin behar da: arrazoiketarik gabeko otoitzari buruzko III. ataletik hiru orritxo bakarrik gorde direla. Dena den, pentsatzen dut horren azalpena *Jainkoaren billa*-n, 11. atalean, datorrenaren antzekoa izango dela, gai hori bertan lantzen baita.

Ukitua eta belarria espiritu-zentzuetan

Atal hau otoitzean Jainkoa nola atzematen dugun azaltzera dator-kigu. Otoitza Jainkoarekin sinestez eta maitaro harremanetan egotea dela esateak ez du zailtasun handirik eskaintzen, baieztapen hutsean geratzen den bitartean. Baina hori eguneroko fede-bizitzan nola gauzatzen den adieraztea, hagitx zailagoa da, giza adimenari kosta egiten baitzaio baieztapen hori ulergarri egitea. Espiritu-bizitzaren maila ez-kutu eta misteriotsu honetan ezin mintza gaitzke analogi bidez ez bada. Adiera honetan ulertu behar ditugu, bada, Orixek maisu misti-koen ahoz esaten dizkigunak.

Atal honetan, bi arazo aztertzen dizkigu Orixek. Lehenik, Joan Gurutzekoaren “toque sustancial” edo, bere itzulpenean, “ikiturik barrukoena” zer den esaten digu, eta bigarrenik, belarriak nolako eragina duen ukitu horretan. Hemen dakarrena, esan dezadan berriro, *Quito'n arrebarekin* eta *Jainkoaren billa*-ko atal desberdinetan idatzia du eta gauza berririk ez dator. Lehengoak dituzue, bada, beste era batera eta leku desberdinetan esanak.

Gai honetan sartu aurretik, komeni da kontzeptu batzuk mugatzea, zertaz ari garen jakin dezagun.

Espiritu-zentzuak, Orixek dakarrenez, mistikoek analogiaz adimenari egotzen dizkienak dira, kanpo-zentzuak eta irudimena baino askozoz zorrotzagoak direnak. Haien egitekoa, arrasto gutxi-asko agerikoen bidez, kontenplaztaileari otoitz bikainaren berri ematea da, otoitz horretan gertatzen dena aski iluna baita. Nahiago du Orixek “otoitz bikaina” deitu eta ez “kontenplazioa”, honek, nagusiki, begiarekin baitu zerikusia. Geroago ikusiko denez, ordea, begiak adina edo gehiago, beste zentzuek ere –belarriak, batez ere–, badute beren eragina otoitz bikainean. Hertsiki hitz eginda, eman daiteke otoitz bikaina espiritu-zentzurik gabe, baina ez hauek hura gabe.

“Ukiturik barrukoena” delako hori, estasi-egoerari dagokion fenomeno mistikoa da, kasu desberdinen arabera, meheagoa eta leunagoa

izan daitekeena eta arima zintzoari sarri gertatzen zaiona. Bi puntu dira argitu beharrekoak. Bata Joan Gurutzekoarena “toque sustancial” hori zer den jakitea da. Orixeri berari utziko diogu azaltzen: “Jainkoaren zer-izanak eta gure zer-izanak, tarteko gabe alkar ikutzen dutela, hots, guk eta Jainkoak izanez-izan, edo obeto esateko, geranez-geran ikutzen degula. Ukitu hori Semearekin gertatzen dela dio”. Filosofi nahasmenduetan eror ez gaitezen, esan dezagun “sustancial” adjektibo horrek ez duela adierazten, inola ere, Jainkoaren eta arimaren artean zerizaneko batasuna ematen denik. Alderdi hau aski aztertua dugunez *Quiton arrebarekin irakurriz* liburuan, ez goaz hangoak errepikatzeraz. Bigarren puntua da ukitu horiek maila mistikoari dagozkionak direla, eta hemen espiritu-zentzuak zein mailetan sartzen diren hor erabakitzea da arazo. Bosgarren Egonlekuetan Jainkoa begiz bezala hautematen dela, dio Santa Teresak, baina esatean oso kontuz ibili behar da, zeren Hura gugandik at dagoen norbait bezala hautematean, arras zaila gertatzen baita espazioaren kontzeptua alboan uztea eta arras erraza, aldiz, hedadura duen zerbait gisa gogo ematea. Seguruagoa iruditzen zaio San Agustinen irakatsia. Honek Jainkoa bere baitatik at ez baitzuen inon kausitzen, oroimenean bakarrik atzematen zituen Haren arrastoak.

Jainkoarekiko harreman mistikoa adierazteko, beste hitzok ere erabiltzen dituzte: “gustos” eta “presencia”, jadanik aipatutako “toques” horren baliokide gisa. Horien bidez, ikusmena ez, baizik beste zentzuok aipatzen dira: gustamena, ukimena, usaimena, eta abar. Bestalde, Jainkoaren presentzia, adibidez, ikusmenez nahiz entzumenez hauteman daiteke.

San Inazio Loiolakoak, ukipen horiei “moción” eta “consolación” deitzen die, biak sinonimotzat joz: “Llamo consolación cuando en el ánimo se causa alguna moción interior con la cual viene el ánimo a inflamarse en amor de su Criador y Señor...”. Bihotz-hunkipen edo dardara horiek oharkabean gertatzen zaizkio arimari: “... sin causa precedente... digo sin ningún previo sentimiento o conocimiento por el cual venga tal consolación, mediante sus actos de entendimiento y voluntad”. San Inazio Loiolakoaren ondoren, gauza bera errepikatu zuten bi karmeldarrek ere. Santa Teresak “estando descuidados”, dio. Badira, lotan edo ametsetan egonik ere, otoiitzean ari ezinik ez dagoela diotenak. Uste horretakoak genituen San Frantzisko Saleskoa, Calderón de la Barca, Santa Teresa, eta abar. Orixek, ahal dela, oharmena

eskatzen du otoitzerako: “Los moralistas exigen advertencia plena para el acto pecaminoso. Si es que existen actos virtuosos durante el sueño, como se pudiera colegir de estos textos, ¿habrá que decir que la benignidad de Dios exige reflexión menos plena para lo uno que para lo otro? En cualquier caso, será precaución cristiana el retractar por medio de un examen de conciencia antes de acostarse, todos aquellos actos pecaminosos, todas aquellas tendencias malas que hayan brotado en el alma durante el día y reforzar los buenos cuya virtualidad pueda, quizá continuar”. Dena den, Orixek berak lotan eta ametsetan zegoela bizi izan zituen esperientzia horiek edo antzekoak. *Quito'n arrebarekin*-eko ikuspen batzuk –zerua nolakoa den deskribatzen dioten bere bi anaia zerukoekin izaten dituenak, adibidez–, ametsetan izango ditu.

Arestian esan da espiritu-zentzuetan, belarria baino harago, entzumenaren dela otoitzean ernaienik dagoen ahalmena. Orixek bederen oso belarriaren aldekoa agertzen da: “Pasamos ahora al sentido espiritual del oído. Aún tomando la palabra contemplación, no ya en el sentido general que se le ha dado de ‘alta oración’, sino reduciendo su significado al sentido espiritual de la vista, aparece que el oído interviene mejor en la percepción experimental de Dios. En el terreno de la fe sabemos que la fe viene del oído: *fides ex auditu*”. Tradizioan zehar hala izan ziren Dabid, San Paulo, San Joan Gurutzekoa eta Frai Luis Leongoa. Orixek Joan Gurutzekoaren aipu asko ekartzen ditu. Horietako batean, adimena arimaren belarria dela, dio: “Y para que mejor se entienda lo dicho, es de notar que así como en el aire se sienten dos cosas, que son: toque y silbo o sonido, así en esta comunicación del Esposo se sienten otras dos cosas, que son sentimiento de deleite e inteligencia; y así como el toque del aire se gusta con el sentido del tacto, y el silbido del mismo aire con el oído, así también el toque de las virtudes del Amado se sienten y gozan en el tacto de esta alma, que es la sustancia de ella. Y la inteligencia de tales virtudes de Dios se sienten en el oído del alma, que es en el entendimiento”.

Oro har, Orixeren ustez, entzumenari ez zaio behar bezalako garrantzia eman izan liburu mistikoetan: “Prescindiendo de los ‘hablas’ y del toque substancial, la imaginación auditiva se fatiga menos en las evocaciones (presencias, representaciones, composición de lugar) que la vista imaginativa. Cristo en la barca de Pedro, en la montaña de las bienaventuranzas puede ser más fácilmente evocado en su divina figura. En la contemplación adquirida, puede ser un buen recurso. Quizás

haya almas visivas más que auditivas; pero de estas no faltan, y todos, más o menos, somos también imaginariamente auditivos”. Lehentasuna du entzumenak espiritu-zentzuetan, zeren, ekarri berri dugun aipu honetan datorrenez, ukiturik barrukoenez ari denean ere hartaz mintzatzen baita Joan Gurutzekoa.

Ez liburu mistikoetan bakarrik, haren poesietan ere sarri-sarri aurkituko dituzue belarriari buruzko aipuak: isiltasuna, hitza, sinfonia, eta horrelakoak. Honetaz zehaztasun gehiago *Quito'n arrebarekin irakurriz* liburuan aurki daitezke, gai hau han aztertzen baita pausatua.

San Inazio Loiolakoaren espiritualitate-iturriez ohar batzuk

Jainkoaren bila-ko “Oarkizunak” atalean biltzen ditu ondoenik San Inazioren espiritualitateak beste eskolakoekin izan dituen harremanak eta eragin posibleak. Norengandik zer hartu zuen eta zer ez? Orixek baditu honetaz bere iritziak. Saxoniako kartusiar Lodolforen *Vita Christi* irakurria omen zuen Loiolakoak eta daitekeena da haren-gandik hartua izatea “tokia gertatzea” delako hori, hark “loci notificatio aliquando prodest” idazten baitu. Gerraurrean, artikulu batzuk idatzi zituen “bertan ba'nengo bezela” esaldiaren inguruan. Orduko lanak gogoratuz, hauxe dio *Jainkoaren billa*-n: “1930'garrenetik 1936'garrena bitartean, argitara eman nuan *El Día* Donosti'koan artikulu bat ‘San Inazio'ren eta San Pedro Alcantara'ren alkar-antzeko itzak’ esaminatuz. An au uste nuen: San Inazio'k San Buenaventura'gandik artu ote-zuan ‘bertan ba'nengo bezela’ au. Gaur, bestera, Ludolpho'gandik artu zuala nago...”. Aipu hori *El trato de Dios*-en dakarren beste honen itzulpen garbia da: “En mi trabajo publicado acerca de los lugares paralelos entre los ejercicios y la Oración y Meditación de San Pedro de Alcántara, dejé suponer que la frase ‘como si presente me hallase’ la tomaría quizá de San Buenaventura. Hoy creo más bien que la tomó del Cartujano”. Berak dioen epealdi honen barruan, “Ignacio de Loyola, maestro espiritual calumniado” artikulua argitaratu zuen, ez Donostiako *El Día*-n, berak dioen bezala, Bilboko *Euzkadi*-n (1932-08-31) baizik, eta hor mintzatzen da, hain zuzen, San Inazio Loiolakoak eta San Pedro Alcantarakoak dituzten elkarren antzeko hitzez eta partateez. Iritziz aldatu egiten da, beraz. Orain, Ludolforengandik hartu zuelakoan dago, honek honela baitakar: “tu tamen omnia tanquam in

praesenti fierent mediteris...”. Berdin “zentuak ekartzea” ere, badirudi harena dela. San Inazioen *Ejertzizioak*, beneditar García Cisnerosen *Ejercitario*-tik hartuak izan zirela esaten da. Iritzi honen kontra jaikitzen da, ordea, Orixek: “Nik, irakurle, biak irakurri ditut, eta oso begiratuki, luma eskuan, irizle zorrotz eran, eta zer esango dizut erabat? Ez dutela alkarrekin ikuskizunik”.

Ez da egia, azkenik, frantziskotarren eskola eta jesuitena orpoz orpo doazenik. Haiena bihotz-eskola eta hauena buru-eskola dela esan izan da. Ez dago baieztapen merke hori erosteko prest. Hala dio, H. Bremondengan oinarrituta: “H. Bremond’ek biribil aitortzen du Inazio’ren otoizkera Erdi-Mendeko prantziskotarrena dala, eta Aita Leclerq prantziskotar prantsesa Ejertzizioetaz baliatu zela prantziskotarren bide-moduan aldakuntza batzuk egiteko”. Badira San Inazioen *Ejertzizioak* liburutxoan pasarte batzuk, ustez Madrilgo frantziskotar Frai Alonsorengandik datozenak edo, bederen, haren kutsu garbia erakusten dutenak, Orixek *Jainkoaren billa*-n biltzen dituen puntu haue-tan: “Recogerse en la presencia de Dios por espacio de un Ave María –de un Pater noster, dio S. Inazio’k–; ‘imitación de Cristo en el deseo de padecer injurias por Él; examen de conciencia por la noche’. San Inazio’ren beste bi esaera ezagun hauek ere han zeuden: ‘Pocos actos vehementes obran más que muchos remisos para formar hábitos’ (Fr. Alonso). ‘En el servicio de Dios vale más un acto intenso que mil remisos’ (San Inazio’k). ‘Parece o remedar a este gran Maestro’ (Fr. Alonso). ‘Por parecer e imitar en alguna manera a Cristo nuestro Señor’ (San Inazio’k)”.

Ez da hau une egokia Orixeren ohar hauen gainean guk geureak egiteko. Honek beste lan monografiko bat eskatuko luke, zalantzarik gabe. Hala ere, ez da debalde esana izango, baldin badiogu, Orixek bazekiela bere iritziak osatu eta zuzentzen, aurkikuntza bere kabuz egiten zuenean, batez ere, ez norbaitek esanda.

Azken iritzia

El trato con Dios saioa osatzen zuten atal-zatiak inguratu nitue-nean, uste izan nuen zerbait berri aurkituko nuela, ez bainuen ulertzen zergatik, *Quito’n arrebarekin* bukatu orduko –edo bateratsu– ekin zion gatzelaniazko saiakera horri. Mezu berri baten desira, agian? Saiakera helduago baten ametsa, agian?

Eskuartean dauzkadan eta nahiko xeheki azaldu ditudan atal horietan oinarrituta, hain zuzen, esan dezakegu gauza berririk ez dakarrela, ez bederen atal horietan. *Jainkoaren billa* eta *El trato con Dios*, ikusi bezala, oso berdinak dira, oso berdinak bai gaiaren bai trataeraren aldetik begiratuta. Haien antzera, hau ere tratatu-eran egina dago. Aipuak eta ideiak, kasurik gehienetan, berberak edo oso antzekoak dira. Orain ulertzen dut J. M. Aranaldek behin batez esan zidana eta hasieran aipatu dudana, hots: norbaitek esan omen ziola *El trato con Dios* horretan nortasun gutxi ikusten ziotela egileari eta *Jainkoaren billa*-n saiatu zela bere kutsua ematen. Zentzu honetan, azken hau *El trato con Dios*-en euskarazko moldaera bat besterik ez litzateke izango. *Jainkoaren billa* horrela burutuz gero, ulergarri egiten da Orixek *El trato con Dios* hautsi nahi izatea, bietan datorren mezua berbera edo antzekoa baita. Eta gorde diren atal solte horietan egiaztatu izan dudanez, pasarte askotan bederen, idazketa bera ere bai.

AIPU-ITURRIAK

Liburuan zehar aipatutako iturriak bakarrik agertzen dira segidako bibliografia honetan. Ez datoz, bada, ez Orixeren idazlan guztiak, ezta liburu hau egiterakoan kontsultatu diren beste hainbat iturri ere. Artikuluak ordena alfabetikoan sailkatuak datoz errazago aurkitzearren.

I. Orixeren idazlanak

1. Liburuak

- (1927): “Euskal-Literatura’ren atze edo edesti laburra” (*Euskal Esnalea*, 1927), in *Euskal literaturaren historia laburra*, Utriusque Vasconiae, 2002, Donostia
- (1934): *Barne-Muinetan*, Itxaropena, Zarautz.
- (1948): *Leoi-Kumea*., Arts et Métiers Graphiques, Paris.
- (1950): *Euskaldunak*, Itxaropena, Zarautz.
- (1963): *El lenguaje vasco*. I-II, Izarra, Donostia (Martin Oiartzabalekin batera).
- (1971): *Jainkoaren billa*, Etor, Bilbo.
- (1974): *Santa Kruz apaiza*, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo.
- (1987): *Quito-n arrebarekin*, Euskal Editoreen Elkarte, Zarautz.
- (1991): “El trato con Dios”, in *Idazlan guztiak. Artikulu eta saiakerak*, III, Etor/Eusko Jaurlaritz, 1216-1241 orr.

2. Orixeren itzulpenak

- (1929): *Tormes'ko itsu-mutilla*, Verdes-Atxirika, Bilbo.
(1930): *Mireio* (Mistral), Verdes-Atxirika, Bilbo.
(1950): *Urte guziko Meza-Bezperak*, Garikoitz'tar laguntzailleak, Tours.
(1956) *Agustiñ Gurenaren Aitorkizunak*, Itxaropena, Zarautz.

3. Orixeren artikulua

- Acentuación Española y Francesa de los Apellidos y Toponímicos Vascos (Altube), *Gernika*, 21, 234-436 orr.
Acentuación vizcaína, *Euzkadi*, 26-12-1928.
Agur Guatemala'ri, *Euzko-Gogoa*, 9-10, 1954, 131-132 orr.
Aita Mitxelena berrizaleekin, *Euzko-Gogoa*, 1-2, 1952, 23-25 orr.
Aizkora. Berriketa, *Euzko-Gogoa*, 1-2, 1951, 33-34 orr.
Aizkoraketa, *Gernika*, 15, 1951, 230-231.
Analfabetismo en Guipúzcoa, *Euzkadi*, 1-05-1924.
Anatole France, *Euzkadi*, 18-11-1924.
Canciones de San Juan, *Euzkadi*, 16-06-1927.
Cánticos religiosos, *Euzkadi*, 21-11-1928.
Ciencia y práctica de nuestro idioma, *Gernika*, 18, 1952, 23-26 orr.
Clásicos y clásicos, *Euzkadi*, 25-11-1924.
Consecuencias estéticas de la reconstrucción de una tragedia, *Euzkadi*, 12-11-1924.
Curiosités du Pays Vasque (J. B. Daranatz), *Euzkadi*, 23-03-1927.
Dantza Nagusia, in *Euskaltzaindia: Orixe. Omenaldi*, 1965, 295-310 orr.
De la música y la letra popular al acento, RIEV, XI, 1920, 174-185 orr.
Demoledores y conservadores, *Euzkadi*, 3-05-1927.
Diatriba y apología, *Euzkadi*, 13-04-1927.
Discípulo y maestro: aprender y enseñar, *Euzkadi*, 4-05-1924.
Dos lenguas cultas de Europa. Lección provechosa, *Euzkadi*, 5-02-1928.

- Dos revelaciones y un fenómeno, *Euzkadi*, 22-05-1928.
- El abandono del caserío, *Euzkadi*, 6-03-1927.
- El acento vasco* (Altube), *Euskera*, XIV, 1933, 266-275 orr.
- El acento vasco, RIEV, IX, 1917, 1-15 orr.
- El acento zuberiano, *Euzkadi*, 26-12-1928.
- El cardenal Lavignerie, *Euzkadi*, 25-03-1925.
- El chistu y el tamboril, *Euzkadi*, 23-09-1927.
- El epílogo, *Euzkadi*, 19-08-1927.
- El genio de un pueblo. Su manifestación más genial. La lengua, *Gernika*, I, 1945, 15-19 orr.
- El impuesto a la metafísica. A los labradores vizcaínos, *Euzkadi*, 27-12-1927.
- El IV Congreso de Música Sagrada. Impresiones, *Euzkadi*, 25-11-1928.
- El P. Salvador Michelena, in *Idazlan guztiak. Artikulu eta saiakerak*, III, 1991, 436-439 orr.
- El patriotismo idiomático, *Euzkadi*, 15-02-1928.
- El personal de tercera persona, *Euzkadi*, 17-03-1929; 19-05-1929.
- El sentimiento del idioma, *Euzkadi*, 2-04-1925.
- El sistema del verbo vasco en el s. XVI (R. Lafon), *Eusko Jakintza*, I, 1947, 165-170 orr.
- Ellos a nuestro campo, *Euzkadi*, 24-01-1928.
- En defensa de bere, *Euzkadi*, 21/24-10-1928.
- En torno a Andoain. El eskudantza, *Euzkadi*, 8-09-1929.
- En torno a Andoain. El servicio a la danza, *Euzkadi*, 12-09-1929.
- En torno a Andoain. La danza ceremoniosa, *Euzkadi*, 13-09-1929.
- En torno a Andoain. Preludio de la danza vasca, *Euzkadi*, 11-08-1929.
- Entre nieve, *Euzkadi*, 11-02-1927.
- Erriari begire. ¡Mintza, lagun!, *Euzkadi*, 4-09-1927.
- Errores de vascólogos nuestros, *Gernika*, 10, 1950, 15-19 orr.; 11, 1950, 25-28 orr.
- Euskal Aditza Sarrera, *Eusko-Gogoa*, 5-6, 1950, 40-45 orr.; 7-8, 18-20 orr.
- Euskera antiguo y moderno, *Gernika*, 12, 1950, 35-40 orr.

Eusko olerki neurritzaz (Durango'ko Euskalegunetan irakurritako hizaldia), in *Lenengo Euskalegunetako Itzaldiak*, 1922, 31-53 orr.

Euzkadi-ren idazlanak. Nekazaritza, *Euzkadi*, 29/30-08-1931.

Finalidad del arte. La cara de las cosas, *Euzkadi*, 8-10-1928.

Gerta-dantza (Bergson-en inguruan), in *Idazlan guztiak. Artikulu eta saiakerak*, III, 1991, 79-90 orr.

Grammaire Basque (P. Lafitte), *Eusko Jakintza*, I, 1947, 477-486 orr.

Gudarien Egiñak (T. Monzon), *Eusko Jakintza*, I, 1947, 700-702 orr.

Hacia la cultura del aldeano, *Euzkadi*, 3-05-1924.

Hacia una gramática nuestra, *Euzko-Enda*, 1939, ekaina, uztaila, abuztua, iraila, urria.

Homenaje a Iztueta. El domingo en Zaldibia, *Euzkadi*, 3-09-1929.

Idioma de cultura universal, *Euzkadi*, 21-05-1924.

Ignacio de Loyola. Maestro espiritual calumniado, *Euzkadi*, 3-12-1929.

Ilburuko edo Testamentua, *Euzko-Gogoa*, 9-10, 1951, 42 or.

Impuesto a la metafísica. A los labradores vizcaínos, *Euzkadi*, 26-12-1927.

Inmaculada, *Euzkadi*, 8-12-1928.

Itsua katsueri mintzo, *Euzko-Gogoa*, 9-10, 1954, 149-150 orr.

Izan, egon, gertatu, *Euzko-Gogoa*, 5-12, 1955, 110-111 orr.

Izatena ta gertatzena (Sartre, Heidegger, Zubiri), *Euzko-Gogoa*, 3-4, 1954, 64-67 orr.

Iztueta y sus canciones. El elemento tradicional y la aportación personal de Iztueta en la letra de las canciones de *Gipuzkoako dantzak*, *Euskal-Esnalea*, XXI, 1931, 9-16 orr.

La frase del chimbo, *Euzkadi*, 23-01-1925.

La frase vizcaína, *Euzkadi*, 20-01-1925.

La honradez crítica, *Euzkadi*, 26-02-1925.

La industria del lino, *Euzkadi*, 11-06-1927.

La lengua primitiva. Deudas de los vascos, *Euzkadi*, 13-12-1927.

La lengua. Su cultivo literario y científico, *Euzkadi*, 20-12-1927.

La makilla vasca, *Euzkadi*, 8-04-1927.

La Nueva Gramática Vasca, *Euzkadi*, 31-01-1929.

- La pronunciación guipuzcoana del Sr. Navarro Tomás, RIEV, XVII, 1926, 260-268 orr.
- La revista *Txistulari*, *Euzkadi*, 17-04-1928.
- La sanmiguelada, *Euzkadi*, 2-10-1927.
- La Schola Canthorum. A su excelsa patrona, *Euzkadi*, 22-11-1927.
- La tradición del tamboril, *Euzkadi*, 3-09-1927.
- Las castañas, *Euzkadi*, 20-02-1927.
- Las clases vascas de la Diputación. ¡Fuera pesimismo!, *Euzkadi*, 20-01-1928.
- Las ideas de Pestalozzi, *Euzkadi*, 22-02-1927.
- Lección práctica de un aldeano, *Euzkadi*, 3-05-1924.
- Lectura y canto, *Euzkadi*, 12-02-1928.
- Leitza'ko mintza-doiñua (Euskaltzaindian sartzerakoan egindako hitzaldia), *Euskera*, III, 1958, 29-36 orr.
- Linguae vasconum metaphysica, in *Idazlan guztiak. Artikulu eta saia-kerak*, III, 1991, 79-90 orr.
- Literatura religiosa, *Euzkadi*, 13-05-1927.
- Lo importante y lo urgente, *Euzkadi*, 14-07-1927.
- Lo que nos legó el pasado. Las viejas danzas vascas. Examen de los danzantes, *Euzkadi*, 13-09-1927.
- Los carboneros, *Euzkadi*, 8-03-1927.
- Los enciclopedistas vascos. Rousseau y Azcoitia, *Euzkadi*, 18-02-1925.
- Los vascos, vegetarianos, *Euzkadi*, 20-03-1927.
- Los masones vascos, *Euzkadi*, 13-02-1925.
- Más en defensa de bere, *Euzkadi*, 24-10-1928.
- Mentalidad arcaica, *Euzkadi*, 31-01-1925.
- Mintzaira bakarra, giza-enda bakarra, *Eusko-Jakintza*, II, 1948, 151-160 orr.
- Muga-itx edo artikulua euskeraz, *Euzko-Gogoa*, 2, 1950, 15-16 orr.
- Muga-itx edo artikulua, *El Día*, 1933-04-16
- Nombres del diablo, *Euzkadi*, 21-12-1930.
- Nuestra crítica literaria, *Euzkadi*, 26-12-1931.
- Nuestros palankaris, *Euzkadi*, 4-09-1928.

Nuestros zortzikos, *Euzkadi*, 18-10-1928.

Olabide'ren *Itun Zarra*, *Euzko-Gogoa*, 5-6, 1950, 46 or.

Ondar-mondar, *Euzko-Gogoa*, 7-8, 1950, 23-26 orr.; 3-4, 1952, 23-24 orr.

Oraindañoeko euskal-neurtitzak (Donostiako Ateneoan irakurritako hitzaldia), in *Itzaldiak*, VI, 1930, 126-168 orr.

Originalidades de Pio Baroja, *Euzkadi*, 15-08-1930.

Paroxítonos y esdrújulos vascos, *Gernika*, 24, 1953, 210-213 orr.

Personales, posesivos, intensivos, *Euzkera*, XV, 1934, 233-245 orr.

Peru Leartza'ko. Txillardegiren liburua, *Jakin* (manuscrito), 5-6, 1960.

¿Pobres? ¿Ricos?, *Euzkadi*, 5-04-1927.

Profecías. La vida de nuestro idioma, *Euzkadi*, 26-04-1927.

Prólogo y el epílogo, *Euzkadi*, 18-08-1927.

Propaganda vasca. Lo importante y lo urgente, *Euzkadi*, 14-07-1927.

Ser, estar, haber. Alcance de dos afirmaciones, in *Homenaje a D. Julio de Urquijo*, I, 1949, 153-159 orr.

Siñets-Begiak, *Gernika*, 13, 1950, 20-21 orr.

Sofismas del corazón, *Euzkadi*, 30-11-1924.

Solución de dificultades, *Euzkadi*, 26-05-1929.

Tankera berriko neurtitzak, *Euzko-Gogoa*, 7-8, 1950, 1 or.

Temor y aliento, *Euzkadi*, 6-11-1931.

Traducciones del plomo de Alcoy, *Euzkadi*, 3-04-1928.

Ukan, Ekun, Edun (Eduki), Un, *Euzko-Gogoa*, 9-10, 1950, 20-22 orr.

Una esperanza de nuestras letras, *Euzkadi*, 8-11-1924.

Unamuno, el amargado, *Euzkadi*, 27-09-1931.

Unidad de las danzas vascas, *Euzkadi*, 5-10-1928.

Unificación del lenguaje literario. Diversas soluciones, RIEV, XI, 1920, 53-61 orr.

Vasco-iberismo. El plomo de Alcoy, *Euzkadi*, 17-03-1928.

Versos a la antigua, *Gernika*, 16, 1951, 41-42 orr.

Vindicación de "El atleta vascongado", *Euzkadi*, 5-08-1924.

Vocales compuestas o de acento doble en el euskera, RIEV, X, 1919, 45-48 orr.

Zaitegi Jauna, *Euzko-Gogoa*, 5-6, 1950, 8-9 orr.

II. Besteen idazlanak

ALTUBE, Sebero ((1936): “Más sobre la vida del euskera. Barriro euskeraren bizitzari buruz”, *Euskera*, XVII, I-IV, Bilbo, 1-192 orr.

— (1928): “Batasunera-bidean”, *Euskera*, IX, Bilbo, 63-85 orr.

— (1933): *El acento Vasco*, Bermeo.

— (1934): *La vida del euskera*, Editorial Vasca, Bilbo.

— (1951-53): “Acentuación Española y Francesa de los Apellidos y Toponímicos Vascos”, *Gernika*, 15, 86-95 orr.; 16, 44-51 orr.; 17, 49-52 orr.; 19, 145-151 orr.; 21, 283-286 orr.; 24, 139-141 orr.

ARANA GOIRI, Sabino (1901): “Los Congresos ortográficos de Hendaya”, in *Obras Completas*, III, Sendoa, Donostia, 2.095-2.145 orr.

ARANA MARTIJA, J. A (1976): *Música vasca*, CAM, Donostia.

— (1980): “Bertsoen doinua”, *Jakin*, 14-15, 80-98 orr.

ASKOREN ARTEAN (1972): *Gure Ikastola*, EFA/Jakin, Oñati.

AZKUE, R. M. (1922): “Euskeraren batasunaz”, *Euskera*, III, Bilbo, 123-132 orr.

— (1934): “Gipuzkera osotua”, *Euskera*, XV, Bilbo, I-X.

AZURMENDI, Joxe (1977): *Zer dugu Orixeren alde*, EFA-Jakin, Oñati.

— (1980): “Bertsolaritzaren estudiorako”, *Jakin*, 14-15, 139-164 orr.

CAPITÁN DÍAZ, Alfonso (1984): *Historia del pensamiento pedagógico en Europa*, Dykinson, Madrid.

CARLONI, C.C.; FILLoux, J.C. (1969): *La critique littéraire*, PUF, Paris.

CERTAU, M. eta beste zenbait (1975): *Une politique de la langue. La Révolution française et le patois*, Gallimard, Paris.

CHARRUE, Jean-Michel (1978): *Plotin, lecteur de Platon*, Société d'Édition “Les Belles Lettres”, Paris.

- CROCE, B. (1979): *Breviario de estética*, Espasa-Calpe, Madrid.
- DÁVILA BALSERA, Paulí (1993): *La profesión del magisterio en el País Vasco (1857-1930)*, UPV, Donostia.
- DIÈS, A. (1972): *Autour de Platon*, Société d'Édition "Les Belles Lettres", Paris.
- DURKHEIM, Emile (1993): *Hezkuntza eta soziologia*, Klasikoak, Bilbo. (Paulo Iztueta ren itzulpena).
- ECHAIDE, Ana Maria (1984): "La unificación del euskera literario y el Erizkizundi irukoitza" (Hitzaurrea), *Erizkizundi irukoitza*, Iker-3, Euskaltzaindia, Bilbo, 231-239 orr.
- EIZAGIRRE, Jose (1928): "Orixe, en el Ateneo", *Euzkadi*, 27-11-1928.
- ETXEBERRIA MURUA, P. (1980): *Zaldibiako bokalen azterketa akustikoa*, EUTG, Donostia.
- ETXEGARAI, K. (1913): "Origen de la música popular vascongada y sus relaciones con la métrica (Prólogo a un estudio de Don Francisco Gascue)", *RIEV*, X, 1-27 orr.
- ETXEZARRETA, Miren (1977): *Euskal baserriaren oraina eta geroa*, EFA/Jakin, Oñati.
- FAGOAGA, Isidoro (1950): "Unamuno, ¿fue vascófilo o vascófono", *Gernika*, 12, 9-16 orr.
- FICINO, Masilio (1986): *De amore*, Tecnos, Madrid.
- GARMENDIA, Yon (1965): "Orixe ta Bedayo'ko txistularia", in Euskaltzaindia: *Orixe. Omenaldi*, Donostia, 45-52 orr.
- GASKUE, F. (1919): "Nuestra música popular", *RIEV*, X, 28-38 orr.
- GAVEL, H. (1919): "Necesidad de una lengua literaria y oficial y la unificación de la ortografía vasca" (Memoria presentada al Congreso de Oñate, 1918), *RIEV*, X, Donostia, 137-142 orr.
- (1949): "A propos de la transcription d'un son de la langue basque", *Gernika*, 9, Donibane Lohizune, 5-9 orr.
- GOENAGA, Patxi (1991): "Orixeren gramatika-lanez", in *Idazlan Guztiak*, IV, 537-553 orr.
- GRUBE, G.M.A. (1973): *El pensamiento de Platón*, Gredos, Madrid.
- HUALDE, I. (1989): "Acentos vizcaínos", *ASJU*, XXIII-1, 275-327 orr.
- HUISMAN, Dénis (1967): *Esthétique*, PUF, Paris.

- IBARZABAL, Eugenio (1977): *Koldo Mitxelena*, Ediciones Vascas, Donostia.
- IBINAGABEITIA, Andina (1965): “Orixe euskaratzalle”, in *Euskaltzaindia: Orixe. Omenaldi*, Donostia, 87-118 orr.
- IRANZO, J. E. (1950): “Unamuno y el vascuence”, *Gernika*, 12, 9-16 orr.; 18, 1952, 29-31 orr.
- IRAOLA, R. (1980): “Bertsoak ulertzeko”, *Jakin*, 14-15, 52-59 orr.
- IZTUETA, Paulo (1988): *Quito'on arrebarekin irakurriz*, Etor/Eusko Jaurlaritza, Donostia.
- JEMEIN, Zeferino (AMANDARRO) (1930): “Idazki Agirija”, *Euzkerea*, 13, 1, 269-271 orr.
- KANPION, A.; BROUSSAIN, P. (1922): “Informe de los señores académicos A. Campión y P. Broussain a la Academia de la Lengua Vasca sobre la unificación del euskera”, *Euskera*, III, Bilbo, 4-17 orr.
- KINTANA, Xavier (1985): “Euskararen batasuna”, in INTXAUSTI (zuz.): *Euskal Herria. Errealitate eta egitasmo. Realidad y proyecto*, I, EFA/Jakin, Oiartzun, 449-456 orr.
- LAFITTE, Pierre: “Nicolas de Ormaechea itzali zaiku”, *Herria*, 1961-08-17.
- LARRASQUET, J. (1928): *Action de l'accent dans l'évolution des consonnes, étudiée dans le Basque Souletain*, Vrin, Paris.
- LASA APALATEGI, Jose (1971): *Euskal erria eta Ikastola (Una polémica en torno a la Ikastola)*, Edili, Donostia.
- LEKUONA, Manuel (1918): “Métrica vasca”, in *Idaz-lan guztiak*, I, Aozko literatura, Kardaberaz bilduma 22, Librería Técnica de Difusión, Tolosa, 1975, 131-157 orr.
- (1930): “La poesía popular vasca”, *ibid.*, 187-257 orr.
- (1935): Literatura oral vasca, *ibid.*, 259-540 orr.
- (1965): “Orixe'ren metrika”, in *Euskaltzaindia: Orixe. Omenaldi*, Donostia, 209-234 orr.
- LEKUONA, Joan Mari (1980): “Bertsoen metrika”; *Jakin*, 14-15, 60-79 orr.
- LIZARDI (1972): *Hitz-Lauz*, Edili, Donostia.
- MENÉNDEZ PELAYO, Marcelino (1974): *Historia de las ideas estéticas en España*, C.S.I.C., Madrid.

- MITXELENA, Koldo (1954): “Orixe gure artean”, *Egan*, 2-4, 3-4 orr.
- (1958): “Nicolás Ormaetxea Euskaltzaindian sartzean”, *Euskera*, III, 36-44 orr.
- (1961): “Orixe-ren eriotzean”, *Egan*, 4-6, 157-163 orr.
- (1965): “Atarikoa”, in *Euskaltzaindia: Orixe. Omenaldi*, Donostia, 5-9 orr.
- MUJIKA, L. M. (1985): *Euskal lirika tradizionala*, Haranburu, Donostia.
- (1990): “Sinbolismoa eta eraginak Orixe-ren poesian”, in L. M. MUJIKA (zuz.): *Orixe-ren aportazio literarioak*, EHU, Argitalpen Zerbitzua, Donostia, 47-94 orr.
- NAVAL, F. (1955): *Ascética y mística*, Editorial Cocusa, Madrid.
- NAVARRO TOMÁS, T. (1825): “Pronunciación Guipuzcoana. Contribución a la fonética vasca”, in *Homenaje a Menéndez Pidal*, III, Madrid, 593-653 orr.
- (1926): “Sobre la entonación y acentos vascos”, *RIEV*, XVII, Donostia, 404-406 orr.
- ONAINDIA, Santi (1964): *Gure bertsolariak*, Gr. Bilbao.
- ORTEGA Y GASSET (1983): “Los hermanos Zubiaurre”, in *Obras Completas*, II, Madrid.
- ROBIN, Léon (1964): *La théorie platonicienne de l'amour*, PUF, Paris.
- SAN JUAN DE LA CRUZ (1980): *Obras Completas*, Editorial de Espiritualidad, Madrid.
- TOVAR, Antonio (1954): *La lengua vasca*, Biblioteca Vascongada de los Amigos del País, San Sebastián.
- TXILLARDEGI (1972): “Orixe”, *Zeruko Argia*, 500, 1972-10-01.
- (1978): *Euskal gramatika*, Ediciones Vascas, Donostia.
- UGALDE, Martín (1979): *Unamuno y el vascuence*, Ediciones Vascas, Donostia.
- UNAMUNO, Miguel (1886): “Del elemento alienígena en el idioma vasco”, in *Obras Completas*, VI, Aguado, Madrid, 1958, 107-138 orr.
- (1886): “Más sobre el vascuence”, *ibid.*, 139-143 orr.
- (1901): “Discurso en los Juegos Florales celebrados en Bilbao el día 26 de agosto de 1901”, *ibid.*, 290-318 orr.

- (1902): “La cuestión del vascuence”, *ibid.*, 551-581 orr.
- (1905): “La crisis actual del patriotismo español”, *ibid.*, 143-146 orr.
- URBELTZ, Juan Antonio (1978): *Dantzak*, Lan Kide Aurrezkia, Donostia.
- URQUIJO, Julio (1919): “Estado actual de los estudios relativos a la lengua vasca”, *Congreso de Estudios Vascos*, I, Oñate, 1918), Eusko Ikaskuntza, Bilbo, 403-427 orr.
- (1920): *Lengua internacional y lenguas nacionales. El euskera lengua de civilización*, Bilbaína de Artes Gráficas, Bilbo.
- XARRITTON, P. (1985): *Pierre Broussain. Sa contribution aux études basques (1895-1920)*, Centre National de la Recherche Scientifique, Paris.
- (1986): *Resurrección María de Azkue eta Piarres Broussain-en arteko elkarridazleta*, Iker-4, Euskaltzaindia, Bilbo.
- ZABALA ARANA, J. (MUTIJONDO) (1930): “Orixe’kerijak”, *Euzkerea*, XIV, 286 or.
- ZUAZO, Koldo (1988): *Euskararen batasuna*, Iker-5, Euskaltzaindia, Bilbo.
- (1988): “Euskararen batasunaz gogoeta zenbait”, *Jakin*, 49, 99-122 orr.
- ZUBIAUR, J. R. (1982): “Fonetika. Fonologia”, in *Hizkuntzalaritza*, I, UZEI, Donostia.

BILA

BILDUMA

1. Paulo Iztueta: *Euskal irakaskuntza Autonomi Aroan (1983-1994)*, 2000
2. Paulo Iztueta: *Hezkuntza, hizkuntza eta boterea Euskal Herrian*, 2000
3. Paulo Iztueta: *Erbesteko euskal pentsamendua*, 2001
4. Ander Iturriotz: *Boterea gizarte homerikoan*, 2002
5. Paulo Iztueta: *Orixe saiogilea*, 2003
6. Paulo Iztueta: *Orixe auzitan*, 2003